

**2008-2011ko GARAPEN LANKIDETZARAKO GIDA
PLAN ESTRATEGIKOA**

EUSKO JAURLARITZA
Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila

AURKIBIDEA

I. modulua: Nazioarteko lankidetzaren giza garapen iraunkorraren agendan

1.- Munduan desberdintasunak eta kalteberatasuna areagotuz.....	5
2.- Nazioarteko agenda berria, giza garapen iraunkorra eta multilateralismo aktibo berria ardatz dituen: lankidetzaren egiteko.....	15
3.- Eusko Jaurlaritzak bultzatutako lankidetzaren Gida Plan Estrategikorako erronkak.....	23

II. modulua: Gida Plan Estrategikoa

Planaren Helburu Orokorra	31
I. jarraibidea: Eusko Jaurlaritzak bultzatutako lankidetzarako ereduaren esparru teorikoa zehaztea	37
II. jarraibidea: Geografia-inpaktua kontzentratzea, modu planifikatu eta koordinatua	91
III. jarraibidea: Eusko Jaurlaritzak bultzatutako lankidetzaren lehentasuneko eragileei babes instituzionala ematea	101
IV. jarraibidea: Lankidetzaren tresnez osatutako esparru koherentea diseinatzea.....	113
V. jarraibidea: Giza ekintzaren aldeko politika koherentea finkatzea, epe luzerako garapena ahalbidetzeko	122
VI. jarraibidea: Garapenerako Hezkuntzaren inpaktua aurrera egitea	133
VII. Jarraibidea: Eusko Jaurlaritzaren lankidetzarako aurrekontua nabarmen handitzea, 2012an % 0,7 lortzeko helburua ezarri.....	143
Helburuen, Jarraibideen eta Adierazleen Sistema.....	148

III. modulua: Planaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko sistema

1.- Helburu, Jarraibide eta Adierazleen sistema.....	149
--	-----

I. NAZIOARTEKO LANKIDETZA GIZA GARAPEN IRAUNKORRAREN AGENDAN

1.- Munduan desberdintasunak eta kalteberatasuna areagotuz

1.1.- Giza Garapen Iraunkorra, lehentasun politikoa

Gizateriak erronka nagusi bat du, klimari, politikari, ekonomiari eta gizarte-arloari dagokienez, geroz eta kalteberatasun handiagoko dinamika desagertzea lortu nahi izanez gero, bederen. Hona hemen erronka hori: planetan bizi diren gizon, emakume eta herri guzti-guztien —bereziki, pobrezia-egoeran daudenen— askatasunak eta eskubideak bermatzea, baita guztien gaitasunak garatuko direla ere.

Horrekin loturik, gaur egun arazo global larriak ditugu: klima-aldaketa, nazioartean geroz eta gatazka gehiago, finantzaren eta produkzioaren arloetako krisiak, migrazio behartuak, giza eskubideen urraketak, partaidetzarako eta erabakiak hartzeko biderik eza, izaera fundamentalistak indartzea, eta abar. Baina arazo horiek ez dira fenomeno isolatuak; egungo garapen-ereduarekin zuzen-zuzenean loturik daude, ez baititu bermatzen gehiengo handien nahiz etorkizuneko belaunaldien eskubideak, ezta askatasunak ere. Aitzitik, eredu horrek munduaren egoera jakin bat eragin du; hain zuzen ere, honako hiru prozesu hauek —elkarrekiko lotura handia dutenak— bereizgarri dituen egoera: kalteberatasuna, desberdintasunak eta pobrezia.

Beraz, goian aipatu ditugun egiturazko arazoei modu eraginkor eta egiazkoan aurre egiteko bide bakarra hau da: hasieran aurkeztu dugun oinarritzko premisa —giza garapen iraunkorra nazioarteko komunitatearen lehentasunezko helburutzat ezartzea— geure egitea eta horren arabera jardutea —kalteberatasun, desberdintasun eta pobreziarekin loturiko egoerari lehentasunez aurre eginez, ikuspegi sistemiko eta integraletik begiratuta—. Alabaina, epe motzean bestelako ikuspegiei lehentasuna emateagatik, giza garapen iraunkorra bigarren mailako egitekotzat jotzen duten, edo egoeraren araberrako konpromiso partzialak hartzea proposatzen duten politika eta ekimenek *ondorioetan* soilik eragingo dute (eragin mugatua izan ere), baina ez egun bizi dugun egoeraren *arrazoietan*.

Horrela, bada, borondate politiko argia behar da, giza garapen iraunkorra nazioarteko agendaren epizentro bihurtuko duen borondate politikoa, alegia. Agenda horretan, Iparrak eta Hegoak, iparraldeek eta hegoaldeek erantzunkideak izan behar dugu. Ildo beretik, garapen-maila desberdinak prozesu beraren barruko erlazioen ondorio izan dira, eta prozesu horretan, Iparrak erantzukizun handia du (kolonialismoa, mendekotasun, egituren egokitzapena, zor ekologiko eta historikoa, eta abar). Baina horretaz gain, erantzunkidetasun hori are larriagoa da gaur egungo egoeran. Lehen aipatu ditugun pobrezia, desberdintasunaren eta kalteberatasunaren prozesuekin

batera, badu beste ezaugarri bereizgarri bat: eskualde, herrialde, herri eta pertsonen arteko *elkarrekiko mendetasun* handia. Adibide batzuk aipatzearen, atmosferara karbono dioxidoa isurtzeak, burtsetako krisiek, produkzioaren deslokalizazioak, edo elikagai transgenikoak orokortzeak inpaktu globala dute, baina ez da estatu-nazioen esparrura soilik mugatzen; planeta osoan eragiten ditu inpaktuak eta erantzukizunak, baita *ondasun publiko global* berriak ere¹. Hortaz, egungo testuinguruaren erronka berri horiek aintzat hartuta, are premiazkoagoa da horiei aurre egitea, modu zuzen, bateratu, orekatu eta bidezkoan.

Tamalez, **nazioarteko egungo agendak** —eta agenda hori oinarritzen den garapenereduak— ez du bere egin aurreko paragrafoan aipatu dugun premisa. Hori horrela izanik, giza garapen iraunkorra ez da lehentasun izan, eta horren ondorioz, eta hurrengo atalean ikusiko dugunez, azken helburuak betetzen eraginkortasun txikia izan da: guzti-guztiantzako askatasunak eta aukerak sortzeko helburua alde batera utzi, eta hazkunde makroekonomikoari ekin zaio, baina geroz eta jende eta herri gutxiago dira hazkunde horren onuradun.

1.2.- Nazioarteko errealitatea Giza Garapen Iraunkorraren aldeko apustuaren aurrean

Irabazi-tasa handitzeko helburuak egituratu du globalizazio neoliberalaren egungo fasea —70eko hamarkadatik gaur arte—, herrialde eta sektore berrietan merkatu berriak sortuz eta horietarako sarbidea erraztuz. Horrela, bada, garraioan eta komunikazioan izandako aurrerapen teknologikoak baliatuta, errezeta ekonomiko berriak sortu ziren: pribatizazioa; desarauketa; finantzaren, produkzioaren eta lanaren arloetako merkatuak liberalizatzea; sektore berriak —nekazaritza, zerbitzuak, kultura, bizitza, eta abar— merkantilizatzea. Mundu osoan oinarritutako merkatu horiek sortzearen ondorioz, eta aipatutako neurriak aplikatzearen ondorioz, prozesu ekonomiko berria sortu da; prozesu berri horretan, kontzentrazioa eta zentralizazioa handiagoa da eta kate ekonomiko global handiak sendotzen ditu. Enpresa transnazionalak izaten dira kate handi horien buru. Nazioarteko finantza-organismoen babesa izaki, enpresa horiek nazioarteko ordena berri bat eragin dute eta ordena horretan boterea sakabanatu egiten da enpresa pribatu, estatu eta organismo multilateralen artean; horren ondorioz, subiranotasunaren eta herritartasunaren kontzeptuak berriz definitu behar izan dira.

Neurri horiek eragin handia izan dute giza garapen iraunkorrari dagokionez: langabezia eta azpienplegua hazi dira; herrialde pobretu gehienetan, produkzio-sareak desegituratu egin dira, ahalmen handiagoko eragileekin lehiatu behar izan dutenez; gehiago sozialen erosteko ahalmena murriztu egin da; ondasun naturalak xahutu egin dira, epe motzeko irabazi indibidualaren izenean; estatuen esku-hartzeko eta birbanatzeko gaitasuna murriztu egin da, herritarrek zuzenean aukeratu ez dituzten erakundeei, baita demokratikoak ez diren erakundeei ere, subiranotasuna emanaz. Azken batean, eta prozesu honen emaitzak aztertuko ditugunean zehatzago aztertuko dugunez, kasu askotan, aurrera egin beharrean atzera ere egin dugu eta ez dugu lortu mundu osoko emakumeen, gizonen eta herrien aukerak, eskubideak eta askatasunak sustatzen dituen eredu baten pean bizitzea.

Beste gai bati helduta, eta globalizazio neoliberalak abiarazi dituen prozesu horiek geroz eta gehiago sendotzen diren bitartean —giza garapen iraunkorraren

kontzeptuaren printzipio eta balioekin kontrajarrita—, nazioarteko komunitateak garapen-helburu jakin batzuk definitu ditu azken hamarkadatan, nazioarteko goibileratan hartutako erabakien bidezⁱⁱ. 2000. urtean Milurtekoko Adierazpenean ezarritako konpromisoak nabarmendu behar dira bereziki; hona hemen zein helburu proposatu ziren:

1. Muturreko pobrezia eta gosea ezabatzea.
2. Lehen hezkuntza unibertsala lortzea.
3. Generoen arteko berdintasuna eta emakumearen autonomia sustatzea.
4. Haurren heriotza-tasa murriztea.
5. Amen osasuna hobetzea.
6. GIB/HIESari, paludismoari eta beste gaixotasun batzuei aurre egitea.
7. Ingurumenaren iraunkortasuna bermatzea.
8. Garapenaren aldeko itun globala sendotzea.

Alde batetik, helburu horiek —Milurtekoko Helburuak— balio handia dutela ukaezina da; izan ere, lehen aldiz, xede eta adierazle argi, ebaluagarri eta egiaztagarriak ezarri baitira data jakin baterako —2015erako— eta helburu bakoitzerako. Gainera, oinarrizko premia sozialekin, eta beraz, giza garapen iraunkorrarekin lotura estua duten sektoreei dagozkie. Baina beste alde batetik, Milurtekoko Helburuak kritikatu ere egin dira, hainbat arrazoiengatik: lehenik, ez dituztelako barnean hartzen giza garapen iraunkorraren kontzeptua kateatzen duten alderdi guztiak —ekonomikoa, politikoa, kulturala, soziala, ekologikoa, generoari dagokiona—, eta eremu espezifiko jakin batzuk dituelako ardatz; bigarrenik, adierazleak eta xedeak nahitaezkoak izan beharrean adierazgarriak baino ez direla aipatu izan da, eta beraz, ez direla nahitaez bete behar. Orduan, herrialdeek aukeran dute adierazle eta xede horiekiko konpromisoa hartu edo ez hartu. Eta gainera, ez dago erakunde multilateralik konpromiso horiek bete daitezen exijitzeko ahalmena duenik, ezta betetzen ez dituztenak zigortzeko ahalmena duenik ere; hirugarrenik, erantzukizuna soilik estatuen gain geratu da, pobrezia eta garapena fenomeno sistemikoak direla ahaztuta, eta modu globalean egin behar zaie aurre, ez estatuaren esparrutik soilik.

Laburbilduz, nazioarteko egungo agendan bi joera daudela esan dezakegu, eta biak ere tentsio dialektikoan daude. Alde batetik, globalizazio neoliberalaren eredu indartzeko joera. Eredu horretan, egoeraren araberrako analisiak lehenesten dira egiturazko analisien ginetik, diagnostiko partziala sistemikoaren ginetik, ondorioak arintzea arrazoietan eragitearen ginetik, eta etekin ekonomikoa garapenaren ginetik. Bestetik, giza garapen iraunkorra protagonista nagusi bihurtu nahi duen ikuspegia dago, baina konpromiso ez-lotesle eta partzialen bidez. Zeintzuk dira tentsio dialektiko horren emaitza zehatzak?

Erantzuna argi eta garbi dago: garapenaren zenbait eremutan aurrerapenak izan diren arren, agerian geratu da egungo agenda ez dela gai giza garapen iraunkorraren erronkari aurre egiteko, eta horretaz gain, ondorio sistemiko biziki larriak eragin dituela eta oraindik ez diegula aurre egin horiei. Hari berari tiraka, eta atal honen hasieran aipatu dugun ideiarri berriz helduta, honako hauek ez dira gure egungo garapenereduaren ezaugarri: eskubide indibidual eta kolektiboak modu orokorrean baliatzea, ezta giza segurtasunerako bermea ere. Aitzitik, egungo nazioarteko testuingurua definitzen duten aldagaiak oso bestelakoak dira: *pobrezia, desberdintasunak eta kalteberatasuna*.

Hiru osagai horiek elkarren osagarri dira eta elkarri lotuta daude, eta ez bazaie denei batera aurre egiten, egiturazko inpaktu-espiralak sor daitezke, baina oso negatiboak eta denboran asko irauteko modukoak. Hori horrela izanik, pobrezia eta desberdintasunen ondorioz kalteberatasun-egoera orokortua —ingurumenari, politikari, ekonomiari eta abarri dagokionez— sor daiteke. Aldi berean, kalteberatasun geroz eta handiagoak ondorio sakonagoak ditu pobrezia-egoeran dauden sektoreetan, bere burua elikatzen duen sorgin-gurpilaren barruan.

1.2.1.- Pobrezia, egungo garapen-ereduaren egiturazko fenomeno

Hain justu **pobrezia** da, gaur egun, indarreko garapen-ereduaren fenomeno larriena eta eredu horri loturik dago, egiturazko loturen bidez. Beraz, eta pobrezia alderdi ekonomikoa soilik aintzat hartuta, esan dezakegu mundu osoko biztanleen ia erdia (hain zuzen ere, 2.600 milioi pertsona baino gehiago) egunean bi dolar baino gutxiagoko diru-sarrerekin bizi dela. Horietatik, 1.400 milioi pertsonatik gora muturreko pobrezia-egoeran bizi dira, ez baitute egunean dolar bat ere izaten bizitzeko.

Pobrezia, eskualdeka

Egunean dolar bat baino diru gutxiagorekin bizi direnen ehunekoa (%)								
	1981	1984	1987	1990	1993	1996	1999	2002
Ekialdeko eta Pazifikoko Asia	57,7	38,9	28	29,6	24,9	16,6	15,7	11,6
Txina	63,8	41	28,5	33	28,4	17,4	17,8	14
Europa eta Erdialdeko Asia	0,7	0,5	0,4	0,5	3,7	4,3	6,3	2,1
Latinoamerika eta Karibea	9,7	11,8	10,9	11,3	11,3	10,7	10,5	8,9
Ekialde Ertaina eta Afrikako Iparraldea	5,1	3,8	3,2	2,3	1,6	2	2,6	1,6
Asiako Hegoaldea	51,5	46,8	45	41,3	40,1	36,6	32,2	31,2
Saharaz azpiko Afrika	41,6	46,3	46,8	44,6	44	45,6	45,7	44
Guztira	40,4	32,8	28,4	27,9	26,3	22,8	21,8	19,4
Txina alde batera utzita	31,7	29,8	28,4	26,1	25,6	24,6	23,1	21,1

Egunean bi dolar baino diru gutxiagorekin bizi direnen ehunekoa (%)								
Ekialdeko eta Pazifikoko Asia	84,8	76,6	67,7	69,9	64,8	53,3	50,3	40,7
Txina	88,1	78,5	67,4	72,6	68,1	53,4	50,1	41,6
Europa eta Erdialdeko Asia	4,7	4,1	3,3	4,9	17,2	20,7	23,8	16,1
Latinoamerika eta Karibea	26,9	30,4	27,8	28,4	29,5	24,1	25,1	23,4
Ekialde Ertaina eta Afrikako Iparraldea	28,9	25,2	24,2	21,4	20,2	22,3	24,3	19,8
Asiako Hegoaldea	89,1	87,2	86,7	85,5	84,5	81,7	78,1	77,8
Saharaz azpiko Afrika	73,3	76,1	76,1	75	74,6	75,1	76,1	74,9
Guztira	66,7	63,7	60,1	60,8	60,2	55,5	54,4	50
Txina alde batera utzita	58,8	58,4	57,5	56,6	57,4	56,3	55,8	52,7

Iturria: Munduko Bankua, Munduko garapenaren adierazleak 2006

Zenbait eskualdetako egoera bereziki larria da, hala nola, Saharaz azpiko Afrikakoa. Afrikako lau gizon-emakumetatik hiru pobreak dira, eta ehuneko hori 80ko hamarkadakoa baino handiagoa da. Aldi berean, pobre horietatik ia % 60 muturreko pobrezian bizi dira, gutxieneko duintasun-mailarekin bizitzeko ezinbestekoa ere izan gabeⁱⁱⁱ. Bestalde, Asiako Hegoaldean Afrikan baino bilakaera positiboagoa izan den arren, biztanleria pobrearen ehuneko antzekoa da.

Zenbateko horiek ikusita, esan gabe doa garapen-politikek porrot egin dutela pobrezia desagerrarazteko ahaleginetan. Gaur egun, hain justu, *Milurtekoko Helburuak* betetzeko erdiko puntuan gaude; izan ere, helburu horiek bat baitatoz ahalegin horiekin. Goian esan dugunez, helburu horiek ezarrita, xede zehatz, kuantifikagarri eta ebaluagarriak ezarri dira lehen aldiz. Hortaz, 2015. urtean bakoitzaren esfortzuak eta konpromisoa neurtu ahal izango dira, helburu horien betetze-mailari dagokionez.

2007. urtean, Nazio Batuek txosten bat egin zuten Milurtekoko Helburuen Betetze-mailari dagokionez, eta txosten horren arabera, etorkizuna ez da oso itxaropentsua. Badirudi ezarritako zenbait helburu —muturreko pobrezia erdira murriztea— lor daitezkeela, edo beste zenbait helburutan —haurren eskolatzeta, paludismoaren eta tuberkulosiaren eragina murriztea— aurrerabide handia egin dela, baina hala ere, beste erronka batzuk ukitu ere egin gabe geratu dira, Milurtekoko Helburuekiko konpromisorik ez hartzeagatik: milioi erdi emakume baino gehiago hiltzen dira urtero haurdunaldian eta erditzean arazoak izateagatik (arazo horiei aurrea hartzeko eta tratamendu egokia jasotzeko aukera badagoen arren); pisu normala baino gutxiago pisatzen duten haurren proportzioa erdira murrizteko helburua ez da beteko 30 milioirengatik, termino agregatuetan, baldin eta egungo bilakaerari eusten bazaio; 2006an, 2,9 milioi pertsona hil ziren HIESak jota; herrialde pobretuetako biztanleriaren erdiak baino gehiagok ez du saneamenduko oinarritzko elementurik; gazte langabetuen tasa helduena baino hiru aldiz handiagoa da; eta karbono dioxidoaren emisioak areagotu egin dira (2004an 29.000 milioi tona).

Gainera, datu agregatuaren atzean desberdintasun oso esanguratsuak ezkututzen dira. Berrito ere Saharaz azpiko Afrikan MHen betetze-maila krisi larrian dago. Egungo bilakaerari eutsiz gero, 2015. urterako ezarritako helburuetatik bat bera ere ez da beteko.

Beraz, Betetze-mailari buruzko Tarteko Txosteneko datu horiei erreparatuta, argi eta garbi ikusten da egungo joerei eutsiz gero, Milurtekoko Helburuek porrot egingo dutela, eta horren ondorioz, baita pobrezia aurka egiteko nazioarteko estrategia nagusiak ere. Nazio Batuen ustez, urtero 30.000 milioi dolar gehiagoko ahalegina egin behar da ezarritako helburuak bete nahi izanez gero, bederen. Zenbateko hori, esaterako, gastu militarretako urteko gutzizkoa baino 30 aldiz txikiagoa da. Hala ere, garapenerako laguntza ofizialak behera egin du, oro har, 2006an eta 2007an.

Baina pobrezia termino agregatuetan, eskualdeen arabera eta MHen^{iv} arabera aztertzeaz gain, indarrean dagoen garapen-ereduak pobrezian duen inpaktu generoaren arabera aztertzea ere interesgarria izan daiteke. Azken hamarkadatan, fenomeno nabarmenetako bat *pobrezia feminizazioa* izan da. Pobrezian bizi direnen % 70 landa-eremuan bizi dira, eta landa-eremuko pobreen % 70 emakumeak dira. Zerk eragiten du hori? Globalizazio neoliberalaren ondorioei —bazterketa, desberdintasunak, kalteberatasuna—, sistema patriarkalak emakumeengan eragiten duen eragina gehitu behar zaie; izan ere, kultura guztiak sistema patriarkal horren arabera baitira eta gizonei emakumei baino balio handiagoa ematen die, gizon

izate hutsagatik. Hori dela-eta, diskriminazio bikoitza jasaten dute emakumeek, emakume izate hutsagatik. Beraz, garapen-maila jaitsi egiten bada, emakumeak dira horren ondorioak pairatuko dituzten lehenak: elikadura mugatzea, eta osasunari eta hezkuntzari arretarik ez ematea. Horretaz gain, lan-karga —ordaindua eta ordaindu gabea— areagotu egin zaie, baina gizonengan ez da berdina gertatzen.

Baina pobrezia ez da diru-sarrerarik eza edo gizarte-premiak izatea, baizik eta bizimodu duina izatea eragozten duen guztia; horrela, bada, eta aurreko guztia gutxi balitz, emakumeak are gehiago pobretu dira baita pertsona eta emakume gisako eskubideetan ere: politikan parte hartzeko ahalmena mugatua dute; izaera fundamentalistak emakumeen eskubide espezifikoiei, bereziki, egiten diete kalte eta eskubide unibertsalak soilik baliatzeko aukera dute; eta abar.

Ondorio gisa, zera esan dezakegu: pobrezia kontzeptua hainbat ikuspegitatik begiratuta aztertu ostean, gaur egun, pobrezia-egoeran daudenen eta egungo sistematik at geratzen direnen zenbatekoak —absolutuak eta ehunekoak— onartezinak dira. Ezin dugu aipatu gabe utzi eskualde jakin batzuen egoera; esaterako, Saharaz azpiko Afrika eta Asia Hegoaldea egoera kritikoa daude eta egoera horri aurre egin behar zaio, inolako zalantzarik gabe. Amaitzeko, emakume pobreen ahalduzko prozesuei babes handiagoa eman behar zaie, emakumeek jasaten duten diskriminazio bikoitza desagertze aldera.

1.2.2.- Desberdintasunak, kalteberatasun-aldagaia

Gure munduari argazkia aterako bagenio, honako ezaugarri hauek izango lituzke: biztanleriaren bolumen oso handia pobrezia-egoeran bizitzeaz gain, baliabideak eta aukerak oso modu desorekatuan —eta gero eta desorekatuagoan— banatuta daude.

Horrela, bada, **desberdintasunak** dira gure garapen-eredua definitzen duen bigarren fenomenoak. Jende eta herri pobreak ez dira pobre termino absolututan soilik; gero eta pobregokoak dira termino erlatibotan ere, jende eta herri aberastuekiko alde geroz eta handiagoa da-eta.

Diru-sarreraren aldagaia soilik hartuta —nazioarteko datu agregatuekin—, eta Munduko Bankuaren datuen arabera, desberdintasunak (termino globaletan) modu esponentzian handitu dira azken hamarkadetan. 1950. eta 1980. urteen artean, Gini indizea —desberdintasun-maila neurtzeko erabiltzen da: zero desberdintasun-maila txikiena, bat desberdintasun-maila handiena— 0,43tik 0,46ra hazi zen, eta hurrengo bi hamarkadetan, 0,46tik 0,54ra. Beraz, 1996. urtean, diru-sarrera handienak zituen biztanle-sektorearen % 5aren diru-sarrerak 16 aldiz handiagoak ziren baliabide gutxien zituzten munduko % 20arenak baino; aldiz, 1950. urtean proportzio hori 7tik 1ekoa zen.

Desberdintasunen ezaugarri horri sakonago erreparatuta, eta munduko herrialdeen egoera BPGaren arabera aztertuz gero, Munduko Bankuari jarraiki, herrialde aberastuen kopurua gero eta txikiagoa da baina herrialde oso pobretuen zenbatekoa etengabe hazi da.

Desberdintasunak munduan 1960-1998		
Herrialde multzoak, errenta-mailaren arabera	Multzo horretako herrialde kopurua, 1960	Multzo horretako herrialde kopurua, 1998
Herrialde "aberatsak"	41	29
Herrialde "izangaiak"	22	11
"Hirugarren Munduko" herrialdeak	39	19
"Laugarren Munduko" herrialdeak	25	78

Herrialde "aberatsak": Japoniak, Mendebaldeko Europak, Ipar Ameriak eta Ozeaniak osatzen duten multzoko herrialde pobreenaren per capita BPGaren berdina edo handiagoa

Herrialde "izangaiak": herrialde "aberatsen" artetik pobreenaren per capita BPGaren 2/3 gutxienez

"Hirugarren Munduko" herrialdeak: herrialde "aberatsen" artetik pobreenaren per capita BPGaren 1/3 eta 2/3 artean

"Laugarren Munduko" herrialdeak: herrialde "aberatsen" artetik pobreenaren per capita BPGaren 1/3 baino gutxiago

Baina horretaz gain, eta pobrezia bezalaxe, desberdintasunak ez dira handitu termino agregatutan soilik, baizik eta termino geografikotan ere ez dira modu orekatuan banatzen. Hurrengo taulan ikus dezakegunez, diru-sarrerren mailari dagozkion desberdintasunak oso esanguratsuak dira Ekialdeko Asian; eskualde horretan, biztanle pobreenen sektorearen kontsumo-gaitasuna nabarmen murriztu da. Bestalde, desberdintasun nabarmenenak Saharaz azpiko Afrikan, eta bereziki, Latinoamerika eta Karibearen gertatzen dira; Karibea da planeta osoan desberdintasun-maila handieneko eskualdea, kintil pobreenak BPG totalaren % 3ko diru-sarrerak baino ez baititu.

Biztanleriaren kintil pobreenari dagokion kontsumo nazionalaren proportzioa. (%)

	1990	2004
Saharaz azpiko Afrika	3,4	3,4
Hegoaldeko Asia	7,2	6,7
Ekialdeko Asia	7,1	4,5
Latinoamerika eta Karibea	2,8	2,7
Hegoekialdeko Asia	6,2	6,1
Mendebaldeko Asia	5,9	5,4
Iparraldeko Afrika	6,2	6,3
Trantsizio-ekonomiak		
Hegoekialdeko Europan	8,3	7,8
EBE	7,9	6,2
Garapen-bidean dauden eskualdeak	4,6	3,9

Milurtekoko Garapen Helburuak, 2007ko txostena

Bukatzeko, emakumeen eta gizonen arteko erlazioan ere bereizgarri izaten dira desberdintasunak. Aukeren eta emaitzen desberdintasunak garapenaren eremu guztietara zabaltzen dira: osasunerako sarbidean, hezkuntzan, elikaduran, baliabide eta aukera ekonomikoetarako sarbide eta kontrolean, ordaindu gabeko ugalketa-lanaren banaketan, parte hartzeko gaitasunean eta erabakiak hartzeko eta eragiteko gaitasunean, baita eskubide indibidual eta kolektiboen baliatzean eta sustapenean ere.

Emakumeek parlamentu edo beheko ganberatan betetzen dituzten jarlekuen proportzioa (%)		
	1990	2007
Saharaz azpiko Afrika	7	17
Hegoaldeko Asia	6	13
Ekialdeko Asia	20	19
Latinoamerika eta Karibea	12	20
Hegoekialdeko Asia	10	17
Mendebaldeko Asia	5	8
Iparraldeko Afrika	3	8
Eskualde garatuak	16	22
EBE		12
Ozeania	1	3
Mundua	13	17

Milurtekoko Garapen Helburuak, 2007ko txostena

Jendearen eta herrien, aberatsen eta pobreen arteko munduko desberdintasunak prozesu bat dira; hain zuzen ere, egiturazko prozesu etengabea, diru-sarrerei dagokiona, baina horretaz gain, gizarte-zerbitzuetarako sarbidearekin, erabakiak hartzeko gaitasunarekin eta eskubide zibil eta politiko, sozial, ekonomiko eta kulturalen baliatzearekin ere loturik dago.

Eta pobrezia-poltsekin batera, desberdintasun horiek dira egungo kalteberatasun-egoeraren eragile. Giza eskubideen nazioarteko esparruari jarraiki, eskubideen titular denak gara, baina biztanleriaren erdia inguru pobrea baldin bada eta aberatsak pobrengandik geroz eta urrunago baldin badaude; eta gainera, garapen-eredua ez bada gai ereduak berak eragiten dituen arriskuei —ingurumenari eta politikari dagokienez— modu sistemikoan aurre egiteko, sortuko den testuinguruan asaldura eta ziurgabetasuna izango dira nagusi.

1.2.3.- Kalteberatasun sistemikoa, giza garapen iraunkorraren aurrean

Lehen ere esan dugu egungo nazioarteko egoeraren ezaugarriak zeintzuk diren:

1. Biztanleriaren sektore oso garrantzitsuak pobrezia-egoeran bizi dira.
2. Pertsona, herrialde eta eskualde aberats eta pobreen artean desberdintasun handiak daude, eta areagotzen ari dira.

3. Prozesu beraren zati diren arren, garapen guztien artean elkarrekiko mendetasun handia eta zuzena, inpaktu globala eta sistemikoa izanik, eta ez soilik estatuaren eremuan.
4. Nazioarteko agendan hazkunde makroekonomikoari ematen zaio lehentasuna oraindik, biztanleen eskubide, betebeharrak eta aukerak indartzearen gainetik, eta garapen-ereduak eragiten dituen arazoei ez zaie errotik aurre egiten.
5. Ez dago nazioarteko erakunderik giza garapen iraunkorraren eremuan eskuduna denik, ikuspegi globaletik begiratuta. Aldi berean, estatu-nazioek eta horietatik sortutako erakunde multilateralek legitimazioa eta esku-hartzeko gaitasuna galdu dute.

Beraz, egoera horretan pobrezia, desberdintasun handiak eta elkarren gero eta mendetasun handiagoko sistema bat dira nagusi, baina ez dago ez borondate politikorik, ezta egitura globalik ere, garapen-erronka garrantzitsuenei aurre egiteko. Horrela, bada, gizateria eta planeta osoa **kalteberatasun**-egoeran egoteko esparru ezin hobea da.

Kalteberatasun hori ez da garapenaren eremu jakin batzuetan metatzen; aitzitik, gaur egun, *sistemikoa da* eta kontzeptuak atxikitzen dituen alderdi guzti-guztiak — ekonomikoa, soziala, politikoa, kulturala eta ingurumenari dagokiona— hartzen ditu barnean. Eta hain justu ingurumenaren alderdian sortu da alarma-egoera azken urteotan: bereziki herrialde aberastuen aldetik, atmosferara karbono dioxidoa isurtzearen ondorioz berotze-prozesu globala sortzen ari da. Prozesu hori gertatzen ari dela onartua dago, baita zientzialarien aldetik ere, eta inpaktu esanguratsuak ditu eta izango ditu giza garapen iraunkorrari dagokionez; herrialde pobreenetan eta etorkizuneko belaunaldietan eragingo du bereziki, baina planeta osoaren gain izango ditu ondorioak, 10 urte baino lehen arazo horri aurre egiten ez badiogu.


	CO ₂ EMSIOAK PER CAPITA (CO ₂ T) 2004	MUNDUKO CO ₂ EMISIO BALIOKIDEAK (CO ₂ GT) 2004	KARBONO AURREKONTU IRAUNKORREN ZENBATEKO BALIOKIDEA
MUNDUA	4,5	29	2
AUSTRALIA	16,2	104	7
KANADA	20,0	129	9
FRANTZIA	6,0	39	3
ALEMANIA	9,8	63	4
ITALIA	7,8	50	3
JAPONIA	9,9	63	4
HERBEHEREAK	8,7	56	4
ESPAINIA	7,6	49	3
ERRESUMA BATUA	9,8	63	4
ESTATU BATUAK	20,6	132	9

Iturria: Giza Garapenari buruzko Txostena 2007-2008

Gai berarekin jarraiki, **klima-aldaketa** gertatzen ari da, dagoeneko. 2007-2008ko Giza Garapenari buruzko Txostenaren arabera^v, temperaturak 0,7 °C igo dira munduan industria-aroa hasi zenetik, eta hazkunde horren tasa azeleratzen ari da. Klima-aldaketa arriskutsuaren atalasea 2 °C inguruko igoera da, baina XXI. menderako aurreikuspenetan, munduko tenperaturaren batez bestekoa 5 °C baino gehiago igo daiteke eta horrek ondorio suntsitzaileak izango lituzke, atzera egiteko aukerarik gabe.

Hori horrela dela, nazioarteko komunitateak klima-aldaketaren erronka konplexuari aurre egiteko duen gaitasuna kolokan dago. Izan ere, prozesu honen funtsezko lau ezaugarrietara egokitzen diren estrategia eta egitura ezarri behar ditugu; hona hemen lau ezaugarri horiek:

1. Prozesuaren ondorio metakorren eta inertiaren indar konbinatua: berotegi-efektua eragiten duten gasen emisioek luzaro irauten dute atmosferan. Gaur bertan esku-hartze azkarra egingo bagenu ere, 2030. edo 2050. urtera arte ez luke ondoriorik izango. Gainera, prozesua metakorra denez, ezin da analisi estatikorik egin eta estrategia dinamiko eta luzeak behar dira.
2. Presa: Emisio-murrizketan atzeratutako urte bakoitzeko gas-pilaketak handitu eta etorkizuneko tenperaturak gehiago igoko dira, atzera bueltarik izango ez duen prozesuan.
3. Klima-aldaketaren eskala sistemikoa eta mundu osokoa: Gasek gizateria osoaren gain eragiten dute, emisioak norik egiten dituen gorabehera. Hortaz, esfortzu globala eta bateratua egin behar dugu, guztioi eragiten digun kontua baita.
4. Erantzukizunak eta inpaktuak modu desorekatuan banatuta: Emisio gehienak herrialde aberastuetan gertatzen diren arren (herrialde guztiek aberastuen erritmo berari jarraituko baliete, 9 planeta beharko lirateke mundu osoko emisioak xurgatzeko), inpaktu larriena —klima-krisiari dagokionez— jende eta herrialde pobre eta kalteberenen gain izaten da. Horrela, bada, Iparraldeko herrialdeetan, urtaroen zikloetako aldaketa moduan sumatzen dute klima-aldaketa, baina Hegoaldeko herrialdeetan hasi dira inpaktu nabarmena igartzen zenbait eremutan, klima-krisien bidez: nekazaritzan produkzio txikiagoa lehorte eta uholdeengatik; deforestazio eta suteak; ur-eskasia; itsasoaren maila igoztearen ondorioz jendea lekuz aldatu beharra; hiri-inguruko zonetan bizi diren herritarren kalteberatasuna; lurreko espezieak desagertzea tenperatura igozteagatik, eta abar.



Beraz, ezinbestekoa da berehala eta irmotasun osoz jardutea, prozesua atzeraezina izatea nahi ez badugu. Esan dugun moduan, 2 °C-ko igoyeraren atalaseak egiazko arriskua ekar dezake eta giza garapenean atzerapen handia eragin dezake, eskala handian; halaber, hondamendi ekologiko atzeraezinak ere eragin ditzake. Ildo beretik, muga hori ez gainditzeko aukeren % 50 izan nahi badugu, berotegi-efektuko gasen emisioak egonkortu egin behar ditugu, karbono dioxidoaren 450 pmm inguruko kontzentrazioetan. Aldiz, XXI. menderako aurreikusitako egoeran, 750 ppm-tik gora egonkortuko dela ikus daiteke.

Orduan, presakako, ikuspegi metakorreko eta epe luzerako prozesu sistemiko horri aurre egin ahal izango al diogu gure garapen-ereduarekin? Izan ere, gure erduan ez da borondate askorik sumatzen giza garapen iraunkorraren gain eragiteko, analisietan epe motzeko ikuspegiarekin jokatzeko da, eta ez dago erakunde demokratikorik horrelako estrategia konplexuak gidatzeko gai denik eta horretarako eskumena duenik.

Gure ustez, tamalez, ez. Klima-aldaketa aukeratzat hartu behar dugu; hain zuzen ere, garapen-agenda berri bat eta erakunde global demokratiko berri bat antolatuzeko aukeratzat. Hurrengo atalean aztertuko dugu hori guztia.

2.- Nazioarteko agenda berria, giza garapen iraunkorra eta multilateralismo aktibo berria ardatz dituen: lankidetzaren egitekoa

2.1.- Garapen Agenda: printzipio berriak, eduki berriak, egitura berriak

Esan dugunez, egungo Nazioarteko Agendak ez du eragin handirik izan mundu osoko herritarrentzako askatasunak, aukerak eta gaitasunak orokortzeari dagokionez. Gainera, ez dauka beharrezko tresnarik, ezta estrategiarik ere, egungo egoeran nagusi diren erronka globalei —klima-aldaketari, giza segurtasun-ezari, pobrezia eta desberdintasunek eragindako kalteberatasun ekonomikoari— aurre egiteko.

Ezgaitasun horiek agendaren berezko ezaugarrien ondorioak dira, baita oinarrian duen garapen-ereduaren ezaugarrien ondorio ere:

1. Borondate politikoaren egiazko lehentasuna ez da izan pertsona eta herri guztien giza garapen iraunkorra, baizik eta transnasionalek kontrolatutako produkzioko eta finantza-arloko kate handientzako hazkunde ekonomikorako guneak sortzea. Beraz, esan dezakegu erabaki hori hartuta ez dituztela aintzat hartu nazioarteko mugimendu sozialen eta herrialde pobretuetako gehiengo handien eskaera eta helburuak.
2. Nazioarteko politika eta ekimenak ez dira izan, bada, sistemikoak eta integralak, eta inpaktu kontraesankorrak eragin dituzte —aldagai dibergenteen arteko tentsioaren ondorioz—. Dena den, irabazi-tasaren hazkundeari lehentasun handiagoa eman zaio, beti, Giza Garapen Iraunkorraren (GGI) aldeko esfortzuari baino.

3. Giza garapen iraunkorrarekin lotura handiena izan duen agendak *garapenerako laguntza ofiziala* (GLO) landu du, ia modu eksklusiboan. Aldi berean, laguntza horri beste osagai osagarri batzuk gehitu zaizkio, gizarte zibilaren presioari esker: *merkataritza* —Iparraldeko merkatuak Hegoaldeko nekazaritza eta arrantzako produktuetara nahiz ehungintzako produktuetara zabaltzea—, edo *zor ekonomikoa* —herrialde pobretuenen zorra barkatzeari dagokionez—. Aitzitik, ez da egin garapen-ereduaren gaineko hausnarketa orokorrik, barnean hartzen dituen alderdi guztiak kontuan izanik.
4. Agenda hori eramaten duten garapen-erakundeak —bereziki estatuak, baita estatuetan oinarritutako erakunde multilateralak ere— ez daude egokituta arazo global handiek eragindako premietara. Arazo horiei erantzuna emateko, planeta osoko diagnostikoak eta estrategiak antolatu behar dira, gaitasuna, eskumena eta erabakimena duten erakundeak gidari izanik. Erakunde global demokratikoen interpelazio horren aurrean, garapen-agenda epe motzerako borondate partzialetan oinarritu da.

Beraz, eta agenda horrek huts egin duenez, garapen-agenda berria garatu behar dugu, oinarrian bestelako postulatuak izanik:

1. **Herritartasun unibertsala eta subiranotasun konpartitua ardatz dituena.** Bigarren garapen-agendan, kontzeptu horiek oinarritzko printzipiotzat hartu behar dira, *subiranotasuna* eta *herritartasuna* ez baitira soilik estatu-nazioaren eremura mugatzen. Garapenaren zenbait alderdi globali (klima-aldaketaren ondorioak, merkataritzaren eta lanaren arloetako araudiak, eta abar) ekiteko lehentasunezko esparrua ez dira herrialdeak; beraz, erabakitzeo eta jarduteko gaitasuna sakabanatu egin da hainbat espazio multilateral, nazional eta tokikoetan —publiko nahiz pribatu—. Aldi berean, herritartasunaren oinarri diren eskubideak baliatzea ezin da beti aldarrikatu bakoitzaren estatuaren barruan; izan ere, dagoeneko ez du eskumenik geroz eta arlo gehiagotan, nazioz gaindiko eremuetan definitzen baitira, esaterako, garapen-eskubidea, giza segurtasunerako eskubidea, elikadura osasungarrirako eskubidea, ingurumen-kalitaterako eskubidea, eta abar. Hala eta guztiz ere, boterea —baita egun boterearen oinarri den sare multilateral— ez da egokitu subiranotasun konpartitu horretara, eta estatu-nazioaren eremuan oinarritzen dute, oraindik ere, haien jarduna. Hori guztia oso garbi ikusten da, adibidez, Nazio Batuen kasuan: ez dira gai konpromiso lotesleak ezartzeko hainbat alderdiri dagokionez, hala nola, Milurtekoko Garapen Helburuak (MGH) edo Kyotoko Protokoloa. Alderdi horiek adierazgarriak izateaz gain, termino nazionaletan definitzen dira, ez politika global moduan. Egoera horrek ondorio nagusi bat dakar: subiranotasun konpartitua eta herritartasun unibertsala baliatzeko garaian, hutsune handia dago, ez dagoelako erakunde zehatzik, ezta erantzukizun definiturik ere, nahiz eta errealitateak hori guztia eskatu.
2. **Mundu osorako erakunde demokratiko bat sortzea, eremu globalean eskumen eta gaitasun definituak dituena:** Egungo egoera ikusita, lehentasunezko kontua da mundu-mailako erakunde subirano eta demokratiko bat eraikitzea, ondasun publiko globalen gain jarduteko gaitasuna izango duena, eta herritartasun unibertsalaren kontzeptuari zentzua emango diona. Bestalde, sare politiko bat ere sortu behar da; hain zuzen ere, subiranotasun konpartituaren kontzeptua definitu eta eskumen, eskubide eta betebeharrak

banatuko dituen eremu guztien artean —munduko, tokiko, estatuko eremuetan—.

3. **Giza garapen iraunkorrari lehentasun politikoa ematea:** beste edozein helbururen gainera, munduko, estatuko eta tokiko eragileen esfortzu, politika, estrategia eta ekimenek haxe izan behar dute xede: gure planetako jende eta herri guztien eskubide, askatasun eta gaitasunak defendatzea. Giza garapen iraunkorrak protagonista izan behar du garapen-agenda berria, eta pobrezia, desberdintasunen eta kalteberatasunaren fenomenoetan bereziki eragin behar du.
4. **Agendaren edukiak GGIaren alderdi guztiak hartu behar ditu barnean, modu integralean:** Agendaren barruan garapenaren alderdi espezifikoak soilik izaten baditugu (hau da, laguntza, merkataritza, zorra), beste elementu asko eta asko alde batera utziko ditugu, eta kanpoan utzitako elementu horiek dira zuzenean eragiten dutenak pobrezian, desberdintasunetan eta kalteberatasunean; horretaz gain, alderdi horiek banan-bana aztertuz gero, ondorio kontraesankorrak izan ditzakete ez badira azterlan sistemiko batean txertatzen: adibidez, Hegoaldeak Iparraldeko nekazaritzako eta arrantzako merkatuetarako sarbidea izatea garapenerako bidea al da? Edo aitzitik, nekazaritza-espazioaren ereduak sakontzea al dakar? Onura orokortuak izango al lituzke? Edo soilik Hegoaldeko produkzio-enpresa handientzat eta Iparraldeko merkaturatzaileentzat? Eztabaida horiek ikuspegi integraletik begiratuta aztertu behar dira, ez epe motzeko diagnostiko partzialak ginez. Hori dela-eta, agendan honako osagai estrategiko hauek sartu behako lirake:

 - a. Eredu ekonomikoa eta kontsumo-jarraibideak: Elkartrukea eta banaketa —merkataritza, alegia— ez ezik, produkzioa eta finantzak ere hartu behar dira agendaren barruan. Izan ere, produkzioko, merkataritzako eta finantzako sistemek giza garapen iraunkorraren esanetara egon behar dute, eta ez garapen horretatik at. Hori horrela, ikuspegi ekonomiko jakin bat lortzeko lan egin behar da; hain zuzen ere, ikuspegi iraunkorra, kultura-aniztasuna errespetatuko duena eta berdintasuna sortuko duena. Beste alde batetik, kontsumo-jarraibideak lantzea ere oso garrantzitsua da, betiere eskariaren ikuspegitik begiratuta, kontsumoa arduratsua eta koherentea izan dadin, baita iraunkortasunarekin eta guztion eskubideekin ere.
 - b. Giza Eskubideak: Herritartasun unibertsalak zera eskatzen du: agenda berriak eskubideen ikuspegi berria izatea, eta agenda berri horren helburu nagusia giza eskubideen nazioarteko esparruaren defentsa izatea, lehen, bigarren eta hirugarren belaunaldiko eskubideak barnean hartuta. Gainera, eskubide guzti-guztiak —zibilak, politikoak, sozialak, ekonomikoak, kulturalak— maila berean aldarrikatzeko aukera izan behar da, eta eskubideen sustapena, indarraldia eta errespetua bermatuko duten egiturak ere izan behar dira.
 - c. Ondasun Publiko Globalak: Ikuspegi eta inpaktu globala izaki, estatuaren esparrua gainditzen duten zenbait gai espezifiko —hala nola, klima-aldaketa, pobrezia, giza segurtasuna, eta abar— modu espezifikoan landu behar dira mundu osorako politiken bidez, lehen aipatu dugun erakunde berri horren gidaritzapean.

- d. Zorra: Herrialde pobretuen zorra barkatzen aurrera egin behar da, zorra zerk eragiten duen ikuspegi sistemikotik aztertuta. Baina horretaz gain, azterketaren ikuspegi integral horri helduta, beste hainbat kontzeptu ere berrikusi behar dira; esaterako, *zor historikoa* —kolonialismoa, mendekotasuna— eta *zor ekologikoa*. Azkenik, fenomeno horren jarraipena eta ebaluazioa egiteko mekanismoak ere ezarri behar dira.
- e. Genero-berdintasuna: Gizonekin alderatuta, emakumeak baldintza- eta posizio-desberdintasunean daude; beraz, genero-berdintasunari toki nabarmena eman behar zaio garapen-agendaren barruan. Horrela, bada, genero-zeharkakotasuna politika espezifikoekin uztartu behar da; hain zuzen ere, emakumeen ahalduntze-prozesuei laguntzeko politika espezifikoekin.
- f. Migrazioak: Migrazioa gero eta garrantzi handiagoa hartzen da, eta pobreziarekin lotura handia du; lurralde askotan, lurraldearen osaera soziologikoa ez ezik, herrialde askoren dinamika ekonomikoak ere aldarazi ditu. Hortaz, migrazioei herritartasun unibertsalaren ikuspegitik begiratu behar zaie (munduko biztanle izate hutsagatik guztion eskubideak defendatzen baititu), lagundutako garapenaren aldeko eta pobreziaren kontrako politikak aplikatuta.
- g. Kultura-aniztasuna: Herriek autonomia eta gaitasuna izan behar dute haien garapen-helburuak aukeratu eta definitzeko, betiere norberaren kultura abiapuntu hartuta eta giza eskubideen esparruan. Joera homogeneizatzaile eta izaera fundamentalisten gaitetik, askatasun eta eskubide kolektiboak defendatu eta sustatu behar dira, baita idiosinkrasia ezberdinetatik sortutako prozesuak ere.
- h. Garapen Lankidetzaren: Lankidetzaren ere tresna garrantzitsua da giza garapen iraunkorra lortzeko. GLO handitzeko konpromiso loteslea eragingo duten akordioak hartu behar dira nazioartean, eta pobreziaren aurkako borrokan ahalik eta eraginkortasun handiena bermatzeko mekanismo eta ikuspuntuak ezarri.

Azken buruan, garapen-agenda berria lau osagai horietan oinarrituko da; osagai horiei esker, printzipio berriak, egitura berriak eta estrategia berriak definitu dira, integralagoak eta eduki berriak dituztela. Hori horrela izanik, garapen-agenda berri hori Multilateralismo Aktibo Berria eraikitzeko oinarri izango da, eta orduan, egiaz aurre egin ahal izango zaie giza garapen iraunkorraren erronkei eta gure mundu desorekatu eta kaltebera honen errealitatera egokituko da.

Hurrengo atalean, garapen-lankidetzaren egungo egoera aztertuko dugu, baita etorkizunean izan behar dituen irizpide eta ikuspegiak ere, garapen-erronka berri horietan kalitatez parte hartze aldera.

2.2.- Lankidetzak-politikak garapen-agendetan

2.2.1.- Garapenerako Laguntza Ofiziala, ekonomikoki

Pobreziaren aurkako eta garapeneko helburuetan eragin sendoa lortu nahi bada, garapen-lankidetzak garapen-agenda berriaren printzipioekin eta ikuspegiekin lotu behar da. Horretarako, estrategia bikoitza landu behar da: alde batetik, *horretara bideratutako fondoak modu esponontzialean handitu* behar dira; bestetik, *kalitatearen alde egin* behar da, betiere kalitatearen barruan honako hiru alderdi hauek sartuta: gainerako garapen-politikekiko koherentzia, inpaktuan eraginkortasuna, eta baliabideen erabilera eraginkortasuna.

Garapenerako laguntza ofizialera bideratutako fondoak bilakaerari dagokionez, XXI. mendearen lehen bost urteetan nazioarteko konferentzia eta foro ugari izan dira, GLOren zenbateko globalak pixkanaka handitzeko asmoz. Ildo beretik, datozen urteetarako helburuak definitzeko garaian, honako gertakari hauek gakoak izan dira:


- 2000. urtean, *Milurtekoko Helburuak* ezarri ziren (azaldu ditugu goian).
- 2002an, Monterreyn (Mexiko) *Garapenaren Finantziario buruzko Konferentzia* izan zen; bertan, GLOren fondoak handitzeko eskaera egin zen —kopururik zehaztu gabe—, eta garapena beste hainbat aldagairekin lotu zen, hala nola, merkataritzarekin, kanpo-zorrarekin eta gainerako garapen-politikekiko koherentziarekin.
- 2002. urtean, Europar Batasunak honako konpromiso hau hartu zuen Bartzelonan: 2006. urterako, Batzordeak eta estatu kideek horretara bideratzen dituzten fondoak Nazio Produktu Gordinaren % 0,39ra handitzea. Horrekin batera, herrialde bakoitzak gutxienez % 0,33a eman beharko luke.
- 2005. urtean, G-8ak honako helburu hauek ezarri zituen *Gleanegles-eko Goi-bileran*: 50.000 milioi USD gehiago gehitzea 2010erako finkatutako GLOri; Afrikan, lankidetzak bikoiztea.

Konferentzia horiei esker, garapen-lankidetzak etengabe handitu egingo zen, ezarritako helburuak betetzea ahalbidetzeko gaitasunak eskura zitzan. Baina munduaren eremuan agregatutako zenbatekoen bilakaera ez da gorakorra izan, baizik eta **ezegonkorra**. 90eko hamarkadako *laguntzaren nekea* gaintitu ostean, bazirudien XXI. mendean nazioarteko lankidetzak handitzen ari zela, mantso, baina etengabe. Izan ere, 2005ean, honako kopuru hau lortu zen: 106.776 milioi USD^{vi}, hau da, munduko NPGaren % 0,33 —hala ere, duela lau hamarkada Nazio Batuek ezarritako helburuetatik oso urrun—.

Dena dela, 2006. urtean joera hori eten egin zen, guztizko zenbatekoa 103.940 milioi USD izan baitzen —NPG globalaren % 0,3—. Horretaz gain, beheranzko joera hori egonkortu egin da eta 2007ko zenbatekoak ere ildo berari eutsiko dio, Garapenerako Laguntza Batzordearen (GLB) datuen arabera.

Atzerapauso horrek badu, ordea, elementu positibo bat: laguntza guztiaren % 50 baino gehiago metatzen duen lurraldea izaki, Europar Batasunak bete ditu, oro har, 2002an Bartzelonan ezarritako konpromisoak, eta 2006an NPGaren % 0,39a iritsi zen (nahiz

eta honako lau estatu hauek ez diren iritsi % 0,33ko helburu indibidualera: Grezia, Italia, Portugal eta Espainia).



Baina esan dugunez, termino absolutuetan, GLOak ez dio joera jakin bati eusten. Eta horrekin batera, garapenerako laguntzaren zenbatekoen barruan, herrialde askok hainbat aldagai ere sartzen ditu, baina nazioartean ez dago adostasunik aldagai horiek GLOren kontzeptuan txertatzeari dagokionez; hona hemen aldagai horiek: zorra barkatzea, errefuxiatuei laguntzeko programak, atzerritarrentzako heziketa, eta abar. Adibidez, 2006. urtean zorra barkatzea kontuan hartu izan ez balitz —2002an Monterreyko Akordioan ezarritakoari jarraiki—, GLOren zenbatekoa 84.766 milioi USD izango litzateke; beraz, zenbatutako 103.940 milioi USDak baino gutxiago^{vii}.

Hortaz, amaitzeko honako hau aipatu behar dugu: EBk Bartzelonan ezarritako konpromisoa izan ezik —eta zortzat hartutako zenbatekoa ere kontuan izanik—, **ez da bete nazioartean hartutako konpromisoetatik bat bera ere**. Gainera, lankidetzako egungo joerak ikusita, 2010erako eta 2015erako ezarritako adierazleak ere ez dira beteko, antza, baldin eta esfortzuak ez badira nabarmen areagotzen.

Zer arrazoik eragiten du noraezeko joera hori? Izan ere, horren ondorioz garapenerako laguntzak ez du behar adina finantza-gaitasunik pobreziaren aurkako borrokan eragina izateko.

Funtsean, egoera hori eragiten duen arrazoia bat dator gorago egungo garapen-agendaren gabeziatzat hartu dugun egoera batekin:

- Nazioartean ezarritako konpromisoak ez dira lotesleak, eta beraz, estatu bakoitzaren egoeraren eta borondatearen arabera dira.
- Ez dago egitura globalik, honako gaitasun hauek dituenik: behartzeko, planifikatzeko, kudeatzeko, jarraipena egiteko eta ebaluatzeko gaitasunak.

Beraz, lankidetzako-fondoak nabarmen handitu behar dira, konpromiso lotesleak ezarri, eta mundu osorako erakundeak abiarazi, konpromiso horiek betearazteko nahikoa gaitasun dutela.

2.2.2.- Kalitatea garapen-lankidetzan

Pobreziari, desberdintasunei eta kalteberatasunari aurre egiteko fondoez gain, lankidetzak ahalik eta inpaktu handiena lortu behar du kalitatezko politikak abiarazita —garapenerako gainerako tresnekin batera—.

Kalitatearen kontzeptua definitzeko, hiru esanahi atxiki dizkiogu:

1. Garapen-politikekiko —merkataritzaren, zergen, finantzen, nekazaritzaren, energiaren, eta abarren arloko politikekiko— koherentzia.
2. Azken helburuen gaineko inpaktuan eraginkortasuna.
3. Erabilitako baliabideen erabileran eraginkortasuna.

Tamalez, eremu horietan guztietan asko dago egiteko oraindik:

- Lankidetzazko politika ez da izaten, oro har, gainerako politika publikoen zati integrala. Lehen ere esan dugunez, ez da azterketa sistemikorik egiten, eta garapen-ekimen bakoitza bere aldetik dabil, elkarri kontra eginez kasu askotan: edo giza garapen iraunkorra dute helburu, edo hazkunde makroekonomikoa. Hari berari tiraka, Iparraldeak garapenaren problematikan duen erantzukizuna ere ahaztu egiten da lankidetzan.
- Lankidetzazko politiken helburua ez da beti izaten pobreziaren aurka egitea, baizik eta bestelako interesen mendekoak ere izan daitezke, politikak abiarazten dituzten estatu edo erakundearen interes geopolitikoaren edo merkataritza-interesaren mendekoak.
- Lankidetzazko ez da estrategien bidez definitzen, baizik eta ekimen sorta baten arabera. Horrela, eratzten diren planak diagnostiko on batean oinarrituko balira, gaitasunen azterketa egin, eta helburu zehatz baina esanguratsuak izango balituzte, kalitatearen ikuspegiari jarraiki, kasu horretan, plan horiek askoz ere inpaktu handiagoa izango lukete.
- Zenbait kasutan, lankidetzazko printzipio jakin batzuetan oinarritzen da, baina printzipio horiek ez dira eraginkortasun handiena ematen dutenak: egonkortasuna ziurgabetasunaren gaineratik, tokiko gaitasunak indartzea ezarpenaren gaineratik, laguntzea ordeztearen gaineratik, epe luzerako eta egiturazko ikuspegia azterketa partzial eta epe motzekoen gaineratik.
- Zeharkako ikuspegiak (hau da, genero-berdintasuna, giza eskubideak, parte-hartzea, iraunkortasun ekologikoa, eta abar) ez dira txertatzen lankidetzazko ekimenetan, eta txertatzen badira, ikuspuntu tangenzial batetik izaten da.
- Lankidetzazko-ekimenak gauzatzen dituzten eragile eta erakundeek —tokikoak, estatukoak eta multilateralak— ez dute ezarri koordinazioko biderik, ezta helburuak eta ikuspuntuak batera definitzeko mekanismorik ere.

- Zenbait kasutan (GLBren arabera, 2006an % 6,5), laguntza baldintzatua egoten da herrialde emalearen produktuak eta ekipoak erostearekin, eta horrek erabat indargabetzen du giza garapen iraunkorraren helburu bakarra.

Dena den, eta berriki aipatutako zenbait gairi heltzeko asmoz, **Garapenerako Laguntza Ofizialaren eraginkortasunari buruzko Pariseko Deklarazioa** aurkeztu zen 2005ean. Dokumentu horren bidez, nazioarteko komunitateak lehen esfortzu handia egin zuen lankidetzaren kalitatean bereziki eragiteko, argi eta garbi zehaztutako bost helburu ezarri baitzituen. Gainera, helburu bakoitzerako adierazleak —12 guztira— ere finkatu ziren 2010. urterako.

Horrela, bada, bost jardun-printzipio nagusi ezarri dira:

1. Bere egitea: emaleak eta hartzaileak bere egin behar dituzte ekimenak, hartzaileak ezarritako estrategien barruan, eta gutxieneko adostasun batean oinarrituta.
2. Lerrokatzea: laguntzaren bidez eragile hartzaileak indartu egin behar dira, eragile horiek laguntzen subjektu bihurtuz, eta kudeaketa-egituretan eta emaleari loturiko interesetan bikoiztasunak ezabatuz.
3. Harmonizazioa: eragile emaleen ekintzak koordinatu egin behar dira, helburu, ikuspegi eta prozedura komunei dagokienez.
4. Emaitzetara bideratutako kudeaketa: pobrezari aurre egiteko planetan, jarraipena eta ebaluazioa egiteko sistemak ezarri behar dira, lortutako emaitzak balioeste aldera.
5. Elkarrekiko erantzukizuna: lankidetzaren erantzukizuna da, eta emaleari nahiz hartzaileari eragiten dio; hortaz, biek bete behar dituzte hartutako konpromisoak.

Helburu horiei esker, garapen-lankidetzaren eraginkortasuna areagotu egingo da, baina horretarako, eta zenbait eremutatik adierazten dutenari jarraiki, Pariseko Deklarazioarekin loturiko hainbat alderdi zehaztu egin behar dira, baita kalitatearekin loturiko beste zenbait irizpide gehitu ere:

- Lankidetzaren estatuaren eremutik eta estatuaren eremurako garatzen da, baina horretaz gain, badira gizarte-eragile eta tokiko erakunde asko ere, eta horiek guztiak ez daude ordezkatuta helburu eta adierazleetan, nahiz eta printzipioekin bat etorri. Izan ere, horien guztien ikuspegiak eta aliatu estrategikoak ez dira estatuak, baizik eta gizarte-arloko eragile eta mugimenduak. Hori horrela izanik, lankidetzaren guztia estatuaren eremura edo eremu horren barnean hartutako eskemetara ez bideratzea garrantzitsua izango da, lankidetzaren deszentralizatuak indar handia baitu gizarte-mugimenduak eta tokiko egiturak indartzen, eta besteak beste, garapenerako sentsibilizazioan eta hezkuntzan ere garrantzi handia baitu.
- Zeharkako ikuspegiak (genero-berdintasuna, esaterako) ez dira agertzen ez helburuetan, ez xedeetan, ez adierazleetan; hortaz, garapen-estrategien barruan sakabanatzen dira, garapenerako funtsezko elementuak diren arren.

- Lankidetzak koherentea izan behar du gainerako garapen-politikekiko, eta aldi berean, pobrezia, desberdintasunen eta kalteberatasunaren aurkako borroka soilik hartu behar du ardatz, beste inolako interes osagarririk gabe.

Azken buruan, inpaktu handiagoa edo txikiagoa baina eraginkorra izan nahi baldin bada, lankidetzak bat egin behar du Pariseko Deklarazioen emandako printzipioekin —betiere eragile bakoitzaren ezaugarrien arabera zehaztuta—, kalitate-prozesuak abiarazteko funtsezkoak diren alderdiak gehituta: koherentzia, planifikazioa eta zeharkakotasuna. Gainera, ez da ahaztu behar horretara bideratutako fondoak modu esponenzialean handitu behar direla. Bi estrategia horiek batuta, gizarte-eraldaketarekin eta giza garapen iraunkorarekin egiaz loturiko lankidetzak lortu ahal izango dugu.

Hurrengo atalean, Eusko Jaurlaritzak orain arte egin duen lankidetzak aztertuko dugu. Azken diagnostikoaren arabera, helburuak eta jarraibideak zehaztuko dira, lankidetzak eraginkor, gaitu eta kalitatezkoa garatze aldera, eta betiere garapen-agendaren erronkekiko koherente izanik eta agendaren idiosinkrasia definitu duten gaitasun eta ildo nagusiekin —pobrezia aurkako borroka, gizarte-mugimenduak eta tokiko erakundeak indartzea, garapenerako hezkuntza eta sentsibilizazioa defendatzea— loturik.

	Nazioarteko Egungo Agenda	versus	Garapen Agenda berria	
	<ul style="list-style-type: none"> • Herritartasun erlatiboa eta subiranotasun nazionala 		<ul style="list-style-type: none"> • Herritartasun unibertsala eta subiranotasun partekatua 	
	<ul style="list-style-type: none"> • Sare multilateral nazio-estatuan oinarritua 		<ul style="list-style-type: none"> • Mundu osoko instituzionalitate demokratikoa, eremu globalean eskumen eta gaitasun definituak dituen 	
	<ul style="list-style-type: none"> • Lehentasun politikoa printzipio neoliberalentzat 		<ul style="list-style-type: none"> • Lehentasun politikoa GGIarentzat 	
	<ul style="list-style-type: none"> • Dimentsio espezifikoetan oinarritutako edukiak: laguntza, merkataritza, zorra 		<ul style="list-style-type: none"> • GGIaren dimentsioen multzo osoa barnean hartzen duten edukiak 	
	<ul style="list-style-type: none"> • Lankidetzaren ezegonkortasuna 		<ul style="list-style-type: none"> • Kalitatezko Lankidetzak: koherentzia, eraginkortasuna eta efizientzia 	

3.- Eusko Jaurlaritzak bultzatutako lankidetzak: Gida Plan Estrategikorako erronkak

3.1.- Gida Plan Estrategikoaren beharra

Eusko Jaurlaritzak bultzatutako lankidetzaz nabarmen aldatu da azken urteotan: ekonomikoki lankidetzaz sendoa dela esan dezakegu, eta kalitatearen eta eraginkortasunaren alde egin duela. Gainera, aldaketa horiek modu integralean gertatu dira, garapenaren funtsezko alderdiak —tekniko, estrategiko eta politikoa— eraginpean hartuta.

Hain zuzen, lehendik ere gauzatzen ari ziren aldaketa esanguratsu horien multzoari zentzua eman dion ardatz politikoa hauxe izan da: 2007ko otsailaren 12an **Garapenerako Lankidetzari buruzko Euskal Legea** onartzea.

Lehenik, lege horrek zenbait antolarau, helburu eta lehentasun ezartzen ditu, euskal lankidetzaz ongi zehaztutako identitatea izan dezan, pobrezia eta desberdintasunak ezabatzean oinarrituriko eredu batekin, laguntzatik hasi eta epe luzerako garapen-prozesuetaraino.

Bigarrenik, gure lankidetzaren ikuspegi estrategikoa zehazteaz gain, Legeak egitura instituzional eta sozial berria finkatzen du, kalitatezko lankidetzaz-politika parte-hartzailea eta hitzartua ahalbidetzeko, eta, aldi berean, ezarritako helburuekiko koherentea izateko. Hala, Garapenerako Euskal Agentzia sortu beharra aipatzen da (ahalmen tekniko eta estrategiko handiagoa izango du), eta Garapen Lankidetzarako Euskal Kontseilua eta Garapen Lankidetzarako Erakunde Arteko Batzordea sortzen dira.

Hirugarrenik, Eusko Jaurlaritzaren honako konpromiso hau ezartzen da Legean: aurrekontuaren % 0,7 garapen-lankidetzara bideratzeko konpromisoa; horri esker, horretara bideratutako diru-kopuruak nabarmen handitzen ari dira eta handituko dira.

Azkenik, eta lankidetzaz-eredu hori eta sortutako egitura instituzionala oinarritzat hartuta, Legeak adierazten du legearen edukien garapena, hau da, "*helburu, tresna eta proposamen operatiboak*" zehaztea, *Lau Urteko Gida Planaren* bitartez egin behar dela modu planifikatuan, 17. artikuluan jaso den bezala. Gainera, plangintza-dokumentu horrek "*geografiaren eta arloen arabera ezarritako lehentasunak zehazteaz eta esparru horretan ekintza publikoak dituen aurrekontu-beharrak finkatzeaz gain, legearen helburuak hobeto betetzeko aukera emango duten bestelako ekintzak ere definituko dituela*" adierazten da.

2008-2011ko Gida Plan Estrategiko honen bidez, hain justu, Lankidetzari buruzko Euskal Legeak ezarritako agindua bete nahi da. Printzipio eta helburu orokorrak Lege horretan zehaztuta dauden arren —baita abenduaren 28ko Herrialde Pobretuekiko Justizia eta Elkartasunerako Gutunaren 14/2007 Legearen 2. artikulutik eratorritakoak ere—, Eusko Jaurlaritzak bultzatutako lankidetzaz estrategiak definitzeko prozesu batean inplikatu behar du, eta estrategia horien barnean jardun-eremu guztiak (hau da, lankidetzaz, garapenerako hezkuntza, ekintza humanitarioa) ez ezik, honako jarraibide hauek ere hartu behar ditu: funtsezko eragileak indartzea, eta helburu estrategikoen eta baliabide eta tresna teknikoaren arteko koherentzia zehaztea.


Hori dela-eta, Plan hau premia baten ondorioz sortu da; hain zuzen ere, Eusko Jaurlaritzak bultzatutako lankidetzaz hobetzeko premiaren ondorioz, termino kuantitatibo nahiz kualitatibotan; horrela, bada:

1. Lankidetzari buruzko Euskal Legean proposatutako erronketan aurrera egiteko gai izan behar du, ezarritako ikuspegi estrategikoa indartuz, eta kalitatezko politika garatzeko ezinbestekoa den erakunde-sarea sortuz.
2. Giza garapen iraunkorraren agenda berriaren erronkekin modu estrategikoan —gaitasunetatik abiatuta— lotu behar du.

Hurrengo atalean, Eusko Jaurlaritzak bultzatutako lankidetzaren egungo egoera aztertuko dugu. Diagnostiko horretan oinarrituta, eta Planaren beharra eragin duten arrazoien arabera, Planaren helburu eta jarraibideak zehaztuko ditugu.

3.2.- Eusko Jaurlaritzak bultzatutako lankidetzaren diagnostikoa

Lehenik, **aurrekontu-bolumenei** dagokienez, Eusko Jaurlaritzak funtsezko eragilea da euskal lankidetzan. Eusko Jaurlaritzak lankidetzaren ekimenetan dabilen administrazio bakarra ez bada ere —Foru-Aldundien, Udalen eta Euskal Fondoaren ekintzak ere oso garrantzitsuak dira—, erakunde garrantzitsuena da diru-kopuruei dagokienez —fondo guztien % 55-60 inguru—.



Grafikoan ikusten den bezala, Eusko Jaurlaritzak bultzatutako lankidetzaren politikak lankidetzaren zuzendutako fondoak nabarmen handitu zituen, eta beraz, lortutako bolumen handiari esker, lankidetzaren politikaren eremu eta tresnek eraginerako eta garapen sendorako duten gaitasuna handitu zen.

Hala ere, EAEko Aurrekontu Orokorrek azken urte hauetan izan duten hazkunde handia kontuan hartuz, bilakaera hori ez da nahikoa izan aurrekontu osoaren % 0,7ko konpromisoa betetzeko. Horretaz gain, kontuan hartu behar da 2003ra arte, Foru Aldundiek GLSFra baliabide ekonomikoak zuzentzen zituztela urtero, eta orduz geroztik, gobernu foralek gauzatzen dituzte zuzenean ekarpen horiek.

Aurrekontu osoa	Lankidetzaren Aurrekontua	Urteko Hazkundera	Aurrekontu osoaren gaineko %-a
-----------------	---------------------------	-------------------	--------------------------------

2002	5.939.193.000,00	30.366.740,00		% 0,51
2003	6.185.000.000,00	30.807.225,00	% 1,45	% 0,50
2004	6.661.621.000,00	31.315.534,00	% 1,65	% 0,47
2005	7.117.102.000,00	32.216.956,00	% 2,88	% 0,45
2006	7.623.134.200,00	34.039.553,00	% 5,66	% 0,45
2007	8.740.181.000,00	39.000.000,00	% 14,57	% 0,45
2008	9.939.662.000,00	45.000.000,00	% 15,38	% 0,45

Beraz, eta azken urteotan izan diren hazkunde absolutuak gorabehera, oraindik ere esfortzu handia egin behar da Lankidetzari buruzko Legean 2012. urterako ezarritako helburua betetze aldera. Hona hemen Plan honen jarraibideetako bat: fondo totalak eta ehunekoak handitzea. Aldi berean, euskal lankidetzaren prestatu ere egin beharko da, estrategikoki, teknikoki eta erakundeei dagokienez, une garrantzitsu horretarako.


Bigarrenik, eta aurrekontu-eremutik eremu **estrategikora** igarota, esan behar dugu eremu horretan ere aurrerapen handiak egin direla:

- Funtsezko kontzeptuen (hau da, herritartasun unibertsala, giza garapen iraunkorra, egiturazko pobrezia, lankidetzaren eraldatzailea) ikuspegi estrategikoa sendotu da, baita barnean hartutako alderdiak (sektorialak eta zeharkakoak) ere.
- Planifikazioko eta hitzarmengintzako tresna berriak abiarazi dira; esaterako, Herrialderako Estrategiak.
- Ekintza humanitarioa lankidetzarekin lotzeari dagokionez aurrera egin da.
- Garapenerako hezkuntzaren oinarriko ardatzak eta helburuak definitzeko prozesu bateratua sortu da.

Aurrerabide horiek sendotu eta horietan sakondu behar da, esparru estrategiko argi eta koherentea definituta; esparru horrek garapen-agendaren erronkekin loturik egon behar du —norberaren gaitasunen azterketatik abiatuta— eta garapenaren arloko nazioarteko konpromisoak bere gain hartu behar ditu.


Hirugarrenik, **jardun-eremuei** dagokienez, Eusko Jaurlaritzak hiru eremu landu ditu sistematikoki: garapen-lankidetzaren, ekintza humanitarioa eta garapenerako hezkuntza. Ezinbesteko elementu osagarriak dira egiturazko pobrezia deuseztatzeko borrokaren strategiaren barruan, eta horri dagokionez, Iparralde eta Hegoalde erantzukideak dira.

Hortaz, garapenerako lankidetzaren oinarri tinkoak eta gutxieneko jarduerak behar ditu, eta askotan, soilik ekintza humanitariorako ekimenek finkatu ahal dituzte horiek. Bestalde, Iparraldeko herritarren sentsibilizazioa eta kontzientziak ezinbesteko baldintzak dira gure garapen-eredurako beharrezkoak diren eraldaketa orokorrak gauzatzeko, gaur egungo eredia pobrezia eta azpigarapenaren arrazoi nagusia dela kontuan hartuz.




Ildo berari jarraiki, hiru eremu horiek osatu egin behar dira, hiru ildoetarako aurrekontu-egonkortasuna lortuz, eta haien arteko koherentzia estrategikoan sakonduz, baita eremu bakoitzeko prozesu eta ekimenak garatzeko dauden tresnekiko koherentzian ere.

Laugarrenik, emandako fondoaren **sektorearen arabera banaketari** dagokionez, giza garapen iraunkorarekin lotura naturala dagoela egiaztatu dugu. Beraz, oinarrizko gizarte-premiak eta tokiko garapen ekonomikoa izan dira ildo nagusiak, baina ez dira alde batera utzi beste zenbait alderdi garrantzitsu; hala nola emakumeen ahalduntzea, tokiko boterea eta giza eskubideak edo kultura-nortasuna.




Plan honen bidez euskal lankidetzaren eredu natural hori indartu egin behar da, ildo estrategikoen —emakumeen ahalduntzea, herri-ekonomia, tokiko boterea— garrantzia sendotuz baina giza garapen iraunkoraren eta egiturazko pobrezia-aren kontzeptuak osatzen dituzten alderdi guzti-guztiak barnean hartuko dituen esparruaren barruan.

Azkenik, eta bosgarrenik, Eusko Jaurlaritzak bultzatutako lankidetzak aztertuko dugu **banaketa geografikoaren** arabera.



Historian zehar, euskal lankidetzak lotura eta aliantza estrategikoak egin ditu Amerikako herriekin, bereziki Erdialdeko Amerikako eta Karibeko herriekin. Dena den, eta Afrikako gizon-emakumeek bizi duten pobrezia-egoera eta muturreko kalteberatasun eta bazterketa kontuan izanik, Amerikarako joera horren osagarri, Afrikarekiko loturak indartzeko esfortzua gero eta handiagoa da.

Horrela, Plan honekin bi joera horiek sendotu behar dira, Erdialdeko Amerikari eta Karibeari emandako babesa indartuz —lankidetzak gehienak alde egin duen arren—, Hego Amerikarekiko lotura sendotuz, eta Afrikarekiko harremana areagotuz, baina ez soilik ekonomiari dagokionez, baizik eta baita lankidetzaren eta garapeneraren kalitatea hobetuz ere.



3.3.- 2008-2011ko Gida Plan Estrategikoaren eskema

Aurreko ataleko diagnostikoa oinarri hartuta definitu behar dira Eusko Jaurlaritzak bultzaturiko lankidetzari oraindik geratzen zaizkion erronkak. Plan honetan, atzemandako ahuleziak helburu eta jarraibide espezifiko bihurtuko dira:

- Lankidetzara bideratutako fondoak handitzea, baita aurrekontu totalari dagokion ehunekoa ere, 2012. urtean aurrekontuaren % 0,7ra iristeko konpromisoa betetze aldera.
- Lankidetzaren, Garapenerako hezkuntzaren eta Ekintza humanitarioaren esparru teoriko jakin bat definitzea; hauxe:

- giza garapen iraunkorrak eta garapen-agenda berriaren sorrerak ekarritako erronkekin loturik dagoena, ahal den neurrian; hona hemen erronka horiek: tokikoari lehentasuna ematea, baina multilateralismo aktibo berria indartzeko estrategiak eta ildoak alde batera utzi gabe.
 - lankidetzaren, garapenerako hezkuntzaren eta ekintza humanitarioaren eremuen artean koherentzia duena.
 - alde batetik helburuen eta, bestetik, eskura dituen estrategia, tresna eta baliabideen artean koherentzia duena.
 - arlo estrategiko sektorialetan —hala nola, emakumeen ahalduntzean— esfortzuak sendotuko dituen eta zeharkako ildoen garrantzia indartu.
- Amerikako eta Afrikako herrien babesu uztartuko dituen esparru geografikoa definitzea, baina aldi berean, Hegoaldeko eta Iparraldeko eragileen artean jardun hitzartu eta planifikatua gauzatzeko ikuspegi berriak orokortzea ahalbidetuz.
 - Lankidetzari buruzko Euskal Legean ezarritako erakunde-esparrua definitzea, eta lehentasunezko eragileen gaitasunak indartzea.
 - Aldez aurretik ezarritako erreferentziazko esparru teorikoarekin koherentea den tresnen esparrua definitzea.

Hortaz, atal honekin amaituko da Planaren sarrera edo **I. modulua**. Honako hauek aztertu ditugu:

- Giza garapen iraunkorraren egoera munduan.
- GGIekin konprometitutako garapen-agendaren erronkak.
- Nazioarteko nahiz euskal lankidetzaren errealitatea.
- Euskal lankidetzak Gida Plan Estrategikoa behar izatea eragiten duten aldagaiak.

Hurrengo Modulutik aurrera, Planaren *zati operatiboa* hasi da; bertan, Planaren helburu, estrategia eta lehentasunak definituko ditugu. Honela banatuko da **II. modulu** hori:

- **Helburu Orokorra**, edo abiarazten diren ekimen guztien xede izan behar duena. Beraz, Planaren nortasun-adierazgarria da, printzipio, ikuspegi eta lehentasunak definitzen dituena.
- **7 jarraibide** —Planaren helburu espezifikoak—; horien bidez, hiru jardun-eremuei (hau da, lankidetzari, garapenerako hezkuntzari eta ekintza humanitarioari) ez ezik, zenbait elementu estrategikori ere badagozkion konpromiso, lehentasun eta prozesuak definitzen dira.

Amaitzeko, **III. moduluan jarraipena eta ebaluazioa egiteko sistema** ezartzen da eta lortutako aurrerapenak balioesteaz gain, etengabeko ikaskuntza-prozesuak sortzea ere ahalbidetuko du. Hori horrela izanik, adierazleak biltzen dituen matrize bat

ezarri da Helburu Orokorrerako eta finkatutako jarraibide eta azpi-jarraibide bakoitzerako.

HELBURU OROKORRA: Identitate eraldatzailea, koherentea, koordinatua eta kalitatezkoa izango duen lankidetzaren politikaren garatzea, egiturazko pobrezia ezabatzean oinarrituta.



II. GIDA PLAN ESTRATEGIKOA

Planaren Helburu Orokorra

Gida Plan Estrategikoan honako Helburu Orokor hau ezarri da 2008-2011 aldirako:

Identitate eraldatzailea, kalitatezkoa, koordinatua eta koherentea izango duen garapen-lankidetzako politika sendotzea, egiturazko pobrezia ezabatzean oinarrituta

Eusko Jaurlaritzak bultzatutako lankidetzaren —zentzu zabalean hartuta, betiere— esparruan abiarazten diren ekimen, estrategia eta prozesu guztien xedea ezartzen da helburu horren bidez. Beraz, definizioz, ez dagokio helburu jakin batzuk lortzeari, baizik eta baita helburu horiek betetzeko ikuspegi espezifiko bati ere.

Horrela, bada, Plan honen helburu orokorrak planaren eskumen-eremuetan ez ezik (garapen-lankidetzaren, garapenerako hezkuntza, ekintza humanitarioa), honako hauekin loturiko jarraibideetan ere balio du: Hegoaldeko eta Iparraldeko lehentasunezko eragileak erakundearen aldetik indartzearekin, koordinazioko eta planifikazioko egiturak sortu eta sendotzearekin, eta jarraipena eta ebaluazioa egiteko sistemaren definizioarekin.

Helburuaren izenburuan argi azaltzen den moduan, Plan osoari zentzua eman eta jardun-esparru orokorra mugatzen duten funtsezko bi kontzeptu daude: *egiturazko pobrezia eta nortasun eraldatzailea*. Gainera, bi kontzeptu horietatik datoz Eusko Jaurlaritzak bultzatutako lankidetzarako funtsezkoak diren ezaugarriak, hau da, kalitatea, koordinazioa eta koherentzia.

A.- Egiturazko pobrezia

Egiturazko pobrezia ardatz estrategikoa da eta ardatz horren inguruan dabil Plan osoa. *Egiturazko pobrezia* kontzeptuaren definizioa honako hau da: duintasunez bizitzeko beharrezkoak diren gaitasunen, askatasunen eta aukeren gabezia, eta pertsonak —eta herriek— beren erabakiak hartzeko aukerarik ez izatea eragiten du.

I. jarraibidean —*Eusko Jaurlaritzak bultzatutako lankidetzarako ereduazko esparru teorikoa zehaztea*— aztertuko dugu sakontasunez kontzeptu hori, baina hala ere, *egiturazko pobrezia* zenbait ezaugarri aurreratu behar ditugu, hobeto ulertzearen Planean zergatik egin den eremu espezifiko horren hautua.

Lehenik, alderdi anitzeko ikuspuntutik heltzen zaio pobrezia, gizarte- edo ekonomia-alderdiekin lotutako ikuspuntuaz gain, alderdi politikoak, kulturalak, ekologikoak eta

generoarekin lotutakoak ere barnean sartzen ditu, duintasunez bizitzea ahalbidetzen duen guztia aztertzean.

Hortaz, pobrezia ez da aztertu behar fenomeno estatiko eta *ad hoc* moduan; izan ere, egiturazko arrazoiengan eta arrazoi historikoengan errotutako sustraiak ditu, eta giza garapenarekin eta globalizazio neoliberalaren egungo testuinguruarekin modu zuzen eta dinamikoan txertatzen da. Horixe da, hain zuzen, bigarren ezaugarria.

Hirugarrenik, egiturazko pobrezia desagerrarazte aldera, kalteberatasuna eta desberdintasunak eragiten dituzten arrazoiengan eragin behar da. Ildo beretik, egitura horiek aldatzeko, aldaketaren subjektuei laguntzeko eta ahalduntzeko prozesuak behar dira. Ikuspuntua, beraz, *ahalduntzean* kokatzen da, eta ez hainbeste premiak arindu edo betetzean.

Azkenik, pobrezia aztertzeko bide egokiena egoera horretan dauden subjektuen arteko ezberdintasunak kontuan hartzea da, hau da, subjektuei garapena lortzea galarazten dieten arrazoi zehatzak aztertu eta arrazoi horiei aurre egiteko estrategia zehatzak ezartzea. Ikuspuntu hori bereziki esanguratsua da gizonen eta emakumeen arteko berdintasunaren bidean aurrera egiteko, zeren ustez berdintasuna lortzekoak diren konponbideek, hain zuzen ere, berdintasun horiek handitzea baino ez baitute lortzen.

Hortaz, Planak egiturazko pobrezia du oinarri, giza garapenari zuzenean lotuta dagoen fenomeno konplexu eta sistemikoa den aldetik. Beraz, egiturazko pobrezia ezabatzeke jarduerak osagai eraldatzaile garbia behar du, pobrezia ezin baita arazo isolatu eta partzialtzat hartu.

Orain arteko guztiaren ondorioz, Plan honetan pobrezia eraldaketa-eremutzat hartzen da. Baina horretaz gain, Planak pobrezia desagerrarazteko konpromisoa hartu du, honako premisa honetan oinarrituta eta pobrezia ardatz estrategikotzat hartuta: Herritarren sektore kalteberenen aldeko apustua egin behar du, irmo, herritartasun unibertsalean oinarritutako lankidetzak. Baina ez ikuspegi asistentzialetik begiratuta, baizik eta herritar horiek beren garapenaren subjektu eta eskubideen titular direla sinistuta, baita tokiko, estatuko eta nazioarteko eremuan eragiten duten estrategia eta prozesuen sortzaile ere. Pobrezia daudenek modu sistematikoan pairatzen dituzte euren eskubide indibidualen eta kolektiboen urraketak, eta ez dute aukerarik haien gaitasunak, aukerak eta askatasunak garatzeko. Hori dela-eta, munduko panoraman protagonista paper eskatu eta lortzeko balio izan behar du lankidetzak.

B- Lankidetzaren eraldatzailea

Lankidetzaren politikaren nortasun eraldatzailea honako egiturazko arrazoi hauei aurre egiteko gaitasunean eta borondatean datza: pobrezia-egoeran dauden emakumeen, gizonen eta herrien garapena oztopatzen duten hainbat motatako arrazoiak —ekonomiarekin, politikoarekin, gizartearekin, ingurumenarekin edota generoarekin lotutakoak—, hain zuzen ere. Ezarritako helburuak lortzeko, estrategia koherente eta eraginkorrak gauzatu behar dira.

Fenomeno konplexu horiek lortzeko —ondorioez gain arrazoiak ere aurre egiteko beharrezkoak—, nahitaezkoak dira politika, egitura, prozesu eta ekimen tinkoak ezartzea, eta horien bitartez, konprometitua egon behar duen lankidetzaren eraldatzailea

gauzatzea. Horretarako, behar-beharrezkoa da esparru teoriko zehatza definitzea, ezarritako helburuetan ahalik eta modu sakonenean eragingo duten estrategiak planifikatzea ahalbidetuko duen esparrua, alegia.

Hari berari tiraka, egiturazko pobrezia-aren aurkako jardunerako Plan honen erreferentzia-esparruaren oinarria kontzeptu bat da, **herritartasun unibertsala**, alegia: ezein gizakiri edo herriri ezin zaio eskubide zibilak, kulturalak, ekonomikoak, politikoak eta sozialak baliatzeko aukerarik kendu, etniarekin, erlijioarekin, gizartearekin edo jatorriarekin lotutako faktoreak gorabehera. Horrela, bada, herritartat lurralde mugatu bateko biztanleriaren sektore jakin batzuk soilik hartzen dituen ikuskera murriztailea alde batera utzi, eta pertsona guztiak herritartat hartzeak ondorio garrantzitsuak ditu garapenean eta lankidetzan:

1. Herritartasun unibertsalaren arabera, eragile eta erakunde *guztiak* dira planeta osoko emakume, gizon eta herri *guzti-guztien* garapenean eta ongizatearen erantzule. Beraz, pobrezia-aren, kalteberatasunaren eta desberdintasunen egoeran *erantzunkidetasun globala* dago eta lehen ere esan dugunez, garapen-agenda berriaren bidez gauzatu behar da. Eta gainera, agenda hori mundu osorako erakunde subirano eta demokratiko batek sortu behar du, jarduteko gaitasuna ere baduela.
2. Herritarrak eskubideen titular dira, ez onuradun; beraz, lankidetzaren eta gainerako garapen-politikak justizia-ekintzak dira, ez laguntzekoak. **Eskubideen ikuspegi** horretatik abiatuta, herritarren prozesuei lagundu egin behar zaie (bereziki, herritar kalteberenen kasuan), eta azken helburu gisa, giza eskubideen nazioarteko esparruaren baliozkotasunean, aldarrikapenean eta sustapenean eragin.

Bi arrazoi horiek direla-eta, pobrezia-egoeran dauden herritarren giza garapeneko prozesuei laguntzea da, hain justu, Planaren ardatza, betiere pobrezia-egoera fenomeno dinamiko eta sistemikotzat hartuta, eta baztertuen dauden subjektuei lagunduz. Puntu honetara iritsita, Planak honako galdera honi erantzun behar dio: Nola lor daiteke egiturazko pobrezia desagerrarazteko politika bat ezartzea, betiere nortasun eraldatzailearekin, herritartasun unibertsalarekin eta eskubide-ikuspegiarekin koherente izanik, lankidetzaren deszentralizatu batetik (Eusko Jaurlaritzak bultzatutakoa, esaterako)?

Lehenik, zera argitu behar dugu: Plan honen bidez bultzatutako lankidetzaren politika definitzeko garaian berezko gaitasunak —finantzaren, politikaren, antolamenduaren, teknikaren eta gizakien arlokoak— geure egin ditugu. Horrela, gaitasun horiek kontuan izanik, eta azken xedeak ahaztu gabe, egin beharreko eraldaketetan inpaktu handiena izango duten helburu eta estrategiak proposatuko dira.

Bigarrenik, honako premia hau dugu abiapuntu: nazioarteko lankidetzaren tresna bat baino ez da, hain zuzen ere, garapen-politiken barruko beste tresna ba, eta gainera, gaur egun ez du garrantzi handirik, ez ekonomikoki, ezta politikoki ere. Ildo beretik, giza garapenean askoz ere inpaktu handiagoa izango lukete egun indarrean dagoen garapen-ereduan zuzenean eragingo luketen ekimenek: mundu osorako gobernu-sistema demokratikoek; ondasun publiko globalen gainean jarduteak; kulturak, ingurumena, testuinguru historikoak eta unean uneko egoerak errespetatuko dituzten politika ekonomikoek; giza eskubideen esparru osoa nazioartean aldarrikatzeak; etxe eta zaintzako lanak BPGaren barnean hartzeak, edo langile guztientzako lan-baldintza optimoak ezartzeak.

Esan beharrekoak esanda, nazioarteko lankidetzak —eta gure kasuan, euskal lankidetzak deszentralizatuak— ezin ditu horrelako erabakiak hartu, baina beharrezko egiturazko eraldaketetan eragin mugatu baina estrategikoa izan dezake. Gainera, aldaketa horietan parte hartzeaz gain, justiziaren eta berdintasunaren aldeko postulatu bitartez, aldaketa horien buru eta protagonista herri-sektoreak eta erakunde demokratikoak izatea ere erraztu dezake euskal lankidetzak.

Hori horrela izanik, eta lehen egin dugun galderari erantzunez, Planak hiru estrategia proposatu ditu, eta horien bitartez, egiturazko pobrezia desagerrarazteko politika eraldatzaile eta koherentea gara daiteke. Hona hemen estrategia horiek, bata bestearikiko osagarriak eta beharrezkoak:

- **Eraldaketa-subjektuen** (politikarekin, gizartearekin, ekonomiarekin eta kulturarekin lotutakoak) sortze- eta finkatze-prozesuetan laguntzea, egiturazko pobrezia desagerrarazteko helburuarekin.
- Eraldaketa-subjektu horien **berdintasunezko eta kalitatezko garapen-aukera sakonak** planifikatzeko eta martxan jartzeko prozesuetan laguntzea.
- **Internazionalismo berri** baten eta **multilateralismo aktibo berri** baten sorreran laguntzea, parte-hartzearen eta sareen finkatzearen bidez, eragin politikoaren eta garapenerako hezkuntzaren bitartez.

Aurreneko estrategia lankidetzak eraldatzailearen azken helburuari buruz lehen esandakoarekin loturik dago: norberaren garapenaren protagonista izango diren subjektuak ahaldu, sortu eta sendotzearekin. Lankidetzak ezin du konpondu, berak bakarrik, egungo pobretze-egoera larria; bestelako ekimen eta politikak ere ezinbestekoak dira. Lankidetzak politika isolatutzat hartzen badugu, premia jakin batzuk betetzea beste xederik ez duen politikatzat, alegia, lankidetzak izaera eraldatzaileak galtzen du, guztiz.

Aitzitik, lankidetzak eraldatzaileak jakin badaki zeintzuk diren bere mugak zentzu horretan, eta oinarritzko premisa honetatik abiatzen da: munduko herritar ahalduak soilik egin ahal izango diete aurre oraingo eta etorkizuneko erronkei, beren eskubideen jakitun direnek, pobrezia eta desberdintasunak eragiten dituzten arazoien berri badutenek; azken batean, norberaren garapenaren subjektu izango diren herritarrek. Hari berari jarraiki, lankidetzak eragina izan dezake: subjektu horiei ahaldu-prozesuetan lagunduz, kontzientzia kritikoa sortuz eta pobrezia/bazterketa/eskubide-urraketa/ parte-hartzerik eza/pobrezia sorgin-gurpila hautsiz. Hartara, eskubideen ikuspegian oinarritutako lankidetzak bai eragin dezake egiturazko eraldaketak gertatzeko ezinbestekoa den baldintza honetan: subjektu demokratiko, koordinatu, gaitu eta kontzienteak izatea.

Ahaldu-ikuspegia horren arabera, pobrezia-egoeran dagoen biztanleriaren helburu espezifikoak beteta ere, azken helburuak beti epe luzekoak izango dira, eta premia jakin batzuen betetze-mailaren arabera baino gehiago, munduko biztanleria ahalduak sortzeko helburuarekin koherenteagoak diren zenbait alderdiren arabera neurtuko dira: garapen-subjektuak indartzea; giza eskubideen baliozkotasuna eta horien gaineko eraginaren maila; berdintasuna, justizia eta iraunkortasunaren balioetan oinarritutako garapen-ereduak abiarazteko gaitasuna; herri-sektoreak koordinatzeko

tokiko, estatuko eta nazioarteko egitura eta sareak sortzea; sektore horiek antolatzea eta parte-hartze aktiboa izatea; emakumeen eta gizonen egoeran eta posizioan emaitza-berdintasuna izatea.

Hain justu puntu horretan egiten dute bat lehen eta bigarren estrategiek: azken helburu horiei —eraldaketa-subjektuak indartzearekin loturikoak— ahalduntze-prozesu konplexuetatik soilik egin dakieke aurre, berdintasunezko eta kalitatezko garapen-aukera sakonak eraikiz.

Honi helduta, eta bigarren strategiari gagozkiola, esan behar dugu zaila izaten dela eraldaketa horiek teoriatik abiatuta eraikitzea, modu abstraktuan, edo epe motzean gauzatzea. Aitzitik, *konkretutasunetik* sortu behar dute hazi eta epe luzean sendotzeko. Eta horrela, estrategiak ezartzeko garaian, *lehentasunezkoztat jotako horretatik* —hau da, osasuna, garapen ekonomikoa, hezkuntza, ura, kultura, eta abar— abiatzeko aukera du lankidetzak, baita *gertukoenaren* eremutik ere —lurraldea, tokikoa—, betiere goian aipatutako ahalduntze-alderdietan eragiten dutela. Izan ere, lankidetzak eraldatzaileak zehaztetik orokorrerako bidea egiten du, tokikotik estatura eta globalera. Eta bat egiten du egiturazko pobrezia-aren ikuspegi sistemikoarekin.

Idea horrek ondorio handiak ditu lankidetzan: helburua ahalduntzea da, ez soilik premiak betetzea; plangintzak epe luzekoak dira eta tresnak plan horietan txertatzen dira; *behetik, tokikotik* abiatzea aukera bat da, baita aldaketak sendotzeko bide solido eta demokratikoa ere, nahiz eta azken xedea egiturazko eraldaketa globala lortzea izan; prozesuak konplexu eta mailakatuak dira, eta horretarako, kalitate-estandarren arabera jardun behar da.


Esate baterako, lurralde jakin batean ura kudeatzeko sistema komunitarioa ezartzeko estrategia baten bidez oinarrizko gizarte-zerbitzu baten premia konpondu dezake, baina horretaz gain: ura giza eskubide bat dela nabarmendu behar du, eta eskubide hori ez betetzearen erantzukizuna nori dagokion azaldu, tokiko, estatuko eta nazioarteko eremuan; parte-hartzeko eta antolaketako egiturak sortu behar ditu, garapen-subjektuak indartze aldera; emakumeek zergatik ez duten parte hartzen aztertu behar du, eta haien parte-hartze aktiboa ahalbidetzeko egitura espezifikoak eta estrategiak ezarri; emakumeen eta gizonen artean denbora eta lana modu desorekatuan banatzen dela aztertu behar du, ura ugalketa-lanaren barnean hartuta, edo bestela, osasun-egoeraren aldeak, eta horretarako helburu espezifikoak ezarri; kudeaketa-ereduak iraunkorra, eraginkorra, eragingarria, zuzena eta solidarioa izan behar du lurralde osorako; eta jardun-sektore berrietarako —osasuna, garapen ekonomikoa, parte-hartzea, kultura— bidea egin behar du, ahalduntzeko estrategia zabal eta integralago batean.

Era horretan eraldaketa-subjektu jakin batzuk, beren eskubideak ezagututa, hori izatea lortuko dugu, eta baita aurrera egitea saihesten dieten mugak eta egiturak non dauden jakitea ere. Gainera, gertukoak dituzten bizipenak aintzat hartuta jarduten dugu, hau da, *behetik*, eta, beraz, oinarri sendo eta trinkoetan oinarritzen gara. Eta prozesu hauek beste printzipio batzuetan —berdintasuna, justizia, solidaritatea, iraunkortasuna, kalitatea— oinarritutako garapen-aukeretan oinarrituta egiten direnez, *eragin biderkatzailea* dauka; izan ere, ez du eragina horiengan bakarrik, aldiz, beste garapen bat benetan egon daitekeela ikusarazten die gainerako herritarrei, eta pixkanaka egikaritzen da. Horrela, adibidez, komunitatea eta erakundeak lehen mailako subjektu gisa sentitzen diren partaidetza-egiturak dituzten eta itundutako sektore-prozesuak

martxan jartzeko balio duten plangintza estrategikoen bitartez egindako garapenarekin konpromisoa hartu duten lurralde espezifikoek inpaktu erakusgarri handia dute.

Azkenik, Plan honen Helburu Orokorraren hirugarren estrategiaren berariazko helburua nazioarteko ordena berri baten eraikuntzan laguntzea da. Lehenengo bi estrategien helburu nagusia tokian bertan oinarrituta laguntzea izan bada, betiere globaltasunerantz aurrera egiteko asmoarekin, hirugarren estrategia honek arazo sistemiko mundialen gainean zuzeneko inpaktua izatea ahalbidetzen duten sareak eta egiturak finkatzeko lagundu nahi du. Horretarako, honako jardun-ildo hauek ezarri dira:

- **Garapen-agenda berri bat eta instituzionaltasun demokratiko mundial berri bat** egitea bultzatzea, ahalegin multilateral integratzaileagoekiko laguntzaren eta intzidentziaren bitartez.
- **Nazioarteko herri-mugimenduen koordinatzeko eta intzidentzia izateko** gaitasuna indartzea.
- **Euskal herritarrek heztea giza garapenaren egoerari eta erronkei buruz**, eraldaketa-estrategietan inplikatzeko eta aktiboki parte hartzea sustatuz.



Azken batean, Planak estrategia jakin batzuk defendatzen ditu, eta Eusko Jaurlaritzak bultzatutako lankidetzaren gaitasunen neurrian, egiturazko pobrezia desagerrarazteko borrokatzeko helburuarekiko koherentzia ematen diote, eraldaketa-ikuspegi batean oinarrituta: subjektu aktiboak eta ahalduntzaileak sortzea aldaketarako baldintza gisa;

tokitik globaltasunerantz aurrera egiten duten garapen-aukerak martxan jartzea, justizia eta berdintasun printzipioetan oinarrituta; eta multilateralismo aktibo berri bat egitearen alde jardutea.

Helburu Orokorra eta osatzen duten hiru estrategiak egikaritzean aurrera egiteko, 7 jarraibide diseinatu dira, eta horiek dira Planaren berariazko helburuak, hain zuzen. Jarraibide horiek hainbat jardun-eremu atzitzen dituzte –garapenerako lankidetzara, garapenerako hezkuntzara, ekintza humanitarioa–, eta horientzat esparru teoriko koherente eta osagarri bat ezartzen da. Baina, gainera, ekimenen garapen kualitatibo eta kuantitatiborako alderdi garrantzitsuen gainean zuzenean eragiten da, hala nola, ekimenak gauzatu dituzten eragileen indartze-lanean, estrategiak txertatzen diren tresnetan, Planaren definizioaren esparru geografikoan, edo hurrengo 4 urteko lankidetzara bideratutako aurrekontu-fondoetan.

1.- I. jarraibidea: Eusko Jaurlaritzak bultzatutako lankidetzarako ereduazko esparru teorikoa zehaztea.

Eusko Jaurlaritzak bultzatutako lankidetzara-ekimenek erreferentziakoa esparru teoriko bat behar dute, Plan honen barruan kokatutako estrategien, ekintzen eta tresnen multzoari koherentzia emateko.


Baina, gainera, hausnarketako eta kontzeptu-argipeneko ariketa hau nahitaezkoa da egiturazkoa eta eraginkorra izatea nahi den lankidetzara lortzeko. Horretarako, erreferentziakoa esparru teorikoa honako hauei egokitu beharko zaie:

- Munduko biztanle gehienek pobrezia, desberdintasuna eta kalteberatasuna ezaugarri nagusitzat dituen egungo nazioarteko testuinguruaren ondoriozko erronkak.
- Garapen-agenda berri baten definizioan hartutako erronkak, zalantzarik gabe giza garapena nazioarteko agenda politikoaren helburu nagusi gisa ezartzeko borondate politikoan oinarrituta, eta garapenaren gainean jarduteko eta erabakitze gaitasuna duten egitura demokratiko globalak sortzean oinarrituta.
- Garapenerako laguntzaren joera berriak, eraginkortasunari eta kalitateari dagokionez.
- Plan honen helburua, lankidetzara-eredu espezifiko bat –eraldatzailea, kalitatezkoa, koordinatua eta koherentea– ezartzen duena, egiturazko pobrezia-aren aurka borrokatzeko estrategia hirukoitz batean oinarrituta: aldaketa-subjektuak indartzea; giza garapeneko aukerako prozesuei laguntzea tokitik bertatik; multilateralismo aktibo eta demokratiko berri baterantz aurrera egitea.
- Baztertutako eta pobretutako herrien helburuak eta lehentasunak, eta baita horiek antolatzen diren gizarte-mugimenduak abian jartzen dituzten estrategiak eta prozesuak ere.

- Euskal lankidetzarako aukerak, alderdi ekonomikoari edo intzidentziarako eta bitartekaritzarako gaitasunari dagokionez, eta baita metatutako esperientziari eta jakintzari esker ekarpen handiena egin dezakeen eremuei dagokienez ere.

Hortaz, Jarraibide honetan Planaren erreferentziazko esparru teorikoa ezarriko dugu, honako hauekin osatua: 8 Antolarau, Lankidetzaren Helburu 1, 4 Zehar Lerro, eta 6 Sektore Eremu.

Esparru hau bere osagai guztien osagarritasuna eta zatiezintasuna aintzat hartuta uler daiteke bakarrik, multzo osoak bakarrik ematen baitio forma Eusko Jaurlaritzak bultzatutako lankidetz-ereduari.



1.1- PLANAREN ANTOLARAUAK

Antolarauak politikak ezartzeko, erabakiak hartzea zuzentzeko, tresnak hautatzeko eta jardunak zehazteko balio-irizpidetzat definitzen dira. Planak bultzatu nahi duen lankidetz-eredua garatzeko jardun-esparrua mugatzen dute.

1.1.1- Solidaritate Printzipio Desinteresatua

Solidaritate-printzipioak zera esan nahi du, Plan honen esparruan abian jarriko diren lankidetzarako ekimenen eta prozesuen helburua pobrezia-aren fenomenoaren sortzen eta iraunarazten duten egiturak aldatzen laguntzea izango dela.

Erabaki daitezkeen beste edozein helburuk edo interesek ez du lekurik izango Plangintza honetan, eta ezta eusko lankidetzaren multzoan ere, honela definitzen baita: "finantza-erloko edo merkataritza-erloko irabaziak lortzeko, enpresa-arloan postuak lortzeko edo proselitismo ideologikoa edo erlijio-erlokoak lortzeko, zein edozein motatako bezero-sareak gauzatzeko asmorik ez duen lankidetzak-konpromisoa, lankidetzak-konpromisoa" (1/2007 Legearen 3.1 artikulua).

1.1.2.- Jabetze Printzipioa

Jabetze-printzipioak lankidetzak-ekimenen helburuak eta ikuspuntuak ekimenetan parte hartzen duten eragileen multzoak *jabetzeko* premia ezartzen du.

Hortaz, Hegoaldeko pobretutako herrialdeek beren erronka eta lehentasunetan aktiboki parte har dezaten bermatzera garamatza. Eta, aldi berean, eragile bakoitzaren – Subjektu Herria, Tokiko Erakundea, Euskal Erakundea, Eusko Jaurjaritza– zeregina gardentasunez azaltzera behartzen du, eta baita premiek eta jardun-metodoek interes bateratu batekin hitz egiteko mekanismoak eta elkartzeko guneak ezartzera ere.

1.1.3.- Laguntza Printzipioa

Laguntza-printzipioak lankidetzaren ikuspuntu bat definitzen du, Hegoaldeko pobretutako herriek ezarritako garapen-prozesuak sendotu eta finkatzeko asmoarekin.

Hortaz, "kultura-erloko, ekonomia-erloko eta ideologia-erloko ereduak inposatzeko asmorik ez duen jarrera" adierazten du (1/2007 Legearen 3.3 artikulua). Honako honen errespetuan oinarritzen da: "kultura, idiosinkrasia eta gizarte- eta administrazio-antolakuntzako egiturak, eta baita tokiko erkidegoen, gutxiengoen eta herrien erabakitzeko prozesuak ere, betiere giza eskubideak, ingurumena eta nazioarteko konpromisoetan hartutako konpromisoak urratzen ez badituzte" (1/2007 Legearen 3.2 artikulua).

Ildo horretatik, lankidetzak ez ditu prozesuak sortzen, zuzentzen zein ordezkatzzen. Aldiz, alde batetik, eremu estrategikoetan, teknikoetan, administratiboetan eta finantzarioetan osagarri bihurtzen da; eta bestetik, tokiko, nazioko edo nazioarteko sare eta aliantza estrategikoak sortzea edo sendotzea ahalbidetzen duen topaketarako eta elkartrukerako gune.

Horrek ez du oztopatzen ezarritako erronkak lortzeko estrategiei dagokienez alderdien artean nolabaiteko *tentsio dialektikoa* egoteko aukera, baina betiere elkarrekiko errespetuari eutsiz eta egindako aliantzak betez.

1.1.4.- Sakontasun Printzipioa

Sakontasun-printzipioak bermatu egiten du bultzatutako lankidetzaz-ereduak neurtutako inpaktu bat bilatuko duela aldaketa sendoak egiterakoan eta egiturak eta balioak aldatzerakoan, bai Hegoaldean bai Iparraldean, eta ez bakarrik premiak asebetetzean edo egoeraren araberrako aldaketetan.

Aldaketa ekonomikorako, politikorako, sozialerako eta kulturaleko erronkek prozesu-izaerako lankidetzaz konplexua eta progresiboa eskatzen dute. Lankidetzaz horrek aldaketa prozesu hauek indartu behar ditu epe luzean –noizean behingo ekimenen edo ekimen ez estrategikorako aurka–, analisisan integralak izan behar dute, eta pobreziazaren aurkako borrokan esperientzia eta aukera sendo, ekitatibo eta arrakastatsuen finkapenean lagundu behar dute.

Ildo honetan, Lankidetzarako Legeak honako hau ezartzen du: “garapenerako lankidetzaz-ekimen guztiek, ahal den neurrian, beren garapen-helburuetan ezarritako lorpenen etorkizunerako finkapena bermatu behar dute” (3.10 artikulua).

1.1.5.- Kalitate Printzipioa

Kalitate-printzipioak erreferentzia egiten die Eusko Jaurlaritzak bultzatutako lankidetzaz-multzorako beharrezkoak diren eraginkortasunari eta efizientziari.

Eraginkortasunari dagokionez, *inpaktu-sakontasunean* oinarritutako lankidetzaz helburuei, adierazleei, ikerketa-sistemei, identifikazio-sistemei, jarraipen-sistemei eta ebaluazio-sistemei dagokienez ongi definitutako estrategiak behar ditu. Bestalde, pobreziazaren aurka borrokatzerako prozesu konplexuak finkatzeko beharrezkoak diren gaitasun teknikorako, administratiborako, finantzariorako eta estrategikorako multzoa eman behar da.

Inpaktuaren kalitateaz gain, ekimenean parte hartzen duten erakundeetan eta instituzioetan ere kalitatea indartu behar da, horien iraunkortasuna bermatzeko.

Efizientziari dagokionez, “garapenerako lankidetzazaren eragileek eta tresnek kudeaketa efizientea bermatuko dute helburu horretara bideratutako baliabideen erabileran eta aplikazioan” (1/2007 Legearen 3.12 artikulua), gardentasunerako ikuspegi bati jarraituta.

1.1.6.- Koordinazio Printzipioa

Ekimen bakoitzak bere aldetik izango lukeen emaitzaren batura gaindituz gero, jardunak elkar osatuta, edo helburu bera duten eragileen jardun koordinatuaren bitartez, eragina areagotzea —edo eraginaren kalitatea hobetzea— da printzipio horren definizioa.

Baliabideak mugatuak direnez, ekintzen eragina handiagoa izateko dadin ezinbestekoa da sinergiak sortzea, prozesuak batzea eta ahaleginak bat egitea. Bestalde, aipatu dugunaren haritik, munduko biztanleriaren zati handi bat pobreziaz murgiltzen duten eta horien garapena eragozten duten egiturak aldatzea baldin bada azken helburua,

Iparraldeko eta Hegoaldeko eragileen artean aliantza eta plan koordinatuak sortu behar dira.

Ekimenak gainjartzea saihestuko duen informazio handiagoa lortuko dugu, gutxienez, koordinazioaren bitartez; aldiz, kasurik onenean, partaidetza sustatuko du eta aliantzak eta ekimen bateratuak sorraraziko ditu, eragile bakoitzaren gunea gainditzen duten gunetan.

1.1.7.- Erantzukidetasun Printzipioa

Erantzukidetasun-printzipioak ezartzen du giza garapen iraunkorra Iparraldearen eta Hegoaldearen helburu bateratua dela, planetan bizi diren emakume eta gizon guztiak osatutako herritartasun unibertsalean oinarrituta.

Hortaz, garapena ez da soilik Hegoaldeko herrialdeen arazoa, baizik eta nazioarteko harremanetan *funtssezko kontua* da, zenbait herrialderen pobretze-egoera, hein handi batean, besteek planeta guztira esportatu duten eta ezartzen jarraitzen duten garapen-ereduaren ondorioa baita.

Horregatik, Iparraldeko lankidetzako-eragileen estrategietan nahitaez txertatu behar dira gai horren inguruan atentzioa emateko ekintza osagarriak, bai Iparraldean, bai Hegoaldean. Lankidetzako eragileen egitekoa da herrialde pobretuen ahotsa Iparraldeko instituzioetan entzunaraztea, euren herritarrentzat elkarriketarako tresna izatea, eta Iparraldetik bultzatzen dituzten politiketan eragiten saiatzea, garapena zeharkakoa izatera behartuz egiteko horietan guztietan.

1.1.8.- Hautakortasun Printzipioa

Hautakortasun-printzipioak erreferentzia egiten dio mugatutako gaitasunen aurrean lehentasun eta estrategia espezifikoak hautatzeko premiari.

Planak lankidetzarako eredu espezifiko bat –eraldatzailea, kalitatezkoa, koordinatua eta koherentea– ezartzen du egiturazko pobretzearen aurka borrokatzeko. Eredu konplexu hau osorik eta ezaugarri eta ikuspegi guztiak bermatuta ezarri ahal izateko, hautatu beharra dago eta lehentasunak ezarri behar dira, era horretan helburuak, estrategiak, tresnak eta dituen gaitasunak –ekonomikoak, gizakienak, antolakuntzakoak, teknikoak– egokituz.

1.2.- LANKIDETZAREN HELBURUA

Lankidetzaren helburuak Plan honen esparruan bultzatutako lankidetzako-ekimen guztiak izan behar duten azken helburua adierazten du. Helburu orokor gisa, ezinezkoa da hori betetzea Eusko Jaurlaritzaren lankidetzako-gaitasunekin bakarrik, baina hori ez da arrazoi

nahikoa prozesu, estrategia eta jardun guztiek zalantzarik gabe izan behar duten erreferentea ez izateko:

Egiturazko pobrezia ezabatzea, Hegoaldean eta Iparraldean prozesu endogenoak eta gaitasunak indartuta, estatuarekin eta munduarekin lotutako tokiko garapen-estrategien lehentasunezko laguntzaren bitartez

Arestian, Planaren Helburua azaltzerakoan, adierazi dugu jada planak proposatzen duen lankidetzaren oinarrian dagoen logika: *herritartasun unibertsala, eskubideen ikuspegia* eta *giza garapen iraunkorra*. Era berean, Planaren oinarriko ardatz gisa *pobrezia* hautatzeko arrazoiak defendatu zen, eta lankidetzaren eredu bat definitu zen –eraldatzailea, kalitatezkoa, koordinatua eta koherentea–, pobrezia-egoerari buruz biztanleak ahalduntzeko eta kontzientziatzeko prozesuei lagundu nahi diena, bai eta garapenerako aukera sendoak eta ekitatiboak sortu, eta nagusitzen den garapen-eredua aldatzeko beharrezkoak diren aldaketetan sakondu.

Puntu honi dagokionez, aurrera egin beharra dago logika honetan, honako bi gai hauetan oinarrituta:

1. *Zein* pobrezia-kontzeptu erabiltzen dugu: *egiturazko pobrezia, gaitasun-pobreziari* lotuta. *Nola* egiten da lan egiturazko pobreziaren fenomenoaren aurrean: laguntza- eta sakontasun-printzipioetan oinarritutako lankidetzaren ereduari lotuta.
2. *Zergatik* hautatzen dira estrategiak lehentasunezko gisa tokiko eremuan, eta *zein tokiko* kontzeptu erabiltzen dugun, estatuari eta munduari estu lotuta.

1.2.1.- Egiturazko Pobrezia

Egiturazko pobrezia jada honela definitu dugu: duintasunez bizitzeko beharrezkoak diren gaitasunen, askatasunen eta aukeren gabezia, eta pertsonen –eta herriek– beren erabakiak hartzeko aukerarik ez izatea eragiten du.

Hortaz, pobrezia-kontzeptu hau ez da mugatzen biziraupenerako baliabide ekonomikoaren gabezia sinple batean, edo estali gabeko gutxieneko gizarte-premia jakin batzuetan; garapenean eragina duten gainerako aldagaiez gain, azken horietan ere jardun beharra dago. Bestalde, egiturazko pobreziak pobrezia-egoeran dauden gizon eta emakumeen gaitasunak eta askatasunak garatzea eragozten duten zentzu guztiak atzitzen ditu –zentzu ekonomikoa, politikoa, genero-zentzua, soziala, kulturala, ingurumen-zentzua–. Hortaz, eremu horietan guztietan duintasunezko bizitza eragozten duten arrazoiak berrikusi behar badira –eta horiek arrazoi sistematikoak, historikoak eta konplexuak dira–, pobreziaren aurkako borroka modu zuzenean eta dialektikoan lotzen da giza garapen iraunkorrarekin, eta, horren ondorioz, nagusitzen den ereduaren aldaketarekin. Eredua definitzen duten egituren, politiken eta jarraibideen erabateko aldaketaren bitartez bakarrik landu daiteke modu eraginkor eta sendoan Planak proposatzen duen pobrezia-ikuspegia. Jarraian egiturazko pobreziaren funtsezko ezaugarriak ezarriko ditugu:

- *Zentzu anitzeko* pobrezia: Planak defendatzen duen pobrezia-ikuspegiaren definizioak gainditu egiten ditu *diru-sarrerako pobrezia* edo *premia-pobrezia*. Kontzeptuaren analisiaren barruan, planetako emakume, gizon eta herri guztiak pobrezia-egoeran murgiltzen dituzten aldagai guztiak atzitzen dira. Hortaz, pobrezia lotuta dago diru-sarrerekin, eta baita gizarte-zerbitzuen gabeziarekin ere; baina, era berean, honako hauek egiteko gaitasunarekin eta askatasunarekin ere lotuta dago: erabakiak hartzea, parte hartzea, hautatzea, eskubideak sustatu eta eskatzeko, eta babestuko dituen erakunde bat izatea; eta, aldi berean, Giza Eskubideen esparruaren barruan zure kultura eta identitatea indartzeko gaitasunarekin eta askatasunarekin lotuta dago, eta baita inguru iraunkor batean bizitzeko eskubidearekin ere. Hortaz, egiturazko pobrezia kontzeptuak atzitzen dituen aldagaiak Planak barnean hartzen dituen 4 zehar-lerroetan eta 6 sektore-eremuetan definitzen dira.
- *Prozesu pobrezia eta pobrezia dinamikoa*: alderdi anitzeko ikuspegiak ez du uzten pobrezia garapenetik bereizitako fenomeno estatiko gisa aztertzen –garapenaren hondakin soiltzat hartzen da–, baizik eta zuzenean garapenean bertan sartzen da, sortzen duten egitura eta politika guztiak zalantzan jarriz. Hortaz, pobrezia egiturazko prozesu bat da –ez egoeraren arabera–, eta ikuspuntu sistematiko baten bitartez azter daiteke bakarrik. Era horretan, pobrezia sustrai historikoetan murgiltzen da –kolonialismoa, mendekotasuna, doitze-programak, eta abar–, eta baita berrikusi beharra dagoen garapen-eredu batean ere. Garapena eta globalizazio neoliberalaren fenomenoak dira, eta pobrezia bi kontzeptu horiekin lotura estua duenez, dinamikoa da hura ere.
- *Ahalduntzeko* pobrezia: Egiturazko ikuspegi honen helburua da pobrezia-egoeran dauden pertsonen laguntzea beren garapeneko subjektu izateko prozesuan: “beren gaitasunak, konfiantza, ikuspegia eta protagonismoa indartzea, bizi diren egoeretan aldaketa positiboak sustatzeko”^{viii}. Objektutik subjektura aldatzeko, eta alde anitzeko kausa dinamikoak aurre egiteko, estrategia sakon, konplexu eta epe luzerakoak behar dira, indibiduala eta kolektiboa bateratzen dutenak, eta honako hauek barnean hartzen dituztenak: kontzientzia hartzea, antolakuntza autonomoa eta mobilizazio, eta era askotako baliabideen kontrola –baliabide materialak, fisikoak, giza baliabideak, finantzarioak, intelektualak eta ideologikoak–. Hortaz, pobreziaaren analisia sistematikoa da, eta horri aurre egiteko estrategia ahalduntze integratzen oinarritzen da.
- *Pobrezia desberdintasunetik*: Egiturazko pobrezia pertsonetan oinarritzen da, eta ez herrialdeetan, eta ezin ditu alde batera utzi pobrezia-egoeran dagoen biztanleriaren barruko desberdintasunak. Abiapuntuko gaitasunak eta aukerak desberdinak dira, eta kasu bakoitzaren egoeran eta posizioan oinarritutako estrategiak egin beharko dira. Honek garrantzi berezia dauka genero-harremanen kasuan, neutralitateko asmoak dauden rol zapaltzaileak indartuko lituzkeelako. Hortaz, funtsezkoa da errealitateak *desberdintzea* analisiaren bitartez, aliantzak hautatzeko eta, beraz, prozesuak lantzeko.

Hortaz, egiturazko pobrezia buruz Planak egindako definizioak fenomeno hau ikuspuntu sistematiko baten arabera –alde anitzekoa, prozesuzkoa eta dinamikoa– aztertzea behartzen gaitu, eta, aldi berean, modu jakin batean aurkaratzea behartzen

gaitu –ahalduntze-prozesuekin lagunduta, aldeak aztertuta, eta kausak aurkaratuta tokiko, estatuko eta munduko eremuetan–; era horretan, Eusko Jaurlaritzak bultzatutako lankidetzaren esparruan hasten diren ekintzen multzoa markatuko da.

1.2.2.- Tokikoaren lehentasuna, estatuari eta munduari lotuta

Plan honen oinarrian dagoen esparru teorikoari buruzko argudiaketa erreferentzia egin diogu nagusitzen den garapen-eredua sistematikoki berrikusteko premiari, eta baita zuzenean garapenik ezaren eta pobrezia gainean intzidentzia duten egituren eta politiken –globalak, estatukoak eta tokikoak– anizkoiztasunari ere.

Era berean, garapen-agenda berriaren aldeko premiazko apustuak egitura demokratiko global eta berriak sortzea eskatzen du, termino globalean zuzenean garapenean intzidentzia izateko behar adina baliabiderek eta hautatzeko gaitasunarekin.

Abiapuntu honetan oinarrituta, agian ulertu ahalko litzateke *tokikoari* emandako lehentasunak ez daukala loturarik aurreko erreferentziazko esparruarekin, azken kausa gisa eremu globalean baita intzidentzia. Aldiz, Planak aurrera egiten du bere logika teorikoan, tokikoari emandako lehentasunaren arrazoia ezarriz eta tokiko zein kontzeptu lantzen duen ezarriz; kontzeptuak gainerako eremuekin lotura estua dauka.

Era berean, kontuan izan behar da tokikoari lehentasuna emateak ez duela esan nahi Planak ez dituela estatu mailako estrategiak edo estrategia globalak lantzen. Aldiz, eta, besteak beste, elkarrekin finantzatzeko hitzarmenen eta Herralde Estrategien pareko ekimenekin aurrerago egiaztatuko denez, eremu horietan ere jardungo da eraginkortasuna eta aliantza estrategiko berriak lortzeko, betiere norberaren gaitasunak eta ezarritako azken helburuak aintzat hartuta bidezko hartzen denean.

Hori adierazita, *tokikoari lehentasuna emateko* honako bi kausa hauek azalduko ditugu:

- Eusko Jaurlaritzak bultzatutako lankidetzaren deszentralizatua da, estatu mailatik kanpoko, eta tokiko eremuan aurkitzen du jarduteko lehentasuneko gunea. Planak adierazten duenez, lankidetzaren ez da soilik fondo ekonomikoaren transferentzia bat, baizik eta honako hauek ere funtsezkoak dira: aliantzak egitea, elkarriketarako gaitasuna, gaitasunen trukea, eta abar. Hortaz, euskal lankidetzaren pareko lankidetzaren batek tokiko eremuan aurkitzen du eredu hori ezartzeko modu egokiena, antzeko ezaugarri eta eskumenak dituzten erakundeekin –publikoak eta sozialak–, giza garapenaren alde elkarri eragiteko eta sareak sortzeko. Eta horrek ez du alde batera uzten potentzialitate hauek garatzeko balio dezaketen estatu mailako ekimenetan eta ekimen globalean aktiboki parte hartzea.
- Eusko Jaurlaritzak bultzatutako lankidetzaren oinarrian Iparraldeko eta Hegoaldeko gizarte erakundeekin egiten duen lanak garrantzi handia dauka, aliantza sendo eta egonkorak ezarri dituzten tokiko lurraldeetan lehentasuneko lana eginez. Planaren helburuetako bat aliantza horiek indartzea izango litzateke, eta baita horiei laguntzea tokiko eremua gainditzen dutenean.

Hala ere, bi kausa horiek –estrategia euskal lankidetzaren egiturazko gaitasunetara egokitzeko gaitasunarekin lotuak batez ere– arrazoibide batekin osatzen dira, non azaldu egiten den *egiturazko eraldaketa-prozesu global batean tokiko mailan jardutea zergatik den estrategikoa*.

Ildo honetan, eta arestian adierazi dugunez, egungo globalizazio neoliberalako testuinguruak aldaketa esanguratsuak eragin ditu politketan eta estatuko instituzionalitate multilateralean –estatu nazioen paperaren nolabaiteko garrantzi-galera, eta nazioz gaindiko enpresen eta finantza-arloko eta merkataritza-arloko erakunde multilateralen garrantzia handitzea–. Hori gorabehera, globalizazioaren eta estatuko zerbitzuen gabeziaren ondorioak jasaten dituzten Hegoaldeko herrialdeetako gehiengo pobretuek tokiko eremuan garatzen dituzte beren bizitza-estrategiak, eta eremu horretan oinarrituta, hau da, *behetik hasita*, modu sendoagoan has daiteke lankidetzaren eraldatzaile bati buruz hitz egiten dugunean adierazten dugun ahalduntzeko eta kontzientziazteko prozesua. Raúl Zibechik esan duenez, "gizarte-, hiri- eta landa-subjektu berriak norberaren lurraldeetan ari dira sortzen. Egungo gizarte- eta herri-mugimenduen lurralde banaketa da subjektu hauen ezaugarri nagusia. Lurralde horietan espezialitate berri bat egituratzen da, zapalduakoen erresistentziak eta asaldurak modelatua"^{ix}.

Horregatik, *tokiko* eremua, *hurbilekoa*, *erreal*a, biztanleria pobretuek beren bizitza nagusiki garatzen duten eta *komunitarioak* zentzu gehiago duen lekua, estrategikoa bihurtzen da. Alde batetik, aukera ematen du, eguneroko bizitzan, beren eskubide indibidualez eta kolektiboek jabetzen diren eta beren garapena eragozten duten arazoak ulertzeko eta aurkaratzeko gai diren subjektu politikoei laguntzeko eta horiek finkatzeko; eta, gainera, lurraldean bertan sortutako garapen-estrategietan eta garapen-aukeretan oinarrituta, hau da, zehaztasunean oinarrituta egiten du hori –garapen ekonomikoa, generoa, ura, hezkuntza, osasuna, partaidetza, kultura, baliabide naturalak–, eta, beraz, prozesuak sendoago sortzen dira, ez dira hain abstraktuak, eta etengabe handitzen eta finkatzen dira. Tokikoaren balioa handitu egiten da, kasu batzuetan, prozesu hauetan aurrera egiteko zoru sendo baten moduan.

Puntu honetan azpimarratu beharra dago Planak tokikoari ematen diola lehentasuna, eta ez *tokikotasunari*. Tokikoa berezko helburu bat da, baina baita abiapuntu bat ere. Garapen-erronkak globalak dira eta, beraz, estrategiek ere globalak izan behar dute; horren ondorioz, ezin da tokikoan mugatu, baizik eta gainditu egin behar du. Egiturazko pobrezia dinamismoarekin koherenteak izanik, tokikoan ezin da giza garapen iraunkorrik izan, pobrezia hori eragiten duten estatu mailako kausak eta kausa globalak ez badira aldatzen.

Horregatik, lankidetzaren laguntzarekin prozesu sakon eta egonkorretan finkatutako garapen-subjektu hauek –indibidualak eta kolektiboak–, beren tokiko estrategien mugak eta herritar gisa dituzten eskubideak ondo ezagututa, ahalduntze-prozesuan aurrera egingo dute, beren garapenik ezaren kausa globalak aztertuta. Era horretan, aliantzak egingo dira tokiko beste esperientzia batzuekin, beste gizarte-erakunde batzuekin eta beste erakunde publiko batzuekin, eta, era berean, aukera arrakastatsuak banatuko dira, eta, azkenik, estatu eta mundu mailako eremuen gaineko partaidetzara eta eskakizunera iritsiko da.

Hortaz, tokikoa Eusko Jaurlaritzak bultzatzen duen lankidetzaren ezaugarrietara ongien egokitzen den gunea izateaz gain, era honetako prozesuak ezinbestean behetik gora

finkatu behar diren eremua da, ikuspegi guztiz demokratiko bati jarraiki, eta, azkenik, garapengune guztiak lotzen dituzten esperientzietan –zehatzak, bidezkoak, ekitatiboak– oinarrituta, lurralde-eremua gaindituz eta beste subjektuen aldeko ahaleginak batuz, Estatuaren eta nazioarteko erkidearen barruan.

Tokikoa funtsezkoa da globalarentzat. Aldaketak ez dira iritsiko oinarri sendorik gabe, ezta kontzientea, kritikoa eta ahalduna den biztanleria bat gabe ere. Hortaz, Plan honen arabera, honako hau da tokikoa: aukerak sortzeko eta garapen-subjektuak tokiko eremuan finkatzeko estrategiak bultzatzea, eta estrategia horiei laguntzea, lurralde-esparru hori gainditzen dutenean.

1.3.- ZEHAR LERROAK

Plan honen esparruan abiarazitako ekintza orotan, aintzat hartu beharreko azterketa-aldagaiak dira zehar-lerroak. Sektore-arloekin batera, egiturazko pobrezia-eremuen kontzeptuaren zentzu guztiak hartzen dituzte barnean. Baina, jarduten den arloa edozein izanik, zehar-lerroek beti estrategia baten barruan egon behar dute, aztertzen den eta diagnosia egiten den unetik lortutako helburuak ebaluatzen diren arte. Zehar-lerroak txertatzeko modua alda daiteke testuinguruaren arabera, subjektu-biztanleriaren egoeraren arabera edo hautatutako ekintza motaren arabera, baina epe luzearen prozesu estrategiko baten parte izango da, non zehar-lerroak helburu bihurtzen diren.

1.3.1.- TOKIKO GAITASUNAK, PARTAIDETZA ETA ANTOLAKETA

1.3.1.1.- Tokiko ahalmenak

Planaren erronkak herritartasuna eraikitze gaitasunaren arabera eta pobrezia-egoeran dagoen biztanleria garatzeko aukera sendoen arabera neurtzen badira, lankidetzak prozesu horien subjektuei etengabe, pixkanaka eta kalitatezko moduan lagundu beharko die, subjektu-biztanleria eta hori osatzen duten erakundeak eta instituzioak baitira.

Oinarrian egiturazko ikuspegia dagoenez, zehaztasunean eta epe laburrean oinarritutako ikuspuntua gainditi behar da –baina, ahaztu gabe–, ibilbide hobea duten beste ekimen batzuetan murgiltzeko. Ildo honetan, sakontasun-printzipioak jada adierazi zirela lan-metodologiaren inguruan eta epe luzean planifikatutako estrategietan oinarritu behar dela, non ekimenak elkarrekiko osagarriak diren, ezarritako azken helburuak lortzeko bidean aurrera eginez.

Hala ere, kalitate-printzipioak gaineratzen duenez, prozesu konplexu hauek eraginkorrak eta zehaztasunez planifikatuak izan behar dute, azterketa serio eta integralen bitartez, helburu zehatzekin, adierazgarri argiekin, eta jarraipen- eta ebaluazio-sistema gardenekin.

Hortaz, ezinezkoa da era honetako logikan aurrera egitea subjektu-biztanleriaren gaitasunak eta erakundeak eta instituzioak indartzeko estrategiarik gabe, prozesu osoaren ardatza baitira. Hortaz, eta oinarrian duen sektore-arloa edozein izanik,

edozein ekimen identifikatzen denetik, eremu guztietan –teknikoa, administratiboa, politikoa, instituzionala, metodologikoa, finantzarioa– beharrezkoak diren gaitasunak aztertu behar dira eta eremu bakoitzean berariazko helburuak ezarri behar dira. Lankidetzak jarraipen-sistema bat ezarri beharko du gabezia horiek detektatzeko, hain zuzen ere horiek osatzeko eta pixkanaka indar bihurtzeko, garapen-prozesu konplexu guztiek eskatzen duten seriotasunean eta erantzukizunean oinarrituta.

Horren ondorioz, lankidetzak laguntza bada, eta ez tutoretza edo ordezkate bat, subjektu-biztanleriaren partaidetza aktiboa eta segurua ere ekimen osoan agertu behar den elementua izango da.

1.3.1.2.- Partaidetza, garapenaren premisa eta helburua

Subjektu-biztanleriaren, hots, herritarren partaidetza eraikuntza bat da, irizpide sorta batek bideratzen duen ikaskuntza-prozesua. Prozesuak berak balio demokratikoa du, autonomiaren, askatasunaren eta gaitzearen adierazpena baita.

Komunitateko kide guztiek komunitateari eragiten dioten kontuetan erabakiak batera hartzen dituztela esan nahi du. Zalantzarik gabe, partaidetza soilik ez da aski lankidetzak-prozesuek arrakasta izan dezaten, baina esan gabe doa lankidetzaren gabezia asko eta asko partaidetza eskasarekin edo ezarekin loturik daudela. Partaidetza proiektuen eta programen identifikazio, gauzatze, jarraipen eta ebaluazio ziklo osoan agertu behar da, erabakimen handia izanik.

Tutoretzako tentazio oro gainditu egin behar da lankidetzaren bitartez, elkartze-sareak hedatzeari babes sendoa emanda, zeren eta banakako partaidetza arras ahula baita.

Partaidetzak honako hau eskatzen du: behar bezalako politika bideratuko duen ibilbide-orri edo irizpide egokiak baliatzea. Honako elementu hauek hartu beharko lirateke barnean:

- *Barnean hartzea*: ezin dira eragileak banandu edo baztertu.
- *Desberdintzea*: subjektu bakoitzak berariazko ezaugarriak ditu. Talde kalteberenak zehaztea garrantzitsua da, horien partaidetza sustatzeko ahalegin berezia egitearren.
- *Integrazioa*: taldeen interesak eta ezaugarriak errespetatuz askotariko partaidetza-gunetan.
- *Berdintasuna*: hau da, parte-hartzaileek eskubide eta betebeharrak berdinak izatea, baina estrategia desberdinak agian.
- *Malgutasuna*: sormena eta aukerak zapuztuko dituzten partaidetza-eredu zurrinak ez eraikitzea.
- *Koherentzia*: partaidetzaren bitartez ekintza-planak koherentziaz egituratzea, eragile publikoak eta pribatuak osagarri izan daitezen lortuta.
- *Legitimitatea*: partaidetzaguneei adierazgarriak izan behar dute.
- *Ardura*: partaidetzaguneei gardenak izan behar dute, eta komunitate guztien aurrean euren hausnarketan eta erabakien berri eman.
- *Ikaskuntza*: partaidetza etengabeko ikaskuntza da, eta ikaskuntza horren arauak behin eta berriro berritzen dira, perfektzioa lortze aldera.
- *Erabakigunea*: borondate-egintzak ekintza legitimo eta eraginkor bihurtzen dira.

Lankidetzaren ekintza-eremuko partaidetzaz soilik ez du arduratu behar lankidetzak, baizik eta herritarren edo gizarte-sarea eraikitza bideratu behar da beti, sare horren helburua partaidetza izanik komunitatearen, tokiko eta nazio bizitzaren eta bizitza globalaren eremu guztietan. Ildo honetan, partaidetzako demokrazia bultzatzea funtsezkoa da eskubideen ikuspegia eta Plan honek hartu dituen azken helburuak betetzeko.

Garapen-lankidetzak honako hauek ere izan behar ditu kontuan: biztanleen (batik bat, ohiko moduan baztertuak izaten diren sektoreen) partaidetza ahalik eta zabalena bultzatzea, herritarren, erakundeen eta instituzio publikoen arteko bat-egitea ahalbidetzeko; eta kultura demokratiko berria sustatzea, giza eskubideak gauzatzen eta gaitzen oinarrituta.

Puntu honetan garrantzitsua da azpimarratzea Plan honek emakumeen partaidetzari ematen dion garrantzia. Ez da egia horren partaidetza eskasaren oinarria borondaterik eza denik. Sistema patriarkalean dago oinarrituta, hau da, maskulinitutako subjektuen, eredu eta partaidetza-formetan, eta baita emakumeen guztizko partaidetza sustatzen eta errazten duten guneak, egiturak eta politikak ez egotean ere. *Desberdintasunean* oinarritutako egiturazko pobrezia ikuspegiak emakumeen partaidetzarik ezan zuzenean edo zeharka intzidentzia duten kausak aztertzea behartzen gaitu, eta baita partaidetza aktiboa eta kalitatezkoa ahalbidetzen duten estrategia integral eta sendoak ezartzera ere.

1.3.1.3.- Antolaketa, aldaketaren eragile

Partaidetzaren ardatzak antolaketaren ardatzera garamatza modu naturalean. Partaidetzaren balio besterenezina da banakotasuna: lagun bakoitzak parte hartzen du norbere subiranotasuna gauzatuta. Hala ere, antolaguneak faktore biderkatzaileak dira. Garapen endogenoa eta demokratikoa lortzeko ahaleginean, gizarte-balio erabakigarria osatzen dute nekazarien erakundeek, hiri-erakundeek, indigenen, emakumeen, sektorekako, gazteen, tokiko botereen erakundeek, giza eskubideen aldeko erakundeek, eta abar. Ikuspegi horretan hainbat zentzu barne hartzen dira: ekintzak egiteko zentzu baliagarria, helburuetan neurtzen den xede-zentzua, eta balio berriak sortzeko eremuan etengabeko zentzua.

Antolaketa honela defini dezakegu: interes eta premia berdinak eta askotarikoak dituen jendeak modu kontzientean bat egiteko gunea, non bakoitzak bere banakotasunaren ekarpena egiten duen, ordezkari kolektiboaren bitartez eguneroko errealitatea aldatzeko asmoz, askatasunez eta demokrazian. Definizio horretan, lurralde-errealitate mugatu bat erreferentziatzen hartuta egituratzen diren harremanen eta elkarrekiko harremanen sorta gisa ulertzen da komunitatearen muina. Erabakiak hartzeko egitura, prozedurak eta prozesuak, eginkizunen banaketa eta rolen osagarritasuna barne hartzen dira antolaketan.

Benetako ahalduntzea lortzeko gakoa zera da, subjektu-biztanleriaren antolaketa. Ez dira ahotsak eta iritzirik entzuteko gune hutsak. Antolaketa ere ez da lankidetzatresna zehatz bat, lankidetzatresna irauten duten bitartean baliatzeko. Aitzitik, lorpen estrategiko bihurtuko duten hainbat ezaugarri izan behar ditu antolaketa komunitarioak: jarraitutasuna, izaera integratzailea eta unibertsalak, autoarautze demokratikoa, aukera-berdintasuna, hausnarketako eta erabakiak hartzeko zentzua, adostasun-bilaketarekin uztartuta desadostasuna onartzea, esparru mobilizatzailea.

Partaidetzak bezalaxe, antolaketak ere helburu garbiak behar ditu. Pasibotasunerako eta bazterkeriarako joerak berriz ere bultzatu behar dira arazoak konpontzeko eraginkorrak diruditen helburuen inguruan. Zalantzarik gabe, lankidetzaren esperientzia ikusita, nabarmena da komunitate antolatuak askoz ere errazago lortzen dituela aurreikusitako helburuak.

Bukatzeko, beste kontsiderazio bat: antolaketak ez du inolako zerikusirik kolektibismoarekin, baina bai kolektibotasunari lehentasuna eta nortasuna ematearekin. Horrek zera esan nahi du: lehenik, antolaketaren aukera partaide bakoitzaren ekintza askea eta autodeterminatzailea dela; eta bigarrenik, pribatutasunari eutsi behar zaiola, baina gizarte-bizitzari balioa emanda. Helburu berdinak dituztelako egiten du bat jendeak, baina ezin dugu baztertu aldeak erakusteko beharra ere. Oreka hori lortzeko, balio publiko gisa elkartasunaren eta partaidetzaren balioak indartu behar dira, baina horretarako hezkuntza zibikoko prozesuak eta elkartruckerako guneak behar dira, banakoak balio demokratikoetan hezteko.

Lankidetzarako inplikazioak

- Subjektu-biztanleriaren gaitasunen eta haren erakundeen eta instituzioen gaitasunen indartze integrala beharrezkoa da garapen-estrategia guztietan, helburuak gauzatzeko eraginkortasuna eta horien iraunkortasuna bermatze aldera. Lankidetzak prozesu horiei lagundu behar die, beharrezkoak diren gaitasunak –teknikoak, administratiboak, politikoak, instituzionalak, metodologikoak, finantzarioak– emanez, seriotasuna eta kalitatea bermatuta.
- Hasteko, lankidetzak planifikatutako helburuak lortzeko gaitasunak aztertu behar ditu, gaitasun horiek indartzeko lerro osagarriak proposatuz. Gainera, lerro horien jarraipen-sistemak ezarriko ditu.
- Lankidetzaren ekimenek egiaz gaitzeko prozedurak barne hartu behar dituzte, partaidetzaren eta antolaketaren bitartez. Pobrezia-egoeran egonda ere, parte hartzeko eta antolatzeko prest dauden sektoreekin lan egitea dakar horrek, izan ere, herrialde batean pobrezia desagerrarazteko biderik laburrena gizarte-ekintza baita, askatasuna, justizia eta demokrazia lortzeko nahiarekin batera.
- Lankidetzaren ekintzetan parte hartzea bera balioztat har daiteke, biztanleek prozesuak eta estrategiak egitea bermatu eta ekintzen bideragarritasuna ahalbidetzen baitu.
- Ezinbestekoa da biztanleek proiektuaren *identifikazioan* parte hartu dutela bermatzea eta proiektua atzemandako lehentasunen eta premien arabera dela ikustea. Emakumeak izaki, emakume eta pobre izateagatik bazterketa-maila bikoitza pairatzen dutenek ekintzen azterketan modu aktiboan parte hartu ahal izateko estrategia espezifikoak ezarri beharko dira, euren lehentasunak eta premiak agerian gera daitezen.
- Ekintza *gauzatzean*, partaidetza errazteko estrategiak ezarriko dira. Estrategia horietan kontuan izan behar dira generoaren, etniaren edo erlijioaren arazoiek eragindako talde bakoitzaren egoera eta maila, partaidetzan berdintasun-egoera izan dadin.
- *Jarraipenaren eta ebaluazioaren* fasetan ere bermatu behar da partaidetza.
- Parte-hartzaile bakoitzaren ekintza askea eta autodeterminatzailea da antolaketa, helburu berdina lortzearen elkartzen baitira. Antolaketaren indartze-adierazleek garapen prozesu endogenoak sendotzen dituzte.
- Partaidetza eta antolaketa proiektuez eta programez gaindikoak dira. Proiektuak eta programak aukera dira, nazio-eremuko gizarte- eta politika-aldaketak eragiteko nahia lortzera bideratu behar diren gizarte-prozesuak hedatzeko bizigarri. Partaidetzaren eta antolaketaren gaineko eraginak, lankidetzaren ekintzak berak alde batera utzita, ekintzen efektu positibo eta objektibo gisa baloratu behar dira.

1.3.2.- GENERO BERTINTASUNA

Plan honetako genero-berdintasunaren zehar-lerroa ebidentzia bat izan daitekeen – baina ez da horrenbestera – eta ondorengo argudiatzearen oinarria izango den zerbaiten berrespenarekin has daiteke: gizonen eta emakumeen artean egiazko berdintasuna lortu duen gizarterik ez dago gaur egun. Sistema androzentrikoak araututako mundu batean bizi gara, hau da, maskulinoari/gizonei femeninoari/emakumeei baino balio handiagoa edo horien gaineko subiranotasuna ematen dion gizarte-antolaketako sistema batean, emakumeak mendekotasun-egoeran jarrita.

Eredu patriarkal honek emakumeen gaitasunak eta eskubideak mugatzen ditu, emakume izateagatik bakarrik, eta eredu horren ezaugarri nagusia ezberdintzailea dela eta desberdintasunak sortzen dituela da, gizarte bat edo bestea den kontuan hartu gabe. Genero-teoriaren arabera, gizona edo emakumea, edo maskulinoa edo femeninoa denari buruz gizarteak duen ideiak eragiten du desberdintasuneko egoera hau, eta baita batarekin eta bestearekin lotzen diren arauen, balioen, gaitasunen, rolen eta abarren multzoak ere. Ez dira gizonen eta emakumeen desberdintasunak soilik, baizik eta bien arteko bereizketak eta botere-harremanak. Genero-berdintasunaren aldeko lanaren helburua da bereizketa horiek gainditzea eta bizitzaren arlo guztietan emakumeen eta gizonen arteko egiazko berdintasuna lortzea. Gure ustez, garapenak ezinbestean kontuan hartu behar duen erronka da hau.

Genero-berdintasunaren eta garapenaren arteko ezinbesteko lotura justifikatzen duten hainbat argudio daude. Garapenaren subjektua gizaki bakoitza dela onartzen badugu, ezin dugu alde batera utzi biztanleriaren erdiak, hau da, emakumeek, pairatzen duten bazterketa- eta desabantaila-egoera. Ezinezkoa da jendearen gaitasunak indartzea eta aukerak areagotzea xede duen garapen-estrategia bat diseinatzea, ez badira onartzen genero-ezberdintasunak, eta helburutzat ezberdintasun horiek murriztea eta ezabatzea izan gabe. Are gehiago, garapena gauzatzeak ezberdintasuna sortzen duten egiturak ezabatu behar ditu, eta sistema patriarkala errotik kentzeko borroka ezin du alde batera utzi helburu hori. Giza garapenarekin batera gizarte-eredu berri bat sortu behar da, emakumeentzat eta gizonentzat berdina eta bidezkoa.

1.3.2.1.- Emakumeak eta genero-harremanak garapenean

Urteak joan, urteak etorri, garapenaren eremuan gai horren inguruko hamaika ikuspegi izan dira. Jarraian, zenbait ikuspegiren alderdi esanguratsuenak azalduko ditugu laburbilduta. Azpimarratu beharra dago ikuspegi horiek garrantzitsuagoak izan ziren urteetan kokatzen diren arren, ez direla gainditutako fasetzat hartu behar, horietako asko oraindik indarrean daudelako eta gaur egun ere erabiltzen direlako.

50eko eta 60ko hamarkadetan, garapenaren objektu pasibotzat jotzen ziren emakumeak. Ziurtzat jotzen zen emakumeei eta gizonei modu berean egiten zirela onura proiektuek, garapena —alderdi bakarrekoa eta abstraktua izaki— gizarte osoarentzat positiboa zelako. Gainera, emakumeak “talde ahul” gisa ikusten ziren, eta ama izatea zen beren zeregin nagusia. Era horretan, garapenaren onuren hartzaille bihurtu ziren, baina ezin zuten garapenaren definizioan parte hartu.

70eko hamarkadan, batik bat erdialdean, eta NBEak *emakumearen hamarkada* deiturikoaren ostean, *emakumea garapenean (EG)* izeneko ikuspegia ezartzen hasi zen. EG estrategiak onartzen du emakumeak subjektu produktiboak direla, garapen ekonomikoari laguntzen dioten subjektu aktiboak, alegia; eta hortaz, aukera hobekak eta produkzio-baliabide hobekak (lana, diru-sarrerak, lanerako gaitasuna, etab.) merezi dituzte. Praktikan, ikuspegi horretan inspiraturiko proposamenetan, kolektibo isolatutzat hartzen da emakumea, eta ikuspegi horren arabera, kolektibo horren arazoan eragile garapen-prozesuetan jasandako bazterketak soilik izan dira; beraz, emakumeen lan-zama handitu zuten botere ekonomiko handiagoa eman gabe, eta emakumeek garapenean modu aktiboan parte hartzeko egiaz dituzten eragozpenei entzungor eginda. EG estrategia honen barruan hainbat ikuspegi topa ditzakegu aldi berean, hala nola aukera-berdintasunekoak, pobrezia-erantzukizunekoak edo efizientziarenak.

70eko hamarkadaren amaieran, garapen-estrategien aurka eta emakumeei zuzendutako jardunen porrotaren aurka feministek egindako kritikek ikuspegi berri bat sorrarazi zuten, *Generoa garapenean (GG)* izenekoak. Garapenean "arazoa" jada ez ziren emakumeak; izan ere, emakumeak garapenean integratu behar zen baztertutako kolektibotzat hartzen ziren. Emakumeek jada garapenean parte hartzen zuten, baina mendeko moduan. Emakumeen eta gizonen arteko botere-harremanak azterketaren muinean egotera pasa ziren. Hori horrela izanik, *genero* kontzeptua ezagun egiten hasi zen, gizonen eta emakumeen arteko ezberdintasunak biologikoki zehaztuak baino, gizarteak eraikitzen dituela adierazteko, eta, beraz, alda daitezke. Aldi berean, emakumeek gizartean duten tokia gizonen tokiarekin loturik dagoela adierazi zen.

Zentzu horretan, giza garapenari egindako ekarpen handiena izan da honako hauek aztertzearen garrantzia azpimarratu izana: gizonen eta emakumeen arteko desorekak eragiten dituzten gizarte-prozesuak eta gizarte-instituzioak; emakumei euren lanaren irabazien jabetza kentzeko moduak; bi generoen gaitasuna eta jokaera modu asimetrikoan baloratzea; eta horren ondorioz sortzen den baliabide-erantzukizunekoak eta botererako sarbide ezberdina. Errealitatea behatzerakoan aztertu behar diren hainbat elementutan pentsatzera garamatza, hala nola, sexuagatiko edo generoagatiko lan-banaketa, premia praktikoak, edo interes estrategikoak, edo emakumeen eta gizonen egoera/postua, besteak beste.

Ikuspegi honekin lotuak dauden, azpimarratu behar ditugun eta lankidetzaz-politikentzat oso garrantzitsuak diren funtsezko bi kontzeptu daude. Lehena *mainstreaming* edo *genero-zeharkakotasuneko* estrategia da, eta bigarrena *emakumeak ahalduntzea* da; biak elkarrekiko osagarriak eta genero-berdintasunak ezabatze beharrezkoak diren estrategia gisa aurkezten dira.

Ahalduntze terminoa emakumeen kontzientziazio-prozesuarekin —banakakoa eta kolektiboa— loturik dago, eta prozesu horrek eragin-gaitasunerako eta boterea gauzatzerako sarbidea ematen duten prozesuetan eta erabakiak hartzeko prozesuetan parte-hartzea areagotzeko aukera ematen die. Beste modu batean esanda, prozesu bat da, emakumeen gizarte-talde gisako gaitasunak eta protagonismoa indartzen dituen, alegia, aldaketa positiboak eragiteko, bizi dituzten egoeretan eta eremu sozialean, kulturean, politikoan, ekonomikoan eta pertsonalean betetzen duten zereginean, gizonekin alderatuta, baliabide materialen eta sinbolikoen kontrola eskuratuta.

Ahalduntze-prozesu hauen ezaugarri nagusi gisa azpimarra dezakegu emakumeen eraldaketa indibiduala (konfiantza, autoestimua, duintasuna, kontzientziazioa, aukeratzeko gaitasuna) zein kolektiboa (emakumeen partaidetza eta antolaketa

munduan duten egoera eta zeregina hobetzeko) ekartzen dutela. Emakumeek boterea eskuratzean datza. Ahalduntzea ezin da goitik eman, ezin dira emakumeak "ahaldundu". Alde anitzeko prozesu bat da; izan ere, tradizioz "ahalmenik" izan ez duten eremu askotan emakumeen autonomia gauzatzea dakar.

Mainstreaming edo genero-zeharkakotasuna kontzeptua "ikuspegi politiko bat da, emakumeak garapenaren 'korrante nagusian' integratzeko helburua duena (genero-ikuspegi batean oinarrituta metodologia, azterketa, politika et plangintza guztietan eragina izateko premiaren aitortpena)"^{xx}. Berehalako helburua emakumeen egoera soziala eta ekonomikoa hobetzea da. Genero-ikuspegian oinarrituta lan egiteko, kontuan izan behar dira emakumeen eta gizonen baldintzak, egoerak eta premiak. Ikuspegi hori zeharkakotzeak zera dakar, ezberdintasun horiek eragile guztietan eta garapen-politiken eta garapen-estrategien fase guztietan egotea, eta ezberdintasun horiek errotik kentzeko eta berdintasunean oinarritutako bidezko sistema bat sortzeko konpromisoa hartzea.

1.3.2.2.- Eusko Jaurlaritzaren lankidetzaren ereduak: genero-berdintasuna zehar-lerro gisa, eta emakumeak ahalduntzea sektore-arlo gisa

Plan honetan adierazten den giza garapen iraunkorra nahitaez genero-berdintasuna lortzearekin lotu behar da. Egiatzko giza garapen iraunkorrak eta berdintasunean oinarritutako pertsona guztien, emakumeen eta gizonen, gaitasunen garapena sustatu behar du. Hortaz, ezinbestekoa da garapenerako lankidetzak, eta zehazki Eusko Jaurlaritzak sustatu nahi duen lankidetzaren ereduak, lan egitea gizonen eta emakumeen arteko ezberdintasun-egoerak ezabatzeko eta, helburu nagusi gisa, bidezkoa den eta berdintasunean oinarritzen den gizarte-eredu bat gauzatzeko.

Teorikoki, Plan hau GG ikuspegian (Generoa Garapenean) kokatzen da. Planteamendu teorikoan zein aplikazio praktikoan, planak azterketaren muinean jarri nahi ditu honako gai hauek: gizonen eta emakumeen arteko botere-harremanak, emakumeek boterea lortzeko beharrezkoak diren mekanismoak eta estrategiak ezartzea, eta ezberdintasun horiek sortzen dituzten egiturak eta sistemak errotik kentzea. Hortaz, planaren abiapuntua genero-berdintasuna lortzeko konpromiso politikoa da, 4/2005 Legean (1. art.) eta 1/2007 Legean (3.7 art.) jasoa.

Horretarako bi estrategia osagarri ezarri dira, eta honako helburu hauek dituzte: genero-berdintasuna definitzea gure lankidetzaren ereduaren zehar-lerro gisa, eta emakumeak ahalduntzeko prozesuak ezartzea lanerako sektore-arlo gisa.

Lehenengoari dagokionez, genero-berdintasuna Plan honen zehar-lerro gisa definitzea, lankidetzarako ekintza guztietan eta lankidetzaren parte hartzen duten eragile guztietan genero-*mainstreaming* kontzeptua ezarrita gauzatzen da. Arestian adierazi dugunez, zeharkakotzeak zera esan nahi du: emakumeak garapenaren "korrante nagusian" integratzea, genero-ikuspegi batean oinarrituta metodologia, azterketa, politika eta plangintza guztietan eragin izateko premiaren aitortpena, berehalako helburua emakumeen egoera soziala eta ekonomikoa hobetzea izanik.

Oraingoan, generora eta *mainstreaming* kontzeptura itzuli nahi dugu, baina ez tresna tekniko gisa soilik, baizik eta errealitatea eraldatzeko ahalmena duten azterketa-

kategoria gisa. *Generoa* ez da lankidetzaren proposamenetan edozein modutan gaineratu behar den zerbait, baizik eta proposamen politiko bat da eta errealitatea eraldatzen du, eta ezberdintasuna sortzen duten egiturak errotik kentzeko eta gizarte-eredu berri baten alde borrokatzeko konpromisoa dago horren oinarrian.

Premisa garrantzitsu honetan oinarrituta, genero-mainstreamingak honako inplikazio hauek dituela esan dezakegu:

Lehenik, genero-ikuspegia gaineratu behar da proiektuaren, programaren edo jardunaren kudeaketa-zikloko fase guztietan, hau da, proiektua edo dena delakoa identifikatzen, formulatzen, gauzatzen eta ebaluatzen den une beretik. Oso garrantzitsua da lan egingo den errealitate zehatzaren genero-diagnosiak egitea. Diagnosi horiek datuak sexuen arabera bereizi baino askoz gehiago egin behar dute, nahiz eta bereizketa hori funtsezko premisa den. Honako hauei buruzko informazioa jaso behar dute: emakumeen eta gizonen baldintza eta egoera, premia praktikoak eta interes estrategikoak, baliabideen banaketa, lanaren banaketa sexuaren edo generoaren arabera, botere politikoaren banaketa, eta abar. Aldagai horiek guztiak generoaren teorian agertzen dira. Diagnosi on baten bitartez, ezberdintasunak non dauden ezarri ahalko da, eta, beraz, estrategiak eta prozesuak planifikatu ahalko dira, eta, era berean, berdintasunari dagokionez lortutako aurrerapenak neurtu ahalko dira.

Era berean, proiektuaren edo programaren ziklo osoan emakumeen parte-hartze aktiboa bermatuko duten mekanismoak ezarri behar dira, eta horretarako parte-hartze hori babestuko duten neurriak eta ekintza positiboko neurriak ezarri beharko dira.

Bestalde, ebaluatzeko mekanismoak ezarri behar dira, eta baita genero-berdintasunaren lorpenen izandako aurrerapenak adieraz ditzaketen adierazleak ere. Prozesu konplexuak direla eta, arreta berezia jarri behar da horien jarraipenean eta ebaluazioan, akatsak zuzentzeko, ikasitako lezioak ikusteko eta adierazitako berdintasuneko helburuan aurrera egiteko.

Bigarrenik, eta ekimenetan baino gehiago, parte hartzen duten eragileetan sakonduz, genero-berdintasunak konpromiso sendoak behar ditu gauzatu ahal izateko. Oso garrantzitsua da berdintasuneko helburua elementu nagusi bihurtzea, bai erakunde barruan, bai horien korrante nagusian. Ez arlo edo sektore jakin batzuetan bakarrik, baizik eta guztietan: ez baliabide batzuen jomugan bakarrik, baita aurrekontu globaletan ere; ez proiektu zehatzetan bakarrik, baita erabakiak hartzerakoan eta eragileen politikak definitzerakoan ere. Egiatzko genero-zeharkakotasuna berdintasuna lortzeko bide gisa erabiltzea ezin da kanporako helburu gisa eman bakarrik, egiten duen lanean ere agertu behar baita. Ezinbestekoa da parte hartzen duten eragileek berdintasuna gauzatzeko estrategiak eta planak lantzea, kanpoan egiten dituzten ekintzei erreferentzia egiteaz gain, beren antolaketa-sistemari ere erreferentzia eginez. Berdintasuna lortzea Iparraldearen zein Hegoaldearen zeregina da, eta ondorioak ditu lankidetzako entitateen berezko egituran zein instituzio-antolamenduan (garapen-subjektuak, euskal erakundeak, tokikoak, emalea).

Bestalde, gure lankidetzaren ereduaren bigarren premisa ahalduntze-prozesuak lanerako sektore-arlo gisa ezartzea da. Zuzenean eta modu esplizituan emakumeak ahalduntzeko helburuak dituzten lankidetzaren ekintzetarako dirua esleitzea zeregin saihestezina da. Emakumeak ahalduntzea genero-berdintasunaren aldeko borrokan ezinbesteko zati bat da, eta helburu hori duten lankidetzaren ekintza guztietan bete beharko litzateke. Baina, horretaz gain, sektore-arlo espezifiko bat definitzea

beharrezkotzat eta egokitzen hartzen da, gure ustez prozesu horien aldeko laguntzak genero-berdintasuna eta giza garapena lortzeko duen garrantzia azpimarratzeko modu gisa. Berdintasunean oinarritutako bidezko eredu bati buruz hitz egin ahal izateko, emakumeek beren boterea handitu beharko dute eta eredu berri honen definizioan berdintasuneko egoeran egon beharko dute.

Plan honek sektore-arloen atalean zehaztasun handiagoarekin definitzen ditu prozesu hauek izan beharko lituzketen ezaugarriak eta lankidetzaren eragileentzako inplikazioak. Laburbilduta, azpimarratu beharra dago epe luzerako prozesuak direla, emakumeen kontzientziak indibiduala eta kolektiboa bilatzen dutela, alderdi anitzekoak direla, eta lankidetzaren eragilearen zeregina prozesuak sustatzea eta laguntzea dela.

Azkenik, esan beharra dago emakumeei zuzenduriko ekintzei arreta berezia eskaintzeak ez duela eragozten gizonen zuzenduriko ekintza espezifikoek duten garrantzia onartzea, euren ekintzek emakumeen ahalduntzea zenbateraino oztopatzen duten azter dezaten, harreman pertsonal eta gizarte-harreman igualitarioagoak lortzeko duten erantzukizunaz jabe daitezela, eta berdintasunaren aldeko aldaketetan eragile aktibotzat ikus dezaten euren burua.

Jarduteko erreferentziarako esparru oso hori honako konpromiso eta lan-ildo hauetan ikus daitezke:

- Genero-mainstreaminga genero-berdintasuna lortzeko beharrezko estrategia delako:
 - Genero-berdintasuna ezarri da ikuspegi hori betetzen ez duten ekimen guztien (programak, proiektuak, eta abar) zuzenduriko bazterketarako eta lankidetzaren ekintzetarako zehar-lerro gisa.
- Emakumeekin berriazko lana egitea beharrezkotzat hartzen delako genero-berdintasuna eta giza garapena lortzeko:
 - Lankidetzaren aurrekontu erabilgarriaren % 10 gutxienez honako hauek bideratzeko konpromisoa ezarri da: xede-biztanleria gisa emakumeak dituzten ekintzetara, emakumeen elkarteetara edo emakumeen eta gizonen arteko ezberdintasunak ezabatzeke berriazko helburua duten elkarteetara.
- Emakumeen erakundeekin, foroekin eta mugimenduekin aliantza estrategikoak indartu behar direlako, baita mugimendu feministarekiko loturak ere:
 - Erakunde feministekin zuzenduriko lankidetzaren hitzarmenak ezartzen dira tresna honen ildo estrategiko gisa.

- Berdintasuna lortzeko konpromisoak proiektu edo ekimen isolatuak gainditu behar dituelako eta garapenean inplikaturiko eragileen jardunean eragina izan behar duelako:
 - Genero-berdintasunaren aldeko ekintza-plan estrategikoa duten tokiko entitateek edo euskal erakundeek aurkeztutako lankidetzak-ekimenak positiboki balioesten dira.
 - Programen deialdian aurkezten diren tokiko entitateei eta euskal erakundeek genero-berdintasunaren aldeko ekintza-plan estrategikoa bat izateko betebeharra, edo, halakorik ez badute, 24 hileko epean plana egiteko konpromisoa hartzeko betebeharra ezarri zaie.
 - Euskal entitateen genero-berdintasunaren aldeko antolamenduaren aldaketa-prozesuak bultzatzen dituen Dekretu bat landu da.

- Emakumeen berdintasuna eta ahalduzkoa lortzeko lan egiten duten beste esperientzia batzuk ezagutzea beharrezkoa denez gero:
 - Jardunaldiak edo topatzeko eta elkartrukerako guneak antolatu dira Iparraldeko eta Hegoaldeko emakumeen erakunde edota erakunde feministen artean.

Lankidetzarako inplikazioak

1.- Erakunde Eremua

- Genero-berdintasuna lortzeko, lankidetzak-eragileek konpromiso sendoak hartu behar dituzte. Konpromiso hori gauzatzeko, genero-berdintasuna erakundeen barruko helburu nagusi gisa ezarri behar da.

- Genero-berdintasuna lortzea eragileen kanpoalderako ekintzez gain, eragileen egitura eta erakunde-antolamendua ere barnean hartzen dituen helburu bat da. Barrurako lan hau erakundeen barruko ezberdintasuneko egoerak gainditu nahi dituzten eta horretarako planifikatutako eta neurtutako estrategiak, langileak eta aurrekontuak dituzten genero-berdintasunaren aldeko ekintza-planetan bildu beharko litzateke.

2.- Eremu estrategikoa

- Genero-ikuspegia ez da tresna tekniko gisa soilik ikusi behar, baizik eta errealitatea eraldatzeko gaitasuna duen azterketa-kategoria gisa ere ikusi behar da.

- Genero-berdintasuna lortzeko lankidetzarako ekintza eta eragile guztiekiko zehar-elementu bat izan behar du. Genero-mainstreamingak edo genero-zeharkakotasunak, genero-berdintasuna lortzeko estrategia gisa, plangintza eta giza baliabideak, baliabide intelektualak eta materialak behar ditu gauzatu ahal izateko.

- Baliabideak ezarri behar dira emakumeekin berriazko lana egiteko, horien ahalduzko-prozesuak sustatuz. Ezarpen hori zeharkakotasun-estrategiaren alderdi "osagarria" eta ezinbestekoa da.

- Berdintasunaren sustapenean lan egiten duten Iparraldeko eta Hegoaldeko emakumeen erakundeekin edo erakunde feministekin egindako loturak eta aliantzak estrategikoak dira lankidetzak-eragileentzat.

3. Eremu Teknikoa

- Zeharkakotzeak garapen-ekimen guztien kudeaketa-zikloaren fase guztietan genero-ikuspegia gaineratzea dakar, hau da, identifikatzen, formulatzen, edo gauzatzen denetik bilakatzen den arte. Horretarako praktika egokiak behar dira, honako hauek esaterako.

- Testuinguru jakin batean emakumeen eta gizonen egoerari buruz informazioa emango diguten genero-diagnosiak egin behar dira, horren arabera planifikatu ahal izateko.
- Berariazko neurriak ezarri behar dira proiektuaren fase guztietan gizonen eta emakumeen parte-hartzea bermatu eta sustatzeko.
- Planifikazio-fasean emakumeen premia eta interes praktikoak eta estrategikoak kontuan hartzen direla eta asebetetzen direla bermatu behar da.
- Emakumeen egoeran eta mailan proiektuek izandako ondorioak aztertzeaz gain, genero-harremanetan izandako eragina ere aztertzen duten adierazleak ezarri behar dira, genero-berdintasunerako bidean egindako aurrerapausoak ezagutzeko. Adierazle horiek proiektuaren edo programaren aurrekontuan jaso behar dira, modu definituan eta zehatzean.
- Gauzatutako programen eta proiektuen genero-eraginaren ebaluazioa izango da epe ertain eta luzerako estrategiak finkatzeko oinarria.

1.3.3.- GIZA ESKUBIDEAK

1.3.3.1.- Giza Eskubideak eta Giza Garapena

Giza eskubideen errespetua, defentsa, sustapena, eskakizuna eta kontzientziazioa Plan honetan oinarritutako pobrezia-aren aurkako borroka-estrategia orok indartu beharreko premisa ez ezik, helburu ere badira. Jada adierazi dugunez, gure esparru teorikoa herritartasun unibertsalean oinarritzen da, eta horrek gizaki guztiei eskubideak eta askatasunak aitortzen dizkie, horien jatorria edozein izanik. Hortaz, *eskubideen ikuspegia* hartzeak lankidetzak-ekimenak behartzen ditu subjektu-biztanleria pertsona onuraduntzat hartu ordez, eskubideen eta askatasunen titulartzat hartzera, eta baita titulartasun horiek –indibidualak eta kolektiboak– indartzera ere.

Hala ere, eta esandakoaren aurka, nazioarteko eztabaidan garapena giza eskubideetatik at definitu nahi duten hainbat ikuspuntu izan dira eta badira oraindik ere. Logika horren arabera, kulturaren, ekonomiaren, politikaren eta gizartearen arloko eskubideen gauzatzean oinarrituriko gizarteak lortzea atzeratu egin behar da oparotasun-fasetara heldu arte, eta aurretikako hainbat etapa gainditu behar dira, eskubide horiek onartu gabe.

Hortaz, adierazle makroekonomikoen hobekuntzaren ezinbesteko ondorio dira giza eskubideak (zibilak eta politikoak bakarrik); bestela esateko, garapen-prozesuaren emaitza, eta ez oinarria. Ikuspegi horren arabera, gainerako eskubideak (zibilak, eta kulturaren, ekonomiaren, politikaren eta gizartearen arloko eskubideak) ez lirerateke aplikatu behar nagusi den garapen-ereduarekin kontrajarriak izanez gero, kulturaren ikuskera jakin batean oinarrituriko garapen-ereduarekin, hain zuzen ere.

Bestalde, egiturazko pobrezia-aren ikuspegiak oinarri gisa hartzen du giza eskubideen gorputzaren osotasuna, eta eskubideak urratzen direnerako jardun-estrategiez gain, eskubide horiek defendatzeko prozesuak ere behar ditu, eta horrek inplikazio handiak ditu lankidetzan. Askatasunen gabezia jabetu gabe ezin da ahalduntzerik egon, eta ezta urratutako eskubideen alde borrokatzeko ekimenak garatzen ez badira ere.

Hori kontuan hartuta, garapenaren –eta, beraz, egiturazko pobrezia-aren– eta giza eskubideen arteko harremanari buruzko honako bi ideia/indar hauek atera ditugu:

- *Garapenaren eta giza eskubideen kontzeptuak zatiezina eta elkarren mendekoak dira*: gizakia garapenaren oinarritzko subjektu izaki, batik bat, estatuko eremura mugatzen diren helburu orokor eta makroekonomikoak lortzea ezin da lehentasun izan,

funtsezko eskubideak eta askatasunak eskuratzearen gainera. Giza eskubideak eta garapena loturik daude, bata bestea dakar ezinbestean. Gizakiaren aukerak eta askatasunak indartu nahi baditugu, ezin dira zenbait alderdi lehenetsi beste zenbaiten gainera, hau da, alderdi ekonomikoa ez da lehenetsiko politikaren edo gizartearen arloko alderdien gainera, guztiak batera hartuta osotasun zatiezina osatzen baitute. *Giza eskubideetan oinarrituriko garapenaren ikuspegia* izango da gure abiapuntua, eta giza eskubideak indartzea, aldiz, gure helburua.

- *Eskubide kolektiboak ere funtsezkoak dira: Sozialak, Ekonomikoak, Kulturalak*: giza garapenaren adiera zabalak, jendea ardatz duen adierak garapenaren eta kulturaren, kultura ezberdinen arteko harremana zalantzan jarrarazi digu. Puntu honetan gaudela, zera gogoratu behar dugu: *kultura* ez da, jada, arte ederren multzoa eta ondare historikoa soilik. Termino^{xi} horren adiera antropologikoak badu zientziaren eta ohituraren nahikoa babes, eta lasai aski esan daiteke kultura honako hau dela: gizarte jakin baten bizimodua bereizten duten ezaugarri bereizgarrien multzoa. Hori horrela bada, gizakiaren alderdi zehatza izateari utzi, eta gizakia ulertzeko moduaren ardatz, oinarri bihurtu da, gizakiak bere buruarekin, besteekin eta inguruarekin dituen harremanak barne hartuta. Esate baterako, baliabide urriak sortzeko eta banatzeko modua da ekonomia, baina kultura jakin baten alderdi jakin bat baino ez da, politika bezalaxe, edo gizartearen arloko gaiak lantzeko modua bezalaxe. Hortaz, Giza Garapenaren kontzeptua osatzen duten alderdien artean ez dago hierarkiarik, baina horretaz gain, banako, komunitate edo herri bakoitzak garapenaren hainbat eredu izan ditzake, baita garapena osatzen duten alderdi guztien hainbat eredu ere, kulturaren arabera. Giza eskubide indibidualak eta kolektiboak errespetatzearen esparru globalean, ikuspegi eta prozesu horiek indartzea da garapenaren funtsa bera. Horrekin guztiarekin, kulturaren eta ekonomiaren arloko eskubideak eta sortzen ari diren eskubide berriak funtsezko bihurtu dira, eskubide zibilen eta politikoen maila berean, kultura bakoitzaren garapenaren ikuskeraren barruan.

Beraz, bi ideia horien arabera, giza eskubideen esparru globalaren errespetu besterenezina garapenarekin lotu-loturik dago. Gizarte segurua, kontzientea, parte-hartzailea, etorkizuna erabakitzeko eta etorkizun hori bere parametrotatik indartzeko gai den gizarte ez badugu lortzen, ez dugu garapenik izango, nahiz eta produktibitatea asko handitu eta produkzio-sarearen egituran aldaketak gertatu. Bestalde, zentzu hertsienean hartuta, eta eskubide zibilei eta politikoei dagokienez, giza eskubideak hankamotz geratuko dira, giza garapen orekatu eta parte-hartzailearen aldeko konpromiso sendorik ez badago, ekonomiaren, gizartearen eta kulturaren arloko eskubideen aplikazioaren eta galdagarritasunaren bitartez. Hau da, giza eskubide guztiak zatiezinak, elkarren mendekoak eta elkarri lotuak direla kontuan hartuta.

1.3.3.2.- Giza Eskubideak: Esparru Orokorra, Oinarritzko Printzipioak, Galdagarritasuna

Ez dugu ahaztu behar giza eskubideak mintzagai ditugunean, aurreko atalean esandakoari jarraiki, gaur egun nazioarteko zuzenbidean jasotako giza eskubide guztien errespetuaz eta betetzeaz ari garela. Horiek guztiek esparru *unibertsala eta besterenezina* osatzen dute (jende guztiak baliatu behar ditu), *zatiezina* (giza duintasunak bere-bereak dituzenez, ezin dira kategorizatu edo hierarkizatu), *elkarren*

mendekoa eta elkarlotua (eskubide baten indarraldia beste eskubideen indarraldiaren mende dago), eta *ez-baztertzailer*.

Hain zuzen ere, garapen-eskubideak jardun-esparru zabala ezartzen du, funtsezkoak eta besterenezinak diren eskubideekin eta askatasunekin mugatuta. Esparru horretan, indar berdinarekin bermatu eta aldarrikatu behar diren eskubide indibidualen eta kolektiboen zerrenda osatu da, kultura guztietan garapenak izan ditzakeen adierak barnean hartzeko.

Eskubideak zatiezinak izan arren eta eskubideen artean hierarkiarik ezarri ezin den arren, batzuen eta besteen galdagarritasun-maila oso bestelakoa da, eta ondorioz, egiazko garrantzia eta garrantzi praktikoa ere askotarikoa da. Eskubide zibilek eta politikoez beren bidea egin dute, eta hein handi batean, ekonomiaren, gizartearen eta kulturaren arloko eskubideetatik bereizita; azken horiek babesik gabe egon dira, eta egiazko konpromisorik gabeko asmo-adierazpen soiltzat hartu dira, galdagarritasun-mekanismo eraginkorrik gabeko helburu desiragarritzat.

Goiko adierazpen horren argigarri, Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Hitzarmeneko 2. artikulua aipatuko dugu: «estatu kide bakoitzak (...) neurriak hartzeko konpromisoa hartu du, eskura dituen baliabide guztien gehienekora heldu arte, hemen onarturiko eskubideen erabateko eraginkortasuna lortu arte, pixkanaka, (...) egokienak diren bitarteko guztiak baliatuta». Beraz, ikus daiteke galdagarritasuna ez dela absolutua eta ondorioa, hots, ez da eskatzen berme eraginkor eta baldintzarik gabea, baizik eta ahal den neurrira arte, neurriak hartzea. Izaera programatiko eta mailakatu horren ondorioz, galdagarritasun mugatu horren ondorioz, praktikan, giza eskubideetan maila txikiagoko eskubidetzat hartu izan dira.

Hala ere, ekonomiaren, gizartearen eta kulturaren arloko eskubideen galdagarritasun-bideak indartzea eskatzen du egiturazko pobrezia ezabatzearen logikak, herrien garapen-prozesuak iraunkorrak izan daitezzen eta gizon-emakumeen oinarritzko askatasunak bermatzearen. Eta gure lankidetzaren bitartez, askatasun indibidualak eta kolektiboak, aldi berean, premisa eta azken helburu dituen giza garapen integral eta parte-hartzaile horri babesa eman behar diogu.

1.3.3.3.- Giza Eskubideak herrialde pobretuetan: Lankidetzaren egitekoa

Herrialde pobretuetako giza eskubideen egoera da, egun, nazioarteko komunitateak duen erronkarik handienetako bat, herrialde horietan inon baino latzagoak baitira munduko ordena ekonomikoaren eta gizarte-ordenaren kontraesanak.

Hegoaldeko herrialdeek kolonizazio-prozesuetan pairatutako desegituratzeari — ekonomiaren, politikaren eta gizartearen arlokoa— ezin izan zioten aurre egin hurrengo hamarkadetan. Eta hori gutxi balitz, eredu ekonomiko neoliberalak inposatu zirelarik, Iparraldearekiko mendekotasuna eta gizartearen desegituraketa areagotu egin ziren, gizartearen sektore asko eta asko baztertuak eta marjinatuak geratuta. Desoreka handien eta gizarte dualen egoera hori, lurraldean eragiteko eta kontrolatzeko inolako ahalmenik gabeko estatuak izanik, eta *zigorgabetasun eskubidea* duten enpresa eta talde handiak edukirik, giza eskubideen urraketarako haztegi bihurtzen da:

Baina, gainera, Hegoaldeko herrialdeen eta Iparraldekoen arteko ezberdintasun handiek eta nazioarteko mailan ezarritako politika agresiboek muturreko nortasun-jarrerak areagotu dituzte azken urteotan, batzuk izaera fundamentalistadunak, eta askatasunen eta eskubideen gabezia indartu dute. Fenomeno horiei erantzuteko, Iparraldeko herrialdeek, prozesu horien egiturazko arazoak aztertu ordez, eta terrorismoaren aurkako borrokaren izenean, eskubideak eta askatasunak urratzen dituzte, eta nazioarteko gatazka berriak sortzen dituzte, eta, horren ondorioz, kalteberatasuna handitzen duen kiribila baino ez da sortzen.

Eta, hain zuzen ere, kiribil honetan gehien kaltetzen direnak pobretutako pertsonen eskubideak eta askatasunak dira. Eta emakumeen kasuan kaltea askoz handiagoa da, muturreko nortasun-jarreraren borrokak zuzenean jasaten dituztelako, eta, aldi berean, beren eskubideak errazago urratzen dira, sistema patriarkala nagusitzen delako.

Ildo honetan, egiturazko pobrezia ezabatu nahi duen lankidetzak giza eskubideen *esparruan* oinarrituta jardun behar du beti, eta herri eta komunitate bakoitzaren kultura ekonomikoa, soziala eta politikoa errespetatu behar du. Gainera, lankidetzak lan aktiboa sustatu behar du, subjektu-biztanleria osatzen duten emakumeen, gizonen eta herrien eskubideen *defentsari* dagokionez.

Horregatik, bere estrategien barruan honako hauekin lotutako lan-ildoak eta helburuak ezarriko ditu:

- Eskubide edo askatasun baten ez-betetzearen aurrean ez jarduteaz arduratu behar diren erakundeen gaineko intzidentzia.
- Subjektu-biztanleriaren sentzibilizazioa, sustapena eta prestakuntza beren eskubideen kontzientziarioari, gauzateari eta galdagarritasunari dagokionez.
- Biztanleen eskubideak urratzen dituzten entitateak –publikoak eta pribatuak– identifikatzea eta salatzea.
- Nazioarteko intzidentzia giza eskubideen esparruaren defentsarako, baita horien galdagarritasunerako ere.
- Hegoaldean eskubideei egiten zaizkien erasoei buruzko sentzibilizazioa euskal gizartean.

Lankidetzak egiturazko pobreziaaren aurkako borroka modu iraunkorrean gauzatzeko, ezinbestekoa da eskubideen ikuspegi batean oinarritzea.

Lankidetzarako inplikazioak

- Elkari elikatzen dioten elkarren mendeko terminoak dira garapena eta giza eskubideak, edo bestela esatearren, giza eskubideak garapenaren hasierako hipotesia zein azken helburua dira. Eskubideen ikuspegiari oinarritutako lankidetzaren azken helburua da horiek defendatzea.
- Giza eskubideen errespetua, bermea, defentsa eta sustapena, baita urraketak salatzea ere, jardunaren premisa bihurtzen dira, jendearen erabaki-aukerak bermatzeko, demokrazia parte-hartzailea ezartzeko, eta ahalmen indibidual nahiz komunitario guztiak garatzeko gaitasuna bermatzeko.
- Erabateko galdagarritasuna izateko bide egokiak ezarri behar dira, *herritartasun unibertsalaren* kontzeptua mundu osoko herritarrei helarazteko esparruan.

- Giza eskubide baten edo batzuen bermean eta galdagarritasunean zuzenean eragitea izango da lankidetzaren ekimen ororen asmoa. Eskubide jakin baten gabeziaren *gainean jarduteaz* gain, eskubide horren *defentsan jarduteko* asmoa dugu.
- Diagnosietan eta azterketetan zehaztu behar dira, alde batetik, giza eskubideen titularren beraien aldarrikapenak, eta bestetik, aldarrikapen horien indarra bermatzeko ardura duten pertsonen eta erakundeen dagozkien betebeharrak, baita eskubide horien indar-eraketa dituen ondorioak —berehalakoak, bigarren mailakoak eta egiturazkoak— ere.
- Lankidetzaren ekintzek estrategiak ezarri behar dituzte, eskubide-titularren eskubideak aldarrikatzeko eta eskubide horien indarra bermatu behar duten pertsonen eta erakundeen eragiteko kontzientzia eta gaitasuna indartzeko.
- Emakumeen eskubideak urratzeko arrazoiak aztertuko dira espezifikoki, eta eskubide horien defentsa ahalbidetuko duten estrategia integralak eta zehatzak ezarriko dira.
- Lankidetzaren ekintzetan helburuak eta adierazleak erabaki behar dira, giza eskubideak indartzeko prozesuetan lortutako emaitzen jarraipena eta ebaluazioa egitea ahalbidetzeko.

1.3.4.- IRAUNKORTASUN EKOLOGIKOA

Brundtland Txostenean (1987) aurreneko aldiz azaldu zenetik, garapen iraunkorraren kontzeptuaren onarpenak nazioartean adostasun maila jakin bat badagoela adierazten du, honako honi dagokionez: egungo eredu ekonomikoak ezin izango duela luzaro iraun, eta are gutxiago, ezin izango dela herrialde pobretuetara zabalduta. Era berean, egungo sistema ekonomikoa eta oreka ekologikoa bateragarriak ez direlako aipatzen da gero eta gehiago ekonomia iraunkorra. Egungo klima-aldaketaren fenomenoak eta arestian adierazi ditugun ondorioak egoera horren sistematikotasunaren frogak argia dira.

Ildo honetan, nazioarteko erakunde ekonomikoek ezarritako errezeta ekonomikoekin mende erdia igaro ostean, Hegoaldeko herrialdeen arazoak konpondu gabe egoteaz gain, desorekak areagotu baino ez dira egin. Hori horrela izanik, XX. mendearen bigarren erditik aurrera nagusi izan den ustea gezurra zen: herrialde industrializatuek egindako bideari jarraituko baliote herrialde guztiek, sei planeta beharko lirateke baliabide naturalak lortzeko, eta "garapen" ekonomikoaren hondakinak jasotzeko.

Ingurumena hondatzea gaitasunak kentzeko modu bat da, jendearen bizi-kalitateari zuzenean eragiten diona, giza garapenari alegia, beren eskubideen urratze baten moduan. Hala bada, Plan honek iraunkortasun ekologikoari eman dion zeharkakotasuna ez da kasualitatea, giza garapena eta iraunkortasuna prozesu zatiezintzat hartzen direlako. Ezinbesteko baldintza da hori egiturazko pobrezia kontzeptua aintzat hartzen duten sektore-arloen aurrerapena lortzeko. Hortaz, esparru teorikoarekin koherente izanik, iraunkortasun ekologikoa ez da planteatuko politika "sendagarrien" bitartez, hots, garapen-lankidetzarako prozesuek ingurumenean eragindako ondorio negatiboak sendatuko dituzten politiken bitartez; baizik eta politika "prebentibo" bitartez, giza garapenaren eta ingurumenaren arteko harremana osotasun gisa barne hartuta proiektuen diseinuan.

Iparraldearen eta Hegoaldearen harremanen barruan krisi ekologikoa aztertuta, denek elkarrekin konpondu behar ditugu berdintasunaren arazoa eta iraunkortasunaren arazoa, honako lau ikuspegi hauei jarraiki: lehenik, krisi ekologiko globalean Iparraldeak duen erantzukizun nagusia; bigarrenik, planetan ondasun eta zerbitzu komunak ustiapena, nagusiki herrialde horien eskutikoa; hirugarrenik, herrialde horiek Hegoaldeko baliabide naturalekin egiten duten erabilera ez-iraunkorra; eta, laugarrenik, ustez iraunkorrak diren merkatu-neurriek —kutsatzeko eskubideak, eta abar— ez dituzte aipatutako arazo larriak konpontzen. Faktore horiek guztiek herrialde

pobretuen aldeko *zor ekologikoa* osatzen dute, gaur egun herrialde horiek duten kanpo-zorra nabarmen gaintitzen duela. Aldi berean, Iparraldearen bilakaera garapeneredu iraunkorretarantz sendotzeko beharra eta gai ekologikoei dagokienez erabakigarritasunez jarduteko beharra legitimatzen dute.

1.3.4.1.- Garapena Ekologiko bihurtzea: Garapen iraunkorraren funtzionamendua

Mundu osoko egoera ekologikoa aztertu ondoren, honako galdera hau sortzen zaigu: nola uztartu gure garapen-eredua ingurune naturalarekin? Orduan, konturatuko gara ingurumenaren hondamena ez dela antropogenikoa soilik, arazo sistemikoa baizik. Ezinbestekoa da Giza Garapen Iraunkorretarantz aurrera egitea, bestela egungo sistema ekonomikoak arazoaren osagai izateari eutsiko dio, irtenbidearen parte izan beharrean.

Ildo berari jarraiki, 1992an Rio de Janeiron izandako Ingurumenari eta Garapenari buruzko Munduko Konferentzian —*Lurraren Goi Biler*a—, gure produzitzeko eta kontsumitzeko ereduak berriz ebaluatu behar zirela geratu zen agerian, iraunkortasunerantz aurrera egin nahi bada. Teoriari dagokionez, Agenda 21 idazteak aurrerapauso handia eragin zuen nazioarteko komunitatean. Hala ere, horren ezarpenak ez du izan espero zen emaitza, akordio bat bera ere ez baitzen loteslea. Hamar urte igarota, Johannesburgen konpromiso horiek berriz indartzeko saiakera egin zen, baina alferrik orduan ere, ingurumenaren degradazioa nabarmen handitu arren. Bestalde, 1997. urtean sinatutako Klima Aldaketarako Kyotoko Protokoloak ez dauka estatu guztien parte-hartzea —AEBren absentzia nabarmentzen da—, eta ezta konpromiso lotesle eta betearazlerik ere. Oro har, ez dago borondate politikorik garapena ingurumenaren babesarekin lotzeko beharrari dagokionez, eta ezta ingurumena ondasun publiko globaltzat hartzeko beharrari dagokionez ere.

Hala ere, ingurune naturalak lotura handia duenez gizarte-ingurunearekin, batean degradazio-prozesua gertatuz gero, bestean eragiten du, eta alderantziz. Joera horri buelta emateko, gizakia naturaren parte dela ulertu behar dugu, ez naturaren jabe. Harreman horren arabera, giza ekonomia iraunkorra izango da, naturaren ekonomiaren jokabidearekin lotzeko gai den heinean.

Horrek honako hau dakar: lehenik eta behin, materialen zikloak ixtea; gure hondakin guzti-guztiak birziklatzea, alegia. Eta aldi berean, baliabide berriztagarriei eustea (baliabide berriztagarriak kontsumitzea produzitzen dena baino gutxiago, naturaren karga-gaitasuna baino txikiagoa izatea hondakin-emisioa, eta lurzoru emankorraren suntsipena etetea) dakar horrek alde batetik, eta bestetik, berriztagarriak ez diren baliabideak (material birziklagarriak soilik erabiltzea, kutsatzailerik ez isurtzea, eta berriztagarriak ez diren materialen erabilera xahutzailea bertan behera uztea) etengabe birziklatzea.

Halaber, materialen zikloari, eta azken batean, bizitzaren zikloari ezin izango genioke eutsi, *energia*-fluxu jarraiturik jasoko ez bagenu. Gaur egungo industria-sistema gehienek energia asko eta asko behar dute —asko prozesatzen dutelako eta urrutira garraiatzen dutelako, eta gainera, erregai fosilak, batik bat, erabilia—; energia-sistema iraunkorrak, aldiz, ahalik eta gehien murriztu behar ditu erabilitako materialak eta garraioa, behar izanez gero, energia berriztagarriak soilik baliatuta.

Azkenik, arestian adierazi dugunez, ezinbestekoa da ingurumenaren ezaugarrietako bat giza garapenaren eredura egokitzea eta hori ikastea:

- *Bilakaera*: Iraunkortasunerako joera duen ekonomiaren bilakaera askoz ere geldoagoa izango da, baina sakonagoa. Gizartearen helburu orokorrekin bat eginik bideratu behar da berrikuntza, eta erritmoa ere mantsotu egin behar da, zeharkako ondorio kaltegarririk ez dela izango bermatzearen.
- *Autoantolaketa*: Bilakaera eraikuntza-prozesua da. Sistema ekonomikoa autoarautua izatea ezinbestekoa da; bestela esateko, gizartea izango da sistemaren zuzendari, gizarteak definitu eta bete ditzan bere beharrak, ingurumenaren mugen barruan, antolaketan, bereizketan, espezializazioan, lankidetzan eta egonkortasunean oinarrituta.
- *Autosufizientzia*: Gizarteak autonomoak izan daitezen, ahal izanez gero, dituzten baliabideekin bizitzeko ahalegina egin behar dute, euren etorkizunaren gaineko erabakimena izatearren.
- *Aniztasuna*: Produkzio-aniztasunaren mende dago sistema ekonomikoa egonkortasuna. Aldiz, ekonomia oso espezializatuak ez dira hain egonkorak, nazioarteko inguruneari loturik baitaude.
- *Deszentralizazioa*: Tokiko baliabideak eta teknologiak baliatzean oinarritutako eredu deszentralizatu askoz egokiagoa da funtsezko premiak betetzeko, esate baterako, elikadura, etxebizitza, osasuna, energia, etab.; eta egonkorragoa ere bada, lanaren nazioarteko banaketaren aurrean. Korporazio transnazionalen ustezko eskala-ekonomiak ez dira hain transnazionalak, merkatu oligopolikoetan duten lehiari erreparatuz gero.
- *Lankidetzatza*: Mundua enpresa kooperatibo erraldoia dela uste izan dute indigena-komunitateetan. Egoera normalean, izaki bizidunen arteko harremanetan garrantzi txikiko ezaugarria da lehiakortasuna. Lankidetzatza iraunkortasunaren ezinbesteko baldintza da, eta ez soilik arazo ekologikoak gainditzeko beharrezkoa delako, baizik eta gizarteak batzen dituelako.

Nahitaezkoa da lankidetzatza-ekimenek ezaugarri hauek kontuan hartzea beren plangintzetan, eta baita garapen-eredu iraunkorrek modu aktiboan sustatzea ere.

Lankidetzarako inplikazioak

- Lankidetzatza-ekimenek ingurunean duten eragina ahalik eta gehien murriztu behar da, ingurumena babestuta eta baliabideak modu iraunkorrean kudeatuta.

- Ahal dela, lankidetzatza-ekimenak prebentiboak izango dira, garapenaren eredu eta estrategia autozentratuak proposatuta, bertako baliabide naturalak eta energia-baliabideak oinarri izanik. Gaitasunak eta jakintza indartzeko estrategiek eta prestakuntzako estrategiek prebentzioan eragiten dute, zuzen-zuzenean.

- Lankidetzatza-ekimenek honako printzipio hauek sustatu behar dituzte: aniztasunaren, autoantolaketaren, autosufizientziaren, deszentralizazioaren eta lankidetzaren printzipioak.

- Ekimenak formulatzerakoan, materialen zikloa ixtea izango da helburua, hondakin-emisioak ekosistema naturaletan birziklatuta.

- Baliabide berriztagarriak baliatu behar dira, baina sistema ekologikoek baliabide horiek eskaintzeko gaitasuna murriztu gabe etorkizunean.

- Berriztagarriak ez diren baliabideak baliatzea ezinbestekoa da, etorkizunean ere behar izango direla eta bestelako baliabideen aukera kontuan izanik.

- Eraginkortasun-irizpideei (produktu-ale bakoitzeko baliabide-kontsumoa murriztea) eta sufizientzia-irizpideei (baliabideen kontsumo guztizkoa murriztea) jarraiki baliatu behar dira egungo baliabideak.

- Testuinguru bakoitzean, teknologia egokienak eta garbienak aztertu eta aplikatu behar dira.

1.4.- SEKTORE ARLOAK

Esku-hartzeko eremu espezifikoak zehazten dute sektore-arloek, erlazionaturiko gizarte-egoerei aurre egiteko jarduerak eta ezaugarri komunak dituzten jarduerak pilatuta.

Aldi berean, elkarren artean ere lotura estua dute jardun-arloek, zehar-lerroekin batera, gure ustez egiturazko pobrezian txertatzen diren alderdi guztiak barne hartuta, plan honetan definitutakoari jarraiki.

Sektore-arloak honako hauek dira:

1. Lehenasunezko Gizarte Premiak
2. Herri Ekonomia
3. Tokiko Boterea
4. Emakumeen ahalduntzea
5. Giza Eskubideak
6. Kultura Nortasuna

1.4.1.- LEHENTASUNEZKO GIZARTE PREMIAK

1.4.1.1.- Herritartasun unibertsala erreferentetzat

Lehenasunezko gizarte-premien betetze unibertsalaren aldeko jardunak izan behar du garapen-estrategia ororen oinarria, betiere pobrezia aurka egiteko helburu espezifikoak izanik.

Egia esateko, zaila da euren garapen-prozesuetan modu aktiboan eta sortzailean parte hartzeko adina autonomia izatea jendeak eta komunitateek, funtsezko premiak betetzeko nahikoa baliabide ez badute.

Hortaz, pobrezia egoera desagerrarazteko, jende guztiaren eskubideak bermatzearen aldeko jardun irmoa behar da, eta baita biztanle kalteberenen bizitzakalitatean zuzeneko eragina duten politiken zuzeneko aplikazioa ere.

Horri begira onartu ziren 1948an Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsala eta 1976an Eskubide Ekonomikoen, Sozialen eta Kulturalen Nazioarteko Hitzarmena; herrialde gehienen lege-esparruan txertaturiko dokumentuak dira horiek, bizi-baldintza duinak baliatzeko eskubidea onartzen diotenak lagun orori.

Hala ere, eta lehen ere esan dugunez, helburu hori praktikan jartzeko aukera murrizten dute honako hauek: politika gehienen inkoherentzia helburu horri dagokionez; nazioartean onaturiko eskubide gehienen egiazko galdagarritasunik eza; gainerako eskubideen mende egotea ekonomiaren, gizartearen eta kulturaren arloko eskubideak; eta eskubide horien aplikazioa bermatuko duen nazioarteko instituziorik ez izateak.

Asmoen eta egiazko ekintzen arteko alde hori ixteko, *herritartasun unibertsala* modu globalean onartzen aurrera egitea ezinbestekoa da, esan bezala, kontzeptu horretan oinarritzen baita garapen-lankidetzarako gure estrategia. Kontzeptu horrek lagun edo herri guztien premiak betetzeko egiazko gaitasuna sortzeko asmoa laburbiltzen du. Kontzeptu horren arabera, ezein gizaki ezin izango da kanpo utzi politikaren, ekonomiaren, gizartearen eta kulturaren arloko eskubide eta eskubide zibil guztien baliatzetik, etniarekin, erlijioarekin, gizartearekin edo kulturarekin loturiko arazoak direla eta.

Hari berari jarraiki, helburu hori eskuratzeari begira urrats txikiak egiten ari gara, oraindik kontraesankorrak eta ez-nahikoak diren arren. Hori horrela izanik, 1995. urtean Kopenhagen izandako Gizarte Garapenari buruzko Goi Bileran honako helburu hau ezarri zen: «gizakien eta komunitateen garapenari eta segurtasunari laguntzea, eta hartara, gizarte- kide guztiek beteko dituzte euren oinarritzko giza premiak, eta duintasun pertsonala, segurtasuna eta sormena gauzatu ahal izango dituzte». Ekintza Programaren barruan, helburu zenbagarri zehatzak ezarri ziren, nahiz eta ez izan lotesleak galdagarritasunean, ezta betetzeko aldian ere; hona hemen helburu horietako bat: 20/20 ekimena. Ekimen horren bitartez, Iparraldeko eta Hegoaldeko herrialdeek elkarrekiko konpromisoa hartu zuten, batez beste, Garapenerako Laguntza Ofizialaren (GLO) % 20 eta aurrekontu nazionalaren % 20 oinarritzko gizarte-programetara bideratzeko.

Horretaz gain, laurogeita hamarreko hamarkadan izandako Nazio Batuen hainbat konferentziatako hausnarketak erreferentziatzen hartuta, Milurteko Adierazpena onartu zuen nazioarteko komunitateak; adierazpen horretan hainbat xede zehatz eta egiaztagarri (*Milurteko Helburuak* esaten zaie) ezarri ziren maila globalean, 2015. urtera arteko epearekin, pobrezia-aren aurkako lanarekin harreman zuzena duten sektoretan —hezkuntza, elikadura, genero-berdintasuna, haurren eta amen heriotza-tasa, edo ingurumenaren degradazioa—. Helburu horiek generikoak, oinarritzkoegiak, partzialak eta ez-lotesleak diren arren, badute gutxienez balio erantsi bat: oinarritzko premiak modu unibertsalean betetzeko egindako ahaleginaren egiazko ebaluazioa ahalbidetuko duten adierazle zehatzak ezartzeko balioa.

Hortaz, eta herritartasun unibertsala agindutzat hartuta, nazioarteko lankidetzak modu aktiboan parte hartu behar du gizarte-garapenari eta aurkaratzen duten politikari — globalak, estatukoak eta tokikoak— buruzko eztabaidan. Garapen-tresna izaki, lehentasunezko gizarte-premiak betetzean eta defendatzean eragitea lan-ildo egokia da, pobrezia egoeran dauden biztanle kalteberekin eta garapen-estrategia egituratzeko oinarri sendoa osatzen duten sektoreekin zuzenean lan egiten denez.

Horregatik, gizarte-premietan (esaterako, hezkuntzaren, osasunaren edo etxebizitzaren arloetan) eragiteko jardunetan tradizio luzea izanik, Eusko Jaurlaritzak bultzaturiko lankidetzak nazioarteko konpromisoak (20/20 ekimena, adibidez) hartu behar ditu erreferentzia-esparrutzat, eta milurteko helburuak lortzeari lagundu behar dio, irmo eta sendo. Baina asmo horrek Plan honen helburuekin eta printzipioekin bat etorri behar du. Beraz, lau aldagai izan behar ditugu kontuan:

Lehenik, lehenetasunezko gizarte-premien gaineko ekimenek ikuspegi *integrala* izan behar dute, hau da, pobrezia-aren aurkako estrategietan —ekonomiaren eta kulturaren alderdiak, eta partaidetza eta antolaketa indartzeko alderdia barne hartzen dituzten estrategietan— txertatuak egon behar dute, betiere Plan honen zeharkako ildoak barne hartzen dituzten azterketak eta helburuak izanik.

Bigarrenik, premia jakin bat betetzea baino gehiago, *gaitasunak indartzea* izango da helburua, hots, laguntzaren hartzaile diren lagunen eta komunitateen gaitasunak indartzea, egikaritze-lurraldeetako entitateek kudea ditzaten gizarte-zerbitzu horiek, euren helburuak, lehenetasunak eta metodologiak ezarrita. Zenbait kasutan, premia jakin baten berehalakotasuna dela eta, *epe motzerako* ikuspegiak sortzeko joera izan dezakeen jardun-sektore horretan, prozesua osatzeko ideia funtsezkoa da. Gainera, metodoak eta helburuak espezifikokoak dira kultura bakoitzean, funtsezko askatasunen esparruan; hortaz, ahalegin berezia egin behar da laguntzaren hartzaile den biztanleria prozesuaren subjektu izan dadin.

Hirugarrenik, oinarrizko gizarte-premien gaineko jardunak ez du izan behar tokiko agintarien eta agintari nazionalen ekintzaren ordeko. Garapen-lankidetzak ez du gizarte-mailako babes bihurtu behar, erakunde publikoek biztanleekin dituzten gizarte-konpromisoak ordezkatzeko bali dezaketen babes, alegia. Gogora dezagun biztanleria subjektua dela eta ez onuraduna, eta, beraz, onartu, eskatu eta aplikatu behar diren eskubideen titularrak dira.

Hortaz, premia jakin baten gaineko jarduna ezinbestekoa da, baina horretaz gain, erakundeetan eta laguntzen ari den biztanleengan eragiteko osagai bat ere erantsi behar zaio jardun horri. Lehenengo kasuan, hainbat zeregin garrantzitsu bete daitezke: agintariekin bitarteko-lana egitea, sentsibilizazio-lana, egitura demokratikoen indartze-lana, eta erantzukizunak betetzen ez diren kasuetan salaketa. Bigarren kasuan, eskubideen gaitzea eta partaidetza indartzea landu behar dira, herri edo komunitate jakin baten pobrezia-egoerari buruzko kontzientzia kritiko eta integratua sortzeko.

Laugarrenik, dauden ezberdintasunak aintzat hartzen dituen eta lehenetasunezko baliabide eta estrategiak biztanle kalteberenenentzat bideratzen dituen diagnostia hartu behar da oinarri gisa. Emakumeen kasuan, euren berariazko premiak subjektu-ikuspegi batean oinarrituta betetzea ezinbestekoa da, eta ez onuradun-ikuspegi batean oinarrituta. Era berean, ahalduntzeko estrategia integralak ezarri beharko dira, gizarte-alderdi honetan oinarritzeko gai direnak, baina emakumeekin egiten den lana *murritz*u ordeko, prozesu zabalagoen barruan aurrera egiten dutenak.

1.4.1.2.- Lehenetasunezko Gizarte Premiak: Lan-arloak

Plan honetan adierazten den Lehenetasunezko Gizarte Premien kontzeptua Oinarrizko Gizarte Premien kontzeptuan oinarritzen da, eta pobrezia-aren gizarte-alderdiaren

osagarriak diren azpi-sektore jakin batzuk gaineratzen zaizkio –herri hezkuntza, bigarren mailako hezkuntza, hezkuntza elebiduna eta lanbide-heziketa–.

Definizio berri hau, irekiagoa, proposatzen den lankidetzaren-ereduarekin –bere printzipioak eta helburuak– hobeto artikulatzen da, funtsean honako bi arrazoi hauengatik:

- Azpi-sektoreen zabalpenak *koherentzia handiagoa* bermatzen du gainerako sektore-arloei dagokienez. Era horretan, ekonomiaren, politikaren, ingurumenaren eta generoaren alderdien eta gizarte-alderdiaren –hezkuntzaren kasuan batez ere– arteko lotura estua aintzat hartuta, arlo horietan sakontzea egokitzat hartu da, estrategiaren bideragarritasuna bermatzeko beharrezkoak direlako.
- Planak lankidetzari ematen dion ikuspegiak, jada errepikatu dugunez, finantza-harremanen tarte estua gainditzen du. Aldiz, topatzeko gunez hartzen da, herrien eta pertsonen artean esperientzia gehien metatzen duten gaitasunak partekatzeko. Ildo honetan, euskal herriak esangura bereziko lau azpi-sektore hauetan duen *egiten jakitea* parteka dezake eta partekatu behar du Hegoaldeko herrialde pobretuekin.

Emaitza gisa, Lehen Hezkuntza, Bigarren Hezkuntza, Lanbide-heziketa, Hezkuntza Elebiduna eta Herri-hezkuntza sartzeko zuzen diren azpi-sektore hartzen dituzte barnean, honako hauek hain zuzen ere: Hezkuntza; Oinarrizko Osasuna; Sexu eta Ugalketa Osasuna; Ura eta Saneamendua; Etxebizitza, Gizarte Azpiegiturak:

- Lehen hezkuntza, bigarren Hezkuntza, lanbide-heziketa, hezkuntza elebiduna eta herri-hezkuntza sartzeko zuzen diren azpi-sektorean.
- Oinarrizko osasunaren azpi-sektorean, aldiz, honako hauek: osasun-hezkuntza, oinarrizko prebentzio-medikuntza, osasun-langileen prestakuntza eta tokiko osasun-egitura indartzea.
- Sexu- eta ugalketa-osasunaren azpi-sektorean honako hauek: sexu- eta ugalketa-osasunaren arreta, sexu-hezkuntza formala eta informala, eta emakumeen sexu- eta ugalketa-eskubideen sustapena.
- Uraren eta saneamenduaren sektorean, edateko uraren sistemak eta saneamenduko sistemak hartzen dira barnean.
- Etxebizitza-sektorean honako hauek sartzeko zuzen dira: etxebizitza duina eta oinarrizko gizarte-zerbitzuak eskuratzea, autoeraikuntza eta etxebizitza-politikak kudeatzeko sistema komunitarioak, eta tokiko agintariak lurralde-antolamendurako politikak eta planak formulatzeari laguntzea.
- Azpiegitura publikoak eraikitze, birgaitze eta hobetzeko obrak sartzeko zuzen dira tokiko azpiegituren sektorean, hala nola, errepideak, merkatuak eta azpiegitura ekonomikoak, kultura-zentroak eta zentro komunitarioak.

Lankidetzarako inplikazioak

- Lehenasunezko Gizarte Premia honako honi esaten diogu: Oinarrizko Gizarte Premien multzoa gehi bigarren hezkuntza, lanbide-heziketa, hezkuntza elebiduna eta herri-heziketa.
- Lehenasunezko gizarte-premien betetze unibertsala lortzeko eta horren aldeko jarduna da garapen-estrategiaren funtsezko oinarrietako bat, hain zuzen ere, pobrezia-aren aurka egitea helburu izango duen eta herritartasun unibertsalaren kontzeptua oinarri izango duen strategiaren oinarrietako bat.
- Helburu horiek lortzeko ekimena egokia da, honako hauengatik: garapen sendoa izateko, oinarrizko sektoreak funtsezkoak direlako; pobrezia-arekin eta kalteberatasunarekin lotura handia duelako; nazioartean hartutako konpromisoengatik, eta elkartasunaren eta justiziaren printzipioetatik eratorritako herritartasun unibertsalaren kontzeptuengatik.
- Eusko Jaurlaritzak bultzatutako lankidetzak konpromisoa hartua du lehenasunezko premien betetze unibertsalarekin, Kopenhageko Goi Bilerako Ekintza Programan ezarritako 20/20 konpromisoa bere egin du (Garapenerako Lankidetzazuzendaritzaren GLOen % 20 oinarrizko gizarte-premietara bideratzea, lehenasunezko gizarte-premien kontzeptu orokorragoaren barruan), eta Milurteko Adierazpenean erabakitako helburuak betetzeko ahaleginarekin ere bat egin du.
- Lehenasunezko gizarte-premien sektorean, sektorearen ikuskerara integrala da Eusko Jaurlaritzaren lankidetz-estrategiaren oinarria, ekonomiaren, kulturaren edo partaidetzaren beste hainbat alderdirekin batera; helburua, aldiz, honako hau da: tokiko gaitasunak indartzea eta garapen-subjektu errealekintzat prozesuetan osagarri izatea, premia jakin bat betetzearen aurrean, eta biztanleengan eta erakundeetan eragin behar du, kontzientzia kritikoa sortzeko eta gizartearen, ekonomiaren edo politikaren arloko eragile bakoitzaren konpromisoak eta erantzukizunak agerian uzteko.
- Lehenasuna emango zaio emakumeekin egiten den lanari, horien berariazko premiak subjektu-ikuspegi baten arabera betetz, eta ez onuradun-ikuspegi baten arabera. Era berean, ahalduzko estrategia integralak ezarri beharko dira, gizarte-alderdi honetan oinarritzeko gai direnak, baina emakumeekin egiten den lana *murriztu* ordez, prozesu zabalagoen barruan aurrera egiten dutenak.
- Sektore-arlo honetan barne hartzen diren azpi-sektoreak honako hauek dira: hezkuntza, oinarrizko osasuna, sexu- eta ugalketa-osasuna, ura eta saneamendua, etxebizitza eta tokiko azpiegiturak.

1.4.2.- HERRI EKONOMIA

Giza garapen iraunkorraren ikuspegiarekin, *garapena eta hazkunde ekonomikoa parekotasun* hartzen zituen paradigma amaitu zen. Lehen ere aipatu dugunez, garapena hainbat alderdik osatzen dute, eta politikaren, gizartearen, ingurumenaren, kulturaren edo psikologiaren eremuekin elkarreragiten du ekonomiak garapen horretan.

Baina, kontzeptuaren definizioan hegemonia galdu duen arren, garapen-estrategia orekatu eta egonkor orotan funtsezko izateari eutsi dio ekonomiak, batik bat, bi arrazoi hauengatik:

- Gizakiaren aukeren eta egokieren euskarri materiala alderdi ekonomikoa da. Premia materialen betetze-maila jakin bat eta gutxieneko autonomia ekonomikoa funtsezkoak dira, garapen-prozesu sendoa sustatzeko.
- Ekimen ekonomikoak ez dira asistentzia-koak soilik, ekintzaileak ere izaten dira; horrela, garapen autozentratua lortzeko gaitze-prozesuetan eta gaitasuna sortzeko prozesuetan gako-elementua da ekonomia. Are gehiago, pobrezia-aren aurkako estrategian osagarriak diren beste hainbat ildo bultzatzen ditu garapen ekonomikoak —esate baterako, autokonfiantza, partaidetza eta antolaketa komunitarioa—, lagun bakoitzari bere garapenaren subjektu izan dadin lagunduz.

Hortaz, garapenaren epe luzerako ikuspegi integralaren parte izan behar du ekonomiak, nazioarteko agertokiaren, unean uneko egitura ekonomikoaren eta lurralde

jakin bateko ahalmenen, gaitasunen eta helburuen arabera egokituta. Garapena gertatzeko nahikoa den baldintza izateari utzi dio ekonomiak, baina garapena gertatzeko ezinbestekoa da oraindik ere.

1.4.2.1.- Gaur egungo ekonomiaren egoera: globalizazio neoliberalak eta herrialde pobretuak

Mundializazio ekonomikoaren prozesuan fase berria izanik, globalizazio neoliberalak baldintzatzen du gaur egungo nazioarteko egoera, eta egiturazko aldaketa esanguratsuak eragin ditu. Planaren hasierako zatian jada hitz egin dugu prozesu honen jatorriari buruz, subjektu onuradun nagusiak zeintzuk diren azaldu dugu, bai eta ezaugarriak ere: pribatizazioa; sektore berrien merkaturatzea –bizitza, nekazaritza, zerbitzuak–; finantza-merkatu ez-produktiboaren erabateko liberalizazioa; nazioarteko deslokalizazioa, transnasionalek zuzendutako produkzio-kate global handientzako lehentasuna; kontzentrazio eta zentralizazio handiagoa; merkataritza- eta finantza-arloko erakunde multilateralen geroz eta intzidentzia handiagoa; eragile publiko, pribatu eta multilateral guztien arteko geroz eta mendekotasun handiagoa.

Aldaketa horiek eragin handia izan dute giza garapenean: langabezia eta azpienplegua handitu dira; biztanle gehienek erosteko ahalmena gutxitu egin da; estatuen birbanatzeko gaitasuna murriztu eta desorekak areagotu egin dira, biztanleak kate globalen nodoetan txertatu diren arabera.

Baina, herrialde pobretuen kasu espezifikoa (non kateetan txertatu diren gutxiengoak dauden, alde batetik, eta bestetik, txertatu ez diren gehiengoak) bereziki larria da, oso erakunde ahulak dituztelako, produkzio-sarea desorekatua dagoelako, eta Iparraldeko egiturekiko mendekoak direlako.

Herrialde horietan aplikatutako neurrien eta lehiakortasun globalaren —desoreken aurrean babes-mekanismoak ez duena— eraginez, ekonomiak desegituratu egin dira eta herrialde aberastuetako enpresa handien interesen arabera bideratu dituzte. Enpresa horiek finantzaren eta teknologiaren arloko gaitasun handia dutenez, merkatuak mendera ditzakete eta nagusitasun-egoera lortzen dute lehian, herrialde pobretuen autonomia ekonomikoa murriztuta eta, tokiko enpresaburuen gaitasunetik, finantza-eliteak lehenetsita. Oro har, industria-garapen nazional hasi berriaren aurrean, eredu berriaren punta-puntako sektore bihurtu dira honako hauek: finantza-sektorea, nekazaritza-sektore esportatzailea eta makilak; makiletan, batik bat, emakumeek lan egiten dute^{xii} inolako eskubiderik gabe.

Horren ondorioz, zenbait kasutan soilik, Hegoaldeko herrialdeek eta eragileek lortzen dute, oro har, dinamismo txikieneko kateetan txertatzea partaidetzaren bitartez, eta kate horien barruan, kontrol-maila txikieneko fasetan, non lan-kostuetako lehiakortasunak beheranzko joera duen; hori dela eta, garapen ekonomiko orokortua gertatzeko aukerarik gabeko enklabe-ekonomia bihurtzen dira. Beste zenbait kasutan, eragile eta herrialde horiek guztiz baztertuta geratzen dira nazioarteko merkatuan.

Hortaz, herrialde pobretuetan honako egoera hau topa dezakegu: merkatu globalari dagokionez, teknologia- eta finantza-ahalmen handiagoko eragileen lehiakortasunera irekiak; ekiteko eta arautzeko gaitasun publikoak ahulduta dituztela; biztanleriaren sektore txiki batek merkatu globalean parte hartuz produktore gisa, baina produkzio-

sarean inolako eraginik gabe, edo inportaturiko kontsumo-ereduen eskatzaile gisa; kontrolatzen ez dituzten produkzio-kate globaletan parte hartu ahal izateko lehian, nazioarteko esparruan guztiz isolaturik ez geratzearren.

1.4.2.2.- Herrialde pobretuetan tokiko ekonomia garatzearen egokitasuna

Testuinguru horretan, ba al du zentzurik tokiko garapen ekonomikoak? Ba al dago tokikoarentzat jardun-eremurik hain globala den egoera honetan?

Zalantzarik gabe, tokiko garapen ekonomikoaren egokitasuna defendatzeko arrazoi sendoak daude: arrazoi kuantitatiboak, egiturazkoak, eta tokiko ekonomiaren idiosinkrasiak baldintzatzen dituenak.

Lehenengo arrazoia merkatu globalei eta tokiko merkatuei dagokie, *termino kuantitatibotan*. Produkzioko, merkataritzako eta finantzako kateak, eta merkatu globalak garrantzitsuak dira, baina gaur egun, transakzio ekonomiko gehienak tokiko eta nazioko merkatuetan gauzatzen dira. Esate baterako, mundu mailan, produktu gordin osoaren % 23 inguru osatzen du ondasunen eta zerbitzuen esportazioak, eta atzerriko inbertsio zuzenak, aldiz, % 2,2. Latinoamerikan, produkzioa kanporatzeko joera duten herrialde ugari daude, eta guztizkoaren gainean, esportazioen batez bestekoa ez da % 15 baino handiagoa. Beraz, produkzioaren ia % 80 nazioko edo tokiko jomugetara bideratzen da, eta inbertsioaren zati handiena lurraldearen barruan gertatzen da.

Aldi berean, enpresa transnazionalak garrantzi handia dute egoera ekonomikoa zehazteko garaian, baina herrialde pobretuetako eragile ekonomiko gehienak enpresa txikiak, ertainak eta mikroenpresak dira, nodo globalekin zuzeneko loturarik gabe. Hori horrela izanik, Latinoamerikako enpresen % 90 baino gehiago berrogeita hamar langiletik beherakoak dira, eta enplegu osoaren % 50 pasatxo osatzen dute. Hortaz, enpresa horiek enpleguari eta diru-sarrerari egindako ekarpenaren, eta kalteberatasuna murrizteko politika publikoen bidezko arreta urriaren artean desoreka dago.

Horrela bada, geroz eta handiagoa den merkatu globala, eta nazioko eta tokiko merkatu indartsuak batera garatzen ari dira. Prozesuaren logikak berak ekarri du kate globalak baztertuta geratzea produkzio-sarearen eta biztanleriaren zati garrantzitsu batean. Nazioarteko merkatu horien aurrean, baztertuak edo mendekotasun-egoeran dauden tokiko merkatuek eta eragileek egoera berri horri aurre egin eta berezko garapen-estrategietan parte hartu behar dute.

Tokiko ekonomia babestea egoki egiten duen bigarren arrazoia *egungo egitura ekonomikoari* berari dagokio. Globalizazioa ez da amaitzen produkzioko, merkataritzako eta finantzako kate eta merkatu globalak osatuta. Egiturazko aldaketak haratago doaz, ikusi dugun moduan.

Beraz, kate horietako fase dinamikoetan sendo eta modu egonkorrean txertatzea lortu nahi badugu, edo tokiko gaitasunetan eta premiatan oinarrituriko tokiko garapen-prozesu autonomoari ekin nahi badiogu, ezinbestekoa da lehen zerrendatu ditugun egiturazko aldaketa horien guztien ondorioak ulertzea. Normalean, alderaketa-

abantailen ustiapen marjinalen espezializatzen dira herrialde pobretuak, lehiakorrek baitira lan-kostuak murrizten dituztelako adierazle makroekonomiko egonkorren esparruan, ekonomiaren dinamismoan txertatzeko aukera bakartzat; baina espezializazio horretaz gaindikoak dira goian aipaturiko ondorio horiek.

Aitzitik, hazkunde ekonomikoaren teoria berriak egokitu dira aldaketa horietara, eta gaur egun edozein azterketa egiteko ezinbestekoak diren ikerketa-aldagai berriak sartu dituzte, herrialde pobretuen egituretan ere aplikatu daitezkeenak. Lehen, kapital fisikoaren eta lanaren arabera zen hazkundera, baina orain, beste hainbat adierazle gehitu zaizkio ekuazio horri, ukigarriak eta ukiezinak izanik: gaitasun teknologikoa, gaitasun instituzionala, ekintzaile izatea, prestakuntza, gizarte-zerbitzuak, etab.

Aldagai berri horiei esker, ziurgabetasunak eta gaitasunak (bai teknologikoak eta instituzionalak, baita prestakuntzakoak ere) metatzeko prozesu bihurtu da garapena, ezin baita bermatu abiarazitako ekimenek arrakasta izango dutela. Hortaz, testuinguruarekin bat ez datozen politika uniformeek eta abstraktuek ez dute eragin berdina eragile eta lurralde ezberdinetan, tokiko, nazioko edo nazioarteko merkatuei eskaintzeko berezko prozesu gaitasun-sortzaileen arabera baita eragina.

Azterketa hori gaur egungo egitura ekonomikoari aplikatuta, ikusi dugu kate globalak eskailera teknologikoak direla, askotariko balio erantsiaren, eduki teknologikoaren eta kateen gaineko kontrolaren eskailera-mailatan berezita. Garapen ekonomikoaren azken helburua honako hau da: produkzio-sarearen gainerako elementuetan eragin handiena duten sektoreetan eta fase dinamikoetan parte hartzea. Hori horrela izanik, fase eta sektore horietara heltzeko, ez da aski postulatu ortodoxo neoliberal unibertsalei eta egoeraren arabera jarraitzea; inbertsioaren alde egin behar da, giro ekintzaileak sortzeko, gaitasun teknologikoak indartzeko eta arlo horretako prestakuntza lortzeko, produkzio eta merkataritzako sare egituratuak eta kaudimendunak sortzeko, eta esparru juridiko garbiak, gardenak eta demokratikoak osatzeko.

Alderaketa-abantailen soilik erreparatzen dieten azterketen aurrean, lehia-abantailen (produktuan, zerbitzuan, kalitatean) eta abantaila absolutuek (instituzionalitatea, nazioko edo tokiko sistema teknologikoak, eta abar) ezartzen dute, gaur egun, hazteko gaitasuna. Politika neoliberalaren merkatuak eta neurriak ez dute gaitasunik egiturazko aldaketa horiek eragiteko, beren kabuz; orduan, ekintza nazionalak eta tokikoak ezinbestekoak dira, mugak muga.

Ez dugu ahaztu behar ideia nagusi hau: ikuspegi ekintzailea, gaitasun teknologikoak indartzea, erakunde adierazgarrien zeregin aktiboa, eta produkzio sare orekatua eta lehiakorra sortzea sustatzen duten eragileen artean adostasun-lurraldeak osatzea ezinbesteko baldintza da prozesu ekonomiko dinamikoa abiarazteko, bai kate globalen barruan, bai tokiko garapen-estrategia autozentratuan.

Hirugarren arrazoa *tokiko ekonomiaren berezko ahalmenei* dagokie. Aurreko atalean azaldu dugu politika aktiboak behar direla egiturazko aldaketetara egokitzeko; bada, hori abiapuntu hartuta, baliozko subjektu ekonomiko egiten duten elementu berezgarriak ditu tokikoak, estatuko eta nazioarteko eremuekin uztartuta.

Tokiko mailan, oinarritzeko eragile ekonomikoak enpresa txikiak eta ertainak dira. Azterketetatik eta politiketatik at geratzen diren arren, enpresa horiek ahalmen handia dute enplegua sortzeko, gaur egungo politika ekonomiko ororen helburu nagusietako

bat izanik. Tokiko ezaugarrien arabera teknologia egokiak erabiltzea ere ahalbidetzen du horrek.

Bestalde, askotariko gaitasuna duten enpresa txiki nahiz handiek osatzen duten eta estrategia orekatu eta adostuan oinarritzen den tokiko lurraldeak hazkunde-ingurunea sor dezake, eta gainerako eragileen gain eragin. *Input-output* kateak eta produkzio-katearen egituraketa indartu daitezke tokiko mailan, eta are gehiago, kulturaren eta geografiaren aldetik gertukoak izateak ematen duen leialtasuna eta konfiantza kontuan izanik.

Azken buruan, tokikoa egokia da, dela termino kuantitatibotan duen garrantziarengatik, dela egungo egitura ekonomikoaren ezaugarriengatik, dela egitura horrek dakartzan elementu bereizgarriengatik.

Hala ere, tokikoaren aukerak erlatibizatu behar ditugu, eta ez dugu pentsatu behar tokiko eredia orokortu daitekeenik, neoliberalismoaren aurrean alternatiba globala izango balitz bezala. Egituran zuzenean eragiten duen egitura globalaren mugen barruan jarduten du tokikoak. Egoera ekonomikoaren ildo nagusiak makro-mailan ezartzen dira, eta aldaketak hor gertatu behar du. Gure azterketan tokikoari erreparatzen diogu, baina naziokoari eta nazioartekoari ere bai; ordea, alternatiba bat sendotzeko, alde batetik, nazioarteko ordena ekonomiko eta politiko berria berriz aztertu behar dira; eta bestetik, egungo erabakiguneetan eragin, eta garapenaren helburuak eta estrategiak aldatu behar dira, giza garapenaren kontzeptutik oso urrun baitaude egun.

Dena den, globalarekiko eragin horrekin, ez ditugu ahaztu behar tokian jarduteko aukerak (berez, egungo politiken aurkako joera izanik), ezta garapenak maila horretan eskaintzen dizkigun aukerak ere, bai neoliberalismoarekin bat ez datozen premisen arabera, gaitzeko aukera zehatzak proposatuta, bai premiak betetzeari tokiko mailan erantzunez, modu bateratuan.

1.4.2.3.- Tokiko Herri Ekonomia

Herri Ekonomiaren estrategia honela defini dezakegu: «tokiko ekonomia eta gizartea aldatzeko prozesua, dauden eragozpenak eta erronkak gainditzera bideratua, biztanleen bizi-kalitatea hobetzeko eta oinarritzko premiak betetzeko helburua duena, gizartearen eta ekonomiaren arloko hainbat eragileren (publikoak eta pribatuak) jardun irmo eta adostuaren bitartez, baliabide endogenoak ahalik eta modu eraginkorrean eta iraunkorrean baliatze aldera, tokiko enpresen ekintzaile-gaitasunak sustatuta eta lurraldean ingurune berritzailea sortuta»^{xiii}.

Aurreko atalean ikusi dugunez, munduko egitura ekonomikoak hainbat joera ezartzen ditu, eta garapen ekonomikoaren prozesu oro joera horien arabera moldatu behar da. Hori dela eta, ezinbestekoa da tokiko prozesu horren subjektuak eta ezaugarriak definitzea.

Lehenik, banakako eragileen batura baino zerbait gehiago da estrategia horren subjektu nagusia, *lurraldea* alegia. Eta lurraldea diogunean ez gara espazio fisikoaz, hainbat jarduera ekonomiko gauzatzen diren testuinguruaz soilik ari; lurraldea izaki bizidun moduan ulertzen dugu, dinamikoa, eragileak ados jartzen dituen eta eragileek

bertan elkarreragiten dutena, irekia baina egituratua, gaitasun endogenoak baliatu ahal izateko. Osotasuna zatien batura baino zerbait gehiago izango litzateke; modu koordinatuan lan egiten duten zatiak gehi plus bat izango litzateke osotasuna, plusa honako hau izanik: ingurune teknologikoak, instituzionalak eta ekintzaileak sortzea. Emakumeak, tradizioz baztertuta izan den biztanleriaren erdia izanik, funtsezko subjektu izango dira produkzioko lurralde-estrategian.

Hortaz, tokiko sare ekonomiko sendoak eta dinamikoak sortzeko ezinbesteko baldintza izango da *hainbat eragileren eta ekintzaren adostasuna eta koordinazioa*. Tokiko ekintza indibidualek eta deskoordinatuek ezin dute lehiatu ere egin enpresa handien gaitasunekin, ezta inbertsio egonkorrik erakarri ere; tokikoaren ezaugarri bereizgarriak baliatuta, gaitasunak batuz eta elkar osatuz soilik lortuko dute erronka horri aurre egitea.

Ildo beretik, tokiko erakundeen egitekoa nabarmendu behar dugu. Adoste-prozesu batean, erakunde horien partaidetza ez da behar-beharrezkoa, ezta funtsezko premisa ere. Biztanleen garapenarekin konprometituriko erakunde demokratikorik eta parte-hartzailerik ez dagoenez, eragile pribatuek ere gauza dezakete prozesu hori. Baina tokiko administrazioen partaidetzak honako hauek ematen dizkio prozesuari: alde batetik, berme demokratikoak, eta bestetik, haien finantza-gaitasun mugatuaren baitan, oinarritzko hainbat elementu, hala nola azpiegitura, asistentzia teknikoa, informazio publikoa, ekintzaile-kulturarentzat pizgarriak... Tokiko erakunde adierazgarriak aitzindari izan daitezke adostasun- eta koordinazio-prozesu horretan, betiere ikuspegi orokorra izanik eta interes indibidualak alde batera utzita, tokiko boterea indartuz. Horrela bada, tokiko biztanleen premien arabera, helburuak planifikatzeko eta prozesua bideratzeko guneak izango dituzte erakundeek, gizarte-mugimenduekin eta hainbat eragilerekin batera. Beraz, *metaketa bera* ez da herri-ekonomiaren berezko logika, baizik eta metaketa bitartekoa da, komunitatearen ongizatea lortzeko.

Bigarrenik, tokiko garapen ekonomikoaren estrategiak *integrala* izan behar du. Gaitasunak sortzeko eta lurralde dinamiko bat osatzeko, horizontalean eta bertikalean integraturiko ekintzen osagarritasuna ezinbestekoa da. Kate ekonomiko guztien gaineko kontrola ere funtsezkoa da, merkatuetan lehiakor izatearren. Fase eta sektore osagarri gehien integratuta, jakintza handiagoa metatzea eta balio erantsi handiagoa sortzea bermatzen da. Hortaz, produkzioa, merkaturatzea, kreditua, prestakuntza, gaitasun teknologikoetan berrikuntza, enpresa-garapeneko zerbitzuak eta esparru instituzional garbia sortzea txertatu behar dira estrategian. Berriro ere agerian geratu da beharrezkoa dela ekintzak koordinatzea, estrategia indibidualen aurrean.

Hirugarrenik, *gaitasun endogenoak* indartu behar dira. Horrek ez du esan nahi lurralde itxia, autarkikoa izango denik; baina bertako gaitasunak indartzea, eta tokiko helburuak eta premiak izango ditu oinarri, soilik esportatzea helburu duten ereduaren aurrean. Hortaz, ezarritako helburuak betetzeko mesedegarriak diren efektu exogenoak endogeno bihurtzen jakitea ere bada.

Laugarrenik, *epe luzerako* estrategia izango da, *proiektu* gisa baino gehiago, *prozesu* gisa ikusita. Beharrezko egiturazko aldaketetara egokitzea; tokiko boterea indartzea; sektoreak eta eragileak integratzea; gizarte-helburuak betetzea; eta jakintza, gaitasunak eta balio erantsia sortzea prozesua da, zalantzazko prozesu jarraitua alegia, eta modu irmoan eta planifikatuan aurre egitea eskatzen du. Hainbat eragileren arteko aliantza estrategikoak indartzea ezinbestekoa da. Hori guztia eginda, planifikazio

estrategiko horren koordinazioan egiteko garrantzitsua izan dezakete berriro ere erakunde publikoek, modu demokratikoan eta parte-hartzailean.

Azken buruan, tokiko garapen ekonomikoa honako hau da: lurralde bat indartzea, publiko nahiz pribatu, gizarte-eragile eta eragile ekonomikoen adostasunean oinarrituta, betiere epe luzerako estrategia integral, endogeno eta planifikatuari jarraiki.

Gainera, ezaugarri orokor horietan guztietan, herri-ekonomiaren osagarri izan daitezkeen lerroak ezar ditzakegu, garapen ekonomikoko beste hainbat eredutatik bereizte aldera:

- Eragile ekonomikoek ez ezik, gizarte-eragileek ere bideratzen dute herri-ekonomia, ekonomia hori estrategikoa, adostua eta parte-hartzailea baita. *Helburua gizarte-arlokoa da*, eta ekonomia da helburu hori lortzeko bitartekoa.
- *Tokiko premiak betetzea* da azken xedea, baina ez bakarra. Kanpora bideratuak egon arren, beste jarduerak ere sor dezakete enplegua eta diru-sarrera, edo beste eragile ekonomikoen gainean eragin dezakete, baina tokiko premiak betetzea prozesuaren zehar-lerroa da.
- *Kapitalaren eta lanaren arteko lotura* bestelakoa izan daiteke. Produkzio-sarearen funtsezko eragileetako bat enpresa txikia da, langileek enpresaren jarduera orotan parte hartzen baitute. Indibidualak baino gehiago, adostuak duen garrantzia aipatu dugun bezala, pobreziaen aurkako estrategia bateratua izaki, lan *elkartu eta kooperatiboa* indartu egin behar da.
- Gizartearen, politikaren eta ekonomiaren arloko ingurunea da lurraldea, baina baita fisikoa ere. Hartutako strategiaren *iraunkortasun ekologikoa* premia larria da. Endogenoa eta parte-hartzailea izaki, energien eta materialen zikloari buruzko eta biztanleen bizi-kalitate osasungarria hobetzeari buruzko hausnarketaren ikuspegi hori errazagoa izango da.
- Herri-ekonomia gaitzailea denez, ahal den eremu eta sektore guztietan *emakumeen* lehentasunezko partaidetza nabarmendu behar da, hots, haien antolaketa indartu, produkzio-baliabideak (lurra, ura, prestakuntza, diru-sarrerak) kudeatzeko eta kontrolatzeko beharrezkoak diren mekanismoak ezarrita. Bestalde, herri-ekonomian, produkzio-lanaren maila berdinean baloratu behar da ugalketa-lana, gizonen eta emakumeen arteko banaketa orekatua erraztuz. Herri ekonomiak rolen eraldaketa ezar dezake eta, beraz, autonomia eta autokonfiantza nabarmen handitu.

1.4.2.4.- Nekazaritza eta abeltzaintzako sektorearen kasua: elikadura-subiranotasuna

Nekazaritza eta abeltzaintzako sektoreak aparteko aipamena eskatzen du. Herrialde pobretuetako nekazariak bizi duten egoera dela eta, bereziki kaltebera den sektorea osatzen dute, eta euskal lankidetzaren publiko gehiena sektore horretara bideratu da. Pobreziaen aurkako estrategia orok landa-eremuan eragin behar du, lehentasun

moduan, eremu horretan metatzen baita pobreziaren % 70 eta munduko biztanleriaren % 52,75^{xiv}.

Hala ere, nekazaritza eta abeltzaintzako egungo ereduak zorrotz jarraitzen die MMAk ezarritako neurri neoliberaleari, Iparraldean nahiz Hegoaldean, enpleguari eta osasunari dagokienez sektore horrek duen sentikortasuna eta elikaduraren oinarritzko garrantzia kontuan izan gabe. Eredu horren adierazpenak dira hauek: merkatuak zabaltzea; estatuaren partaidetza aktibo eza; haziak, ura, bizitza, bioaniztasuna merkantilizatzea eta patentatzea; inputen eta merkaturatzearen kontrol transnazionala; elikagaiak genetikoki aldatzea, horren inguruan osasun-informaziorik eta osasun-azterketarik egin gabe, munduko elikagai-produkzioa handitzeko eta gosetea desagerrarazteko aitzakiarekin.

Iraultza berdea esan zitzaionak merkataritza-izaera egotzi zion elikadurari, eta egungo nekazaritza industrialeko ereduak izaera horretan sakondu du; herrialde pobretuetako nekazaritzan eragin suntsitzailea izan du eredu horrek, elikaduraren segurtasunean inolako ondorio positibo frogagarririk izan gabe:

- *Lurraren jabetza desorekatua*: Merkatuak zabaldu egin dira diru-laguntzak jasotzen dituzten Iparraldeko produktuak sartzeko; produktu horiek oso merke saltzen dira, tokiko produkzio-kostuaren azpitik. Gainera, nekazariei laguntzeko zerbitzurik (finantziarioa eta prestakuntza) ez dagoenez, nekazaritza eta abeltzaintzako ustiapenak metatu egin dira, lurraren banaketa lehendik ere desorekatua bazen, orain are desorekatuago bihurtuta, eta elikagai-inportazioekiko mendekotasuna areagotuta. Lehia bidegabe horri aurre egin ezinik, produktore txikiak lurra saldu egin behar dizkiete lurjabe handiei edo enpresa handiei. Eta horren ondorioz, *nekazariak proletario bihurtzen* dira, edo hirietara alde egin behar izaten dute sektore informalean lan egiteko.
- *Ekosistemak suntsitzea*: Epe motzerako irabaziak lortzea da produkzio intentsiboko ereduaren helburua, eta horretarako, baliabide naturalak suntsitzen dituzten produktu kimikoak erabiltzen dituzte, modu masiboan. Bestalde, produkzio-kostuak gutxitzearen, monolaborantza bultzatzen da; sistema horrek lurra pobretzen du, eta desertifikazioari eta bioaniztasun-galerari laguntzen dio, ekosistemak urrakorrako eginez izurrien eta gaitzen aurrean. Eta horretaz gain, produktu transgenikoak ere sartzen hasi dira. Ezin dugu aurretik jakin produktu horiek zer ondorio izan dezaketen ekosistemetan, izaki bizidunetan mutazioak eragin baititzaizkete produktu horretara egokitzeko, ekosistemetan desorekak eraginda.
- *Jakintza lapurtzea eta bioaniztasuna pribatizatzea*: Haziei buruzko jakintzak eta lan-metodoak patentatzeko aukera izateak lapurretak ekarri ditu, nekazarien antzinako jakintzaren lapurretak, hain zuzen ere, sektoreko enpresa handien eskutik. Ondorioz, jakintza horien sortzaileek inbertitu egin behar izaten dute haziak erosten, baina enpresa handiek ezarritako baldintzei jarraiki. Beraz, nekazariak ez dute inolako kontrolik elikagaien produkzioan eta transnazionalekiko mendekotasun-egoeran geratu dira.
- *Tokiko produkzioa eta merkaturatzea suntsitzea*: Tokiko produkzio-, banaketa- eta merkaturatze-metodoek enplegua bermatzen dute, eta oro har, modu ekologikoagoan produzitzen dute; enpresa handien lehiakide gogorrek dira. Elikagaien tokiko produkzioa eta merkaturatzea desagertzeaz daude, honako

faktore hauek eraginda: produkzio-kostuaren azpiko prezioan saltzen diren inportaturiko elikagaiak sartzea merkatuetan; produkzio-kostuak handitzera behartzen duten produkzio intentsiboko ereduak ezartzea (haziak, nekazaritzako produktu kimikoak, etab.); eta produktore txikiak bete ezin dituen neurri fitosanitarioak betetzeko estatuak egiten duen presioa.

- *Osasuna*: Ezin dugu jakin produktu transgenikoek zein ondorio izango duten gizakiaren osasunean eta ekosistemetan. Ez dago inolako informaziorik horien gainean, eta produktu bat genetikoki aldatua ote den ere ez da inon zehazten. Gainera, kimikoen beharra murriztu beharrean, transgenikoekin areagotu egiten da mendekotasuna, transgeniko asko aldatzen baitira produktu kimikoekin bateragarri bihurtzeko. Eta hain justu, elikagaiak aldatzen dituzten enpresek kontrolatzen dute kimikoen produkzioa ere. Beraz, nabarmena da giza osasuna arriskuan dagoela.
- *Transnazionalek elikagaiak kontrolatzea*: Azken batean, neurri horiek guztiek ondorio hau dakarte: elikaduraren gaineko kontrola nekazaritza industrialeko konglomeratu handien esku geratzea, patenteen bitartez jakintza kontrolatuta, merkatu guztietarako sarbidea izanik, eta merkaturatzea eta banaketa beren esku dituztela, erabat. Ez dago frogatua elikagai gehiago produzitzen dutenik, ez elikadura segurtasun handiagoa dagoenik, ezta produkzio ekologikoa baino eraginkorragoa denik ere^{xv}. Besterik gabe, nekazarien eskutik transnazional handien eskura igaro da prozesuaren kontrola. Estatuak eta eskualdeek galdu egin dute elikaduraren gaineko subiranotasun-gaitasuna. Eta horrek guztiak gizartearen, osasunaren eta ekologiaren arloko kostua dakar, herrialde pobretuetako nekazariarentzat ez ezik, Iparraldeko produktore txikiarentzat ere, bai eta, oro har, munduko biztanleriarentzat ere, guztiok baikara kontsumitzaile.

Hortaz, tokiko landa-garapena egokia bezain beharrezkoa da, egungo ereduak sortzen duen pobrezia eta bazterketaren aurkako zereginean. *Elikadura-subiranotasunaren* kontzeptuak laburbiltzen ditu goian azaldu dugun herri-ekonomiaren ereduaren gako-elementuak. Ikuspegi globaleko estrategiatzat defini dezakegu, tokiko produkzio- eta kontsumo-estategietan oinarrituta. Tokiko, eskualdeko eta nazioeko erabakimena indartzea lortu nahi du, produzitzen denaren, produzitzeko moduen eta kontsumitzen denaren gainean; nekazariarentzat diru-sarrera bidezkoak eta produzioko oinarritzko baliabideen (lurra, ura, haziak, kreditua, prestakuntza teknikoa) gaineko kontrola ere xede dira, betiere produkzio ekologikoaren eta kontsumo arduratsuaren parametroetan.

Lankidetzaz-estategiaren oinarria izango da elikadura-subiranotasuna, produktoreen diru-sarrerak bermatuko dituen, ekologiaren aldetik iraunkorra eta osasungarria izango den produkzioa lortzeari begira. Hona hemen estrategia horren funtsezko alderdiak:

- *Produkzioaren eta merkaturatzearen eremuan*: Agroekologia lehenetsiko da. Nekazaritza eta abeltzaintzako sistemaren funtzionamendua ekosistema naturalaren antzekoa izango da, baliabideen eta energiaren erabilera autozentratuak sistema ezarriz. Beraz, nekazaritza ekologikoa lehentasuna izango du, herriak izango luke baliabideen gaineko kontrola, eta lan-baldintzak ere duinak izango lirateke. Tokiko merkatuak dira produkzioaren azken hartzaile.

- *Baliabideen eremuan:* Pobrezia dauden nekazariak baliabideak modu eraginkorrean kontrolatuko dituztela bermatu behar da. Uraren gaineko kontrola sustatuko da, baita hazitegi komunitarioak sortzea ere. Finantzaziorako eta bestelako zerbitzuetarako sarbidearekin eta prestakuntzarekin uztartuko da produkzioa.
- *Lurra eta Nekazaritza Erreforma:* Funtsezko baliabide izaki, lurrak aparteko aipamena eskatzen du. Elikadura-subiranotasuneko estrategia orotan hartu behar da lantzen den lurraren gaineko kontrola. Lurraren zuzeneko kontrola lur hori lantzen duten nekazariari eman eta horien artean banatzen duten nekazaritza-erreformak bultzatuko eta sustatuko dira, batik bat, produktore txikien alde. Laguntza hori integrala izango da (juridikoa, prestakuntzakoa, eta abar), politika neoliberaletatik egindako nekazaritza-erreformako proposamenetan lurra saldu edo utzi besterik egiten ez duten bitartean, inolako laguntzarik eman gabe.
- *Sentsibilizazioa eta elkarrizketa:* Nekazaritzaren egoerari eta elikagaien produkzioari buruzko foroetan eta sareetan, naziokoak nahiz nazioartekoak izan. Elikadura arazo globala denez, hainbat sektoretako (nekazaritza-sektoreez gain, kontsumitzaileen... sektoreak ere bai) gizarte-erakundeen arteko koordinazioa eta aliantzak sustatu eta bultzatuko dira.

Horretaz guztiaz gain, helburu sendoak lortu nahi baditugu norabide egokian, tokiko garapen ekonomikoaren eredu orokorrari ezarritako baldintzak nahitaezkoak dira. Jardun-eremuak honako ezaugarri hauek izan behar ditu: lurraldearen araberakoa izan behar du, tokiko merkatuen garapen sendoa indartzeko; adostua eta integratua izango da, gaitasun-metaketa eta produzitutako balio erantsia areagotzea ahalbidetzeko; eta epe luzerakoa izango da, helburu zehatzak proposatu ahal izateko elikadura-segurtasunean, osasunean eta diru-sarreretan.

Azken batean, nekazaritza ekologikoaren garapena lortu nahi da, barne-produkzioa lehenetsitatu hartuta berriro ere; kontsumitzailearentzat eta produktorearentzat prezio bidezkoak eskainita; lurra, ura, haziak eta bestelako produkzio-baliabideak behar dituenaren esku jarrita; hori guztia nekazaritza-produkzioeko estrategia iraunkorrari jarraiki, eta emakumeen erabateko parte-hartzea eta giza eskubideak errespetatuz.

Lankidetzarako inplikazioak

- Lurraldea garapenaren funtsezko subjektua da. Organo bizia, dinamikoa da, gizarte-eragileak eta eragile publikoak ados jartzen dituena eta eragileek bertan elkarrekin dutena. Lankidetzarako ekimenen helburua izango da lurralde osoa indartzea, eta ez banakako eragileak indartzea bakarrik.

- Garapen-estrategia sendoa lortzeko ezinbesteko baldintza da eragileak eta ekintzak adostea eta koordinatzea, inpaktu handiagoa edota sakonagoa lortze aldera.

- Prozesuek integralak eta epe luzerakoak izan behar dute, gaitasun teknologikoak, instituzionalak, antolamenduzkoak eta finantzarioak metatzeko prozesuan, produktuen balio-katean zehar, eta helburu argiak eta bateratuak dituen plangintza baten barruan.

- Prozesua endogenoa izango da, tokiko gaitasunak indartzen dituena, baina kanpora ere irekia, eta izan daitezkeen abantaila exogeno mesedegarriak baliatzeko prest.

- Eragile ekonomikoek gain, gizarte-eragileek ere parte hartuko duten ekintzak lehenetsiko dira, gizarte-arloko helburuak dituzten estrategia eta guzti: tokiko premiak areagotzea, enplegua sortzea, tokiko sarea indartzea, etab.

- Lehenetasuna emango zaio lan asoziatibo eta kooperatiboari.

- Planak elikadura-subiranotasuna defendatzen du nekazaritza eta abeltzaintzako ereduaren gaineko garapen-eredu gisa, eta, beraz, erreferentziako eredu horren logikan txertatutako ekimenak lehenetsiko dira.

1.4.3.- TOKIKO BOTEREA

1.4.3.1.- Tokiko Boterearen kontzeptua

Tokiko Boterearen kontzeptua honela defini dezakegu: tokiko administrazio demokratikoaren eta gizarte-mugimenduen artean sinergiak sortzeko prozesua, lurraldearen gaitasun multzoa mobilizatuko duen garapen-estrategia adostua eta orekatua ezartze aldera. Udaleko, eskualdeko edo departamentuko eremuari dagokio tokikoa.

Hasierako diagnosian jada adierazi dugun moduan, estatuari – nazioari, entitate politiko gisa, jarduteko, ordezkatzeko eta mobilizatzeke duen gaitasuna murriztu zaio. Herrialde pobretu askotan –baina, baita Iparraldeko herrialdeetan ere–, gizartearen multzoarekiko eta gizarte-mugimenduekiko haustura oso handia da, zerbitzurik ematen ez duten eta komunitate sentimendurik sortzen ez duten estatuak direlako.

Egoera honek balio berria eman dio tokikoari, hurbiletik, egunerokotik, norberaren gisa sentitzen den horretatik, ahalduntze-prozesuak eraikitzen hasteko eremu gisa, tokikoa abiapuntu gisa hartzen duten estrategietan oinarrituta. Horrela, gizarte zibilaren, gizarte-mugimenduen eta erakundeen arteko gertutasunak erraztu egiten du garapena pixkanaka eskuratzea. Baina, horretaz gain, estatuaren organo zentralek garrantzia galdu dutenez, hainbat mailatako eta zentzutako deszentralizazio-prozesuak indartu egin dira, eta tokiko erakundeek botere erlatiboa eskuratu dute.

Puntu honetan gogoratu beharra dago Plan honek lokalaren alde hartutako erabakia ez dela txikiaren idealizazio batean oinarritzen, ezta printzipio lokalistetan edo autarkikoetan ere. Tokikoaren eremuan beste edozein eremutan bezain beste ezberdintasun eta erresistentzia aurki daitezke. Gainera, deszentralizazioko ekimen batzuk *estatuaren pribatizazioko eta mehartzeko* estalpeko prozesuak baino ez dira, eta horien bitartez tokiko erakundeek eskumen berri mordo bat jasotzen dute, horren truke finantza-arloko kontraprestaziorik zein gaitasunak indartzeko estrategiarik eman gabe. Hala ere, arestian adierazi dugunez, Planak *tokikoa* hautatuko du, betiere ezinbestean estatu mailan eta nazioarteko mailan zabaltzen bada. Erabaki hori arrazoi estrategikoetan –hurbilekoan, ohikoan oinarritutako prozesuak– eta taktikoetan –Eusko Jaurlaritzaren eragiteko gaitasuna eta horren lehenetsizko eragileak– oinarritzen da, honako helburu argi hauek dituen *lurraldeari lotutako* lankidetzaren eredu sendo eta ekitatibo bat defendatuz: garapen-subjektuak finkatzea, aukerak abiaraztea, gizartean eragina izatea.

Ildo honetan, pobreziaaren aurkako estrategia parte-hartzaile hauek hedatzeko eremurik egokiena da tokiko eremua, bai gizartearen, ekonomiaren eta kulturaren arloan, bai erakundeak demokratizatzeke, eta horien eta herritar-komunitateen arteko harremanaren arloan. Diagnosi oso objektiboak egitea ahalbidetzen du, komunitatearen lehenetsunak definitzea, baita tokiko eragileen eragiteko, elkarrizketarako eta koordinatzeke gaitasuna handitzea ere.

Era horretan, gune geografiko berean hainbat ahaleginek bat eginda, eragileak elkar osatu eta sinergiak indar daitezke; beraz, integritasun osoarekin (hots, giza baliabide

guztiak eta gaitasun guztiak baliatuta), garapen endogenoa lortzeko esparru ezin hobeia da tokiko eremua. Horregatik, giza garapen iraunkorren funtsezko eragile da lurraldea.

Ohiko garapen-estrategietan, interes elitisten arabera zentralizatzen dira sektore-politikak; tokiko eremuan, aldiz, gaitzetik abiatuta diseina daitezke estrategiak, eragile publikoen eta pribatuen bat-egitea sustatuz pobrezia desagerrarazteko. Gune horri esker, egoera jakin batez gaindiko itunak indartzen dira, honako abiapuntu hauek izanik: komunitateak berak ezarritako helburuak, kultura-ezaugarriak eta parte-hartze zuzena. Gaitze-estrategia horiek egiaz orekatuak eta sendoak izan daitezzen, honako baldintza hauek ezinbestekoak direla aipatu behar dugu: emakumeen partaidetza sustatzeko estrategiak, emakumeen antolaketa indartzea, emakumeei laguntzeko arlo espezifikokoak sortzea, eta politika publikoetan generoa zeharkako bihurtzea.

Plan honetan, tokikoari bi aldetatik erreparatzen zaio, hain zuzen ere, kontrakoak ez, baizik eta osagarriak diren aldetatik: modu demokratikoan hautaturiko udal-gobernuaren egitekoaren aldetik; eta erakundeen eta partaidetza-egituren bitartez, tokiko gobernuaren eta gizarte zibilaren arteko lan eta gune komunaren emaitza izango den tokiko boterearen egitekoaren aldetik. Horregatik, ekimenak hiru ataletan bana daitezke: aurrenekoa, tokiko gobernu demokratikoari laguntzekoa; bigarrena, tokiko boterea indartzekoa; eta hirugarrena, komunitateak berak eta komunitateko erakundeak indartzekoa.

Lehenengo atalari dagokionez, erakunde publikoen papera azpimarratu beharra dago. Modu demokratikoan hautatu bada, eta lurraldearen garapenarekin konprometitu bada, tokiko gobernu gako-elementua da gobernantza gauzatzeko. Tokiko instituzioen parte-hartze aktiboa ez da ezinbesteko baldintza lurralde baten gaitasunak finkatzeko, baina hori gertatzen bada –gardentasunez planifikatuta, koordinatuta, hitzartuta eta kudeatuta–, inpaktuaren sakontasuna nabarmen handituko da. Gainera, pobrezia –marjinazioa – partaidetzarik eza zirkulua hausteko, kasu batzuetan hurbileko inguruan aldaketarekin konprometitutako egiturak ahalbidetu behar dira, eta, hain zuzen ere, kasu horretan publikoak funtsezko zeregina dauka.

Era horretan, oso garrantzitsua da garapenarekin eta herritarren partaidetzarekin konprometitutako tokiko gobernu demokratikoei laguntza integrala ematea: politikak formulatzea eta plangintza estrategikoak; laguntza juridikoa arauak emateko; unitate teknikoak eta plangintza-unitateak indartzea; gizakien eta materialen gaitasunak modernizatzea, etab.

Bigarren atalari dagokionez, oso garrantzitsua da tokiko erakundeek eta gizarte zibilak topatzeko, adosteko eta parte hartzeko guneak izatea, erabakiak hartzeko –bakoitzak bereari jarraiki– eta estrategia komunak definitzeko. Entitate publikoen ahaleginak ez dira nahikoak izango biztanleriaren parte-hartze aktiboarekin ez badatoz, Planaren helburua ez baita garapenaren egoera hobetzea bakarrik, protagonistak subjektu bihurtuta hobetzea baizik. Horregatik, lotura publiko – pribatu horiek indartzea estrategia bihurtzen da: partaidetzarako egiturak ezartzeko laguntza juridikoa eta estrategikoa; prozesu horietan parte hartzen duten eta lana errazten duten pertsonen prestakuntzan laguntzea; parte hartzeko aurrekontuen prozesuak martxan jartzea; partaidetza-prozesuei buruz lurraldea sensibilizatzeko eta intzidentzia izateko laguntzea, etab.

Azkenik, hirugarren atalari dagokionez, antolaturiko gizarte zibilaren gaitasunak indartzeko laguntza ere garrantzitsua da. Gizarte zibil aktibo, parte-hartzaile eta antolatuta bat azken bermea da prozesu osoaren iraunkortasunerako. Ildo honetan, herritarren hezkuntza sustatu behar da, honako hauei dagokienez: parte-hartzeko estrategiak,

liderren prestakuntza, antolamendu komunitarioa, sektoriala, lurralde mailakoa, eta erakunde horien parte-hartzea sareetan eta plataformetan.

Horretaz gain, koordinazio-printzipioa eta gaitasunak indartzeko printzipioa bere eginda, estrategia honek Hegoaldeko instituzioek eta tokiko botereek euskal tokiko administrazioekin bat egiteari lagundu nahi dio, betiere kontuan hartuta administrazio horietan Euskal Fondoaren papera nabarmentzen dela, arlo horretan espezializatutako euskal udalerrri laguntzaileen sarea izaki. Eusko Jaurlaritzak eskura dituen tresnak baliatuko ditu –zuzeneko hitzarmenak batez ere–, plan honen funtsezko lerroen barruan gaitasunak elkartrukatze guneak sortzearen. Tokiko euskal administrazioek metatua duten esperientzia eta lan-prozedura Hegoaldeko herrialdeen premietara egokituz gero, tokiko instituzioen gaitasunak sendo daitezke. Aldi berean, zuzeneko partaidetza-guneak eta adostasun-guneak sortzeko Hegoaldeko esperientziak adibide izan daitezke Iparraldeko erakundeentzat.

Hortaz, tokiko boterea plan honen ezinbesteko laneko sektore-arloa da, baina aldi berean egitura parte-hartzaile, sendo eta planifikatua sor dezake, lurralde baten sektore-estrategiak txertatzeko, eta hainbat ekintzaile gehitu ahalko lirarteke bertan, Hegoaldekoak zein Iparraldekoak.

Lankidetzarako inplikazioak

- Tokiko boterea honela defini dezakegu: tokiko administrazio demokratikoaren eta gizarte-mugimenduen artean sinergiak sortzeko prozesua, lurraldearen gaitasun multzoa mobilizatuko duen garapen-estrategia adostua eta orekatua ezartze aldera. Udaleko, eskualdeko edo departamentuko eremuari dagokio tokikoa.
- Tokikoa eremu estrategikoa da garapen-estrategia sendoak eta berdintasunezkoak finkatzeko, hurbiltasunean eta egunerokotasunean oinarrituta sortuak. Estrategia horiek tokiko gunea gaindituko dute beste tokiko, estatuko eta nazioarteko batzuekin harremanetan jartzeko.
- Tokiko botereak hiru alderdi ditu, elkar osatzen dutenak: tokiko erakundeen aldetik, gizarte-arloko kudeaketa eta planifikazio demokratikoa hobetzeari laguntzea; gizarte-arloko eragile guztien lurraldeari eragiten dioten erabakietan parte-hartzea ahalbidetuko duen tokiko boterea osatzeari laguntzea; eta, azkenik, lurraldean dauden gizarte erakundeen indartze instituzionalari laguntzea. Batik bat, emakumeen erakundeak indartuko dira.
- Instituzioei, tokiko botereari eta gizarte-erakundeek laguntzearen ondoriozko estrategietan, oinarria genero-berdintasuna izango da, eta helburua, aldiz, emakumeak mendeko-egoeran dauden egiturak aldatzea.
- Tokiko administrazioa izaki, Iparraldeko eta Hegoaldeko erakundeen eta tokiko boteren arteko topaketak eta elkartrukeak erraztu behar ditu Eusko Jaurlaritzak, elkarri gaitasunak indartzeko estrategiaren barruan.

1.4.4.- EMAKUMEEN AHALDUNTZEA

1.4.4.1.- Ahalduntzearen kontzeptua

Ahalduntzea hitza ingelesezko “empowerment” kontzeptuaren itzulpen literala da, eta “boterea irabazi”, ahalmena eskuratzea esan nahi du, eta emakumeak gizartearen, ekonomiaren eta politikaren arloko egoeran indartzeari dagokio. Hainbeste erabiltzen bada edukirik gabe geratzeko arriskua duen termino hau ikuspegi desberdinen arabera interpretatu da. Plan honek ikuspegi feminista jaso nahi du, eta horrek genero-teoriara eta horren kontzeptu garrantzitsu batzuen definiziora garamatza.

Oro har, teoria honek biologikoaren eta sozialaren arteko bereizketa azaltzen du, eta esaten duenaren arabera, emakumeen eta gizonen arteko ezberdintasunak alde biologikoetan oinarrituak egon ordez, generoari, femeninoari eta maskulinoari buruz gizarteak eraikitako ideietan oinarritzen dira. Gizarteak eraikitako ideiak direnez gero, alda eta eralda daitezke. Genero-teoriak azterketaren muinean kokatzen ditu bi generoen arteko botere-harremanak eta horien inguruan eraikitako sistema, hau da, sistema patriarkala edo androzentrikoa, maskulinoari/gizonari femeninoaren/emakumearen gaineko nagusitasuna ematen diona. Sistema patriarkalak emakumeen gaitasunak eta eskubideak mugatzen ditu, emakumeak izateagatik bakarrik, eta gizarte eta testuinguru guztien sistema komuna da, eta ez du berdintasuna errespetatzen eta ezberdintasunak sortzen ditu.

Ezberdintasuneko egoera hau aldatzeko konpromisoan oinarrituta, genero-ikuspegiak adierazi duenez, egiten diren azterketa guztietan kontuan hartu behar dira premia praktikoak, interes estrategikoak, eta emakumeen eta gizonen egoera eta zeregina. Sozialki ezarriak dituzten zereginetan oinarrituta, emakumeek berehalako baldintza materialen erantzun gisa identifikatzen dituzte premia praktikoak (elikadura, seme-alabak eskolaratzea, osasuna, eta abar). Premia horiek emakumeek eta gizonen parteka ditzakete, baina modu desberdinean egiten dute, bere generoaren arabera. Bizi duten gizarte-mendekotasuneko egoeran oinarrituta identifikatzen dituzte interes estrategikoak emakumeek, eta interes horien helburua emakumeen ezberdintasuneko egoera edo egoerak gainditzea da, hau da, gizonekin alderatuta emakumeen egoera hobetzea.

Interes estrategiko – egoera binomio honetan oinarrituta, ahalduntzearen kontzeptuarekin lotzen dugu. Garapenaren eremuan ahalduntzearen kontzeptua erabiltzea *Generoa garapenean (GG)* teoriarekin dago lotuta. Emakumeen kontzientziazio-prozesuarekin —banakakoa eta kolektiboa— loturik dago, eragin-gaitasunerako eta boterea gauzatzeko sarbidea ematen duten prozesuetan eta erabakiak hartzeko prozesuetan parte-hartzea areagotzeko aukera dutela. Beste modu batean esanda, prozesu bat da, emakumeen gizarte-talde gisako gaitasunak eta protagonismoa indartzen dituena, alegia, aldaketa positiboak eragiteko, bizi dituzten egoeretan eta eremu sozialean, kulturean, politikoan, ekonomikoan eta pertsonalean betetzen duten zereginetan, gizonekin alderatuta, baliabide materialen eta sinbolikoen kontrola eskuratuta^{xvi}.

Aurrekoaren ildo beretik, emakumeen egoeran hobekuntza gertatu ahal izateko, emakumeen ahalduntze-estrategien bitartez egin beharko da, hau da, emakumeek beren autonomia berreskuratu eta ezberdintasunak egon daitezkeen eremuetan (pertsonala, politikoa, gizartearen eta kulturaren arlokoa, ekonomikoa, eta abar) ezberdintasunak gainditu ahal izateko aukera ematen duten prozesuen bitartez.

Arestian esan dugunez, ahalduntze-prozesua indibiduala eta kolektiboa da. Eta, era berean, tokikoa eta globala lotzen ditu. Indibiduala da emakumeak beren ezberdintasuneko egoeraz jabetzetik hasten delako (autoestimua, nortasuna, duintasuna, erabakitze gaitasuna). Baina ez da horretara mugatzen, alegia, gaitasun garatuak dituzten eta munduan duten egoera hobetzeko aukera gehiago dituzten emakume indibidualetara ez da mugatzen. Aldiz, prozesua kolektiboa ere bada, eta horren bitartez emakumeak bizitzaren hainbat arlotan bizi duten gizarte-mendekotasunari eta diskriminazioari buruz kontzientziatzen dira. Hau da, emakumeak beren botereaz eta eragiteko gaitasunaz jabetzen dira indibidualki, eta horrek maila

kolektiboa gainditzen du, emakume horiek ordura arte baztertu dituen sistema eraldatzeko duten konpromisoaren bitartez. Azken batean, emakumeak beren genero- interesen alde borrokatzeko antolatzea sustatzen du.

Eta, aldi berean, tokikoa eta kolektiboa lotzen ditu, emakumeei aukera ematen dielako hausnartzeko eta beren tokiko errealitatea ezagutzeko, mendekotasuneko egoeran jartzen dituzten botere-egiturak identifikatzeko, eta, hori kontuan hartuta, beste emakume batzuekin mendekotasun komuna ulertzeko, egitura horiek ezabatzeko antolatzeko, eta munduan bizi duten egoera hobetzeko.

Genero-ezberdintasunak bizitzaren arlo guztietan aurkitzen dira, eta emakumeen ahalduntzea arlo horietan guztietan lortu beharko litzateke, baina kategorizazio jakin bat ezartzeko asmoarekin, emakumeek lortu beharreko lau motatako autonomiak ezar daitezke: autonomia fisikoa, beren gorputzaren, sexuaren eta ugalkortasunaren gaineko boterea eta kontrola gauzatzeari dagokionez; autonomia ekonomikoa, baliabideen eta ondasunen gaineko kontrola eta baliagarritasuna; gizartearen eta kulturaren arloko autonomia, kultura-baliabideen, informazio-baliabideen eta bestelako baliabideen gaineko kontrola eta baliagarritasuna; eta, autonomia politikoa, oinarrizko eskubide politikoak baliatzea eta gauzatzea, hala nola, antolatzeko eskubidea, parte hartzeko eskubidea, etab.^{xvii}.

Bestalde, ahalduntzearen kontzeptua bera, lortu nahi den botere motarekin lotua dago ezinbestean. Hainbat teoria feministak adierazitakoari jarraiki, esan dezakegu tradizioz boterea zero batzen duen boteretzat hartu dela, eta pertsona edo talde baten boterea handitzeak besteak ezinbestean boterea galtzea esan nahi duela. Botere hori bereizlea da, batez ere emakumeen eta sistematik "kanpo" dauden biztanleriako kolektiboen kasuan. Boterea mugatua da, eta gutxi batzuen esku dago. Boterearen beste ikuspegi bat dago, prozesu hauentzat interesgarriagoa izan daitekeena, alegia, batura positiboa duen boterea, non pertsona edo talde batek duen botereak eskuragarri dagoen guztizko boterea handitzen duen. Arestian deskribatutako emakumeen ahalduntze-prozesuarekin lotuta, eta teoria feministari jarraiki, botere honek hainbat motatako boteretara garamatza: *barrutik hasten den boterea*, prozesu indibidualari dagokionez, norberaren kontzientzia eraldatzeko eta hurbileko errealitatea berrinterpretatzeko gaitasunerako boterea; *boterea norekin*, beste emakumeekin eta eraldaketarako erakundeekin egindako aliantzak; *boterea zertarako*, ezberdintasuna sortzen duten egituren aldaketarako solidaritatea deitzen duena^{xviii}.

Hortaz, emakumeen ahalduntze-prozesuen azken helburua emakumeen eta gizonen arteko botere-harremanak orekatzea da, eta, beraz, emakumeek botere-gune berriak lortzea, baina beti boterearen beste kontzeptu bati jarraiki, eta ekitatiboagoa eta bidezkoagoa den eredu baten eraikuntzan oinarrituta, ez soilik emakumeentzat, pertsona guztientzat baizik.

1.4.4.2.- Emakumeen ahalduntzea sektore-arlo espezifiko gisa

Sektore-arlo honen egokitasuna adierazi da jada genero-berdintasunaren zeharlerroan. Garapen-subjektua gizaki bakoitza dela ulertzen badugu, emakumeak ezin dira alde batera utzi. Eta, gainera, edozein garapen-politikak ezberdintasuna eta pobrezia sortzen duten egitura ekonomikoak, politikoak eta sozialak eraldatu behar dituela ulertzen badugu, sistema patriarkala ezin da alde batera utzi, egitura horietan

guztietan aurkitzen baita, eta, era berean, ezin da alde batera utzi emakumeen eta gizonen arteko ezberdintasunak ezabatzeko lana.

Premisa horietan oinarrituta, Eusko Jaurlaritzak bultzatutako lankidetzak eta Plan honek zehar-lerro gisa definitzen dute genero-berdintasuna gauzatzea, estrategia gisa genero-ikuspegian eta genero-mainstreamingean edo genero-zeharkakotasunean oinarritua. Era horretan ezartzen da genero-ikuspegiak garapen-plangintzaren fase guztietan egon behar duela eta bertan parte hartzen duten eragile guztiak barnean hartu behar dituela. Baina, horretaz gain, emakumeen ahalduntzearen sektore-arlo bat definitzea beharrezkotzat eta egokitzat hartzen da, gure ustez prozesu horien aldeko laguntzak genero-berdintasuna eta giza garapena lortzeko duen garrantzia azpimarratzeko modu gisa. Bi estrategiak, hau da, zeharkakoa eta sektoriala, eskutik doaz eta ez dute elkar baztertzen, bata bestearen osagarria baita, eta helburu komun bat dute. Genero-ikuspegiak lankidetzak-ekintza guztietan egon behar du, mainstreamingaren bitartez, eta ahalduntzeak ere bertan egon behar du sektore-arlo gisa, berdintasuna lortzeko prozesu hauen funtsari erantzunez.

Arestian egin dugun kontzeptuaren definizioan adierazitakoari jarraiki, Plan honek alderdi anitzeko prozesutzat hartzen du emakumeen ahalduntzea, emakumeetan, pertsonalean eta emakumeek boterea eskuratzean oinarrituta sortzen dena. Horren arabera, ahalduntzea ezin da goitik hasi, eta ezin da formula edo "errezeta" errazekin eman. Ezin dira emakumeak "ahaldundu". Eta, beraz, lankidetzak-eragileen zeregina izango da prozesu hauek gauzatzea eta iraunkorrak izatea erraztea, bultzatzea eta sustatzea, eta beharrezkoak diren giza baliabideekin, baliabide ekonomikoekin, metodologikoekin eta intelektualekin laguntza ematea.

Horretarako, ezinbestekoa da prozesu hauetan murgiltzeko borondatea eta konpromisoa duten erakunde, pertsona edota talde feministekin aliantzak egitea, eta horiei laguntza ematea. Indibidualetik hasten den prozesua izateak ez du inolaz ere esan nahi plangintzarik, laguntzarik edo ebaluaziorik behar ez duten prozesuak direnik. Eta, horregatik, prozesu konplexuak eta epe luzerakoak direlako, aurrerapenei eta atzera-pausoei ematen zaien arretak funtsezkoa izan beharko du.

Esan dugunez, ahalduntzea alde anitzeko prozesu bat da; izan ere, tradizioz "ahalmenik" izan ez duten eremu askotan emakumeen autonomia gauzatzea dakar. Aitzitik, ezin dugu ulertu emakumeek, indibidualki, nolabaiteko autonomia lortzen dutenean gertatzea ahalduntzea, esate baterako, ekonomiaren arloan, mendekotasuneko egoeran dauden beste alderdietan lanik egin gabe eta mendekotasun hori sortzen duten egiturak ulertu gabe. Kasu honetan, ekimen jakin batzuei egiten diegu erreferentzia, non emakumeek nolabaiteko ordain ekonomikoa edo produkzio-proiektuetarako lehentasunezko sarrera izateak ezinbestean emakumeen ahalduntzea dakarrela ulertzen den. Prozesua integrala eta konplexua dela eta bizitzaren arlo bakar batean ez dela mugatzen ulertu behar dugu.

Horrek zuzenean epe luzerako ahalduntze-prozesuen ideia dakar, eta ez soilik noizean behingo ekintza sakabanatuak. Beraz, helburu eta jardun-ildo sendo eta ongi definituak dituzten estrategia planifikatuetan ezartzen ez bada, ez dugu ahalduntzeari buruz hitz egingo. Hasten diren proiektuak eta ekintzak azken helburu hauen tresna osagarriak eta progresiboak baino ez dira, alderdi anitzekoak eta sakonak.

Bestalde, oso garrantzitsua da ahalduntze-prozesuak "emakumeen eta emakumeentzako proiektuen" ideiatik bereiztea, funtsean bi arrazoierengatik.

Lehenik, ekimen batean parte hartzen duen biztanleria guztiz femeninoa den arren, ekintza honen helburua soilik premia praktikoak betetzea baldin bada, ez da emakumeen ahalduntze-prozesu bat izango. Agian, kasu honetan, emakumeen biztanleria kalteberena dela ulertzen duelako, subjektu-biztanleriaren hautaketan ekintza positiboa aplikatzen duen proiektu bat izango da. Baina, emakumeen proiektu bati buruz hitz egingo genuke, eta ez emakumeen ahalduntzea lortu nahi duen proiektu bati buruz. Planifikatu behar den eta genero-ezberdintasunak gainditzeko konpromiso eta estrategia batean oinarritu behar den prozesu konplexua da emakumeen ahalduntzea. Premia praktikoan asebetetzea erabil daiteke ahalduntze-prozesuak kontzienteki hasteko, baina horien asebetetze soilak, emakumeen egoera hobetzeak ez du ezinbestean esan nahi horien egoera hobetuko denik. Guren ustez, kategoria praktiko/estrategiko hauek ez dira kategoria itxiak, baina ahalduntzea ezer egin gabe gertatzen ez dela sinisten dugu, eta gauzatu ahal izateko planifikatu behar dela eta giza baliabideak eta baliabide materialak behar dituela uste dugu.

Era berean, emakumeen proiektuak direneko ideiatik bereizi behar dela pentsatzeko bigarren arrazoia honako hau da: emakumeen ahalduntzeak botere-harremanak birkokatzen ditu biztanleriaren beste erdiarekin, alegia, gizonekin. Oso garrantzitsua da hori kontuan hartzea, eta, era berean, gizonen egoera eta zeregina ere kontuan hartu behar da, eta baita ezberdintasun hauek irauteko gizonek betetzen duten papera ere; eta, hori guztia oinarritzat hartuta, botere berri baten eraikuntza-prozesuan gizonek parte har dezaten saiatu behar dugu. Emakumeen ahalduntzearen ondorioz gizonek betiko pribilegioak eta boterea galduko dituzte. Baina, era berean, egungo sistemaren justiziarri eta legitimitateari buruz modu indibidualean eta kolektiboan hausnartzeko moduak eta guneak ezartzen badira, inklusiboa eta ez-hierarkizatua izango den gizarte-antolamenduko eredu berri baten eraikuntzan parte hartzeko aukera izango dute. Borroka honetan Iparraldeko zein Hegoaldeko emakumeek eta gizonek parte hartu behar dute, eta, beraz, sektore-arlo hau emakumeen ahalduntze-prozesuetarako ekintza espezifikoei laguntzearen aldekoa den arren, gure ustez, ezin dugu ahaztu gizonekin ere lan egin behar dela, lan desberdina eta beste alderdi batzuetan, baina sektore-arlo honetan adierazitako ikuspegian txerta daitekeena. Emakumeek boterea eskuratzen dutelako ematen da ezinbestean emakumeen ahalduntzea, baina baita tradizioz botere hori bidegabeki izan duten gizonek botere berri baten eta gizarte-eredu bidezkoago eta ekitatiboago baten eraikuntzan parte hartzen dutelako ere.

1.4.4.3.- Ahalduntzeko lankidetzak-ekimenak

Zaila da emakumeen ahalduntzea sustatzen duten lankidetzak-ekintzen tipologia itxi bat ezartzea. Atal honetan ahalegina egiten da ekintza jakin batzuk biltzeko, kontuan hartuta kategorizazio hau ez dela bereizlea, ezta zehatza ere, lana orienta dezaketen pintzelkada edo erreferentzien modukoa baizik.

Oso garrantzitsua da ekintza hauek alderdi anitzeko eta epe luzerako prozesuen ideiatik ez bereiztea. Adierazitako edozein ekimen ahalduntze-prozesu baterako sarrera-atea bihur daitekeen arren, gutxienez honako lau arlo hauek barnean hartzen dituen eta sakonki planifikatu den estrategia bat har daiteke halakotzat:

- Autonomia fisikoa:

- Emakumeen sexu- eta ugalketa-eskubideak lantzen dituzten ekimenak, eta norberaren gorputzaren eta ugalkortasunaren gainean emakumeen autonomia gauzatzeko ekimenak.
- Indarkeriaren biktimak diren emakumeei laguntzeko proposamenak, baina asistentziaren arloko ikuspegi batean baino, ikuspegi integral batean oinarrituta, emakumeen autoestimua eta jasaten duten indarkeria sortzen duten egiturazko arazoan ulermena indartuz.
- Autonomia ekonomikoa:
 - Ekimen ekonomikoak, baliabideen horniduran baino, hausnarketa-prozesuen sustapenean oinarrituak, emakumeek egungo eredu ekonomikoan bizi duten ezberdintasuna eragiten duten egiturazko arazoak atzeman ditzaten.
 - Etxebizitzaren eta zaintzaren arloan ikusten ez den emakumeen lana aitortzera eta lan horiek gauzatzeko baldintzak hobetzeko laguntza ematera bideratutako programak.
- Autonomia politikoa:
 - Emakumeen erakundeek tokiko garapen-politiken definizioan parte har dezaten laguntzera eta bermatzera bideratutako proposamenak.
 - Ekimen feministen aldeko laguntza, Ahalduentzako Eskolen bitartez, argitalpenean bitartez, mobilizazioen bitartez eta bestelako bitartez.
 - Diskriminazio anizkoitza jasaten duten emakume-taldearen antolamendua eta elkartearen sustatzea.
- Gizartearen eta kulturaren arloko autonomia:
 - Emakumeak komunikabideetara sartzea sustatzen duten ekintzak, kuoten ezarpenean ez ezik (presentzia, interesak eta abar), edukien agendaren definizioan ere oinarrituta, eta eduki horiek ezberdintasuneko harremanak eraldatzeko erabilita.

Lankidetzarako implikazioak

- Emakumeen ahalduentze-prozesuak sustatzeko helburua duten garapen-jardun guztiak genero-harremanen diagnosi zehatz batean oinarritu behar dira, alegia, testuinguru jakin batean ezberdintasuneko egoerak ezartzeko eta horren arabera planifikatzeko aukera ematen duen diagnosi batean.
- Emakumeen ahalduentzea helburu duten jardun guztietan emakumeen egoera hobetzeko eta genero-ezberdintasunak eta horiek iraunarazten dituzten egiturak ezabatzeko esanbidezko konpromisoa izan behar da.
- Ahalduentze-prozesuak konplexuak eta epe luzerakoak dira, eta, beraz, lankidetzaren eragileek epe ertain eta luzerako laguntza-estrategiak ezarri behar dituzte, noizean behingo ekintzetara lotu gabe.
- Ezinbestekoa da aurretiazko esperientziak ezagutzea eta horien aldeko erakunde feministekin aliantza estrategikoak egitea.
- Alderdi anitzeko prozesuak dira, eta, beraz, emakumeen autonomia lortzeko, garapen-ekimenak arlo bateko lanari lehentasuna ematen dion arren, ezin du ahaztu ahalduentze-estrategiek multzoaren ikuspegi kontuan hartu behar dutela.
- Era berean, kontzientziazio indibidual eta kolektiboko prozesuak direnez gero, ezin dira ahalduentzako "errezetak" ezarri, baina horrek ez du esan nahi prozesu horiek planifikatu behar ez direnik, eta ezta helburu eta estrategia definituak ezarri behar ez direnik ere.

- Ahaleginak egin behar dira lortutako eraldaketak eta aurrerapenak neurtzeko, adierazleak eta neurketa-sistemak ezarri.

1.4.5.- SEKTORE ARLOA: GIZA ESKUBIDEAK

1.4.5.1.- Giza eskubideak sektore-arlo espezifiko gisa

Giza eskubideak pobrezia ezabatzeko estrategia guztien zehar-lerro gisa definitzerakoan jada ezarri dugunez, giza eskubideak eta garapena zatiezinak dira, elkarrekiko mendekoak eta elkarrekiko lotuak. Hori horrela izanik, ezinezkoa da garapena gertatzea eta pobrezia aurka egitea, giza eskubide indibidualen eta kolektiboen esparrua errespetatu gabe; baina eskubideak indarreko diren egoera izatea ere ezinezkoa da, desoreken eta pobrezia egoera orokortua baldin badago.

Hala ere, lankidetzaren osoz gain, eta jardun-arloa edozein izanik, eskubideen ikuspegia zeharkakotzat hartu behar dela kontuan hartuta, sektore-mailan eta zuzenean eskubideen gainean lan egiten den arlo espezifikoak daude.

Eskubideen ikuspegian oinarrituta eta ikuspegian bertan zuzenean eta sakonki eragiten duten proiektu espezifikoak dira, eta giza eskubideen justiziako, kontzientziazioko eta errespetuko gutxieneko baldintzak eragiten ditu, edozein garapen-bide egiteko ezinbestekoak direnak.

Lehentasun berezia eman behar zaie emakumeen eskubideei, eta baita, emakumeak izateagatik eta talde diskriminatuetako kide izateagatik, funtsean emakumeek jasaten dituzten diskriminazioko egoeretan oinarrituta, eskubide horiek urratzeari ere. Emakumeen eskubideak urratzea salatzen eta eskubideak instituzionalizatzeko helburua duten estrategia espezifikoak lehentasunez hartzen dira.

1.4.5.2.- Sektorearen barruko jardun-eremuak

Giza eskubideen sektore-arlo honek hainbat lan-ildo estaltzen ditu:

- Giza eskubideen zapalketa salatzea: urraketan salaketa, salaketa-ekintzak; Egiaren Batzordeak, Adiskidetzaren Batzordeak, Behaketa Batzordeak sortzea; urraketan dokumentazioari laguntzea, etab.
- Giza Eskubideen arloko erakundeei laguntzea: Giza Eskubideen arloko erakundeen indartze instituzionala; herritartasun-heziketako prestakuntza, erakunde horien eragiteko gaitasuna indartzea; giza eskubideen defentsarako sareak egiteko sustapena, giza eskubideen arloko liderrak prestatzea.
- Biktimentzako laguntza: biktimentzako laguntza integrala, osasun mentalaren arloko programak, salaketen laguntza juridikoa.

- Sentsibilizazioa: biztanleriaren giza eskubideen arloko prestakuntza; herritarrak sentsibilizatzeko estrategiak, instituzionaltasun demokratikoa indartzeko estrategiak, eta justiziako kateak eta galdagarritasuna indartzeko estrategiak.
- Eragina: herrialde eta herri pobretuen esparruan giza eskubideak aitortzeko eta eskatzeko prozesuak eta ekimenak.
- Ikerketa: giza eskubideei buruz, dinamikoak direlako eta etengabe bilakatzen direlako.

Planaren helburuan adierazi dugunez, lehentasunezko jardun-eremua tokikoa da, baina tokiko hori nazioko eta nazioarteko eremuetan txertatuta, zuzenean lotzen dituzten estrategien bitartez. Beraz, tokikoa sendotu behar da beste bi jardun-eremuetan duen eragina, ekarpena eta elkarrizketa indartzeko. Giza eskubideen arloaren kasu zehatzean, arloaren idiosinkrasiak eta salaketako eta galdagarritasuneko maila desberdinek lanerako funtsezko eremu bihurtzen dituzte estatukoa eta, batez ere, nazioartekoa. Baina horrek ez du esan nahi, ahal den heinean, tokikoak ere prestakuntzako, kontzientziarazioko eta salaketako esparru ezin duenik izan, kasu eta egoera jakinak goragoko instantzietara zabalduko dituzten tokiko gaitze-prozesuak sortuta.

Lankidetzarako inplikazioak

- Lankidetzak-ekintza orean jardunaren zehar-lerro izan behar du giza eskubide indibidualen eta kolektiboen esparru globalak; horretaz gain, sektore-arlo espezifikoak ere bada, estrategia zuzenean osatzen duena, giza eskubideen indarra bermatzeko duen tokiko, nazioko eta nazioarteko egitura indartzeko eta horri lagunduz.

- Sektore-arlo horren barnean hartzen dira honako ekintza hauek: giza eskubideen inguruko erakundeen defentsa eta salaketa, prestakuntza eta indartzea; erakunde eta instituzio horietako behatzaileen defentsa eta babesa; sare-lana, sentsibilizazioa, eragina, elkarrizketa eta biktimei laguntzea.

- Giza eskubideen indarra bermatzeko lankidetzak-jardunen jardun-eremua tokikoa, naziokoa eta nazioartekoa da, bat bera ere lehenetsi gabe.

1.4.6.- KULTURA NORTASUNA

Urteak joan, urteak etorri, garapen-programetatik kanpo egon da kultura. Laurogeita hamarreko hamarkadan hasi zen gai horren inguruko eztabaida, eta ondorioz, errotik aldatu da kulturaren eta garapenaren arteko lotura ulertzeko modua. UNESCO izan zen eztabaida eragin zuen lehena, eta hainbat jarduera sustatu zituen (ikerketakoak nahiz ekintzakoak), kultura garapenaren funtsezko zatia dela dioen irizpideari jarraiki.

Egia esateko, oso gai korapilatsua da, eta zehatz-mehatz ulertu behar da, batik bat, garapen-estragiak eta garapen-lankidetzarako estategiak ulerketa horretatik abiatuta planifikatzen direla kontuan izanik. Eta hain justu, kulturaren kontzeptua ulertzeko moduak dakar lehenengo zailtasuna.

Lehenik eta behin, kultura-kontzeptuaren definizioa bera eztabaidagai eta zehaztugabetasun ugariaren xede izan dela hartu behar da aintzat. Hori dela eta, gure ustez oso garrantzitsua da zehatz-mehatz definitzea zertaz ari garen kultura aipatzen dugunean, eta are gehiago, honako honetaz konturatzen garenean: kontzeptua hain aberatsa da, ezen hainbat adieratan balia baitaiteke.

Kulturaren eta garapenaren arteko harremana ulertzeko garrantzitsuak diren kontzeptu horren bi alderdiak ulertzea da garrantzitsuena; bi alderdi horiek ez dira nahastu behar, ezta kanpoan utzi behar ere:

- Lehenengo alderdia kulturaren definizio funtsezkoenari eta zabaleneri dagokio; historiaren aro jakin batean, giza komunitate jakin batek dituen balio, jakintza, esperientzia, sinesmen, egiteko modu, jarrera eta asmo berdinen multzoa da kultura.
- Bigarren alderdia, aldiz, definizio espezifikuari dagokio; bizitzaren adierazpen artistikoen, intelektualen eta moralen eremua da kultura.

1.4.6.1.- Kultura eta garapena: funtsezko harremana

Lehenengo definizioaren barnean hartzen da bigarrena, gizakiaren jarduera espezifikoa eta sortzaileagoa aipatzen baitu. Hala ere, ekonomiaren, gizartearen eta kulturaren arteko harreman konplexua ulertze aldera, eta garapenaren kultura-ikuskeraren alde lan egite aldera, ezinbestekoa da bi alderdiak bereiztea, gero osotasun gisa osatzeko.

Lehenengo definizioa orokorragoa eta barne-hartzaileagoa denez, hobeto ulertzen da kulturak eta garapenak duten funtsezko harreman erabakigarria. Ikuspegi horretatik begiratu, kulturak ez du osatzen ekonomiaren *gizarte-oinarria* eta testuinguru orokorra soilik, baizik eta, batik bat, garapenaren funtsezko helburua da, betiere komunitateen eta herrien asmoekin eta balioekin bat datozen bizimodu definituak — kulturaren aldetik— hartzeko aukeren hedatuz hartuta garapena. Horretaz gain, ez da ahaztu behar kulturak eskaintzen dituela testuingurua, balioak, subjektibotasuna, jarrerak eta trebetasunak, horien gainean garapen-prozesuak gertatzeko.

1995. urtean, *Kulturaren eta Garapenaren inguruko Munduko Batzordearen Txostena* argitaratu zuen UNESCOk; txosten horretan, luze eta zabal azaldu eta hausnartu ondoren, kulturaren eta garapenaren artean harreman zatiezina dagoela dioen planteamendura itzuli zen berriro, eta aldi berean, une horretako egoeraren azterketa oso kritikoa egin zen. Txosteneko ideia/laburpen batean honako hau proposatu zen: "kultura eta garapena bi gauza bereizi direla esatea alferrikakoa da, egiaz, herri baten kulturaren elementuak edo alderdiak baitira garapena eta ekonomia. Hortaz, kultura ez da garapen materialaren tresna: garapenaren xedea eta helburua da, giza izatea forma guztietan eta osotasunean gauzatzeko zentzuan hartuta garapena".

Txosten horretako bigarren proposamen nagusia honako hau da: kultura-aniztasuna defendatzeko eta sustatzeko premia, gainerako balioekiko tolerantzia diren balioak dituzten kultura guztiak errespetatzeko printzipioaren ginetik. Begi bistakoa denez, ideia horrek zalantzan jartzen du gaur egun nagusi den joera, planeta osoan kultura nagusia/zapaltzailea ezartzeko joera, alegia.

Oinarrizkoa bezain konplexua da planteamendu hori, eta azaletik ulertzeko arriskua dago. Herri baten kultura ez da estatikoa, etengabe aldatzen da barruko nahiz kanpoko hainbat elementuren eraginez, baina aldi berean, presentzia iraunkorreko faktore osagarriak ditu oinarrian, den moduan definitzen dutenak eta beste kulturetatik bereizten dutenak. Herri jakin baten sinesmenak, asmoak, jakintza eta jokatzeko modua adierazten ditu sintesi horrek. Garapena garapen izan dadin, errealitate espezifiko hori bultzatu behar du eta horren arabera izan behar du, gatazkarik eragin gabe. Alabaina, atzerapena, miseria, mendekotasuna eta azpigarapena ez dira kultura-balioak eta hori kontuan izan behar da. Herrialde pobretu baten kasuan, garapenaren bide sendoa ezarri behar da, berezko kulturari eutsita eta indartuta.

Batik bat, kulturaren ikuspegitik begiratutako garapen-prozesuaren ardatz gizakiak izan behar du, banako gisa eta komunitateko parte den izaki gisa; itxaropen materialak nahiz espiritualak onartu eta horiei erantzun behar die, betiere gizarte-orekatik abiatuta, eta kultura-aniztasuna errespetatuta eta sustatuta.

Hori guztia abiapuntu izanik, gaur egun ekonomia eta kultura aurrez aurre jartzen dituzten funtsezko arazoak identifika daitezke: lehenik, gizarte-orekaren eta garapenaren iraunkortasunaren arazoa; bigarrenik, kultura-aniztasuna babestearen kontua.

Indigena-herrien kasu espezifiko oso garrantzitsua da, izan ere, herri horietan bat egiten baitute historiaren eta kulturaren arloko aparteko aberastasunak (nazioen kultura-nortasunaren funtsezko osagaiak) eta pobrezia- eta bazterketa-egoerek. Plan honen helburu zehatzetako bat da indigena-komunitateei laguntza integrala ematea, ekonomiaren, gizartearen, politikaren eta kulturaren eremuetan. Giza eskubideen esparruan, eta genero-berdintasunean oinarrituriko garapen-estrategiaren barruan, herri horien ohiturak eta erabilerak, antolatzeke moduak, hizkuntzak eta tradizioak indartzeko gero, helburu hirukoitza beteko da: pobrezia-aren aurkako zeregina sustatzea, nazioen kultura-nortasuna indartzea, eta aniztasuna indartuta, herrien arteko kultura-elkartrukeak erraztea.

Baina ez dira nahastu behar *kultura* eta *ohitura*, edo historian zehar emandako rola. Gizonekin alderatuta, emakumeak mendekotasun-egoeran egon dira eta daude, maila guztietan egoera horrek emandako rola hartuta. Eta horrek ez du adierazten herri baten kultura, baizik eta herri horren genero-oreka eza; beraz, emakumeen ahalduntzea lortu nahi duen garapenak izan beharko luke kultura-estrategien helburu, pixkanaka eta modu estrategikoan.

1.4.6.2.- Kultura-errealitatea globalizazio neoliberalaren testuinguruan

Gaur egungo nazioarteko errealitatea definitzeko kontzepturik orokorrena honako hau da: *globalizazio neoliberal*. Hala ere, guztiz askotarikoa eta oso konplexua den errealitatea definitzen du kontzeptu horrek, eta modu zehatzagoan aztertu behar da.

Kapitalaren mundializazioko egungo aldiari globalizazioa deitu zaio; globalizazioa prozesu bikoitza da, Egoeraren Diagnosian adierazi dugunez: alde batetik,

teknologiaren aurrerapen objektiboa, zeinari esker egungo nazioarteko integrazioa oso bestelakoa baita kualitatiboki, iraganeko beste prozesu historikoek eragindakoarekin alderatuta; bestetik, prozesu hori interes transnazional handien mende jartzen duen politika, interes horiek gaur egungo munduan subjektu nagusia izanik. Fenomeno horren inplikazioek gizarte guzti-guztietan eragiten dute, baina ez modu berean. Paradoxa badirudi ere, funtsean prozesu desintegratzailea eta baztertzailea izan da globalizazioa.

Antolaketa mailakatu eta baztertzaile hori ahalbidetzen duen mekanismoa honako hau da: zenbait instantzia nazioartekok sustaturiko eta bultzaturiko eredu ekonomiko komuna eta merkatuaren unibertsalizazioa; egoera horretan, ez dira behar bezainbeste kontuan hartzen herrialde pobretuek nazioarteko ordena berri horretan dituzten desabantailak.

Indarreko globalizazioaren izaera ez dator bat garapenaren kultura-ikuskerarekin, garapen ekonomikoaren helburu funtsezkotzat ez baititu jotzen gizateriaren gehiengoaren interesak, gizarte-desoreketan eta herrialdeen arteko desoreketan sakondu egin baitu, kultura-aniztasunari eraso egin baitio, eta kultura hegemonikoari mesede egin baitio.

Munduko ordena berri horrek kulturaren eta kultura-nortasunaren gain duen eragina honela labur daiteke:

1. Kontsumoari dagokionez, portaera-eredu eta -arau homogeenak ezartzen ditu, gizateriaren egiazko ondare diren planetako herrien portaeren, balioen, jokatze edo pentsatzeko moduen aniztasunari eraso eginez.
2. Kulturaren kontra egiten duten muturreko nortasunak indartzen ditu, betiere kultura kontzeptu irekitzat, dinamikotzat hartuta, askatasunen defendatzaile izanik eta beste kulturekin etengabe elkarreraginean.
3. Polarizazioa eta gizarte-desoreka eragiten du, hezkuntzaren eta kulturaren kontsumoan.
4. Kultura-produkzioaren merkantilizazio handia eragiten du, zentzu ekonomiko liberalean hartuta.
5. Komunikabide masiboen monopolizazioa ezartzen du, eta kulturaren eta kontsumoaren arloko balio jakinak inposatzen ditu.
6. Teknologia aurreratuen monopolizazioa ezartzen du.
7. Talentu intelektualak eta artistikoak Iparraldera migratzea eragiten du.

1.4.6.3.- Kultura eta garapena: harreman espezifikoa

Lehen ere esandakoari jarraiki, kultura-kontzeptuaren bigarren adiera espezifikoa da, hau da, bizitzako adierazpen artistikoen, intelektualen eta moralen eremua: ikus-entzunezko komunikazioa, baliabide teknologiko berriak, ikuste-arteak, eskulanak, arte eszenikoak, musika-ekitaldiak, literatura, arkitektura, etab.

Tokiko garapen-estrategiak lurraldearen kultura-ezaugarrietan oinarritu behar dira, betiere giza eskubideen esparruaren barruan. Baina, gainera, komunaren, historia bateratuaren eta herri gisa dituzten eskubideen zentzua indar dezakete, kulturarekin lotutako prozesu eta ekimen espezifikoek bitartez.

Beraz, Plan honek egiten duen moduan, pobreziako egoeran dauden emakumeak eta gizonak subjektu-biztanleriatzat hartzen baditugu, ezinbestekoa da horiek ere komunikabide propioak izatea, eta bizitza ikusteko eta ulertzeko, eta besteekin harremanak izateko modu propioak izatea. Norberaren historiaren jakintzan hezi daitezten, eta historikoki beren izatearen parte diren etengabeko presentziako faktore osagarrien gaineko kontrola eta baliagarritasuna izan dezaten.

Ikuspuntu honi jarraiki, garapen-prozesu integral baten barruan, ezin da ahaztu sektore-mailako kultura-alderdi hau. Nagusitzen den homogeneizazioaren aurka borrokatzeko modu gisa ez ezik, estrategia honen funtsezko zutabe gisa ere: garapena eta kultura bi termino banaezinak badira, eta garapena kulturen indartzailea baino gehiago ez bada, herrien kultura-oinarriak ondo sendotu behar dira, giza garapen iraunkorarekin benetan koherenteak diren estrategiak ezartze aldera.

Hortaz, honako hauetan eragin behar da:

- Kultura anitzeko eta hizkuntza anitzeko *hezkuntza*; herrien historia eta memoria berreskuratu, sistematizatu, gorde eta zabaldu; kultura bakoitzean emakumeen egoera ikustea eta zabaltzea, eta kultura horren barruan berdintasuneko estrategiak proposatzea.
- *Komunikabide* alternatiboak eta gizarte-komunikazioko sare propioak indartzea.
- Tokiko kultura-instalazioak sortzea eta lurraldeko talde artistikoak indartzea.

Lankidetzarako inplikazioak

- Lankidetzak-ekimenak testuingurura egokitu behar dira –gertatu behar diren kulturak zehazten du testuingurua beti, herrien izateko moduarekin eta izan nahi duten moduarekin bat etorri–, eta kultura-nortasuna indartu behar dute.

- Kultura batean oinarritzeaz gain, eta kultura hori indartzeaz gain, garapenaren kultura-alderdia bultzatu behar da, kultura-arlo espezifikoan ekimenak planifikatuta, ahalduzko-konzeptuan integratuz eta komunitatearen zentzua indartuz.

- Pobrezia-egoeran dagoen biztanleriak bere kulturara egokitutako hezkuntza-sistema izateko eskubidea du, eta baita norberaren komunikabideak izateko eskubidea ere, bere kulturaren faktore osagarriak kontrolatzeko eta baliatzeko eskubidearekin.

- Ezinbestekoa da indigena-herrientzako laguntza integralari lehentasuna ematea; indigena-herri gehienak baztertuta daude erabakiak hartzeko eremuetatik eta pobrezia-egoeran daude, baina gizateriarentzat berebiziko balioa duten jakintzaren jabe dira, bai ingurumenari dagokionez, baita antolaketaren edo kulturaren alderdiei dagokienez ere. Emakume indigenekin egindako lan espezifikoak nabarmendu beharra dago, gutxienez diskriminazio hirukoitza jasaten dutelako; gurasoen aldetik, indigenen aldetik eta emakumeen aldetik.

- Ez dira nahastu behar kultura eta ohitura: Emakumeen mendeko-egoera ez da kulturaren adierazpena, kultura horren genero-berdintasun ezaren adierazpena baizik. Kulturaren kontzeptua irekia, dinamikoa da, eta askatasunak indartzen ditu. Emakumeen ahalduzko-estrategiak beharrezkoak dira, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna indartze aldera.

II. jarraibidea: Geografia-inpaktua kontzentratzea, modu planifikatu eta koordinatuan

Erreferentziazko esparru teorikoa eta, beraz, Eusko Jaurlaritzak bultzatutako lankidetzaren eredu espezifiko definitu ondoren, ikuspegi garatzeko esparru geografikoa ezarri behar dugu.

Funtsezkoa da hautatzen dugun esparru geografikoa koherentea izatea Plan honen eremuan kokatutako lankidetzari zentzua ematen dioten printzipioen, helburuen eta ezaugarrien multzoarekin. Horrek, nolabait, hautatuko ditugun estrategia geografikoak mugatuko ditu:

- Pobrezia-egoeran dauden herrialdeak eta herriak hautatu beharko dira.
- I. jarraibidean ezarritako ikuspegiari jarraiki tokiko estrategiak gara ditzaketen lurraldeak dituzten herrialdeak eta herriak hautatu beharko dira.
- Garapenerako prozesu eta ekimen konplexuak eta progresiboak –planifikatuak, koordinatuak, sakonak, tokikoa gaindituz– garatzeko gutxieneko gaitasunak eta borondatea duten eta giza garapen iraunkorrarekin konprometituak dauden subjektu aktiboak dituzten herrialdeak eta herriak hautatu beharko dira.

Baina, horretaz gain, Planak beste baldintza batzuk aipatzen ditu jarduteko eremu geografikoa ezartzeari dagokionez, honako Antolarau hauetatik eratorriak:

- Egingo den hautaketak subjektu-biztanlerien etengabeko laguntza egonkorra bermatuko du, eta baita garapen-prozesuak martxan jartzen dituzten eragile sozial eta publikoena ere.
- Hegoaldeko eta Iparraldeko eragileen arteko gaitasun-trukeak aurretiaz metatutako esperientzian sendotutako aliantza estrategikoak behar ditu, inguruan eta epe luzerako definitutako helburuetara bideratzen direnak.
- Hegoaldeko eta Iparraldeko eragileen arteko elkarrizketa ezinbestekoa da –Mugimendu sozialak, GGKE, Instituzioak–, eta horretarako topatzeko eta koordinatzeko egitura formalak behar dira, partekatutako estrategiak eztabaidatzeko eta horietaz jabetzeko.
- Erantzukidetasun-printzipioarekin lotutako sentsibilizazioa, nazioarteko elkarrizketa eta eragina elkarren arteko ezagutza sakonaren ondorio dira, eta ezagutza hori lortzeko ezinbestekoa da etengabeko harremanak izatea.

Planak bultzatzen duen lankidetzaren eredu ondorioak dituzten ezaugarri horiek guztiak direla eta, nahitaezkoa da hautakortasun-printzipioa aplikatzea planaren aplikaziorako esparru geografikoa hautatzerakoan. Jada azaldu dugunez, printzipio honek ezartzen du lehentasunak eta estrategiak *hautatzea* beharrezkoa dela, ezarritako helburuekin koherenteak izate aldera, eta horien gainean benetan inpaktu sakona izate aldera. Hortaz, ahal den neurrian, ezinbestekoa da lankidetzako ekimenak eta jardunak ez sakabanatzea; izan ere:

- Herrialde pobretu guztietan lurralde-estrategia konplexuak eta denboran egonkorak ezartzea ezinezkoa da, fondo ekonomikoak mugatuak direlako, VII. Jarraibideak ezartzen duenez.
- Giza gaitasunak eta gaitasun teknikoak mugatuak dituen eta, III. jarraibidean adierazten denez, indartu behar den lankidetzako –publikoa eta pribatua– euskal sare batekin, subjektu kopuru handiegi batentzat ezin dira bermatu gaitasunak indartzeko laguntza eta estrategia bateratuak.
- Ezinezkoa da koordinazioko, elkarrizketako eta mintzatzeko egitura sendoak bermatzea herrialde edo herri kopuru handiegi batentzat, eta ezta aliantza estrategikoak finkatzea ere.

Hori guztia dela-eta, erreferentziazko ereduarekin koherentea den eta,aldi berean, ordura arteko euskal lankidetzaren aniztasuna eta aberastasuna konbinatzen dituen esparru geografikoa lehenetsi du planak, betiere hobekuntza kualitatibo handiak egin ondoren plangintza bateratuari, koordinazioari eta trukeari dagokionez –euskal lankidetzarako garrantzi handiena duten lehenetsitako herrialdeetan–.

Planaren esparru geografikoa bi azpi-jarraibide osagarriren bitartez zehazten da:

1. Geografikoki bana daitezkeen fondoen % 90 emango zaien lehentasunezko 22 herrialde edo herri zehaztea, Lankidetzarako Legean ezarritako hautaketa-irizpideen arabera; herrialde edo herri horiek ezarritako erreferentziazko ereduarekin koherenteak izango dira.
2. Partaidetzaren bitartez Herrialde Estrategiak formulatzea 6 herrialdetan eta herritan gutxienez –lehentasunezko 22en artetik–, hautaketa-irizpide jakin batzuetan oinarrituta.

2.1.- II.1 azpi-jarraibidea: Lehentasunezko 22 herrialdeak zehaztea

Otsailaren 22ko 1/2007 Lankidetzarako Legeak hautakortasun-printzipio honen aplikazioaren euskarri izango diren irizpideak ezartzen ditu. Legearen 6. artikuluan honako hau adierazten da euskal lankidetzari dagokionez: “pobrezia handiko egoerak dituzten eremu geografikoei lehentasuna emango die esku hartzeko unean, nazioarteko mailan onartutako adierazleen arabera, hala nola Giza Garapenaren Indizea edo horren parekoak”.

Baina, horretaz gain, bigarren mailan kontuan hartu behar diren beste irizpide batzuk adierazten dira:

- a) Giza eskubideen urraketa larriak eta orokortuak pairatzen dituzten komunitateak eta herriak.
- b) Gatazkan eta larrialdi humanitarioko egoeran dauden zonaldeak.
- c) Euskadik haiekin harreman bereziak dituen herriak eta herrialdeak, euskal erakundeek eta gizarteak lankidetzaren esperientzia trinkoagoa izan dutenak halakotzat hartuta.

- d) Euskadiko etorkinak gehien hornitzen dituzten zonaldeei dagozkien herriak eta herrialdeak.

Aitzitik, legeak hautaketa egiteko esparrua ezartzen du. Lehenik eta behin, pobrezia-egoeran eta kalteberatasuneko –humanitarioa eta eskubideen urraketari dagokionez– egoera berezian dauden herrien aldeko apustu argia eta tinkoa egin du. Ildo honetan, Planaren Helburua eta Lankidetzaren Helburua oso ondo egokitzen dira irizpide honekin, egiturazko pobrezia ezabatzeko helburua baitute.

Baina, horretaz gain, euskal lankidetzak Hegoaldeko eragileekin historian zehar egindako loturak eta aliantzak finkatzeari buruz Legeak ezarritako irizpidea bere gain hartu du Planak. Horren bitartez, dauden esperientzien indartzean oinarritutako lankidetzaren kontzeptua hartzen da; lankidetzak horrek inpaktu-sakontasun handiagoa ematen die esperientzia horiei, eta baita plangintzako, koordinazioko eta elkarriketako gaitasun sendoagoak ere.

Fondo banagarrien laburpena Zona geografikoen arabera (2002-2007)

	Proiektu kopurua	Esleitutako fondoak eurotan	Guztizkoaren ehunekoa (%)
Erdialdeko Amerika - Karibea	421	64.102.918,79	% 40,12
Hego Amerika	380	49.569.745,24	% 31,02
Latinoamerika (Erdialdea + Hego Amerika)	5	1.055.824,60	% 0,66
Afrika	148	34.057.341,06	% 21,31
Asia	79	11.007.340,71	% 6,89
GUZTIRA	1033	159.793.170,40	% 100,00

Zentzu honetan, 22 herrialde eta herri lehenestea erabaki da, zeinekin historikoki euskal herriak lankidetzaren bolumen handia izan duen, eta guztiak pobrezia-egoera ezberdintasuneko egoera larrian daude. Esan bezala, helburua dauden aliantza estrategikoak finkatzea da, baina kalitate handiagoko esparru batean. Horregatik, herrialde eta herri kopuru handi eta esanguratsu bati eusten zaio –jada 2002-2007 aldian geografikoki bana daitezkeen fondoak ia % 75 batu zuten–, baina, aldi berean, fondoak gutxienezko kopuru nahiko itxia mugatzen da –% 90– lurralde horietan egin beharreko ekimenentzat. Horrek laguntza sendoak eta denboran egonkorrak bermatzen ditu, eta hori ezinbestekoa da egiturazko lankidetzaren ikuspegia garatzeko.

Era horretan hautatu dira honako 22 herrialde edo herri hauek, irizpide horien arabera:

ERDIALDEKO AMERIKA, KARIBE ETA MEXIKO	HEGO AMERIKA	AFRIKA	ASIA
GUATEMALA	EKUADOR	Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoa	INDIA
KUBA EL SALVADOR	BOLIVIA PERU	ANGOLA Kongoko Errepublika Demokratikoa	PALESTINA
NIKARAGUA MEXIKO HONDURAS	VENEZUELA BRASIL KOLONBIA	RUANDA BURUNDI MOZAMBIKE UGANDA BOLI KOSTA	

	Giza Garapenaren Indizea (GGI)	GLBren ARABERAKO ERRENTA (USD)	HPI	EJ-GV (2002-2007) EUROTAN
Guatemala	0,689 G.G. ERTAINA	4,313 DETH	% 22,50	15.847.217,21
Peru	0,773 G.G. ERTAINA	5,679 DETH	% 11,60	15.191.829,91
Kuba	0,838 G.G. HANDIA	DETH	% 4,70	13.175.373,26
El Salvador	0,735 G.G. ERTAINA	5,041 DETH	% 15,10	11.647.756,15
Bolivia	0,695 G.G. ERTAINA	2,72 DETH	% 13,60	8.095.025,01
Mexiko	0,829 G.G. HANDIA	9,803 DEHH	% 6,80	7.481.670,30
Ekuador	0,772 G.G. ERTAINA	3,963 DETH	% 8,70	7.203.766,43
Nikaragua	0,710 G.G. ERTAINA	3,634 DTH	% 17,9	6.666.500,23
Kongoko Errepublika Demokratikoa	0,411 G.G. TXIKIA	705 GAH	% 39,30	5.477.171,67
Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoa				5.337.001,40
Kolonbia	0,791 G.G. ERTAINA	7,256 DETH	% 7,90	3.980.571,72
India	0,619 G.G. ERTAINA	3,139 DTH	% 31,30	3.564.228,83
Mozambique	0,384 G.G. TXIKIA	1,237 GAH	% 50,60	3.546.996,09
Brasil	0,8 G.G. HANDIA	8,195 DETH	% 9,70	3.075.227,83
Palestinako Lurralde Okupatuak	0,731 G.G. ERTAINA	5,041 DETH	% 6,60	2.953.265,13
Honduras	0,7 G.G. ERTAINA	2,876 DETH	% 16,50	2.588.401,10
Angola	0,446 G.G. TXIKIA	2,18 GAH	% 40,30	2.178.733,87

Boli Kosta	0,432 1 G.G. TXIKIA	1,551 DTH	% 40,30	2.139.201,44
Venezuela	0,792 G.G. ERTAINA	6,043 DEHH	% 8,80	1.492.275,32
Ruanda	0,452 G.G. TXIKIA	1,263 GAH	% 36,50	1.488.685,97
Burundi	0,413 G.G. TXIKIA	GAH	% 37,6	979.624,70
Uganda	0,505 G.G. ERTAINA	GAH	% 34,7	506.151,76

Iturria: NBGP, Giza Garapenaren Txostena 2007-2008

GAH: Gutxien Aurreratutako Herrialdeak

DTH: Diru-sarrera Txikiko Herrialdeak

DETH: Diru-sarrera Ertain Txikiko

Herrialdeak

DEHH: Diru-sarrera Ertain Handiko

Herrialdeak

Lehentasunezko herrialde eta herri hauen multzoa guztiz koherentea da Legean ezarritako hautaketa-irizpideekin, eta Planaren erreferentziazko esparru teorikoak ezarritako baldintzekin osatu dira. Hain zuzen ere, esparru geografiko hau diseinatzerakoan Planak ezarri dituen konpromisoen zerrendan egiazta daiteke hori; konpromiso horiek azpi-jarraibide honen ideiak edo indarra bihurtzen dira:

- 2.1.1.- Giza Garapenaren Indize (GGI) ertaina eta txikia –Nazio Batuen Garapenerako Programaren (NBGP) arabera– duten herrialdeak edo herriak lehenestea.

Nazioarteko mailan onartutako Giza Garapenaren Indizeak ez ditu barnean hartzen egiturazko pobrezia kontzeptuaren alderdi guztiak –alderdi ekonomikoa eta soziala bakarrik hartzen ditu barnean–. Gainera, estatu-eremuan gaineratutako datuek pobrezia poltsa handiak eta ezberdintasunezko muturreko egoerak gorde ditzakete – eta, egia esan, gordetzen dituzte–. Horrela, beraz, termino globaletan itxuraz nolabaiteko garapen-maila duten herrialdeak gehiengo handi baten bazterkeriarekin eta marjinazioarekin bizi dira, eta horiekin ere lankidetzaren egokia da.

Hala ere, GGIaren eta egiturazko pobrezia egoeraren arteko zuzeneko harreman bikaina ez dagoen arren, hautakortasun-printzipioari jarraiki, Planak GGI ertaina eta txikia duten herrialdeei lehentasuna ematea erabaki du. Era horretan, hautatutako 22 herrialdeen artean, *20 herrialde baremo honen barruan daude*. Horietatik, **11 herrialdek GGI ertaina dute** (euskal lankidetzak harreman handiagoa izan duen herrialdeen sektorea, objektiboki ezberdintasuneko eta pobrezia arazo handiak dituzten herrialdeak, alegia), eta **9 herrialdek GGI txikia dute**, eta denak Afrikan daude; izan ere, aurrerago ikusiko dugunez, Planak konpromiso espezifikoak ezarri ditu Afrikan.

Kuba eta Mexiko dira giza garapenaren indize handiko kategorian dauden bakarrak. Kubaren kasuan, makroekonomia gaitzen duen ikuspegi batean oinarritutako garapen-ikuspegia partekatzen duen herrialdea da; eta, Estatu Batuek legezko blokea ezarri dion arren, eta errenta erantsi handia ez duen arren, gizarte-politika arrakastatsua garatzeko gai da, gizarte osoarentzako gutxieneko garapen handia bermatuz. Gainera, Kuba 2002-2007 aldian Eusko Jaurlaritzaren fondoan hirugarren

herrialde hartzailea izan da. Faktore horien guztien emaitza da gaur egun Kuba eta Euskadi elkarrekin lehen Herrialde Estrategia garatzen ari direla, azukre-sektorearen birmoldaketaren eta elikadura-subiranotasunaren aldeko ahaleginak bateratuz. Ildo horretan, martxan dauden estrategia horiei laguntzen jarraitzeak lehentasuna dauka, kualitatiboki garrantzitsua den lankidetzaren prozesu honetan aurrera eginez.

Bestalde, Mexiko oso herrialde ezberdintzailea da, pobreen eta aberatsen artean ezberdintasun handiak baitaude, eta baita lurraldeen artean ere –Iparraldea eta Hegoaldea–. Estatu jakin batzuk –Chiapas eta Oaxaca– eta sektore kalteberak –biztanleria indigena, emakumeak– nabarmentzen dira, zeinekin euskal lankidetzak lotura oso estuak izan dituen eta oraindik dituen, eta ezinbestekoa da lotura hori sendotzea ezberdintasunaren eta pobrezia-aren aurka trinko borrokatzeko.

Puntu honetan berriz ere azpimarratu beharra dago Planaren Helburuak oso argi adierazten duela planaren esparruan kokatutako edozein ekimenen subjektu-biztanleria pobrezia-egoeran dagoen biztanleria izango dela. Hortaz, GGI txikiko edo ertaineko herrialdea –Planaren esparru geografikoko herrialde gehienak– edo GGI handiko bi herrialdeetako bat den –euskal lankidetzarako ezaugarri espezifikoekin– kontuan hartu gabe, *subjektu-biztanleria osatuko duten pertsona guztiak pobreak izango dira*, beren garapen-prozesuetan aurrera egiteko borondatearekin eta ausardiarekin.

Giza Garapen Iraunkorraren adierazleak

	GGI	Bizi-itxaropena jaiotzeko unean	Helduen alfabetatze-tasa	Eskolaratze-ratioa	Biztanleko BPGa	Bizi-itxaropenaren indizea	Hezkuntza-indizea	NPG indizea	Biztanleko BPG kategorian GGI
Guatemala	0,689	69,7	69,1	67,3	4.568	0,746	0,685	0,638	-11
Peru	0,773	70,7	87,9	85,8	6.039	0,761	0,872	0,684	6
Kuba	0,838	77,7	99,8	87,6	6.000	0,879	0,952	0,683	43
El Salvador	0,735	71,3	80,6	70,4	5.255	0,772	0,772	0,661	-3
Bolivia	0,695	64,7	86,7	86,0	2.819	0,662	0,865	0,557	7
Mexiko	0,829	75,6	91,6	75,6	10.751	0,843	0,863	0,781	7
Ekador	0,772	74,7	91,0	75,0	4.341	0,828	0,858	0,629	21
Nikaragua	0,710	71,9	76,7	70,6	3.674	0,782	0,747	0,601	6
Kongoko Errepublika Demokratikoa	0,4111	45,8	67,2	33,7	714	0,346	0,56	0,328	7
Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoa	...								
Kolonbia	0,791	72,3	92,8	75,1	7.304	0,788	0,869	0,716	4
India	0,619	63,7	61,0	63,8	3.452	0,645	0,620	0,591	-11
Mozambique	0,384	42,8	38,7	52,9	1.242	0,296	0,435	0,421	-16
Brasil	0,800	71,7	88,6	87,5	8.402	0,779	0,883	0,74	-3
Palestinako Lurralde Okupatuak	0,731	72,9	92,4	82,4		0,799	0,891	0,505	33
Honduras	0,700	69,4	80,0	71,2	3.430	0,739	0,771	0,590	3
Angola	0,446	41,7	67,4	25,6	2.335	0,279	0,535	0,526	-33

Boli Kosta	0,432	47,4	48,7	39,6	1.648	0,373	0,457	0,468	-17
Venezuela	0,792	73,2	93,0	75,5	6.632	0,804	0,872	0,700	14
Ruanda	0,452	45,2	64,9	50,9	1.206	0,337	0,602	0,416	-1
Burundi	0,413	48,5	59,3	37,9	699	0,391	0,522	0,325	9
Uganda	0,505	49,7	66,8	63,0	1.454	0,412	0,655	0,447	-2

Iturria: GNB, Giza Garapenaren Txostena 2007-2008

- 2.1.2.- Garapenerako Laguntza Batzordearen (GLB) sailkapenaren arabera, diru-sarrera txikiak eta ertainak dituzten herrialdek eta herriak lehenestea.

GGIaren kasuan bezalaxe, baina ahal dela neurri handiagoan –aldagai gisa datu makroekonomikoak bakarrik gaineratzen dituelako–, biztanleko errentak ez du beharrezkoa den informazio guztia ematen herrialdeen pobrezia-egoerak ebaluatzeko. Hala ere, Ekonomiako Lankidetzaren eta Garapenerako Antolakundearen (ELGA) sailkapen-adierazle komuna da, Garapenerako Laguntza Batzordearen bitartez.

Egiatztatutako gabezia horiek gorabehera, errenta erantsiko terminoetan gaitasun ekonomiko txikiena duten herrialdeen eta herrien kopuru handi bat barne hartu du Planak bere esparru geografikoan. Alde batetik, errenta-mailaren eta, bestetik, berdintasun eta ongizate mailaren artean zuzeneko harremanik ez dagoela adierazten duen premisa hartzen dugu oinarritzat. Baina, horretaz gain, Planak aski ongi daki emaitza ekonomikoko gutxieneko maila bat ez badago, garapen-estrategia guztiak egiturazko mugak dituztela, eta, beraz, egokia eta estrategikoa da ekonomikoki gehien pobretutako herrialdeetan jardutea.

Bi logika hauek bateratuta –gehien pobretutakoei lehentasuna ematea, egoera ekonomiko hobea duten herrialdeen egiturazko pobrezia-egoera handien gainean jardutea–, Planaren esparru geografikoa egin da. Ildo honetan, hautatutako 22 herrialde eta herrietatik –Saharako Errepublikak Arabiar Demokratikoa kanpo utzita, horri buruzko daturik ez dagoelako–, **7 Gutxienez Aurreratutako Herrialdeak dira (GAH), 3 Diru-sarrera Txiki Herrialdeak dira (DTH), 10 Diru-sarrera Ertain eta Txiki Herrialdeak dira (DETH),** eta soilik bi dira Diru-sarrera Ertain eta Handiko Herrialdeak (DEHH).

Hortaz, ez da diru-sarrera handiko herrialderik barnean hartu, eta, zalantzarik gabe, diru-sarrera ertain eta txiki herrialdeei eman zaie lehentasuna, gutxienez aurreratutakoak eta diru-sarrera txikiak dituztenak alde batera utzi gabe.

- 2.1.3.- Geografikoki bana daitezkeen fondoen gutzizkoaren % 25 gutxienez ezartzea Afrikarako.

Planak ezin du ezer egin gabe geratu Afrikako emakume, gizon eta herri asko pairatzen ari diren bazterkeria eta nazioarteko utzikeria ikusita, Afrikak munduko garapenari dakarkion *interpelazioa* ikusita. Pobrezia-egoeraren aurkako borrokari dagokionez, munduan lortutako aurrerapen txikiak ez zuten Saharaz azpiko Afrikan eraginik izan –beste lurralde batzuetan ez bezala, Ekialdeko Asia edo Ozeano Barea, esate baterako–, eta

beraz, pobreziak eta muturreko pobreziak gora egin zuten termino absolutuetan eta erlatiboetan.

Eusko Jaurlaritzak bultzatutako lankidetzak ez du egoera hori alde batera utzi, eta bere apustua azpimarratu du berriz ere -munduko gainerako lurraldeek ere premia bera dute, baina Afrikak are larriagoa-, Afrikaren giza garapenari lehentasun osoa emateko borondate politiko garbia, hain zuzen ere -ikusuntu neoliberalen edo migrazio-fluxuen kontrolerako ikuspuntuen aurrean-, hau da, instituzionalitate orokor subirano eta demokratikoa sortzearen alde, eta mundu mailan Afrika subjektu aktibo gisa sartzearen alde, ez menpeko objektu gisa.

Beraz, planak konpromiso esplizitu bat aurkezten du geografikoki bana daitezkeen fondoan % 25 gutxienez Afrikako herrialdeetara bideratzeko -funtsean lehentasunezko hartutako 8 herrialdeetara: **Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoa, Angola, Mozambique, Kongoko Errepublika Demokratikoa, Ruanda, Boli Kosta, Uganda;** baina baita beste herrialde batzuetako ekimenetara ere, hasieran konprometitu gabeko % 10aren barruan-.

Baina, Afrikako errealitatea eraldatzeko borondate hau ez da gutxieneko finantza-erreserba bat ezartzera mugatzen. Aldiz, berme ekonomiko hau estrategia handiago baten oinarri bihurtzen da, Afrikako herrien garapen-erronkak betetzeko lankidetzaren kalitatea eta eraginkortasuna handitzeko asmo duen strategiarena, alegia.

Lehenik eta behin, lehentasunez eragiten den egiturazko pobreziaren alderdien multzoa zabaldu behar da. Afrikako garapenaren oinarrian hezkuntzaren eta osasunaren arloko premiak daude, baina, aldi berean, aukera ekonomikoak behar ditu, eta baita honako hauek ere: elikadura-subiranotasunaren pareko berdintasunezko ereduak orokortzea, herritarren antolamendua eta parte-hartzea, Giza Eskubideen defentsa, tokiko instituzioak indartzea, eta herri-kultura garatzea. Berriz ere esan beharra dugu hiritartasun aktiboak, kontzienteak eta norberaren aukerak eta prozesuak garatzen dituenak bakarrik eralda dezake nagusitzen den ereduak, eta, horretarako, garapenerako lankidetzaren integralagoak behar dira.

Bigarrenik, eta lan egiten den sektorea edozein izanik, Afrikako emakumeak eta gizonak pertsona onuradunak baino, eskubideen subjektuak direla adierazten duen premisan aurrera egin behar da, horrek dituen ondorio guztiekin: norberaren prozesuei laguntzea -ez horiek zaintzea-; gaitasunak indartzea, premiak soilik asebetetzea gairatzeko; beren antolatze moduak sustatzea; lana planifikatzea zehar-lerroetan, testuinguru jakinean eta Giza Eskubideen esparruan oinarrituta, baina ikuspegi estrategikoarekin; ez jardutearen edo eskubide horiek urratzearen arduradunengan eragitea tokiko, estatuko eta nazioarteko mailan.

Hirugarrenik, lankidetzaren ikuspegia jardunen kalitatean oinarritu behar da. Egundoko premiak daudela eta baliabide mugatuak dituztela aintzat hartuta, baliabide horiek ahal den ongien erabiltzeko erantzukizuna eta konpromisoa behar da inpaktu sakona lortzeko. Beraz, diagnosi onetan oinarritutako *planak edo estrategiak* ezarri behar dira, epe luzean helburuak eta adierazleak ezartze aldera. Kalitatez egindako ekimenak plangintza hauetan erantsiko dira, eta ezarritako erronkak lortzeko beharrezkoak diren gaitasunak izango dituzte.

Horregatik guztiagatik, Planak martxan jarriko ditu Euskadiko eta Afrikako lankidetzaren entitateentzako prestakuntzako eta asistentziako estrategia eta prozesu espezifikoak,

lankidetzaren eragileei zuzendutako hurrengo idatz-zatiaren III.1 azpi-jarraibidean aztertuko den moduan.

2.- II.2 azpi-jarraibidea: Partaidetzaren bitartez Herrialde Estrategiak formulatzea 6 herrialde edo herritan, lehentasunezko 22 herrialdeen artetik

Aurreko azpi-jarraibideak 22 herrialde edo herrira mugatu badu esparru geografikoa, jardun-ildo honek esparru hori osatzen du lehentasunezko lurralde bakoitzean Herrialde Estrategiak formulatuz eta pixkanaka martxan jarritz. Bi estrategiek koherentzia ematen diote esparru geografikoari, erreferentziazko esparru teorikoari dagokionez.

Herrialde Estrategiak honela definitzen dira: herrialde edo herri jakin batean eta gutxienez planaren indarraldiaren pareko denboraldi jakin batean Planak modu zehatzean eraturako helburuen, erronken, lehentasunen, ikuspegiaren eta estrategien ezarpena. Denek adostuta formulatuko da, eta Eusko Jaurlaritzak lurralde horretan bultzatutako lankidetzaren modu aktiboan parte hartzen duten tresnetara eta eragileetara zabalduko da.

Herrialde Estrategien helburua, oinarrian, herrialde jakin batek bultzatzen dituen ekimen eta prozesu guztien eraginkortasuna eta kalitatea hobetzea da. Halaber, Planak bere helburua eta lankidetzaren printzipioak zehazterakoan adierazten duen modu berean ulertzen dugu kalitatea:

- *Lankidetzaren planifikatua:* Erreferentziazko esparrua ezin da modu berean aplikatu herrialde edo herri guztietan. Lurralde bakoitzak bere erronkak ditu, modu aktiboan eta lehentasunez landu behar diren garapen-erronkak, alegia. Horregatik, egoera-diagnosi espezifikoak eta sakonak egin behar dira, eragileei, sektoreei eta inpaktu handieneko guneei dagokienez helburu zehatzak zehazteko aukera emango dutenak. Helburu komunak ezartzeak herrialdearentzat interes berezia duten eremuetan ahaleginak bateratzea bermatzen du.
- *Lankidetzaren koordinatua:* Helburu zehatzen inguruan plangintza estrategikoa bateratua egiteak aukera ematen du jardunen kalitatea hobetuko duten informazio-fluxuak eta sinergiak sortzeko, betiere Euskadiko eta dagokion herrialdeko garapen eta lankidetzako eragileen artean koordinazioko, elkarrizketako eta topaketako egitura egonkorrek sortzen badira. Euskal eragileen kasuan, Herrialde-estategiak ez dauka soilik Eusko Jaurlaritzara eta deialdietan parte hartzen duten entitateetara mugatzeko asmoa, baizik eta gainerako euskal instituzio publikoei, Euskal Fondoari eta gizarte-lankidetzako eta gizarte-mugimenduko beste eragile batzuei ere parte hartzeko aukera ematen zaie.
- *Balio erantsia duen lankidetzaren:* Parte hartzen duten eragileek erronka berberak badituzte, eta topatzeko, eztabaidatzeko eta hausnartzeko egitura sendo eta egonkorrek badituzte, ikerketarako, jarraipenerako eta eragiteko gaitasunak indartzeko estrategia komunak askoz errazago ezarri ahalko dira, ekimenen inpaktu-sakontasunean eta kalitatean eraginez. Herrialde-estategiak bermatu egiten du guztia zatien batura baino askoz gehiago dela. Eusko Jaurlaritzaren

kasuan, tresnen eta estrategien multzoa lankidetzarentzate guztiek dituzten helburu argi batzuen zerbitzura jar daitekeela esan nahi du.

Hortaz, Herrialde Estrategien helburua ez da herrialde bakoitzarentzat kuota ekonomiko jakin bat ezartzea –ekimenak modu berean ebatzen dira tresnen deialdietan, eta, beraz, ez dago inolako finantza-erreserbarik–, baizik eta plangintzarako eta koordinaziorako esparru bateratu bat proposatzen dute, lankidetzarekimenek inpaktu handiagoa eta hobia izan dezaten.

Ildo horretan, Herrialde Estrategia guztien egitura honako hau izango da:

1. Herrialdearen egoera-diagnosia eta garapen-erronkak.
2. Herrialde horretan garatutako euskal lankidetzaren diagnosia.
3. Lehentasuneko helburuak, erronkak eta jardun-ildoak zehaztea.
4. Lankidetzarako egiturak eta metodologiak sortzea eta ezartzea.
5. Gaitasunak indartzeko estrategia komunak formulatzea.
6. Politikaren eta sensibilizazioaren arloko eragin-ildoak zehaztea, erantzukidetasun-printzipioaren arabera.

Planaren azken helburua honako hau izango litzateke: lehentasuneko 22 herrialdeetan ahal den Herrialde Estrategia gehien izatea. Jada adierazi dugunez, lurralde horietarako % 90eko finantza-konpromisoa ezartzeak ez du bermatzen Planaren lankidetzareduaren ondoriozko eskakizunak beteko direnik. Horretarako, plangintza bateratuko prozesuak jarri behar dira martxan, Herrialde-estragiak esate baterako.

Baina, Planak bere helburuak ezartzeko unean adierazten duenez, estregiak norberaren gaitasunetara egokitu behar dira. Ildo honetan, adierazi ditugun ezaugarri guztiak biltzen dituen Herrialde Estrategia bat modu parte-hartzailean formulatzeko, ahalegin handiak eta denbora asko behar duten prozesu luzeak eta konplexuak behar dira. Kubaren kasua –lehen estregia herrialde honekin garatzen ari dira– esanguratsua da: formulatze-prozesuak urtebete baino gehiago iraun du, eta konpromisoen multzoa gauzatzekoan kalitatea bermatzeko arreta espezifikoa jarri behar da.

Horregatik, aurreikusi da 2008-2011 aldian gutxienez 6 Herrialde-estregia zehaztuko direla bidezko hartzen den herrialdeetan. Horren haritik, Lankidetzare Legean esplizituki adierazten denez, Garapenerako Lankidetzare Batzordeak hedadura handiagoko Lankidetzarako Euskal Agentzia bati hasiera ematen baldin badio, Herrialde-estregien kopurua handitu ahal izango da, betiere Agentzian lan egiten duten pertsonen egitura handitzen den arabera.

Herrialde Estrategia bat formulatu ahal izango duten herrialdeen eta herrien hautaketa honako irizpide hauen arabera egingo da:

1. Lehentasuneko 22 herrialde edo herrietako bat izatea.

2. Azken 5 aurrekontu-ekitalditan, Garapena eta Lankidetzaren Sustatzeko Fondoaren (GLSF) bolumena 5.000.000 euro baino gehiagokoa izatea.
3. GLSFaren ekimenen bitartez herrialdeen garapenean modu aktiboan parte hartzen duten lankidetzarako 5 euskal entitate izatea gutxienez.
4. Alderdiak Herrialde-estrategia batean parte hartzeko interesa dutela bermatzea, eta inpaktu-sakontasunari, koordinazioari, elkarrizketari eta eraginari dagokienez, alde aurreko egoerarekiko izan behar duen balio erantsia bermatzea.

III. jarraibidea: Eusko Jaurlaritzak bultzatutako lankidetzaren lehentasunezko eragileei babes instituzionala ematea

Plan honek lehentasunezko eragileei buruz egiten duen definizioa gako-elementua da nortasun eraldatzailea duen lankidetzaren baterako –eta, beraz, *eraldaketa-subjektuen* indartzea ezartzen du funtsezko helburu gisa–. Era honetan, subjektuak Eusko Jaurlaritzak bultzatutako lankidetzaren zuzeneko eragileak diren –nekazarien, emakumeen edota indigenen mugimenduak, sindikatuak, tokiko botereak, eta abar–, edo beste erakunde mota batzuen bitartez –garapenari, lankidetzari, intzidentziari edo itunen finkapenari lotuak– indartzen den alde batera utzita, ezinbestekoa da estrategia espezifikoak ezartzea, beren ahalmenak indartzeko prozesuak ezartzen dituztenak eta aldi berean lehentasunezko eragile horiek definitzen dituztenak.

Garapenerako Lankidetzaren otsailaren 22ko 1/2007 Legeak lankidetzaren eragileen definizioa ezartzen du zortzigarren artikuluan. Honako hauek dira: “garapenerako lankidetzaren zereginekin lotura berezia duten entitate publiko edo pribatuak, eta, hortaz, horretarako esleituriko fondo publikoekin jardunak kudeatzeko aukera izan dezaketenak.

Bederatzigarren artikuluko lehen idatz-zatiaren arabera, eragileak honako hauek izango lirateke:

- a) Euskal herri-administrazioak eta horiei loturiko gainerako entitate publikoak.
- b) Garapenerako gobernuaren kanpoko erakundeak (GGKE).
- c) Legearen printzipio eta helburuen barruan garapen-lankidetzarako jarduerak egiten dituzten irabazi-asmorik gabeko bestelako entitateak, hala nola unibertsitateak, erakunde sindikalak edo gainerako gizarte-erakundeak.

Aitzitik, hau da Lankidetzarako Euskal Legeak mugatutako eragileen esparrua. Gainera, legeak 9.2 artikuluan zehazten duenez, eragile horiek beste izaera juridiko bat duten entitateen parte-hartzea bilatu ahalko dute, betiere ekimenaren izaera teknikoak eskatzen badu.

Legeak ezarritako eragile-esparrua bereganatzen du Plan honek, eta nortasun eraldatzailean oinarritutako lankidetzaz-ikuspegiaren arabera osatzen du. Ildo honetan, alde batetik, *garapenerako erakunde multilateralak* gaineratzen ditu –multilateralismo aktibo berri bat eraikitze gako-elementuak–. Beste aldetik, esparru honen barruan *Hegoaldeko garapen-eragileak* ere gaineratzen dira –bai zuzenean eraldaketa-subjektuak izan, bai horiei laguntzen dieten erakundeak izan–, funtsezko piezak baitira agendak eta sareak eraikitze, eta baita Planaren esparruan bultzatutako prozesu eta ekimenen plangintzan, egikaritzean, jarraipenean eta ebaluazioan ere.

Horregatik, Legeak bere lana, juridikoki, Euskadiko Autonomia Erkidegoaren eskumen-eremuan oinarritzen duen arren, Planak defendatutako lankidetzaz-eredutik ondorioztatuta, kulturen errespetuan oinarrituta, eta inposaketarik ezean eta gaitasunen indartzean oinarrituta, gizarte-erakunde, erakunde multilateral eta Hegoaldeko tokiko instituzio publiko sendo eta indartsu batzuen aldeko apustu esplizitua egiten du.

Era horretan, Iparraldeko lankidetzaz-eragileen –herri-administrazioak, GGKE, gizarte-mugimenduak, unibertsitateak, zentro teknologikoak, eta abar–, Hegoaldeko garapen-eragileen –nekazarien, indigenen, emakumeen, giza eskubideen, GGKEen, tokiko instituzio publikoen eta abarren mugimenduak–, eta garapenerako erakunde multilateralen gaitasunei laguntzea eta indartzea berezko helburuak dira. Hain zuzen ere, helburu bat da konprometituak dauden, esperientzia duten, gaitasun metatua duten eta sareetan elkartuak dauden entitateek bakarrik dutelako gaitasuna globalizazio neoliberalerako fase honetan adierazten diren garapen-erronkei aurre egiteko. Beraz, helburu zehatzak eta partekatuak dituzten eragile sendoak dira garapen-aukera konplexu eta prozesualen iraunkortasunerako berme handiena, eta funtsezko ardatz bihurtzen dira ezinbesteko aldaketa-prozesuak lideratzeko edo laguntzeko.

Legeak ezarritako eragile-esparrua bereganatzen du plan honek, baina osatu egiten du, alde batetik, *garapenerako erakunde multilateralak* gaineratuz –multilateralismo aktibo berri bat eraikitze gako-elementuak–, eta, bestetik, *Hegoaldeko garapen-eragileak* –funtsezko piezak agendak eta sareak eraikitze, baita Planaren esparruan bultzatutako prozesuen eta ekimenen planifikaziorako, formulaziorako, gauzatzerako, jarraipenerako eta ebaluaziorako–. Legeak, juridikoki, Euskadiko Autonomia Erkidegoaren eskumen-eremuan oinarritzen du bere lana, baina legeak defendatutako lankidetzaz-eredutik ondorioztatuta, kulturen errespetuan oinarrituta, eta inposaketarik ezean eta gaitasunen indartzean oinarrituta; era berean, gizarte-erakunde, erakunde multilateral eta Hegoaldeko tokiko instituzio publiko sendo eta indartsu batzuen aldeko apustu inplizitua egiten du.

Era horretan, Iparraldeko lankidetzaz-eragileen –herri-administrazioak, GGKE, gizarte-mugimenduak, unibertsitateak, zentro teknologikoak, eta abar–, Hegoaldeko garapen-eragileen –nekazarien, indigenen, emakumeen, giza eskubideen, GGKEen, tokiko instituzio publikoen eta abarren mugimenduak–, eta garapenerako erakunde multilateralen gaitasunei laguntzea eta indartzea berezko helburu bat da. Hain zuzen ere, helburu bat da konprometituak dauden, esperientzia duten, gaitasun metatua duten eta sareetan koordinatuak dauden entitateek bakarrik dutelako gaitasuna globalizazio neoliberalerako fase honetan adierazten diren garapen-erronkei aurre egiteko. Beraz, helburu zehatzak eta komunak dituzten eragile sendoak dira garapen-

aukera konplexu eta prozesualen iraunkortasunerako berme handiena, eta funtsezko ardatz bihurtzen dira ezinbesteko aldaketa-prozesuen garapen-subjektuak sortzeko.

Hortaz, jarraibide hau aztertzerakoan euskal eremuko eragileei lehentasuna ematen zaien arren –baliabideen efizientziako eta eraginkortasuneko arrazoiengatik, elkarrizketarako gaitasunagatik, eta eragile horiek Hegoaldeko eragileengan inpaktu biderkatzailea dutela uste izanagatik–, Planak Hegoaldeko eragileengana iritsiko diren konpromiso espezifikoak ezarri ditu, horiei garrantzi berezia ematen dielako, baina betiere euskal lankidetzaren gaitasunen barruan. Aldi berean, lan bateratuko ildoak ezarri dira garapenerako erakunde multilateralekin.

Beraz, jarraibide honek bi jardun-ildo nagusi ezartzen ditu –gaitasunen indartzea eta koordinazioa–, eta osagarriak eta beharrezkoak diren honako hiru azpi-jarraibide hauetan zehazten dira:

- 1.- Eusko Jaurlaritzak bultzatutako lankidetzaren funtsezko eragileen gaitasunak indartzea, hala nola Garapen Lankidetzarako Zuzendaritzarenak, GGKEenak eta Hegoaldeko eragileenak.
- 2.- Lankidetzarako euskal entitateen –publikoak eta sozialak– koordinazioa indartzea, eta baita lehentasunezko herrialdeetan Hegoaldeko eragileekin koordinazioa indartzea ere.
- 3.- Sare eta aliantza anitzak eta barne-hartzaileak sortzeko konpromisoa duten garapenerako erakunde multilateralen koordinazioa indartzea.

3.1.- III.1 azpi-jarraibidea: Eusko Jaurlaritzak bultzatutako lankidetzaren funtsezko eragileen gaitasunak indartzea, hala nola Garapen Lankidetzarako Euskal Agentziak, GGKEenak eta Hegoaldeko eragileenak.

Hurrengo taulan ikus daitekeenez, GGKEak dira Eusko Jaurlaritzaren fondoen lehen hartzaileak. Eta horren atzetik, oso urrun, Garapen Lankidetzarako Zuzendaritza dago; hain zuzen ere, batera finantzatzeko hitzarmenen bitartez bultzatzen dituen prozesuei esker fondoen bigarren hartzailea da, eta garapenerako erakunde multilateral batzuek garrantzi handia dute hitzarmen horietan, hala nola ART, NBGP eta UNIFEM. Eta, horien atzetik, baliabide mugatuak dituzten arren, beste eragile batzuek ere garrantzi handia dute, hala nola unibertsitateek, zentro teknologikoek eta beste euskal administrazio batzuek; azken horien barruan, Euskal Fondoaren bitarteko udal-lankidetzak nabarmentzen da.

Eusko Jaurlaritzaren lankidetzarako fondoen banaketa 2002-2007

Eragileak	2002	2003	2004	2005	2006	2007	Guztira
------------------	-------------	-------------	-------------	-------------	-------------	-------------	----------------

GGKE	% 86,90	% 86,62	% 84,51	% 84,96	% 76,74	% 80,03	% 83,0
Eusko Jaurlaritza	% 1,54	% 1,35	% 0,36	% 2,96	% 4,20	% 6,70	% 3,1
Unibertsitatea	% 3,16	% 1,62	% 2,19	% 2,12	% 2,33	% 3,78	% 2,6
Fund./Zentro teknologikoak	% 3,56	% 3,18	% 4,13	% 3,10	% 3,02	% 4,00	% 3,5
Euskal Fondoak	% 0,00	% 0,81	% 0,00	% 0,84	% 1,45	% 0,82	% 0,7
Nazioarteko Erakundeak	% 4,84	% 0,00	% 8,25	% 5,87	% 7,27	% 4,00	% 5,1
Beste batzuk	% 0,00	% 6,43	% 0,56	% 0,15	% 5,00	% 0,67	% 2,1
GUZTIRA	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100

Eragileen dibertsitate honi eustea Planak ezarritako helburu bat da, horiek guztiek euskal lankidetzan izan behar duten protagonismoan aurrera eginez:

- Garapenerako sare eta aliantza berriak egiteko konpromisoa duten erakunde multilateral batzuek eragile-dibertsitate handia dute –Nazio Batuen erakundeak, antolaturiko gizarte zibila, tokiko gobernuak, estatuak–, eta instituzionalitate global demokratiko eta barne-hartzaile berri baten eraikuntzarako funtsezkoak dira. Planak lan-ildo espezifiko bat ezartzen du entitate horientzat, batera finantzatzeko hitzarmenen barruan.
- Unibertsitatea erreferente bat da pobrezia aurkako borroka-estrategiei laguntza akademikoa eta praktikoa emateari dagokionez, eta, era berean, Planean parte hartzen duten eragileen gaitasunak indartzeko instantzia estrategiko bat da.
- Gainerako eragileek ez duten balio tekniko erantsia ematen jarraitu behar dute zentro teknologikoek, Planak proposatzen duen lankidetzarako eredia eta ikuspegia progresiboki bereganatuz.

Baina, hautakortasun-printzipioari jarraiki, eta eraginkortasuna eta inpaktu handiena lortzeko asmoz, Plan honek gaitasunak indartzeko estrategiak ezartzen ditu euskal lankidetzan presentzia handiena duten eragileentzat: GGKEak, Garapen Lankidetzarako Zuzendaritza, eta Hegoaldeko eragileak, horiek baitira azkenean fondoan % 100 planifikatzen eta gauzatzen dutenak.

3.1.1.- Garapen Lankidetzarako Euskal Agentzia sortzea 2008. urtean.

1/2007 Legeak honako hau aurreikusten du azken xedapenen artean lehenengoan: Garapen Lankidetzaren Euskal Agentzia arduratuko da garapenerako lankidetzaren arloko politikaren plangintza egiteaz eta politika hori koordinatu, kudeatu eta egikaritzeaz, eta Lege espezifiko batek sortuko du agentzia.

Instituzio Administrazioaren barruan garapen-lankidetzarako erakunde espezifiko bat sortzeko funtsezko arrazoia honako hau da: politika publiko hori gauzatzeko egiturak eta tresnak azken urteotan administrazioan gertatutako hazkundera egokitzeko beharra, eta gauzatzeko hori 1/2007 Legeak eta Plan honek konprometitutako inpaktuarekin eta kalitatearekin egiteko beharra.

Eusko Jaurlaritzak beste herrialde batzuekin lankidetzaz gauzatzeko laurogeiko hamarkadan baliabide ekonomikoak bideratzen hasi zenetik gaur egun arte, aurrekontu-zuzkidura eta tresnak nabarmen hazi dira, eta gauza bera gertatu da ekintzen bolumenarekin eta ekintzen konplexutasunarekin. Horregatik guztiagatik, helburua erakunde espezifiko bat eraikitzea da, egitura egonkor batekin eta giza tamaina eta gaitasun handiagoarekin, Eusko Jaurlaritzak bultzatutako garapen-lankidetzarako politika gauzatzeaz ardura dadin. Hau da, beharrezkoa den egitura proposatutako lankidetzaz-eredu berriaren ondorioz sortu diren lankidetzaren erronkei egokitzeaz arduratuko da.

Ildo honetan, Eusko Jaurlaritzak onartu egin du ekainaren 19ko 5/2008 Legea, Garapen Lankidetzarako Euskal Agentzia sortzen duena, eta agentziaren honako alderdi hauek definitzen dituena: izaera juridikoa, helburuak eta ahalmenak, egoitza, egitura eta gobernu-organoak, eta erregimen ekonomikoa eta langile-erregimena.

Hala ere, eta Agentzia oraindik operatiboa ez dagoen arren –legebiltzarrean onartzen denetik urtebeteko gehieneko epe-muga dauka bere lana hasteko–, indarreko Planaren ikuspegiarekin, helburuekin, jarraibideekin eta adierazleekin konprometitu da. Era horretan, erakunde gisa bere kudeaketari eta egiturari eragiten dioten honako konpromiso hauek bereganatu ditu:

- Agentziak Genero Berdintasunaren Aldeko Ekintza Plan Estrategiko bat egingo du 2010. urtea baino lehen.
- Agentziak Kudeaketa Sistema bat ezarriko du, ekimeneren izapidetze-prozesua arintzeko, gardentasuna bermatuz, eta, ahal den neurrian, ekimeneren izapidetzean aurreikusgarritasuna bermatuz.
- Agentziak bere ekimeneren kalitatearen gaineko Jarraipen eta Ebaluazio Sistema bat ezarriko du 2009. urtetik aurrera.

Agentziak Eusko Jaurlaritzaren Sailekin koordinatzea izango du helburu, funtsezko areatan sinergiak bilatuz –esate baterako, Hezkuntzan edo Kanpo Ekintzan–, solidaritatearen eta garapenerako lankidetzaren printzipioak eta ikuspegiak sustatuta. Gainera, sinergia eta ekimen bateratu eta koordinatuak bilatuko dira Foru Aldundiekin, Tokiko Erakundeekin eta Euskal Fondoarekin.

Instituzio Administrazioaren barruan garapen-lankidetzarako erakunde espezifiko bat sortzeko funtsezko arrazoia honako hau da: politika publiko hori gauzatzeko egiturak eta tresnak azken urteotan administrazioan gertatutako hazkundera egokitzeko beharra, eta gauzatze hori 1/2007 Legeak eta Plan honek konprometitutako inaktuarekin eta kalitatearekin egiteko beharra. Eusko Jaurlaritzak beste herrialde batzuekin lankidetzaz gauzatzeko laurogeiko hamarkadan baliabide ekonomikoak bideratzen hasi zenetik gaur egun arte, aurrekontu-zuzkidura eta tresnak nabarmen hazi dira, eta gauza bera gertatu da ekintzen bolumenarekin eta ekintzen konplexutasunarekin. Horregatik guztiagatik, helburua erakunde espezifiko bat eraikitzea da, egitura egonkor batekin eta giza tamaina eta gaitasun handiagorekin, Eusko Jaurlaritzak bultzatutako garapen-lankidetzarako politika gauzatzeaz ardura dadin. Hau da, beharrezkoa den egitura proposatutako lankidetzaz-eredu berriaren ondorioz sortu diren lankidetzaren erronkei egokitzeaz arduratuko da.

Ildo honetan, Eusko Legebiltzarrak jada Euskal Agentziarako Lege Proiektu bat dauka, 2008. urte hasieran Kontseiluak onartua; izan ere, Kontseiluak honako hauek eztabaidatu eta aztertu behar ditu: izaera juridikoa, helburuak eta ahalmenak, egoitza, egitura eta gobernu-organoak, eta baita erregimen ekonomikoa eta langile-erregimena ere.

3.1.2.- Euskal GGKEen indartze instituzionala

Garapenerako gizarte-erakundeak euskal lankidetzaren funtsezko eragileak izan dira historian zehar, eta baita oraindik ere. Lankidetzarako fondo publikoen kudeaketa-ehuneko oso handiaz gain –% 83 inguru azken 6 urtean–, gizarte-mugimenduekin batera horiek izan direlako eraldaketarako borondate eta konpromiso handiena erakutsi duten entitateak, Hegoaldean zein Iparraldean sareak, aliantza estrategikoak eta garapen-prozesuak eginez.

Gainera, euskal gizartearen sentibilizazio-lanaren funtsezko zati bat GGKEek gauzatzen dute, eta jada adierazi dugunez, funtsezko jardun-gunea da hori, erantzukidetasun-printzipioan oinarritua. Hain zuzen ere, horregatik eta herrien babesa dutelako, funtsezko elementua dira egungo garapen-ereduaren egitura eraldatzeko konpromisoa duen gizarte-sarea egituratzeko.

Arrazoi horiek guztiak direla-eta –garrantzi historikoa, aliantzak sortzeko gaitasuna, sentibilizazioarekiko konpromisoa– beren gaitasunak indartu behar dituzten eragile estrategikoak dira. Eta, une honetan, oso egokia da GGKEek behar bezala aurre egitea Planaren erreferentziazko esparru teoriko berriak ezartzen dituen erronkei. Planak ezartzen duen ereduaren arabera, lankidetzak inpaktu-sakontasuna bilatu behar du, gaitasunen kalitate- eta indartze-printzipioetan oinarrituta. Horretarako beharrezkoa da:

- Plangintza onak egiteko gaitasuna izatea, honako hauetan oinarrituak: diagnosi onetan, epe luzerako, ertainerako eta laburrerako helburu espezifikoen formulazioan, eta lehentasunezko jardun-ildoan egikaritzean.
- Ahalduzko-prozesu konplexuak eta berdintasunezko garapen-aukera sendoak eta iraunkorrak egiteko gaitasuna izatea; kasu honetan, zehar-lerroen zeregin estrategikoa nabarmentzen da.
- Tokiko eremutik estatuko eta nazioarteko eremuetara mugitzeko gaitasuna izatea.
- Beste erakunde batzuekin –GGKEak izan edo ez– koordinatzeko borondatea eta gaitasuna izatea, norberaren jardun-eremua gainditzen duten estrategia bateratuen barruan –Herrialde Estrategiak, nazioarteko sareak, sektore-sareak, eta abar–.
- Jarraipenerako eta ebaluaziorako sistema onak ezartzeko gaitasuna izatea, etengabeko hobekuntzarako eta lortutako emaitzen eta norberaren lanaren azterketarako prozesu baten barruan.

- Erakundeen barruan lanaren kudeaketaren kalitatea hobetzeko gaitasuna izatea, martxan jartzen diren prozesu guztien iraunkortasunaren oinarrizko berme gisa.

Alderdi hauetan guztietan, GGKEek oraindik bide luzea dute egiteke. Hala ere, Planaren asmoa da GGKEen hobekuntza-prozesuei laguntzea, prestakuntza eta asistentzia teknikoko prozesuak ezarriz, edo laguntza-deialdi berriak eta espezifikoak sortuz, GGKE indartuak, ahaldunak eta sendoak lortzeko bidean aurrera egite aldera. Lehenetsuneko prozesuak honako hauek dira:

- *3.1.2.1.- 2008. ekitalditik aurrera Diagnosi parte-hartzaileen eta genero-berdintasunaren aldeko Ekintza Planen formulazioan laguntzeko dekretua eta deialdia.*

Planak honako hau ondorioztatu du: genero-mainstreamingak lankidetzarako erakundeen lanaren berrikuspen osoa behar du, bai kanpoaldera –politikak, planak, lankidetzarako, sentsibilizazioa–, bai lanaren barrualdera –erakunde-erloko kultura, pertsonen kudeaketa, kudeaketa-erloko sistemak eta egiturak, informazioa eta komunikazioa, eta abar–. Horregatik, korapiloak aztertzeko eta identifikatzeko prozesuak ezartzen ditu, eta baita horietan aurrera egiteko plangintza ere.

- *3.1.2.2.- Prestakuntzako eta Asistentzia Teknikoko prozesua Afrikan lan egiten duten euskal entitateentzat eta lehenetsuneko herrialde esanguratsuenen entitate afrikarrentzat, proiektuaren bizitza-zikloaren ikuspegi integral baten inguruan, eta 2008. urtean.*

Afrikan lan egiten duten erakundeetan eta horien alderdi esanguratsuenetan, gabeziak eta mugak detektatu dira identifikazio-diagnosiak egiteko unean, proiektuak formulatzeko unean, adierazleak ezartzeko unean, eta horien jarraipena eta ebaluazioa egiteko unean. Hain zuzen ere, horregatik, Afrikako euskal lankidetzaren kalitatean inpaktu handia izango duen prozesu bat jarriko da martxan.

- *3.1.2.3.- Plangintza Estrategikorako eta Ekintza Planetarako Prestakuntzako eta Asistentzia Teknikoko prozesua, 2009. ekitaldian.*

Muga handiak aurkitzen dira plan bat zer den, zein ezaugarri eta osagai izan behar dituen, eta politiketatik zerk bereizten duen ulertu behar denean, eta baita zein metodologia aplikatu daitezkeen ulertu behar denean ere. Plangintza onak bermatzen badira, erreferentziatzeko esparru teorikoak proposatutako lankidetzarako ereduaren ezarpenean jauzi kualitatibo bat emango da.

- *3.1.2.4.- Jarraipen eta Ebaluazio Sistemarako Prestakuntzako eta Asistentzia Teknikoko prozesua, 2009. ekitaldian.*

Kalitatean zuzeneko eragina duen kudeaketaren itogune nagusietako bat da jarraipenerako eta ebaluaziorako sistemarik ez dagoela, eta, beraz, ezin ditugu lezio ikasiak atera eta ezin dugu prozesuetan aurrera egin. Aurrerapenak egon diren arren, esandakoa azpimarratu beharra dago.

- *3.1.2.5.- Kalitatearen –inpaktuarena eta erakundeena– arloko Prestakuntzako eta Asistentzia Teknikoko prozesuak, 2010. eta 2011. ekitaldietan.*

Lankidetzaren erakundearen oinarritzko helburuak dira honako hauek: martxan jartzen diren ekimenen inpaktuaren kalitatea eta sakontasuna neurtzeko gai izatea, eta kudeatzeko eta erabakitze prozesuak eta egiturak hobetzea; erakunde horiek eremu honetan aurrera egin behar dute pixkanaka. Horretarako, bide honetan aurrera egiteko aukera emango duten estrategia espezifikoak diseinatuko dira.

Gainera, GGKEen eta gainerako lankidetzaren entitateen indartze instituzionalaren estrategia osagarri gisa, honako aurrekontu-neurri hau ezartzen da:

- *3.1.2.6.- Zeharkako kostuen gehieneko zenbatekoa handitzea proiektuen eta programen tresnen zein ekintza humanitarioko proiektuen eta estrategien zuzeneko kostu subentzionagarrien gaineko % 9ra arte, 2009. urtetik aurrera.*

Izaera eraldatzailea duen lankidetzaren ikuspegi honen erronkek baliabide ekonomikoak behar dituzte, GGKEek martxan jartzen dituzten ekimenen kalitatea hobetzeko. Era horretan, adierazitako aurrekontu-hazkundera ahalmenak –giza ahalmenak, metodologikoak, estrategikoak, teknikoak– indartzeko estrategia espezifikoak sortzera bideratu behar dira, giza garapen iraunkorraren nazioarteko agenda berriari lotutako lankidetzari berme handiagoekin aurre egiteko helburuarekin.

3.1.3.- Hegoaldeko eragileen indartze-ildoak

Planean zehar jada adierazi dugunez, Hegoaldeko garapen-eragileen papera estrategikoa da proposatutako lankidetzaren ereduaren egituran; izan ere, gako-entitateak dira sareak eta agendak planifikatzeko, egikaritzeko, ebaluatzeko eta sortzeko unean.

Hala ere, ezinezkoa da Eusko Jaurlaritzak bultzatutako lankidetzaren parte hartzen duten eragile sozial eta publiko guztien gainean eragiten duten estrategiak ezartzea, ezin baitaie laguntza sendoa eta etengabea eman. Hori gorabehera, Hegoaldeko eragileen gaitasunak ahal den neurrian indartzen dituzten jardun-ildoak ezarri ditu Eusko Jaurlaritzak:

- *Euskal Lankideen deialdia*, zehazki Hegoaldeko entitateen gaitasunak – teknikoak, estrategikoak, metodologikoak, sektorialak, eta abar– indartzera bideratua, entitatearen erronketan espezializatutako euskal pertsonen laguntzaren bitartez.
- *Programen deialdietan Indartze Instituzionalerako* osagaia, estrategia espezifiko bat garatzen den aldi berean, tokiko entitateen gaitasunak indartzeko aukera emateko.

- Hitzarmen espezifikoak *nazioarteko hainbat gizarte-mugimendurekin*: nekazarien mugimendua –esate baterako, La Vía Campesinarekin sinatutakoak–, mugimendu feminista –Emakumeen Mundu Martxarekin, eta baita Amerikako hainbat erakunde feministekin ere–, eta giza eskubideen defentsarako entitateak.
- Proiektuak *formulatzeko ikastaroak* Hegoaldeko eragileentzat, hainbat herrialde eta lurraldetan: esate baterako, Kuban eta Chiapasen egindakoak.
- Tokiko Garapen Ekonomikoko Prestakuntza-prozesuak, hainbat herrialde eta lurraldetako Hegoaldeko eragileentzako osagai espezifiko batekin: Peru, Nikaragua, El Salvador, Guatemala, Honduras.
- Kubako gako-eragileen indartze espezifikoa Kubako Herrialdeko Estrategiaren barruan, elikadura-subiranotasunean eta azukre-sektorearen birmoldaketan oinarritua, honako arlo hauetako hitzarmenen eta jardun-ildoen bitartez: prestakuntza, asistentzia teknikoa, ikerketa, etab.

Planak jada dauden ildoei eutsi nahi die, eta inpaktu sakonagoa lortzeko aukera dutenak indartu nahi ditu –Herrialde Estrategia duten lurraldeak–. Beraz, proposatutako ildoak honako hauek dira:

3.1.3.1.- Planaren indarraldian Euskal Lankideen deialdiari eustea.

3.1.3.2.- Indartze instituzionalaren osagaiari eustea onartzen diren programa guztietan.

3.1.3.3.- Tokiko Garapen Ekonomikorako prestakuntzako eta asistentzia teknikoko prozesuari eustea.

3.1.3.4.- Mugimendu feministekin, nekazarien mugimenduekin eta giza eskubideen aldeko mugimenduekin egindako hitzarmenak sendotzea, tresna horren ildo estrategikoen barruan.

3.1.3.5.- Lehenetsuneko herrialde esanguratsuenen (ikus II. Modulu honen 3.1.2.2 idatz-zatia) Afrikako entitateen gaitasunak indartzeko prozesua sortzea.

3.1.3.6.- Gaitasunen indartze-ildoak osatzea, onartutako Herrialde Estrategien helburu espezifiko gisa.

3.2.- III.2 azpi-jarraibidea: Lankidetzarako euskal entitateen – publikoak eta sozialak– koordinazioa indartzea, eta baita lehenetsuneko herrialdeetan Hegoaldeko eragileekin koordinazioa indartzea ere

Plana koordinazio-printzipioan oinarritzen da, eta horrek zera esan nahi du, helburu komunen aldeko jardunak ekimenen bitartez lortutako inpaktua handitzen eta hobetzen duela. Hortaz, koordinazioak zera esan nahi du, prozesuen multzoaren kalitatea biderkatzeko aukera ematen duten topaketarako egitura komunetan parte hartzea, betiere bakoitzak bere eskumenen eta autonomiaren barruan.

Ildo honetan, lankidetzan aplikatutako koordinazioak ekimenak ondo kudeatzeko beharrezkoa den informazioa trukatzeko ekarriko du gutxienez, eta, kasu onenean, honako hauek sortuko ditu: estrategia bateratuak, sinergiak, zereginen banaketa gaitasunetan oinarrituta, eta eragiteko eta hausnarketarako egitura sendoak eta eraginkorrak.

Aitzitik, Planak aipamen berezia egiten dio koordinazioari, zeina aurreko azpi-jarraibidearen kasuan bezalaxe, euskal eremuan lehentasunez oinarrituko den, betiere Hegoaldeko eragileak ahaztu gabe; izan ere, azken horiekin koordinazioa bilatuko da Herrialde Estrategien barruan.

Era berean, koordinazioaren alderdi honetan ez gara zerotik hasi, batera hausnartzeko eta erakundeen arteko partaidetzarako guneak eta ekimenak jada egon baitira:

- Garapen Lankidetzarako Aholku Batzordea euskal lankidetzaren topagune egonkorra izan da, eta honako hauek parte hartu dute: Eusko Jaurlaritzak, Foru- eta udal-erakundeak, GGKEek, eta hainbat gizarte-sektorek. Arlo honetan, lankidetzarako gai garrantzitsuenak landu eta eztabaidatu dira –Legea, planak, deialdiak, eta abar–.
- Eusko Jaurlaritzaren Garapen Lankidetzarako Zuzendaritzak mugari esanguratsu guztiei buruz –planak, dekretuak, deialdiak– eztabaidatu eta hausnartu du GGKEekin, GGKEen Euskadiko Koordinakundearen bitartez.
- Eusko Jaurlaritzaren Garapen Lankidetzarako Zuzendaritzak Kuban lan egiten duten euskal erakunde instituzional eta sozial guztiei deitu die Kubaren Herrialde Estrategiaren formulazioan eta egikaritzean parte har dezaten, eta, era berean, Estrategiaren helburuekin harreman handiena duten Kubako entitateei ere deitu die. Horren ondorioz, gaur egun entitate gehienek modu aktiboan parte hartzen dute beren Koordinazio Mahaietan.

Legearen aginduari jarraiki, eta Eusko Jaurlaritzak bultzatu nahi duen erreferentziazko ereduari jarraiki, Planak koordinazio-egitura berriak egitea proposatu du, eta baita aldez aurreko jardun-ildoak mantentzea eta indartzea ere:

3.2.1.- Garapen Lankidetzarako Euskal Kontseilua sortzea 2008. ekitaldian.
Hauxe da "lankidetzaren eragileen ordezkari-organoa, eta garapenerako euskal lankidetzaren publikoaren proposamenak eta irizpenak emateko eta jarraipena egiteko gaitasuna dauka" (otsailaren 22ko 1/2007 Legea, 16.1 artikulua)

Kontseiluaren osaera mistoa eta paritarioa izango da, eta ordezkari instituzionalek eta sozialek osatuko dute, eta bere zereginak honako hauek izango dira: lankidetzari dagokionez, urte anitzeko Planen proposamenei dagokionez eta agentziaren egiturari buruz Eusko Jaurlaritzak ematen dituen xedapen orokorren aldez aurreko txosten betearazleak ematea; urtean behin

txosten bat lantzea Euskadiko herri-administrazioen jardunen koherentziari buruz; herri-administrazioek martxan jarritako ekimenak eta prozesuak ezagutzea, eta horiek hobetzeko proposamenak egitea (16.3 artikulua). Zeregin horiek gauzatzeko, kontseiluak aurrekontu propioa izango du.

3.2.2.- Garapen Lankidetzarako Erakunde Arteko Batzordea sortzea 2008. ekitaldian. Hauxe da "Euskadiko administrazioen arteko informazio, komunikazio eta asistentziarako organoa, eta bere helburua da deialdien eta jardunen bikoiztasunak eta gainjarpenak saihesteko jardueren egikaritzean estrategiak adostea, eta Euskadiko herri-administrazioen lanari koherentzia ematea" (15. artikulua).

3.2.3.- GGKEekin hausnartzeko eta eztabaidatzeko egitura eta gune espezifikoaren mantentzea, GGKEen Euskadiko Koordinakundearen bitartez.

3.2.4.- Koordinazioa indartzea, Herrialde-estategien baterako parte-hartzean oinarrituta. Hauxek oso gune egokia dira euskal eragileen, Hegoaldeko entitate sozialen eta publikoen, eta estrategiarekin lotutako erakunde multilateralen arteko elkarrizketarako, eztabaidarako eta hizketarako guneak sortzeko. Ildo honetan, estrategia guztiak koordinazioarekin lotutako helburuak ezarri beharko dituzte, euskal eragileentzat zein Hegoaldeko eragileentzat egitura espezifikoak zehaztuta, eta baita Iparraldearen eta Hegoaldearen arteko topaguneak zehaztuta ere.

3.3.- III.3 azpi-jarraibidea.- Sare eta aliantza anitzak eta barne-hartzaileak sortzeko konpromisoa duten garapenerako erakunde multilateralen koordinazioa indartzea

Planak garapen-agenda berri bat egiteko konpromisoa du jasota. Agenda horren arabera, garapena izango da nazioarteko komunitatearen helburu nagusia. Horretarako, beharrezkoa da borondate politiko handia izatea eta instituzionalitate global demokratiko berri bat sortzea. Instituzionalitate horretan, eragile guztiak izango dute tokia: gizarte-mugimenduek, eskualdeko eta tokiko gobernuek, estatuek eta erakunde globalek.

Ildo horretan, Planak estrategia bikoitza ezarri du helburu hori lortzeko: alde batetik, nazioarteko gizarte-mugimenduak indartu behar dira. Bestetik, instituzionalitate globalaren ikuspegi berri barne-hartzailearekin, eta egiturazko pobrezia eta giza garapen iraunkorrari lotutako ikuspegiarekin (hots, Plan honek bultzatzen duen ikuspegiarekin) bat datozen arlo sektorialekin bereziki konprometitutako Nazio Batuen programak eta ekimenak berariaz eta lehenetsunez babestu behar dira.

Era horretan, nazioarteko garapen-agenda berria indartu beharra azpimarratu eta, aldi berean, laguntzaren eraginkortasuna hobetuko da, lankidetzazko esparru zabalago eta orokorrago batzuen barruan. Beraz, hitzarmen-tresnak eskaintzen dituen ahalmenen barruan, Planak Nazio Batuen honako programa eta ekimen hauei emango die lehenetsuna:

3.3.1.- Nazio Batuetako beste agentzia batzuen laguntzarekin NBGPak emandako ART Programan (Lurralde-arloko eta arlo Tematikoko sareentzako Laguntza) parte hartzeari lehentasuna ematea.

Programa honen helburu espezifikoak lankidetzarako sareak eta aliantza berriak sortzea da, helburu komunak dituzten programetan oinarrituta ahaleginak batzeko asmoarekin. Gainera, metodologia parte-hartzailea eta malgua dauka, lankidetzaren deszentralizatuari erabakiak hartu ahal izateko, solaskide izateko eta parte hartzen duten gainerako eragileekin jarduteko aukera ematen diona. Hortaz, programa egokiena da gobernu autonomiko batentzat, eta, gainera, multilateralaren lana ulertzeko modu berriak eskaintzen ditu.

3.3.2.- Plan honen helburuekin eta ikuspegiekin lotutako agentziek eta programek lideratutako ekimen multilateralei laguntzea, hala nola: UNIFEM, NBGP, ENBGK edo UNOIDS.

Erabateko giza garapen iraunkorraren sustapena, emakumeen eskubideen nazioarteko babesa, errefuxiatuen inguruko estrategien bultzada, eta HIESaren inguruko prebentzioa eta laguntza Planaren helburuekin bat datozen dimentsioak dira. Horrela, beraz, ekimen multilateral horietan parte hartzeak areagotu egiten du egindako ekarpenaren eragina.

Azken batean, eta Jarraibidearen laburpen gisa, funtsezkoak eta osagarriak diren honako bi osagai hauetan oinarritzen da: lehentasunezko eragileen indartzea, eta Iparraldeko eta Hegoaldeko aktore-multzoaren koordinazioa. Helburu horiek Estrategia osoarentzat beharrezkoa den kalitatea eta iraunkortasuna bermatuko dute.

IV. jarraibidea: Lankidetzaren tresnez osatutako esparru koherentea diseinatzea

Garapen-prozesuak eta egiturazko pobrezia aurka borrokatzeko prozesuak indartzeko eta laguntzeko eragileek eskura dituzten erremintak dira lankidetzaren tresnak. Hortaz, bultzatzen den ekimen bakoitzaren baliabideak, denbora-eremua, ikuspegia eta ezaugarriak mugatzen dituzte.

Ildo honetan, ezinbestekoa da diseinatuko dugun tresna-esparrua koherentea izatea Plan honetan ezarritako ereduarekin. Beraz, gure lankidetzak epe luzean planifikatutako prozesuen laguntza izan nahi du; prozesu horiek erdi-mailako inpaktua izango dute sakontasunari dagokionez, gako-subjektuak indartzeko dituzte, eta koordinazio-egiturak sortuko dituzte. Era berean, eragileek lehentasunezko prozesu hauen garapen eraginkorra ahalbidetuko duten tresnak izan beharko dituzte.

Hortaz, tresnen esparru egokienak honako hau ahalbidetu beharko du:

- Plangintza bateratuan eragina izatea.
- Zehar-lerroetan eragina izatea elementu estrategiko gisa.
- Ekimenez kalitate- eta eraginkortasun-maila handiak gaineratzea.
- Denboran egonkorrak diren laguntzei eustea.
- Lehentasunezko eragileak indartzea.
- Koordinazioa sustatzea.

Garapen Lankidetzarako Zuzendaritzak azken urteotan diseinatu duen tresnen multzoak aurrera egin du eta aldagai hauek barnean hartu ditu.

Beraz, 2002-2006 aldian, jardun-logika tresnen esparrua berregituratzean oinarritu zen, egiturazko lankidetzaren ikuspegi berrira egokituz. Era horretan, honako hiru alderdi hauek eragin zen bereziki: zehar-lerroak gaineratzeari lehentasuna ematea, aurreikusitako inpaktuaren kalitatean modu espezifikoa aurrera egitea, eta lankidetzaren eragileen gaitasunak indartzea.

Lankidetzarako Tresnak 2002-2007

KAPITULU A	GUZTIR A	2002	2003	2004	2005	2006	2007
KOP	% 1,19	% 1,87	% 0,00	% 1,91	% 0,97	% 1,41	% 1,01
NBE	% 3,54	% 4,87	% 0,00	% 6,70	% 4,94	% 3,05	% 2,39
PRO-K1	% 69,47	% 76,55	% 76,29	% 72,97	% 73,16	% 73,52	% 64,55
PRO-K2	% 3,89	% 4,91	% 3,97	% 4,39	% 3,92	% 3,04	% 3,50
PRO-K3	% 8,60	% 10,24	% 8,03	% 8,26	% 9,62	% 8,78	% 7,32
PGM	% 2,63	% 0,00	% 0,00	% 0,00	% 0,00	% 0,00	% 11,22
ZUZ	% 10,68	% 1,56	% 11,70	% 5,77	% 7,39	% 16,64 (*)	% 16,44 (*)
GUZTIRA	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100

Garapen Lankidetzarako Zuzendaritza

(*): Hegoaldeko gizarte-eragileekin zuzeneko lankidetzaren erakundeak hartzen du

Prozesu honen emaitzak honako hauek dira^{xix}:

- *Proiektuentzako laguntzen dekretu arautzailea* erreformatu da (otsailaren 27ko 34/2007 Dekretua) –tresna esanguratsuenak–:
 - Erregulazio bat formulatu da denbora-esparru mugagabearekin.
 - Baremazio-taula aldatu da, kalitatearen arloko irizpide batzuei lehentasuna emanaz, hala nola bideragarritasunari, iraunkortasunari eta zehar-lerroei. Gainera, tokiko entitateen gaitasunak balioetsiko dituzten irizpide berriei garrantzia ematen zaie –plan estrategikoak, genero-berdintasuneko planak–.
 - Finantziarazko honako gehieneko zenbateko hau ezarri da: 600.000€.
 - Proiektuen aurrekontu-bizitza argitu da, finantza-protokolo bat onartuta.

- *Euskal lankideentzako laguntzen dekretu arautzailea* erreformatu da (urtarrilaren 10eko 2/2006 Dekretua), eta dekretuaren helburua aldatu da; orain, Hegoaldeko garapen-entitateen gaitasunen indartze integrala da dekretuaren helburua. Aitzitik, helburu hau askoz egokiagoa da lankidetzari-ikuspegi berriari dagokionez.

- *Nazio Batuen programan parte hartzeko beken deialdia eta dekretu arautzailea* egokitu dira (otsailaren 13ko 22/2007 Dekretua), programan parte hartzen duten Agentzien kopurua handituta –ART eta UNIFEM–. Gainera, neurriak ezarri dira programan parte hartzen zuten pertsonen lan-baldintza hobekuntza izan ditzaten eta destinoko herrialdean euskal lankidetzako gainerako eragileekin harreman gehiago izan dezaten.


- *Zuzeneko hitzarmenak* gainerako erreminten tresna osagarri gisa finkatzeko lanean aurrera egin da, beste bide batetik betetzeko oso zailak diren helburuak bilatuz: erakunde-arteko koordinazioa, erakunde multilateralei eta nazioarteko gizarte-mugimenduei laguntzea, eta giza eskubideen arloko ekimen espezifikoak laguntzea.

Adierazitako emaitzak 2007. urtean sendotu dira, eta, aldi berean, aurrerapen esanguratsuak egin dira, nagusiki honako hiru alderdi berri hauetan eraginez: plangintza bateratua, koordinazioa eta laguntzen behin-behineko egonkortasuna. Horren ondorioz, honako bi tresna berri hauek sortu dira:

- *Herrialde Estrategia*, prozesu parte-hartzaile baten bitartez honako hauek ezartzen dituen: batera planifikatutako helburuak eta herrialde jakin batean lan egiten duten eragile guztiek parte hartzen duten koordinazio-egiturak.
- *Programen dekretu arautzailea* (apirilaren 3ko 57/2007 Dekretua), inpaktusakontasunaren helburuan modu fidagarriagoan aurrera egiteko aukera ematen duena, baliabide ekonomiko gehiago dituelako (600.000 eurotik 1.200.000 eurora), denbora-tarte zabalagoa duelako (36 hilabete), eta programaren bizitza-ziklo osoaren finantziarioa ahalbidetzen duelako (identifikazioa – egikaritzea – jarraipena – ebaluazioa), eta, gainera, Hegoaldeko tokiko entitateen indartze instituzionalerako osagai espezifiko bat dauka, eta baita sentsibilizazio-osagai bat Euskadin ere.

Azkenik, 2008-2011 aldirako Plan honek –berezko tresna bat da– orain arte egon diren tresnen protagonismoari eutsi nahi dio –Proiektuak, Programak, Hitzarmenak, Lankideak, NBen Bekak, Euskal Gazteak Lankidetzan–. Baina, horretaz gain, arestian adierazi dugun esparru egokia definitzen duten irizpideen arloan aurrera egiten jarraitzeko asmoa dauka, eta, horretarako, honako azpi-jarraibide hauek aurkeztu dira:

1. Urteko Plana ezartzea, Plan Estrategiko eta Zuzendaria zehazten duen tresna gisa.
2. Aurrekontuari dagokionez, programen tresna fondoan guztizkoaren % 20-30 adierazle-tartean finkatzea.
3. Bateran finantzatzeko hitzarmenen helburu espezifikoak definitzea.
4. Genero-berdintasunaren aldeko antolamendu-aldaketarako prozesuei laguntzeko tresna sortzea.
5. Lankidetzaren tresnentzako aurrekontu-bide adierazle bat definitzea.



4.1.- IV.1 azpi-jarraibidea: Urteko Plana ezartzea, Plan Estrategiko eta Zuzendariaren programazio-tresna gisa.

1/2007 Legeak honako hau ezartzen du 18. artikuluan: "Eusko Jaurlaritzak garapenerako lankidetzan-plan bat onartuko du urte bakoitzerako, eta denbora-tarte horretan Eusko Jaurlaritzak aurrera eramango dituen jardueren programa jasoko da bertan, baita eremu horretarako gordetako aurrekontua aplikatzeko ildo orokorrak ere".

Hortaz, urteko planak dokumentu honetan ezarritako erronkak, konpromisoak eta jardun-ildoak zehaztuko ditu. Eta horretaz gain, Planaren bigarren zatian definitutako jarraipen- eta ebaluazio-sistemaren arabera, ekimen espezifikoak zuzentzeko eta egiaztatutako ahultasunak indartzeko aukera emango du, ezarritako helburuak alait ongien gauzatzeko helburuan eraginez.

4.2.- IV.2 azpi-jarraibidea: Aurrekontuari dagokionez, programen tresna fondoen guztizkoaren % 20-30 adierazle-tartean finkatzea.

Programak dira Eusko Jaurlaritzak defendatzen duen lankidetzan-ereduari ongien egokitzen diren tresnak.

Proiektuak –eta gainerako tresnak– ere inpaktu-sakontasuna bilatzen duten prozesuetan gaineratu daitezke, eta, aldi berean, programek –dituzten ezaugarriengatik– berme handiagoak dituzten estrategia sendoen planifikazioa errazten dute.

Beraz, proiektuek baino finantziario-zenbateko handiagoa dute programek, eta baita denbora-tarte handiagoa ere; era berean, programek honako hauek finantzatzeko aukera ematen dute: identifikazio-fasea, tokiko entitateen indartze instituzionala eta garapenerako hezkuntza Euskadin. Hala ere, sektoreko eta zeharkako plangintza estrategiko bat definitzeko eskakizun-maila handiagoa da, eta baita ohiko kalitate-irizpideen multzoan ere.

Horregatik guztiatik, Planak programentzako laguntzak bultzatu nahi ditu, tresnen esparruan horiek duten garrantzi erlatiboa % 20-30 tartean sendotuz, 2008-2011 aldian.

4.3.- IV.3 azpi-jarraibidea.- Batera finantzatzeko hitzarmenen helburu espezifikoak definitzea

Batera finantzatzeko hitzarmenak baliagarriak izan dira Eusko Jaurlaritzak bultzatutako lankidetzaren lehentasunezko eragileek egin ezin izan dituzten jardun-ildoak garatzeko, edo dagoen tresnen esparruaren barruan txertatzen ez ziren proposamenak sustatzeko.

Definizio zabal honen ondorioz, esperientzia interesgarri asko bultzatu dira, baina sakabanatuak daude inpaktuari dagokionez, aldez aurreko plangintza estrategikorik ez dagoelako.

HITZARMENEN TIPOLOGIA ETA KOPURUA

	20 02	20 03	20 04	20 05	20 06	20 07
Gizarte-mugimenduak indartzea	0	1	1	2	6	7
Agentzia Multilateralekin egindako Hitzarmenak	0	0	1	2	2	5
Erakundeen arteko Koordinazioa	0	2	0	3	2	3
Herrialde Estrategiak indartzea	0	0	0	0	1	1
Lankidetzaren Eragilearen gaitasunak indartzea	1	1	1	1	2	2
Giza Eskubideen sustapena	0	2	2	0	1	4
Beste batzuk	0	2	1	3	2	5
Guztira	1	8	6	11	16	27

Une honetan, tresna honek proposatzen dituen arloak eta helburuak definitu behar dira, Planak martxan jarri dituen estrategiekin modu koherenteagoan eta zuzenagoan parte har dezaten. Era honetan, hitzarmenak osagarri bikainak izango dira Planak garatu nahi dituen ildoetan eta ikuspegieta aurrera egiteko; izan ere, gainerako tresnen bitartez, ezin dira horiek guztiz garatu.

Hitzarmenen ehuneko-banaketa urteen arabera (2002-2007)

	2002	2003	2004	2005	2006	2007
Gizarte-mugimenduen indartzea	% 0,00	% 11,52	% 6,29	% 29,69	% 22,41	% 24,42
Agentzia Multilateralekin egindako Hitzarmenak	% 0,00	% 0,00	% 27,95	% 14,08	% 25,60	% 25,31
Erakundeen arteko Koordinazioa	% 0,00	% 7,61	% 0,00	% 13,73	% 8,76	% 6,18
Herrialde Estrategiak indartzea	% 0,00	% 0,00	% 0,00	% 0,00	% 3,94	% 4,10
Lankidetzaren Erabilgarritasunaren indartzea	% 100	% 7,92	% 20,96	% 10,43	% 9,38	% 3,90
Giza Eskubideen sustapena	% 0,00	% 17,65	% 35,06	% 0,00	% 1,97	% 17,98
Beste batzuk	% 0,00	% 55,31	% 9,73	% 32,07	% 27,94	% 18,13
	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100

Ildo honetan, hitzarmenen tresnaren jardun-ildoek honako helburu hauek izango dituzte:

1. Nazioarteko gizarte-mugimenduak indartzea, bereziki nekazarien mugimendua eta mugimendu feminista.

Planaren Lankidetzaren Helburuak eraldaketa-estragiei laguntzeko asmoa du, tokiko eremutik nazioarteko eremura. Nazioarteko agendak eta sareak eraikitzeke helburua duen ibilbide hori fenomeno konplexua da, eta gainerako tresnen bitartez oso zaila da gauzatzea –baina ez ezinezkoa–. Ildo honetan, hitzarmenen lehentasunezko helburuetako bat izango da gabezia hori konpontzea, gehien egituraturako nazioarteko gizarte-mugimenduak finkatzea eta handitzea ahalbidetuz, eta guztiz demokratikoa den nazioartekotasun berri bat eraikitzeke aukera emanaz.

2. Multilateralismo aktibo berri baten eraikuntza sustatzea, sare askotarikoak eta barne-hartzaileak sortzea bultzatuz; kasu honetan, ART agentziaren papera

nabarmentzen da, eta baita beste agentzia eta programa multilateral batzuk ere, hala nola: NBBP, UNIFEM, UNOIDS edo ENBGK.

Nazioarteko herri-mugimenduak bultzatzeaz gain, instituzionalitate demokratiko eta gai berri baten eraikuntzan aurrera egin beharra dago, betiere logika multilateralaren barruan. Eusko Jaurlaritzak, entitate publikoa izaki, helburu honekin konprometitu da, ikuspegi barne-hartzaile eta integratzaile berriak garatzen dituzten ekimenak eta programak hautatuta, eta baita Planaren oinarrian dagoen egiturazko pobrezia-aren ikuspegiarekin lotura berezia dutenak ere.

3. Erakunde-arteko koordinazioa sendotzea, esperientzia zehatzetan oinarrituta.

Inpaktua duen lankidetzaren baten oinarrian euskal instituzioen eta lankidetzapolitiken arteko ekimen bateratuen garapenak egon behar du. Era honetan, hitzarmenek eremu espezifiko hau indartzeko balio dute, prozesuen kalitatea indartuta Eusko Jaurlaritzarekin, Euskal Fondoarekin eta Foru Aldundiekin egindako koordinazioaren bitartez.

4. Herrialde Estrategietan definitutako estrategiak osatzea.

Herrialde Estrategietan ezarritako Koordinazio Mahaiak, eta horiek dakarten plangintza bateratuak, ekimen interesgarri ugari sortzen dituzte, aurkeztutako helburuak gauzatzeko bidean aurrera egiteko aukera ematen dutenak. Hala ere, ekimen hauek ezin dira beti bideratu deialdia duten tresnen bitartez. Era horretan, hitzarmena Estrategia hauek indartzeko osagarri bihurtzen da.

5. Lankidetzarako euskal eragileen eta Hegoaldeko garapen-entitateen gaitasunak indartzea.

Hitzarmenen helburua da lehentasunezko eragileen ahalmenak indartzea. Era horretan, hainbat eragiletan gabeziak detektatzen badira —eremu geografiko jakin batzuetan, sektore-arlo espezifikoetan, zeharkakoren baten ezarpenean, gai tekniko edo estrategikoetan—, hitzarmenak gabezia horiek konpondu ahal izateko prestakuntza edota asistentzia teknikoko estrategiak ezar ditzake.

6. Giza eskubideen salaketarekin, eraginarekin, defentsarekin eta sustapenarekin zuzeneko lotura duten proiektuak sustatzea.

Kasu batzuetan oso zaila da giza eskubideak txertatzea lankidetzaren proiektu baten metodologian eta baldintzetan, formulazioari, iraunkortasun-bermei eta beste alderdi batzuei dagokienez. Ildo honetan, formatu horri egokitu ezin diren, baina guztiz kontuan hartzekoak eta estrategikoak diren ekimenak, hitzarmen bidez finantzatu ahal izango dira.

Horrek ez du esan nahi sei jardun-ildo hauek hitzarmenen tresnaren eskusiboak direnik. Aldiz, Eusko Jaurlaritzak bultzatutako lankidetzaren multzorako ezarritako helburuak dira, baina hitzarmenek intzidentzia berezia izango dute horien gainean. Esate baterako, bideragarria da programa edo proiektu bidez giza-eskubideen

ekimenak finantzatzea, baina arrazoi batengatik formatu hauetan txertatzea ezinezkoa baldin bada, hitzarmen bidez finantzatzeko aukera dago.

4.4.- IV.4 azpi-jarraibidea: Berdintasunaren aldeko antolamendu-aldaketarako prozesuei laguntzeko tresna sortzea

Planak lehentasunezko helburutzat hartu du genero-mainstreaminga, eta, beraz, genero-ikuspegia erantsi beharko da garapenaren "korrante nagusian", martxan jartzen diren ekimen, estrategia eta egitura guztietan garapena zeharkakotuz.

Arestian adierazi dugunez, kontzeptu hau ezin da arlo teknikora mugatu, ezta erakundeen *kanporako* proiektzioa duten estrategien eremura ere: lankidetzak, garapenerako hezkuntza, eragina, eta abar. Aldiz, genero-ikuspegia kontuan hartu behar da garapenerako eta lankidetzarako entitateen alderdi guztietan.

Ildo honetan, berdintasunaren aldeko antolamendu-aldaketarako prozesuentzako laguntza-tresna berriak genero-ikuspegiaren ulermen holistikoan aurrera egiteko asmoa du. Era horretan, genero-berdintasunaren aldeko diagnosi parte-hartzaileak eta ekintza estrategikoko planak finantzatzeko aukera emango du, erakundeek genero-ikuspegia eta beren ezberdintasun-korapiloak egiaz zeharkakotzea saihesten duten arrazoiak *barrualdera* eta *kanpoaldera* aztertzeko helburuarekin. Horren emaitza identifikatutako arrazoiaren aurkako plangintzak formulatzea izango da.

Tresna hau baliatzeko, euskal entitateek genero-berdintasunaren aldeko esanbidezko konpromisoa eta erakundeen barruko aldaketa-prozesuen sustapenerako esanbidezko konpromisoa ziurtatu eta argitara eman beharko dute. Gainera, formulatutako planak egikaritzean izandako betetze-mailaren jarraipenerako eta ebaluaziorako sistema bati jarraitu beharko diote.

4.5.- IV.5 azpi-jarraibidea: Lankidetzak-tresnentzako aurrekontu-bide adierazle bat definitzea

Tresnen esparruarekin lotutako azken azpi-jarraibide honek aurrekontu-bide bat definitzen du, Planak garatu nahi dituen tresna esanguratsuenetako bakoitzaren adierazlea.

Era honetan, Planak segurtasuna eta egonkortasuna ematen dio proposatutako esparruari, eragileen plangintza erraztuta, eta ustekabeko urteko aldaketak saihestuta.

Tresnentzat aurreikusitako aurrekontu-tarte adierazleak honako hauek dira:

TRESNA	Fondo banagarrien gainera %
Lankidetzak Proiektuak	% 55-65

Lankidetza Programak	% 20-30
Batera Finantzatzeke Hitzarmenak	% 5-10
Garapenerako Hezkuntza	% 6-8
Ekintza Humanitarioa	% 6-8
Lankideak	% 1-2
NBE Bekak	% 1-3
Berdintasunaren aldeko antolamendu-aldaketa	% 0-1
JVC	% 0-1

V. jarraibidea: Giza ekintzaren aldeko politika koherentea finkatzea, epe luzerako garapena ahalbidetzeko

Planak lankidetzaz-ikuspegi bat hartu du bere gain –eraldatzailea, kalitatezkoa eta egiturazko pobrezian oinarritua–, eta, era berean, ikuspegi hori ekintza humanitarioko politikara hedatzen da, Garapen Lankidetzarako Euskal Legean adierazten denari jarraiki, helburuei dagokienez (4.3 artikulua), sektoreko lehentasunei dagokienez (1.h artikulua), lehentasun geografikoei dagokienez (6.b artikulua), eta tresnei dagokienez (21. artikulua). Eta dituen ezaugarriez gain –hondamen baten *aurrekoari, tartekoari eta ondorengoari* mugatzetik ondorioztatuak–, jardun-eremu hau ere bere gain hartu beharko du, inpaktua handitzeko eta giza garapeneko estrategiak egiteko beharrezkoak diren baldintzak sortzeko.

Hortaz, jarraibide honen helburua ekintza humanitarioko politika integral bat definitzea da, Planaren helburuekin koherentea, eta egiturazko pobrezia aurkako borrokan lankidetzarekin ahaleginak batzen dituen.

Azken helburu hau honako hiru azpi-jarraibide hauen bitartez garatzen da:

1. Ekintza Humanitariorako eredu esparru teorikoa definitzea.
2. Tresnen esparru koherentea ezartzea
3. Ekintza humanitarioaren aurrekontua ezartzea

5.1.- V.1 azpi-jarraibidea: Ekintza Humanitariorako eredu esparru teorikoa definitzea

Eredu esparrua ezartzeko, ezinbestekoa da ekintza humanitarioaren jatorriari eta bilakaerari buruz hausnartzea; izan ere, hausnarketa horren bitartez, elementu erabakigarriak finkatzen lagunduko diguten jarraibideak lor ditzakegu.

Gizateriaren historian zehar, pertsona babesgabeenei laguntzeko esku-hartzeak maiz gertatu dira, esku-hartze horiei eman zaien izena edozein izanik. Hala ere, humanitarismo modernoaren jatorria XIX. Mendean aurki dezakegu, honako hiru ideia hauen inguruan: gatazka belikoen biktimentzako asistentzia, horien babesa tresna juridikoen bitartez, eta horien egoerari buruzko testigantza.

Jada XX. Mendean, humanitarismoaren hasierako kontzeptua bilakatu egin zen aktore eta egoera berriak eransteko; era horretan, ekintza humanitarioak mota askotako hondamendietara zabaldu zuen bere jardun-eremua, ez soilik gatazka belikoetara, eta Gurutze Gorriaren Nazioarteko Batzordearekin batera, gobernu kanpoko erakundeak agertu ziren.

Gero, Ruandako edo Balkanetako krisien pareko krisi handien ondorioz, ekintza humanitaria zalantzan jartzen hasi ziren, potentzia handien politika-ekintzarik ezaren

alternatiba gisa erabiltzen zutelako. Horren ondorioz, azken urteotan ekimen batzuk agertu dira arlo humanitarioan, honako hauek esaterako: *Gurutze Gorriaren eta Ilargierdi Gorriaren Nazioarteko Mugimenduak eta Gobernu Kanpoko Erakundeek hondamendi-kasuetarako sorospenari lotuta ezarritako Jokabide Kodea, edo Esfera Proiektuaren Gutun Humanitarioa*. Ekimen hauek ekintza humanitarioaren esentzia eta inspiratzen duten printzipio etikoak gorde nahi dituzte, zeregin humanitarioaren gida moduan eta praktika onen iturri gisa, indibidualak zein antolamenduzkoak.

Ekintza humanitarioa arautzen duten printzipioak honako hauek dira:

- **Gizateria:** Pertsona guztien eskubidea beren sufrimendua saihesteko eta arintzeko laguntza eskuratzeko.
- **Inpartzialtasuna:** Pertsonen premien arabera eskaini behar da asistentzia, baldintzarik gabe eta bereizkeriarik gabe.
- **Independentzia:** Eragile humanitarioek ez dute zerikusirik izan behar interes ekonomikoekin eta politikoekin.
- **Unibertsaltasuna:** Hondamendien eraginpeko pertsona guztiek arreta merezi dute, beren kondizioa kontuan hartu gabe, eta munduko edozein tokitan.
- **Neutraltasuna:** Gatazkaren alderdien lekuan parte hartzetik abstenitzea. Ez du neutraltasun intelektualik inplikatzeko, baizik eta modu neutralean jardutea.
- **Onartzea:** Pertsonen arreta emateko horien onospena eta parte-hartzea behar da, inposaketak saihestuz eta beren kultura errespetatuz.
- **Lekukotza:** Biktimen eskubideen defentsarako funtsezko zati gisa.

Printzipio hauek inplikazio praktiko batzuk eragiten dituzte, honako hauetan laburbiltzen direnak: biktimen sarrera librean, premiak inpartzialtasunez ebaluatzeko aukeran, jardueren gainbegiratze librean, eta emandako asistentziaren hurbiltasunean eta proportzionaltasunean. Oro har, "gune humanitarioa" osatzen dute.

Hain zuzen ere, hondamendiaren (edo krisialdi humanitarioaren) testuingurua da ekintza humanitarioa definitzen duen elementua eta ekintza humanitarioa garapen-lankidetzaz bereizten duen elementu bereizlea. Hondamendi-kontzeptuak bilakaera interesgarria izan du; jada ez da naturaz gaindikoa edo naturako fenomenotzat hartzen, baizik eta gizarte-fenomenotzat; izan ere, egiaztatu egin da ez behar berberak ondorio desberdinak izan ditzakeela komunitate eta gizarte-talde desberdinetan, garapen-mailaren arabera eta gizarte baten kohesio-mailaren arabera. Hortaz, hondamendiak desegituratze sozial eta ekonomikoko prozesuak dira, eta elikagaien eta sanitarearen baldintzetan kalte handia eragiten dute, baita heriotza-tasa handitu ere.

Ildo honetan, azpimarratu beharra dago hondamendien arrazoi nagusia naturaren zorigaitz bat edo gatazka armatu bat den arren, hondamendiaren inpaktu biztanleriaren *kalteberatasun*-mailak zehazten du; hau da, baliabide material, sozial eta psikologiko eskasak dituzten komunitateek ezin dituzte martxan jarri katastrofeak gainditzeko eta hondamendiak gertatzea saihesteko gai diren *aurre egiteko estrategiak*.

Biztanleriaren kalteberatasuna nagusiki egiturazko faktoreen ondorioa dela aintzat hartuta, egungo ikusmoldeen ustez hondamendiak ez dira garapen-prozesuen etendura anomalo eta puntual bat, baizik eta garapen-eredu jakin baten porrota adierazten dute, biztanleriaren zati handi baten kalteberatasuna izanik ezaugarri nagusia. Hondamendiak selektiboak dira, gizarte-ikuspuntua bati dagokionez: gehien bat biztanleria-sektore kalteberenengan dute eragina, eta oso gutxitan dute eragina boteretsuenengan. Gatazka armatuko testuinguruetan ere, gizarte-polarizazioa areagotzen dute, eta biztanle kalteberenak beren baliabide eskasak galtzeko bide bihurtzen da. Horri dagokionez, ezinbestekoa da azpimarratzea generoaren arabera hondamendiek inpaktu desberdina dutela. Biztanleria kalteberenaren erdia emakumeak dira, eta, beraz, inpaktua handiagoa da horiengan. Are gehiago, kontuan izan behar da emakumeek bereizkeria anizkoitza pairatzen dutela, hau da, emakume izateagatik eta desberdintasuneko egoeran dagoen kolektibo bateko kide izateagatik.

Ikuspegi hori bereziki ikus daiteke Larrialdi Politiko Konplexuen kasuan, izaera sistemikoko krisialdi humanitario larrietan, haien egitura ekonomiko eta estatalen porrotaldia ezaugarri nagusia izanik. Horietan, biztanleak gatazka armatuaren ohiko helburu bilakatu dira, eta horrek suntsipen- eta heriotza-tasa handiak ekartzen ditu, baita Giza Eskubideak eta Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioa sistematikoki urratzea ere. Nabarmentzekoa da emakumeen eskubideen urratze sistematikoa testuinguru hauetan: beren sexu-eskubideen aurkako urratzeak pairatzeko kalteberatasun-maila handiagoa dute emakumeek, eta askotan gerrarako arma gisa erabiltzen dira horiek.

Azken batean, gaur egun ekintza humanitarioa gauzatzen den eszenatoki ohikoenak eta larrienak indarkeria armatuko testuinguruak dira. Horrek galdera kontzeptual eta operatibo berriak sortzen ditu, besteak beste printzipio humanitarioak babestea eta ekintza humanitarioa bakea eraikitzeko tresna baliagarri gisa erabiltzea.

Hortaz, adierazi dugunez, biztanleriaren kalteberatasuna hondamendien eraginaren funtsezko faktorea bada, ekintza humanitarioa ezin da mugatu krisialdi humanitario baten ondoriozko premiak puntualki arintzera. Aldiz, etorkizuneko garapen baterako oinarriak ezartzen lagundu behar du, kalteberatasunak gutxituz, eta emakumeen eta gizonen ahalmenak handituz.

Hain zuzen ere, kontua ez da ekintza humanitarioaren helburua hondamendiaren aurreko egoerara itzultzea denik, baizik eta biztanleriaren aurre egiteko estrategiak indartu behar ditu, eta, aldi berean, erakundeen erantzuteko mekanismoak ere indartu behar ditu. Hondamendi naturalen kasuan, laguntzako, birgaitzeko eta garapenerako faseen kronologiak zentzua izan dezakeen arren, ez da gauza bera gertatzen gatazka armatuen kasuan edo larrialdi politiko konplexuen kasuan. Hortaz, kasu gehienetan, ekintza humanitarioaren eta garapenerako lankidetzaren artean lotura *–konektibitatea–* jardun-esparru integral eta iraunkor batean gauzatu beharko da, bertan esku-hartzeak aldi berean konbinatuz: epe laburreko ekintza komunitariokoa, epe erdirako birgaitzerakoa, eta epe luzerako garapenerakoa.

5.1.1 Ekintza humanitarioaren Helburua definitzea

Aurreko guztia kontuan hartuta, Eusko Jaurlaritzak bultzatutako ekintza humanitarioaren **helburua** honako hau da:

Bizitza salbatzea, sufrimendua arintzea, giza duintasuna babestea, eta hondamendien eraginpeko pertsonen eskubideak babestea, etorkizuneko garapenerako oinarriak ezarriz, giza eskubideak sustatuz, eta bakearen eraikuntza sustatuz, kalteberatasuna murriztuta eta biztanleriaren gaitasunak handituz.

Helburu horren ezarpenetik ondorioztatzen dira Ekintza Humanitarioaren politikaren ezaugarriak:

- Hondamendien eraginpeko biztanlerien premietan eta printzipio humanitarioetan oinarritzen da; ez dauka zerikusirik inolako interesekin, eta biktimen premiek araututako eta erakunde humanitarioek osatutako gune humanitario independente bat egotea errespetatzen du.
- Bere gain hartzen du eskubideen ikuspegia, non esku-hartzeak pertsonen giza eskubideak eta Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioa betetzeko, sustatzeko eta babesteko diseinatu diren.
- Arlo honetan ezarritako legezko arauak eta jokabide-kodeak betetzen ditu. Giza eskubideei buruzko nazioarteko legediaren^{xx}, Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioaren^{xxi}, errefuxiatuen eskubideen^{xxii} eta jokabide-kodeen gaineko jarraipena nahitaezkoa da testuinguru honetan, non ezaugarri nagusia horiek guztiak geroz eta gehiago urratzen diren krisialdi humanitario handiak diren.
- Integrala eta aurreratua da, eztabaida teoriko garaikideenak gaineratzeari dagokionez, eta ekintza humanitarioaren ikuspegi zabalago bat hartzeari dagokionez; ekintza humanitario honek hainbat sektore-arlo barnean hartzen ditu, eta ez da ikuspegi murriztuenera mugatzen, larrialdiko laguntza dela ulertzen baitu. Gainera, ekintza humanitarioa epe ertaineko eta epe luzeko helburuekin lotzen da, hala nola garapena, giza eskubideak eta bakearen eraikuntza.
- Koherentea da Planaren gainerako arloekin, helburu komunekin osagarritasuna egon dadin.
- Sendoa da, Lankidetzak Legeak urte anitzeko eta urteko plangintzen barruko tresna gisa aitortu duelako ekintza humanitarioa.

5.1.2.- Ekintza humanitarioaren zehar-lerroen definizioa

Planak bultzatutako ekintza humanitarioen zehar-lerroak honako hauek dira:

5.1.2.1.- Tokiko ahalmenak indartzea eta kalteberatasuna murriztea, konektibitate-irizpideari jarraituz

Arestian adierazi dugunez, puntualki erantzun bat ematera mugatu ordez, etorkizuneko garapenerako oinarriak ezartzeko helburua duen ekintza humanitarioaren aldeko apustua gauzatzeko, kalteberatasunak murriztu behar dira eta tokiko biztanleriaren

gaitasunak handitu. Are gehiago, biztanleria horrek baliabideak, jakintzak eta antolamenduzko prozedurak dituenean, indartu behar diren aurre egiteko estrategiak eraikitzeko. Ildo honetan, ekintza humanitario guztiek kalteberatasunak eta gaitasunak aztertuta hasi beharko liriateke. Azterketa hori genero-ikuspegi batean oinarritu behar da, tokiko biztanleriari buruzko informazio al bait osatuena lortze aldera. Genero-ikuspegia gaineratzea lagungarria da honako hauek identifikatzeko: emakumeen eta gizonen kalteberatasun-maila, bizirauteko estrategiak, eta garatutako gaitasunak; al bait ongien erantzun ahal izateko.

Bestalde, ekintza humanitarioaren eta garapenerako lankidetzaren arteko konektibitatearen edo loturaren oinarria hondamendiei buruzko kontzeptu berria da; izan ere, hondamendiak egiturazko faktoreak direla aintzat hartzen badugu, ezin dira asistentziako esku-hartzeekin konpondu bakarrik. Nolanahi ere, konektibitatea helburu ona den arren, ezin da esku-hartze humanitario guztiei eskatu beharreko baldintza bihurtu; izan ere, konektibitatea gertatzen ez bada ere, hondamendien eraginpeko biztanleriek printzipio humanitarioen arabera asistentzia jasotzeko eskubidea dute.

5.1.2.2.- Biztanleriaren parte-hartzea eta errealitate soziokulturalera egokitzea

Ekintza humanitarioko proiektu askotan biztanleriaren parte-hartzea oso txikia da, hondamendiei oso azkar erantzun nahi zaielako. Hala ere, arrazoi oso garrantzitsuak daude biztanleriaren parte-hartzea sustatzeko, eta are gehiago ekintza humanitarioaren ikuspegi integral batean oinarrituta jarduten bada: komunitateak dira hondamendiei erantzuten dieten lehenengoak, eta ezinbesteko premiak ezagutzen dituzte, baina, era berean, parte-hartzeak proiektuen iraunkortasuna indartzen du, tokiko egiturak izango baitira etorkizunen kudeatuko dutenak. Gainera, parte-hartzeak segurtasuna handitzen du eta sarrera errazten du, konektibitatea sustatzen du, eta eraginpeko biztanlerien barruko talde marjinauenek beren ideiak adieraztea bultzatzen du. Oso garrantzitsua da emakumeen parte-hartzea babestea eta bermatzea, zailtasun espezifikoak baitituzte gune publikoetan baldintza berberetan parte hartzeko eta erabakiak hartzeko.

Biztanleriaren parte-hartzea gauzatzeko alde aurreko baldintza horien inguru soziokulturala errespetatzen da, eta, beraz, kontuan hartu beharko dira elikadura-jarraibideak, tabuak, tradiziozko lidergoak eta abar.

5.1.2.3.- Babesa, testigantza eta bake-eraikuntza

Babesa ekintza humanitarioari datzekion elementua da. Babes gisa, giza eskubideei, errefuxiatuei eta Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioari buruzko tresna juridikoen arabera pertsonen eskubideen guztizko errespetua bermatzeko jardura guztiak uler daitezke. Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioari dagokionez, honako talde hauei aplikatzen zaie: biztanleria zibila, gerra-presoa, errefuxiatuak eta desplazatuak, langile humanitarioak, sanitarioak, erlijio-langileak eta kazetariak.

Eragile humanitarioek babesarekin lotutako hainbat eremutan jardun dezakete: eskubideen ikuspegiarekin egindako asistentzia humanitaria, langile humanitarioen presentzia eta laguntza, giza eskubideen egoeraren jarraipena eta hedapena, eta Nazioarteko Zuzenbide Humanitaria eta "advocacy" edo testigantza. Azken honen helburua da iritzi publikoei eta aktore politikoei (tokiko gobernuak eta nazioartekoak, nazioarteko erakundeak) informazioa ematea, sentsibilizatzea, eragitea edo presio egitea, hondamendi baten eraginpeko biztanleriak pairatzen duen arrisku-egoerari, babesik ezari eta eskubideen urratzeari buruz.

Azkenik, gatazka belikoen testuinguruan, ekintza humanitarioak bakearen eraikuntzan lagundu beharko luke, bakearen aldeko tokiko gaitasunak indartuta. Hori lortzeko, agintaritzak moralak duten eta gatazketatik kanpo egon diren taldeak edo sektoreak indartu ditzakete, hala nola tradiziozko liderrak, emakume-taldeak, elizak eta abar; era berean, gizarte zibila eta tokiko erakundeak antolatu eta mobiliza ditzakete, giza eskubideen eta Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioaren defentsarako jarduerak sustatzeko.

5.1.2.4.- Genero-berdintasuna

Plan honek genero-ikuspegia bere gain hartu du jardun-eremu bakoitzaren zehar-lerro gisa, esku-hartzeak genero-eraketarako neutralak ez direla aintzat hartuta. Ildo honetan, Ekintza Humanitarioaren helburua guztiz koherentea da ikuspegi honekin.

Larrialdiko laguntzaren ikuspuntu mugatuago eta tradizionalago batean oinarrituta, emakumeak modu mugatuagoan gaineratu ahal izan diren arren –laguntzaren efizientziari eta eraginkortasunari dagokionez–, ekintza humanitarioak egiturazkoagoa den beste ikuspegi bat sartzeko aukera ematen du. Genero-teoriak sakonki aztertzen ditu kontzeptu batzuk, honako hauek esaterako: *kalteberatasuna*, *aurre egiteko estrategiak*, *gaitasunak*, *parte-hartzea*, *ahalduntzea*. Gainera, ekintza humanitarioaren botere eraldatzailearen ideian oinarritzen da, kontua ez baita "normaltasunera itzultzea" edo hondamendiaren aurreko egoerara itzultzea, baizik eta biztanleriaren gaitasunak indartzea eta kalteberatasun-maila murriztea. Planteamendu hauetan argi ikusten da bere botere eraldatzaile osoan oinarrituta landu daitekeela generoa.

Horretarako, ezinbestekotzat jotzen ditugu emakumeekin egindako ekintza espezifikoak, alde batetik, eta genero-zeharkakotasuna, beste aldetik. Kontua zera da, genero-ikuspegia ekintza humanitarioko eragile eta fase guztietan gaineratzea. Esku hartu behar den zonalde zehatzetan emakumeen eta gizonen egoerari eta zereginei buruzko informazioa emango diguten genero-diagnosiak egitea oso garrantzitsua da.

Era berean, oso garrantzitsua da prozesu osoan emakumeen parte-hartzea bermatzea. Eta, azkenik, jardunen inpaktua ebaluatzea, genero-ikuspuntuan oinarrituta. Esku-hartze humanitarioek partida-arazo hauek askotan pairatzen dituztela egia bada ere (larritasuna, diagnosi azkarrak, plangintzarik eza), gure ustez, genero-berdintasunaren aldeko konpromisoa genero-berdintasunaren aldeko ekintza estrategikoko planen bitartez erakundeek barrualdera lantzen duten zerbait bada, errazagoa izango da kanpoalderako ekimenetan txertatzea, eta, kasu honetan, Ekintza Humanitarioarekin lotutako ekimenetan.

5.1.2.5.- Iraunkortasun ekologikoa

Proiektu humanitarioek ingurumenean duten inpaktua oro har txikia den arren, operazio humanitario handien kasuan ingurumenean ondorio negatiboak eragin daitezke. Nolanahi ere, esku-hartze humanitario guztiek honako alderdi hauek aurreikusi behar dituzte: hondakin solidoak kanporatzeko sistemak, hondakin-urak kanporatzeko sistemak, eraikuntzetan eta azpiegiturretan erabilitako materialak, aldi beterako babesguneek eragindako erosioaren tratamendua, edo erregaien eta pestiziden erabilera.

5.1.3.- Ekintza humanitarioaren Sektore Arloen definizioa

Planak honako sektore-arlo hauek ezartzen ditu:

5.1.3.1.- Larrialdiko laguntza

Hondamendien eraginpeko pertsoneri oinarrizko ondasunak eta zerbitzuak hornitzeari dagokio. Hauxe izan da ekintza humanitarioaren ikuspegi klasikoenaren eta mugatuaren arlo nagusia. Ondasun eta zerbitzu horien larritasunaren araberako lehentasun-ordena honako hau da: lehenik, berokia, babesgunea eta oinarrizko lanabesak; bigarrenik, edateko ura eta saneamendua; eta, azkenik, elikadura. Gainera, urarekin eta saneamendurekin lotutako esku-hartzeek lehentasuna dute hondamendien testuinguruan, hala ikuspegi sanitarioari dagokionez, nola elikadurari dagokionez. Ezinbestekoa da kontuan hartzea eskaintzen diren ondasun eta zerbitzu guztiek egokiak izan behar dutela beti, testuinguru soziokulturalari dagokionez. Eta, era berean, kontuan izan behar da hondamendien inpaktua desberdina dela emakumeen eta gizonen artean. Ildo honetan, emakumeen eta gizonen berehalako premia batzuk parteka ditzakete, baina premia asko desberdinak dira. Hortaz, biztanleria osoaren premiak betetzeko moduari buruzko azterketa bat egin behar da, genero-ikuspegiari jarraiki.

5.1.3.2.- Errefuxiatu eta desplazatuentzako asistentzia luzatua

Errefuxiatuak eta desplazatuak eraginpean dituzten krisialdi humanitarioak denboran luzatzen dira, eta, beraz, jardun humanitarioak ezin dira mugatu larrialdiko ondasunak eta zerbitzuak hornitzera. Beraz, arlo sanitarioan honako hauei buruzko programak ezarri behar dira: oinarrizko osasuna eta osasun komunitarioa, sexu- eta ugalketa-osasuna, ama-haurren osasuna, hezkuntza sanitarioa, arreta psikosoziala, eta abar. Horretaz gain, krisialdia denboran luzatzen dela aintza hartuta, errefuxiatuei eta desplazatuei asistentzia emateko esku-hartzeek biztanleriaren gaitasunak indartu behar dituzte, honako hauen bitartez: haurrentzako oinarrizko hezkuntza emanaz, helduen lanbide-heziketa, jarduera ekonomikoen sustapena, etab.

5.1.3.3.- Hondamendiak arintzea

Hondamendi baten testuinguruan horren larritasuna arintzeko egiten diren esku-hartzeak dira, biztanleriaren kalteberatasunaren arrazoen gainean jardunez eta etorkizuneko garapena hasi ahal izateko oinarriak ezarriz.

Era horretan, biztanleriaren diru-sarrerei eta erosahalmenari eusteko, beren ondasunak saltzearen ondoriozko deskapitalizazioa saihesteko, beren bizilekuetan geratzea bermatzeko, eta hondamendiari aurre egiteko gizartearen eta tokiko erakundeen gaitasunak indartzeko, jardunak egin daitezke; honako hauek esaterako: elikagaien aldeko lan-programak, nekazal inputak hornitzea, tokiko zerbitzu publikoak indartzeko jarduerak, dikeen edo terrazen moduko azpiegiturak eraikitzea, etab.

5.1.3.4.- Hondamendien aurrean prestatzea

Hondamendi baten testuinguruan egiten diren eta hondamendiak saihesteko, horien alerta emateko eta azkar eta eraginkortasunez erantzuteko helburua duten esku-hartze guztiak hartzen ditu barnean, hala nola kalteberatasun-mapak lantzea, alerta goiztiarreko sistemak martxan jartzea, kontingentzia-planak formulatzea, profesionalen prestakuntza-planak, etab.

5.1.3.5.- Hondamendiak eta gatazka armatuak prebenitzea

Prebentzioko jardunak ere egin daitezke hondamendi-prozesu baten barruan edo hurbil dagoen hondamendi baten aurrean. Katastrofe naturalen kasuan, epe luzerako neurriak dira, eta horixe da hondamendiak arintzeko jardunetatik bereizten dituenak, garapen-praktikak, hirigintzakoak eta ingurumena kalte ditzaketen praktikak saihesteko diseinatuak daude. Besteak beste, honako hauek aipa daitezke: mendi-hegalak baso-berritzea alubioiak saihesteko, lerradurak izan ditzaketen lursailetan eraikitzea debekatzea, etab.

Gatazken kasuan, gatazka estali bat gertatzea saihesteko edo, gatazka jada hasi bada, indarkeria irekiko egoera batera mugatzeko ekintzak barnean hartu lituzke, gobernuz kanpoko "hiritarren diplomaziako" ekimenen bitartez, bitartekotza-lanen bitartez, giza eskubideen urratzei buruzko txostenak landuz, etab.

5.1.3.6.- Hondamendi ondoko hasierako birgaitzea

Birgaitzea askotan "zonalde grisa" gisa ikusten da, ekintza humanitarioaren eta garapenerako lankidetzaren arteko tarteko gune gisa, eta, beraz, ez da erraza horien arteko muga zehaztea. Oro har, esan daiteke ekintza humanitarioaren barruan epe laburrerako hasierako birgaitze-jardunak bakarrik sar daitezkeela, hala nola errefuxiatuen eta desplazatuen itzulera, diru-sarreraren iturriak berreskuratzea eta oinarritzko zerbitzuak martxan jartzea bermatzeko beharrezkoak diren jardunak. Nolanahi ere, azpimarratu beharra dago birgaitzearen helburua ez dela krisialdi humanitarioaren aurreko egoerara itzultzea, baizik eta kalteberatasunen eta gaitasunen gainean eragin behar duela, beste hondamendi baten arriskua murrizteko. Oso garrantzitsua da emakumeak barne hartzea birgaitze-lan hauetan, definitzen direnetik garatzen diren arte. Kalteberatasun eta bereizkeria handieneko egoeran dagoen biztanleria-zatia direla aintzat hartuta, ekintza espezifikoa sustatu behar dira horien gaitasunak garatzeko. Hain zuzen ere, hori funtsezko elementua da bidezkoagoa, berdintasunekoago eta beste hondamendi baten arriskuaren aurrean "indartsuago" den testuinguru bat sortzeko.

5.2.- V.2 azpi-jarraibidea: Tresnen esparru koherentea ezartzea

Eusko Jaurlaritzaren ekintza humanitarioko politikak honako bi tresna hauek ditu bere esku: etengabeko finantziazio-linea bat eta ekintza humanitarioko esparru-estrategien finantziazio-linea bat.

Bi tresnen helburua da ekintza humanitario integral eta aurreratu bat bultzatzea, euskal lankidetzak –nagusiki erreakzio izaerako eta noizean behingo larrialdietarako laguntzetan oinarritua– orain arte garatu dituenak baino zabalagoak diren jardun-ildoak barnean hartzen dituenak.

Tresna horiek diseinatzeko oinarriak izan dira ekintza humanitarioaren testuingurua Euskal Autonomia Erkidegoan eta horren eragile sustatzaileen testuingurua. Testuinguru horren ezaugarri diren faktore nagusiak honako hauek dira: alde batetik, aurrekontu-zuzkidura egonkorra, hurrengo azpi-jarraibidean ezartzen den moduan, eta, beste aldetik, gobernu autonomiko baten larrialdiko operazioetarako neurri logistiko gutxi izatea, eta baita euskal erakundeen espezializazio eskasa ekintza humanitarioari dagokionez. Ildo honetan, funtsean garapenerako lankidetzan lan egiten duten erakundeak dira gehienak, eta horietako batzuk ekintza humanitarioak egiten dituzte jada lanean ari diren zonaldeetan hondamendi bat gertatzen denean. Horietako gutxi batzuek bakarrik gauzatzen dute ekintza humanitarioa soilik edo biak bateragarri egiten dituzte.

5.2.1.- Etengabeko finantziazio-linea

Urtean gertatzen diren krisialdi humanitarioei aurre egiteko deialdia da, eta mota guztietako erakundeetara zuzentzen da.

Etengabeko finantziazio-linean oro har larrialdiko laguntza-proiektuak zein ekintza humanitarioko proiektuak aurkez daitezke, errefuxiatuen eta desplazatuen asistentzia luzatuan hasi, eta hondamendi ondoko hasierako birgaitzera arte. Larrialdiko laguntzek sei hilabeteko iraupena izan behar dute gehienez ere, eta ekintza humanitarioek urtebeteko iraupena, eta bien kasuan, diru-laguntzaren gehieneko zenbatekoa 200.000 eurokoa izango da.

Arestian adierazi dugunez, Eusko Jaurlaritzaren ekintza humanitarioko politikaren indar nagusia zentzu orokorreko ekintza humanitarioko esku-hartzeak direla adierazten duten faktoreak dauden arren, printzipio humanitarioak errespetatzeak hondamendien eraginpeko biztanleriek asistentzia izateko eskubidea dutela dakar. Horren ondorioz, tresna horiek ezin dira alde batera utzi esku-hartze hauetan.

5.2.2.- Esparru-estrategien finantziazio-linea

Deialdi hau arlo humanitarioan espezializazio-maila handiena duten erakundeentzat pentsatu da. Deialdian parte hartzeko, erakundeak ekintza humanitarioko Plan Estrategiko bat izan behar du, proposatutako esku-hartzea barnean hartzen duena. Deialdiak ekimen bat edo gehiago izan ditzake, eta bi urteko iraupena izan behar du gehienez ere. Estrategia bakoitzeko eman daitekeen diru-laguntza 500.000 eurotik 800.000 eurora bitartekoa da.

Plan estrategikoak egitea euskal erakundeek arlo humanitarioan dituzten gaitasunak handitzeko bide bat da, eta baita finantzaturiko proiektuen eta gai humanitarioei buruz euskal biztanleria sentsibilizatzeko lanaren arteko lotura handiagoa lortzeko bidea ere.

Era horretan, proiektu handiak finantzatzeko aukera emango duen zenbateko esanguratsuko fondoez hornitutako deialdi egonkor bat egoteak aukera emango die erakundeei plangintza handiagoa izateko, eta krisialdi humanitarioen kasuetan erantzuteko aurkitzen dituzten zailtasunak gainditzeko; izan ere, estaldura mediatikorik ez izatearen ondorioz, eragin txikiagoa dute hiritarren artean eta baliabide gutxiago mobilizatzen dituzte.

5.3.- Azpi-jarraibidea: Ekintza Humanitarioaren aurrekontua sendotzea

Eusko Jaurlaritzaren ekintza humanitarioko politika sendotzeko eta indartzeko konpromisoa ezingo litzake gauzatu aurrekontu-esleipen egokia eta egonkorra izango ez balitz.

Horregatik, Planak fondo banagarrien guttizkoaren % 6tik % 9ra bitarteko finantziatio-ehuneko adierazle bat ezarri du.

Era horretan, Planak *garapenerako lanikidetzari* lehentasunezko jardun-eremu gisa eusten dion arren, aldi berean ekintza humanitarioko politika sendotu du, betiere aurreko jarraibidean azaldu den zentzu zabalean ulertuta.

Era horretan, eta tresna berrien bitartez, *konektibitate*-irizpidea praktikan jar daiteke, eta horrek aukera ematen du egiturazko pobrezia integralago bat egiteko eta lankidetzako eta ekintza humanitarioko hainbat estrategia osagarri definitzeko.

VI. jarraibidea: Garapenerako Hezkuntzaren inpaktuan aurrera egitea

Garapenerako Hezkuntza funtsezko lan-gunea da erantzukidetasun-printzipioan oinarritutako egiturazko lankidetzaz gauzatzeko; izan ere, egungo errealitatearen ikuspegi eta ekintza global eta historiko batean oinarrituta bakarrik lor daiteke emakume, gizon eta herri guztientzako giza garapeneraren erronka handia gauzatea.

Beraz, jarraibidean jasotzen den plangintzan –ahalegin kolektibo baten emaitza–, garapenerako hezkuntzaren ekintza eraldatzailearekiko konfiantza ezartzen da, bidezko giza garapen iraunkor eta globala bultzatzeko funtsezko proposamen gisa.

Plangintza hori baterako hausnarketa-prozesu parte-hartzaile baten emaitza da, Eusko Jaurlaritzaren Garapen Lankidetzarako Zuzendaritzak bultzatua, eta bertan honako hauek parte hartu dute: GGKEak, hezkuntzako eta lankidetzako instituzio publikoak, gizarte-komunikabideak, instituzio publikoak eta arlo akademikokoak.

Metatutako esperientzia honen eta beste batzuen emaitza gisa Garapenerako Hezkuntza estrategia bat formulatu da, honako azpi-jarraibide hauek proposatzen dituenak:

- 1) Garapenerako Hezkuntzarentzat ereduak esparru teoriko bat definitzea
- 2) Estrategikoki eragitea GGKEen eta Gizarte Mugimenduen Indartze Instituzionalean
- 3) Aurrekontu-bide egonkor bat finkatzea Garapenerako Hezkuntzarentzat

6.1.- VI.1 azpi-jarraibidea: Garapenerako Hezkuntzarentzat ereduak esparru teoriko bat definitzea

6.1.1.- Garapenerako Hezkuntzaren helburua

Garapenerako hezkuntza hezkuntza-proposamen bat da, epe ertain/luzerako munduan dauden ezberdintasunak eragiten dituzten egiturazko kausak ulertzeko prestatuko duen proposamena, alegia, betiere prestakuntza horren arrazoia honako hau izanik: sortu diren gizarte-ereduak eraldatzeko konpromisoa eta inplikazioa sustatzea

Hortaz, balioetan, jarreretan eta ohituretan berrezteko prozesua da, egun nagusi den eta pobrezia-errudunak pobreak berak direla dioen eredu zalantzan jarri eta gizartea, oro har, aldatzearen alde egiten duena, ingurumena eta gizon-emakume guztion eskubideak (zentzurik zabalenean hartuta) errespetatuko dituen mundua lortzearen; prozesu horretan, parte-hartzean eta lankidetzan oinarritutako metodologiak behar dira.

Erronka horri aurre egiteari begira, zeregin horietan soilik arituko diren baliabideak behar dira, jendearen helburu nagusia berriro ere garapena izatea lortuko duen *aktibismoa* sustatzeko, eta norberaren, tokiko, nazioko eta nazioarteko jardueren arteko loturak eta elkarren mendekotasunak bilatzeko, mundu mailako harremanetarako beste esparru bat lortzearen.

Hiru dira markatutako helburuan nabarmentzen diren garapenerako hezkuntzaren dimentsioak –kultura, politika eta pedagogia–:

- **Kulturaren dimentsioa:** Gizartearen ezaugarriak nahiz gizarte horrek ugaltzeko eta garatzeko baliatzen dituen tresnak baldintzatzen dituzten elementuak honako hauek dira: eredu politikoa, baldintza ekonomikoak, erlijioa eta kultura. Horrela, tokiko kulturen edo dena delako kulturen mundu-ikuskera azaltzen duten elementuak txertatu beharko ditu hezkuntza demokratikoak, kultura bakoitzaren beharretara egokitutako programak garatuta.

Elkar ezagutzen, elkarbizitzen eta elkar errespetatzen ikasteko aukera ezin hobea dugu kultur aniztasunarekin. Kultura folklore hutsarekin identifikatzea saihestu behar dugu, baita kultur nortasunen balioa handitzea ere. Izan ere, kontzeptu dinamikoa baita *kultura*, eta kontzeptu hori ulertzea eta errespetatzea garrantzitsua da, bai, baina kritikatzeko aukera ere izan behar da, kritikatu behar denean; kasu askotan, kultur jardueren aitzakiapean, botere-harreman asimetrikoak ezkututzen dira, mendekotasuneko eta bazterketako jarrerak natural bihurtuz eta justifikatuz (talde etnikoak baztertzea, emakumeen edo haurren aurkako indarkeria, adinekoen bakartzea eta bazterketa, eta abar). Hori horrela dela, kulturaren dimentsioan aintzat hartu behar da kultur nortasunaren defentsa, baina beti giza eskubideen esparruaren barruan.

Berdintasunean eta askatasunean oinarrituriko hezkuntzaren bitartez, kultur errealitatearekiko sentikorra den jendea prestatzen da, berezko ezagutza eta lantzen ari diren errealitate jakinari egokituriko ezagutza sortzen duten hezitzaileak, inguruko kolektiboekin eta erakundeekin lan-sareak sortzeko prest daudenak, informazioa elkartrukatzeko prest, baita taldetan lan egiteko prest ere, modu parte-hartzailean. Eta hori guztia, bizi garen munduaren ikuspegi globala eta kritikoa alde batera utzi gabe.

- **Dimentsio politikoa:** Sistema edo gizarte jakin bateko balioak eta jarrerak sortzen eta errepikatzen ditu hezkuntzak. Beraz, jendea bizitzarako prestatzean hautaturiko eduki eta metodo garrantzitsuenak zein diren arabera, prestakuntza hori modu batekoa edo bestekoa izango da. Horrela, ekintzaren funtsezko oinarria hezkuntza da, eta *status quo*ari eusteko edo gizartea aldatzeko balia daiteke. Eduki teknikoei garrantzi handiagoa ematen bazaie eduki etikoei baino, sistema horretako subjektuak oso eraginkorrak eta sistemarekin ados daudenak izango dira, baina ziurrenik, gizartearen eta politikaren arloan, ez oso aktiboak.

Bultzatu nahi den garapenerako hezkuntzaren proposamenean, egun nagusi den eredia zalantzan jartzen da eta gizarte-aldaketaren alde egiten du. Gizartea eraikitzeko balio merkantilizatuari buelta eman eta hezkuntzari eduki iraultzailea eman nahi diogu, hots, egun nagusi den mendebaldeko zibilizazio-ereduak eragin duen garapen bidegabearen inguruan, gizarte-kontzientzia piztea lortu nahi dugu, eredu hori aldatzeko gaitasuna indartzeko. Horretarako,

ezinbestekoa da munduko ezberdintasunak eragin dituzten arrazoiak ezagutzea eta informazioa dagokion testuinguruan kokatzea, hartzaileei egokituta eta kontsumoko, aisialdiko eta parte-hartze politikoko aukera berriak proposatuta.

- **Dimentsio pedagogikoa:** Garapenerako hezkuntzak alderdi pedagogikoa ere badu, metodo eta baliabide egituratuz baliatzen baita giza garapen iraunkorra sustatuko duten subjektu berriak eraikitzeke. Kasu askotan, ezagutza transmititzeko erabili izan diren metodoak norabide bakarrekoak izan dira, eta menderatze-sistemak errepikatzen dituztenak. Hala ere, garatu izan dira proposamen askatzaileak, sortzaileak, eraikitzaileak eta parte-hartzaileak ere.

Garapenerako hezkuntzak hainbat diziplinen iturrietatik edaten du, hala nola, soziologiaren, antropologiaren edo psikologiaren iturrietatik, munduan betetzen dugun egitekoa azaltzeko kezka duten diziplinak guztiak ere, eta askotan, baita gizarte-aldaketa eragiteko kezka ere. Pedagogiarekin batera ari da garatzen garapenerako hezkuntza, eta azkeneko mendeen, ezagutzak transmititzeko moduari eta gizarte-eraikuntzari buruzko hausnarketa sakonak egin dira.

Borondate handiz, informazio alternatiboa eta solidarioa sortzeko helburua edo salaketako helburua izanik, informazio hori edo salaketa horiek transmititzeko metodologia egokiena ezagutzea edo zaintzea ahaztu egiten da, zenbait kasutan. Mundua *desikasteko* zereginen barne hartzen da hori guztia egiteko modua ere, askatasunetik, jendeari garapen orekatua ez dakarrena aztertzeke eta salatzeko prestakuntza emango dioten jardueretan eta tresnetan oinarrituta, eta, aldi berean, garapen bidezkoagoa sustatzeko eta eskatzeko gaitasuna emanez.

Hori dela eta, honako alderdi hauek indartuko dituen metodologia garatu behar da: hezkuntza-sistemak testuinguru zehatzari egokitzea; pertsonen prestakuntza ikuspegi holistiko bati jarraiki, egunerokotasunarekin ere lotuta; jakintza alternatiboa sustatzen duten teknikak eta metodoak garatzea; parte-hartze aktiboa sustatzea; epe ertaineko eta epe luzerako estrategiak definitzea.

6.1.2.- Zehar Lerroak

Proposatutako lana *haratago* eramateko zeharkako hainbat aldagai kontuan izan behar dituzte garapenerako hezkuntzako ekimenek. Aldez aurreko azterketa eta diagnosia egiten hasten denetik azkeneko ebaluazioa egiten den arte, beti barnean hartu behar dira zehar-lerro horiek, prozesu estrategikoaren parte baitira.

6.1.2.1.- Genero-berdintasuna

Ezberdintasunak eragiten dituzten egiturazko arrazoiak ulertzeko tresna gisa aurkezten da garapenerako hezkuntza. Eta egiturazko kausa horien barruan, ezin dira ahaztu emakumeen eta gizonen artean ezberdintasunak eragiten dituztenak. Gainera, garapenerako hezkuntza bidezko eta berdintasunezko aldaketa global baten aldekoa dela aintzat hartuta, genero-berdintasunaren aldeko borroka eraiki nahi den eredu sozialaren berezko parte da.

Genero-berdintasunaren aldeko borrokarako tresna gisa aurkezten den garapenerako hezkuntza-eredu hau jarraian adieraziko ditugun bi proposamen zehatzetan gauzatzen da.

Alde batetik, genero-ikuspegiaren zeharkakotasuna garapenerako hezkuntzarekin lotutako eragile, ekimen, ekintza eta abar guztietan. Garapenerako hezkuntzaren proposamenetan bereziki garrantzitsua da hizkuntza eta erabilitako materialak sexistak ez izatea. Baina, horretaz gain, genero-ikuspegia gaineratzea ikuspegi hau ekimen zehatzetan sartzeari baino askoz gehiago da. Bertan parte hartzen duten eragileak zuzenean sartu behar ditu. Oso garrantzitsua da berdintasuneko helburua elementu nagusi bihurtzea, bai erakundeen barruan, bai horien korrante nagusian. Berdintasuna lortzeko konpromisoaren oinarrian konpromiso trinko bat dago, erakundeen barrualderako lanean ikus daitekeena, genero-berdintasunaren aldeko ekintza estrategikoko planen definizioaren bitartez.

Eta bigarren proposamenari dagokionez, garapenerako hezkuntzak emakumeen ahalduzko-prozesuak agerian uzteko eta indartzeko bide bat izan beharko luke. Emakumeen gizarte-talde gisako gaitasunak eta protagonismoa indartzen dituzten prozesuei egiten diete erreferentzia, alegia, aldaketa positiboak eragiteko, bizi dituzten egoeretan eta eremu sozialean, kulturean, politikoan, ekonomikoan eta pertsonalean betetzen duten zereginetan, gizonekin alderatuta, baliabide materialen eta sinbolikoen kontrola eskuratuta.

Garapenerako hezkuntzak agerian utzi behar ditu prozesu hauek, emakumeak subjektu aktibo gisa aurkeztuta, beren borrokan eta gizartearen aldaketen protagonista gisa, alegia. Eta, beste aldetik, prozesu hauek indartu behar ditu, gune guztietan emakumeen parte-hartzea sustatuta eta Iparraldeko eta Hegoaldeko emakumeen arteko aliantzak sustatuta.

6.1.2.2.- Hegoaldeko Ikuspegia

Ekimenak garatuko diren errealitateetatik datozen lagunen jakintzak, materialak eta iritziak zuzenean hartzea adierazi nahi du *hegoaldeko ikuspegiak*. Norbera den tokikoa izanagatik, horrek ez du bihurtzen, besterik gabe, ingurune geografiko horren egoera ekonomikoan eta gizarte-egoeran espezialista, edo kultur ohituren alderdi onen eta txarren inguruko aditu; baina errealitate horri buruzko ikuspegiak eta ezagutzak globalki zabaltzen laguntzeko kontraste-elementuak ematen ditu jatorriak.

Etengabe aipatzen ditugun kolektibo horiekin elkarlanean aritzea garrantzitsua da. Garapenerako hezkuntzan eta sentsibilizazioan egindako lanaren protagonista Hegoaldeko jendearen eta erakundeen esana izango da. Ildo beretik, erronka handia dugu aurrean: prozesu osoan parte hartzeko aukera ematea Hegoaldeari, identifikaziotik hasi eta ebaluazioa egin arte, proiektua diseinatzen eta gauzatzen parte hartuta, oinarritzko demokrazia egia bihurtuz.

6.1.2.3.- Kulturartekotasuna

Lan-eremu espezifiko hori Eusko Jaurlaritzaren Inmigratio Zuzendaritzari dagokion arren, EAEn elkarbizi diren hainbat kulturen arteko harremanaren aurrean, jarrera positiboak sustatzeak zeharkako ildoan izan behar du, garapenerako hezkuntza-proiektuetan. Jarrera xenofoboak eta arrazistak sortzea saihesteko, errespetutik, tolerantziatik eta elkartasunetik abiatuta beste kulturetara gerturatzea funtsezkoa da.

Jende guztiarentzat eskubide-berdintasuna aldarrikatzen badugu eta mundu guztian onartzeko eta errespetatzeko lan egiten badugu, egun bizi dugun kulturazintasunari esker, egungo garapen-ereduaren bazterketako, pobretzeko, indarkeriako eta ezberdintasuneko prozesuen ondorioz sortzen ari diren arazoak ulertzeko beste errealitateak ezagutzeko eta elkartrukatzeko aukera ez ezik, kultura aberasteko aukera ere izan dezakegu.

6.1.2.4.- Bakea

Garapenerako hezkuntza elikatzen duten iturri nagusietako bat da bakerako hezkuntza. Munduko garapenaren arazoak eta ezberdintasunak zuzen-zuzenean indarkeriaren kulturarekin loturik daude, izan ere, baliabideak lortzeko borroka baitute oinarri Iparraldearen eta Hegoaldearen arteko gatazkek. Egundagusi den ereduaren ezaugarri diren gosea, ezberdintasunak eta bestelako bazterketa-prozesuak hertsiki loturik daude egiturazko indarkeriarekin, eta armamentismoak, fanatismoek eta lehiakortasunak indartu egiten dute indarkeria hori.

Ezberdintasunak eragin dituzten arrazoiengan heziz gero, egiturazko indarkeria horren ikuspegi kritikoa eskuratuko da, kultura berria sortuko da, non gatazkek konpon daitezkeen modu baketsuan, indarkeriarik gabe, eta ingurumena ez ezik, gizonak eta emakumeak ere errespetatuz, haien jatorria, etnia, erlijioa eta adina edozein izanik ere. Garapenaren alderdi globalak ulertzetik hasi eta bizitzaren arlo guztietan, gatazkek indarkeriarik gabe konpontzen laguntzen duten jarrerak eta balioak sustatzeraino zabaltzen da ikuspegi horren eragina. Ikasitako *jokamoldeak* errepikatu egiten dira ohiko gatazketan. Bakearen, komunikazioaren eta elkar ulertzearen aldeko jarrerak indartzeko bideak bilatu behar dira, lehia eta liskarrak sustatu beharrean, elkartasuna batik bat, edozein eremutan bazterturikoekiko elkartasuna bultzatzen duten lan-metodologiengatik bitartez.

6.1.2.5.- Giza eskubideak

Pertsona guztiak eskubideen subjektuak dira jaiotzen diren une beretik. Eskubide guztiek pertsonari atxikitako askatasuneko, segurtasuneko eta duintasuneko jarraibideak markatzen dituzte. Eskubide horiek guztiak oinarritzat eta eztaba daezintzat hartzen dira edozein testuingurutan, baina praktikan, kasu askotan, asmo-adierazpen soila baino ez dira, betearazteko mekanismo eraginkorrik ezean.

Eskubideak eta herritartasun unibertsala babesteko ikuspegi horretatik abiatu behar du garapenerako hezkuntzako ekintza orok, tolerantziako eta elkartasuneko jarrerak indartuz eta honako hauek sustatuz: bidegabekeriengatik aurrean sentimendu kritikoa, ezberdintasunak eta gutxiengoak errespetatzeko konpromisoa, eta edonoren aurrean eskubide horien betearaztea ziurtatzea.

6.1.2.6.- Iraunkortasun ekologikoa

Gure inguruko baliabideen erabilera modu kritikoan aztertzeko gaitasuna transmititu behar du garapenerako hezkuntzak, gizarte aberastuetako produkzioko eta kontsumoko ereduak berraztertuz eta erabilgarri dauden baliabideak modu arrazionalen erabiltzea sustatuz. Garapenerako hezkuntzako ekimenen bitartez, ekonomiako, politikako, kulturako, gizarteko eta ingurumeneko ereduaren elkarren mendekotasuna agerian utziko duen ikuspegi globala transmititu behar da eta ekimen horietako ekintzak ikuspegi horrekin koherenteak izan behar dute, ingurumenaren gaineko eragina ahalik eta gehien murriztuz. Ahalik eta material gutxien erabili behar da eta lekualdatzeak ere ahal diren gutxienak egin behar dira; ahal den guztietan, energia eta baliabide berriztagarriak erabili behar dira, eta berriztagarriak ez direnak birziklatzeko modua bilatu.

6.1.3.- Sektore-arloak

Plan honek garapenerako hezkuntza ikuspuntu dinamiko batean oinarritzen duen arren –eta, beraz, etengabeko definizioan–, lehenetsutako honako arlo hauek ezarri dira, zehar-lerroekin batera, jarraibidearen helburua eta dimentsioak barnean hartzen dituztenak.

6.1.3.1.- Eragin politikoa

Instituzioen politiketan eta eremuetan eragingo duten lan-prozesuak, honako hauen bitartez: herritarrak mobilizatzeko kanpainak, salaketa, jarraipena, eta nazioarteko foroaren parte-hartzea eta zabalkundea. Ere horretan, gizartearen eta politikaren arloko gatazkei behar besteko garrantzi mediatikoa ematea lortu nahi dute ekimenek, ahaztuta gera ez daitezkeen edo ahaztutakoak berriz gogora ekartzeko; erakundearen artean aliantzak egitea eta sareak sortzea nahi dute, eta gai zehatzetan konpromiso politikoa hartzeko estutzen dute.

6.1.3.2.- Berrikuntza eta sormena metodologietan

Hezkuntzako material berritzailea (hartaile diren taldeetara egokituak, tresna berriak proposatzen dituztenak) sortzea, teknologia berrien, edo irratiko eta telebistako saioren, edo kultura-produkzioaren bitartez, munduko desberdintasunen arrazoietan eta planetako elkarren mendekotasun-harremanean sakontzearen.

6.1.3.3.- Ikerketa

Elkar osatzen duten bi eremutan gerta daiteke ikerketa; honako eremu hauetan, alegia: alde batetik, garapenerako hezkuntzaren inguruko etorkizuneko azterlanak, diagnosi parte-hartzaileak eta esperientzien sistematizatzea; eta bestetik, Iparralde/Hegoalde harremanen inguruko azterlanak, harreman horiek eguneroko bizitzan duten eragina, eta gizartearen eta politikaren arloko herritarren erabakiek duten lotura aztertzeke. Bestela esateko, herrien garapen-maila desberdinaren oinarri diren harremanen egitura betikotzen duten prozesuak ezagutarazteko materiala proposatu, eta garapenaren hainbat eremu argitzen dituzten proiektuak.

6.1.3.4.- Prestakuntza

Behar bezala identifikaturiko kolektibo hartzaileen premietara egokituriko gaitzea, eta landu beharreko gaiak ongi ezagutzen dituztenen partaidetzarekin, batik bat, herrialde pobretuetatik datozenen partaidetzarekin, zenbait errealitateri buruzko testigantzak eskaini baititzaizkete. Besteak beste, garapen bidezkoagoaren aldeko lan moduetan sakontzeko tailerrak eta prestakuntza-ikastaroak, eta gizarte-bizitzaren ikuspegietatik begiratuta, hezkuntzako curriculumetan eta hezkuntza ez-formaleko taldeetako lan-programetan gai horiek sar daitezkeen sustatzea, baita gaiaren inguruko prestakuntza profesionalizatua ere.

6.1.3.5.- Komunikazio, elkartruke eta ikaskuntza kolektiboa

Solidaritate-sareak, konferentziak, jardunaldiak, topaketa eta biltzarrak, eztabaidatan, kontzeptuetan aurrera egin eta ahaleginak batze aldera; azken buruan, erakundeen eta instituzioen artean sinergiak sortze aldera, garapenerako hezkuntza eraginkorragoa lortzeko.

6.2.- VI.2 azpi-jarraibidea: Estrategikoki eragitea GGKEen eta Gizarte Mugimenduen Indartze Instituzionalean

Lortu nahi den gizarte-aldaketaren protagonista gizarteak izan behar du. Baina munduko aberastasunen bidezko banaketa lortzea helburu zabalegia eta konplexuegia da, banaka edo *gizartea* kontzeptu orokorregitik horri ekiteko; beraz, erakundeak dira pertsonengana hurbiltzeko, pertsonen ahalduntzea ahalbidetzeko edo aldaketaren egiazko eragile bihurtzeko elementu gakoa.

Horrela, garapenerako hezkuntzaren helburuak erdiesteko elementu potentzialki oso eraginkorra da ekintza-eremu horretan aritzen diren erakundeetako boluntarioak. Hala ere, oso zaila da boluntarioei eustea. Erakunde horiek normalean herrialde pobretuetan garatzen dute beren lan nagusia, eta, beraz, beren ahaleginen inpaktua urrun gertatzen da, eguneroko zereginetatik kanpo, alegia. Horretaz gain, boluntarioen dinamizazioak denbora eta horretarako prestatutako langile profesionalak behar ditu.

Indartze instituzionalaren definizio hau egin dugu Plan honetan: irabazi-asmorik gabeko erakundeetan, erakundea osatzen duten lagunek (bazkideek, boluntarioek edo liberatuek) erakundearen bizitzan parte-hartze kualitatiboa izateko egiturez hornitzeko

prozesua; erakundearen barruan izandako ikaskuntzak sistematizatzeko tresnak eskuratzea eta beste erakundeekin elkarrengaitzeko gaitasuna handitzea errazten dutenak; erakundearen estrategia eta proiektu sendoak diseinatzeko eta gauatzeko gaitasuna handitzea eragiten dutenak. Indartze instituzionala gizartea aldatzeko estrategia nagusizat hartzeko, prozesu horri lagundu eta irabazi-asmorik gabeko erakundeen lana babestu egin behar da, garapenerako hezkuntzako politiketan eragiteko erakundeen gaitasuna eta autonomia indartuta.

Ikuspegi horretatik begiratuta, erakundeetara gerturatzen direnek *desikasi* ahal izateko funtsezko gunea dira erakundeak, informazio kritikoa eta prestakuntza jasotzeko gunea, eta sorturiko informazioa, oro har, informazioaren ondoriozko hausnarketa eta gaitasun biderkatzaile eta elikatzailea (izan ere, erakundeaz elikatzen baita, aldi berean, erakundea bera indartzen duela) abiapuntu izanik, erakundea eraikiko duen kolektiboa osatzeko gunea.

Halaber, garapenerako hezkuntzari, erakundearen barruan garapenerako hezkuntzak hartzen duen tokiari, eta erakundeak berak lankidetzan betetzen duen egitekoari buruzko hausnarketan aurrera egin behar dute erakundeek, helburu argiak eta lorgarriak definituko dituzten epe ertainerako eta luzerako estrategiak ezartzeko, estrategia horien bitartez lana ebaluagarri (*ikaskuntza-sortzaile*) bihurtuz kideentzat. Hori guztia ezinezkoa izango litzateke erakundearen zereginean tartean sarturiko lagun guzti-guztiek erabakiak hartzen parte hartuko ez balute. Kideak erakundearen partaide sentiarazteko ezinbesteko elementua da parte-hartzea. Lotura hori gabe, zaila da erakundeek bizirautea eta ezinezkoa erakunde horiek dinamizatzea eta gizarte-aldaketetara egokitzea.

Ildo honetan, Plan honek prozesu jakin batzuk proposatu ditu, GGKEen eta beste gizarte-mugimendu batzuen gaitasunen indartzean zuzeneko eragina dutenak, eraldaketarako tresna estrategiko gisa.

Azken urteotan honako norabide honetan dabilzan ekimen batzuk martxan jarri dira:

- Garapenerako hezkuntzaren ekimenen finantziazioa eta ebaluazioa ahalbidetzea
- Indartze instituzionaleko osagai bat gaineratzea erraztea
- Plangintza estrategikoko proposamenak onartzea ahalbidetzea
- Boluntarioen gaitasunak indartzeko prozesuen finantziazioa ahalbidetzea.

Plan honen asmo da sakabanatutako ekintzak gainditzea, garapenerako hezkuntzarentzako lehentasunezko aldagaietan inpaktu handiagoa duten prozesuak planifikatuta: plangintza estrategikoa, ebaluazioa, koordinazioa.

6.2.1.- Gizarte-erakundeen *jarraipenerako eta ebaluaziorako* ahalmena indartzeko *asistentzia teknikoko eta prestakuntzako* prozesua, 2008tik aurrera.

Azaltzen ari garen garapenaren ikuspegiak bultzatzen dituen balioak txertatzeko proiektuek gizartean zenbateko eragina duten jakitea zaila izaten da. Sarri, lortu nahi dena hain da ukiezina itxuraz, edo egiaztatzeko hainbeste denbora behar izaten da, ezen prozesua ebaluatzea ezinezkotzat jotzen baita. Eta hala ere, hain justu eremu horretan da ezinbestekoa esperientzietatik ikastea.

Ikaskuntza esanguratsua honako hau da: erakundeak ezartzen duen ekintzaren helburuak sendotzeko edo aldatzeko gai dena, lorturiko emaitzen arabera. Gure eremuan, proiektuetako ekintzak burutu ostean, ekintza horiekin lorturiko emaitzen inguruko hausnarketa egiten denean lortuko da ikaskuntza esanguratsua. Proiektuaren zikloan ebaluazioa barne hartzeak kutsu pedagogiko nabarmena dakar, izan ere, landu nahi den gaiaren eta hartzaile den kolektiboaren gaineko hasierako intuizioari, baita prozeduren eta jarduera-epeen gaineko intuizioari ere, forma ematera behartzen baitu horrek. Ikasteko erabakia hartuta soilik ezar daitezke adierazle errealistak eta konprometituak, eta aurrekontu eta ekintza eraginkorrak. Dena dela, lorturiko emaitzak ez badatoz bat lortu nahi zenarekin, ebaluatzeko hasierako asmoari esker, plangintzaren ahulguneak identifika daitezke eta *porrotak* ikaskuntza gisa barne hartu; gezurra badirudi ere, horrek guztiak erakundea sendotu egiten du.

6.2.2.- Asistentzia teknikoko eta plan estrategikoen eta ekintza-planen formulazioko prozesua garapenerako hezkuntzan, 2009. urtean

Erakundeak sendotzeko beste oinarritzko elementu bat plangintza estrategikoa da, izan ere, plangintza horren bitartez, balio bereziak defini baitaitezke eta beste erakundeekin izan daitezkeen aliantzak eta sinergiak (aldizkakoak edo egonkorak) identifika baitaitezke, ekintzen eragina nabarmen handituz.

6.2.3.- Koordinazioko egitura publiko eta sozialak sendotzea.

Gaur egun, garapenerako hezkuntzako jarduera ugari egiten dira Euskal Autonomia Erkidegoan. Askotan, ekintza horiek ez dute inolako loturarik, baina maiz, bereizten dituen xehetasunak baino ez dira izaten, eta ondorioz, ekintzek izan dezaketen eragina barreiatu egiten da. Prozedurak eta lan-eremuak errepikatzearen arrazoa honako hau da: erakundeek ez dute bata bestearen berri izaten, ez testuinguru bakoitzean sortzen diren eztabaiden berri, ezta unearen arabera, hainbat instantzian hasitako hausnarketa-prozesuen berri ere. Hori horrela izanik, baliabideak ez dira behar bezainbat baliatzen eta tartean sartutako eragileak agortu egiten dira, baina hori guztia saihestu beharrekoa da.

Eragile horiek koordinatuta eta elkarren berri izanda, helburuen eragina areagotu egingo da, dela *estaldura txikia* zuten guneak eta landu beharrekoak atzematen direlako, dela erakundeek (edo erakundeek eta instituzioek) bat egiten duten puntuak topatzen direlako, puntu horietan oinarrituta, haien jarduerak elkar osatu eta indartu daitezkeela.

Horrela, ezinbestekoak diren lau koordinazio-maila ezarri dira, Zuzendaritza honen laguntzarekin:

- Eusko Jaurlaritzaren, gainerako euskal instituzioen eta GGKEen arteko koordinazioa indartzea, Lankidetzarako Euskal Kontseiluaren barruan, eta arestian adierazitako indartze-prozesuak prestatu eta martxan jarrita.
- Erakunde-arteko lankidetzaren sendotzea, Erakunde-arteko Batzordearen barruan, Eusko Jaurlaritzaren departamentuak barnean hartuta.

- Partzuergoak, akordioak eta sinergiak sustatzea garapenerako gizarte-erakundeen eta hezkuntza-entitateen artean.

6.2.3.- VI.3 azpi-jarraibidea: Aurrekontu-bide egonkor bat finkatzea Garapenerako Hezkuntzarentzat

Erantzukidetasun-printzipioa aplikatzen bada, Planak fondoek zati handi bat bideratu beharko du garapenerako hezkuntzaren ekimenetara. Beraz, ereduaren esparru teoriko argi bat izateaz gain, eta estrategia espezifiko bat aurkezteaz gain –GGKEen eta beste gizarte-erakunde batzuen indartze instituzionalean oinarritua–, aurrekontu-bide egonkorra eta Plan osoarekiko koherentea bermatu beharra dago.

Hortaz, Garapenerako Hezkuntzak sektorialki banagarriak diren fondoek % 6tik 9ra bitarteko finantziario-ehunekoa izango du Planaren aurrekontu-ekitaldi guztietan.

VII. Jarraibidea: Eusko Jaurlaritzaren lankidetzarako aurrekontua nabarmen handitzea, 2012an % 0,7 lortzeko helburua ezarriz

1/2007 Legearen funtsezko helburua garapen-lankidetzaren alderdi nagusiak (ez aurrekontuei dagozkienak) arautzea bada ere, aurreikuspen bat ere bildu du garapen-lankidetzak Aurrekontu Orokorretan izan behar duen diru-zuzkidurari buruz. Lege horren bigarren xedapen gehigarriak, "*Euskal Autonomia Erkidegoaren garapen-lankidetzarako baliabideak*" izenekoak, honako hau adierazten du:

"Nahiz eta aurrera egin behar den, gainerako herri-administrazioekin batera, produktu gordinaren % 0,7 betetzeko bidean, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak arian-arian gehituko ditu garapen-lankidetzarako eta nazioarteko elkartasunerako ekarpenak, 2012ko aurrekontu orokorretan ezarritako gastu osoaren % 0,7 izan daitezen".

Adierazitako xedapenari dagokionez, azpimarratzekoa da lege-mailako arau batean % 0,7ko helburua jasotzea eta hori lortzeko epe jakin bat ezartzea, Eusko Jaurlaritzaren garapenerako lankidetzaren politikaren finantziazioan aurrerapen bat delako. Gainera, ereduzko ehunekoa Eusko Jaurlaritzak urtero eskura duen gastu-aurrekontuari dagokio.


Kontuan izan behar da Euskal Autonomia Erkidegoaren Garapenerako Laguntza Ofizialaren guztizko zenbatekoa (BPGaren % 0,7ko helburuarekin lotu behar dena, 1/2007 Legean ere adierazten dena) Euskadiko herri-administrazioek garapenerako lankidetzari egindako ekarpenen batura dela, eta baita Estatuko ekarpenetatik euskal herritartasunari dagokion zatiaren batura ere. Era berean, kontuan izan behar da Euskal Autonomia Erkidegoaren sistema instituzionalak berezitasun handiak dituela horri dagokionez, izan ere, Foru Aldundien garrantzi politiko eta ekonomikoa Estatuko beste Erkidego batzuen Probintziako Diputazioenak baino askoz handiagoa baita, eta, gainera, udal-lankidetzaren sendotua dauka Udal askotan.

Eusko Jaurlaritzarentzat adierazitako aurrekontu-helburua urtero ezartzeari dagokionez, aurreikusitako ehuneko-bilakaera ondorengo taulan adierazten da. 2012. ekitaldia berez Plan honen indarraldian ez dagoen arren, gaineratu egin da, 1/2007 Legean ezarritako helburua betetzeko prozesuaren amaiera egiaztatzen duelako.

Urtea	Aurrekontuaren gainerako ehunekoa
2008	% 0,48
2009	% 0,52
2010	% 0,57
2011	% 0,63
2012	% 0,70

Datozen urteetako aurreikuspenak eta garapen-lankidetzari dagokionez, aurreko aurrekontu-ibilbideak batzen baditugu, ondorengo grafikoan guztizko bilakaera ikus dezakegu. 2008. urtearen ondorengo ekitaldien aurrekontu-zuzkidura aurreikuspena

baino ez da, arestian adierazitako ehunekoak urteko % 5eko aurrekontu-hazkunde hipotetiko baten gainean aplikatuta.



Egiazta dezakegunez, dauzkagun zifra adierazleek eta Legean ezarritako konpromisoak lankidetzarako fondoaren igoera-bide sendoa ezartzen dute. Aurreikuspen honek bermatu egiten du euskal lankidetzak hurrengo urteetarako dituen erronka garrantzitsuei aurre egiteko beharrezkoa den oinarri ekonomikoa. Plan honetan adierazi dugunez, lankidetzaren fenomeno konplexua bihurtu da, eta garapenaren moduan, kontzeptu konplexua da. Beraz, ezin dira neurri sinpleak aplikatu helburu dinamiko, alderdi anitzeko eta sakontzat, batez ere aldatzearen aurka dagoen eredu baten eraginpean.

Ildo honetan, Planak –ereduzko esparru teoriko argi batean oinarritua– konpromiso eta lan-ildo handinahi batzuk ezartzen ditu, alegia, garatzen dituzten egitura publiko eta sozialetan, eta egitura horiei eusten dieten eragileen gaitasunen indartzean, ekimenen inpaktu estrategikoan aurrera egin nahi duten konpromiso eta lan-ildoak.

Hain zuzen ere, Estrategia – Egitura – Eragileak trinomioa bermatzeko, ezarritakoaren moduko aurrekontu-esparru bat behar da, hiru arloen gainean sistematikoki eta modu osagarrian jarduteko aukera emango duena, Eusko Jaurlaritzak bultzatutako lankidetzaren inpaktu eta kalitate globala ekarriz.

Hala ere, puntu honetan gogora ekarri behar da euskal lankidetzaren aldeko bultzada ekonomiko honek, bere kabuz, ez duela ezarritako helburuak lortzen utziko. Planak aldaketa garrantzitsu batzuk definitzen ditu lankidetzaren egituretan, esparru teoriko koherente bat eta tresnen esparru koherente bat, eta baita lehentasuneko eragileak indartzeko lan-arlo batzuk ere. Baina, hala ere, ezinbestekoa da inplikaturiko alderdi guztiek beren erantzukizuna beren gain hartzea.

Era horretan, soilik lankidetzarako eragile publiko eta sozialen erantzukizuna eta konpromisoa azken bermea da lankidetzaren eraldatzaile, kalitatezko, koherente eta koordinatu bat garatzeko.

Laburpen gisa, Planean ezarritako aurrekontu-konpromisoak eta zifra adierazleak adieraziko ditugu jarraian. Konpromisoak honako hauek dira:

2012. urterako Aurrekontu Orokorretan esleitutako guztizko gastuaren % 0,7ra aurrera egitea

Aurrekontu banagarriaren % 10 gutxienez honako hauetara bideratuko da: xede-biztanleria gisa emakumeak dituzten ekintzetara, emakumeen elkarteetara edo emakumeen eta gizonen arteko ezberdintasunak ezabatzeko berariazko helburua duten elkarteetara.

Geografikoki bana daitezkeen fondoaren guztizkoaren % 25 gutxienez ezartzea Afrikarako

Azkenik, aurrekontu-zuzkidura baliagarria egikaritzeko tresnei dagokienez, bakoitzaren bolumen ekonomiko erlatiboaren gaineko aurreikuspena jarraian ezartzen da.

TRESNA	Fondo banagarrien gaineko %
Lankidetza Proiektuak	% 55-65
Lankidetza Programak	% 20-30
Batera Finantzatzeko Hitzarmenak	% 5-10
Garapenerako Hezkuntza	% 6-8
Ekintza Humanitarioa	% 6-8
Lankideak	% 1-2
NBE Bekak	% 1-3
Berdintasunaren aldeko antolamendu-aldaketa	% 0-1
Euskadiko Gazteak Lankidetzan	% 0-1

III.- PLANAREN JARRAIPEN ETA EBALUAZIO SISTEMA

Planak helburu handi bat ezarri du –politika eraldatzailea, kalitatezkoa, koherentea eta koordinatua garatzea–, xede berbera duten zazpi helburu espezifikoekin osatua. Era berean, jarraibide bakoitzean hainbat jardun-ildo edo azpi-jarraibide konprometitu dira.

Horien guztien multzoak plangintza egituratua eta argia dakar, erronka oso desberdinekin. Lehenik eta behin, azken helburu estrategikoei gehien lotutako helburuak –hala nola, egiturazko pobrezia ezabatzea, edo multilateralismo berria eta nazioarteko herri-mugimenduak indartzea–, euskal lankidetzarekin bakarrik ezin dira bete.

Bigarrenik, kalitateari eta koordinazioari dagokionez, lankidetzarako egituren eta eragileen hobekuntzan oinarritzen diren helburuak.

Eta azkenik, konprometitutako errokak betetzeko behar adinako fondoak ezartzen dituzten eta jardun-ildoen artean baliabideak banatzen dituzten aurrekontu-helburuak.

Helburu aniztasun hori gorabehera, eta helburu bakoitza ebaluatzeko zailtasun maila gorabehera, Planak erronka handinahi bat aurkeztu du, alegia, egiturazko pobrezia arekako borrokan GLSFaren lankidetzaren betetze-maila zein den aztertzeko erronka, betiere ikuspuntu guztiak kontuan hartuta. Era horretan, fondoan banaketari edo euskal eragileen gaitasunei lotutako aldagai errazena ebaluatzeaz gain, pobrezia gainera egiazko inpaktua aztertu nahi duten ekimenak ere aurkeztu ditu.

Noski, ezinezkoa da ebaluazio orokor bat egitea, eta Euskadikoaren pareko lankidetzak batek ere ezin du inpaktu nabarmen bat izan mundu mailan. Baina, Planak ezartzen duenez, lankidetzaren helburua honako hau da: subjektu politikoak sendotzea, garapen-aukera bidezkoak eta berdintasunezkoak sortzea, eta nazioarteko mailan eragitea. Eta termino hauetan, zalantzarik gabe, posiblea da lurralde espezifikoetako egiturazko pobrezia gainera inpaktua neurtzen saiatzea, alegia, euskal lankidetzaren kontzentrazio-maila txiki bat duten, eta Planak aplikatu nahi dituen kalitate-aldagai guztiak dituzten lurraldeetan: plangintza, koordinazioa, sakontasuna, konektibitatea, erantzukidetasuna.

Azken batean, arlo guztien ebaluazio integralarekin bakarrik –estrategia, egitura, eragileak eta fondoak– balora daiteke gure lankidetzak, eta etorkizunerako ikasitako lezioak atera.

Era honetan, jarraipen- eta ebaluazio-sistema honako hau izango da:

- Planak **Helburuen, Jarraibideen eta Adierazleen Matrize** bat formulatu du –jarraian aurkeztu da–, eta planaren azterketarako eta jarraipenerako oinarria izango da. Matrize horrek hainbat alderdi kuantitatibotan eta kualitatibotan oinarritzen du Estrategiaren jarraipena. Hala ere, ezarritako helburuen betetze-mailaren bilakaerari, aurrerapenei eta atzerapenei buruzko informazio progresiboa eta zehatza lortzeko aukera ematen dute alderdi horiek.

- Aurrekontu-ekitaldi bakoitzaren amaieran, Eusko Jaurlaritzak matrizean ezarritako adierazle eta jarraibide bakoitzaren jarraipen-txosten bat aurkeztuko dio Lankidetzarako Euskal Kontseiluari eta Erakunde-arteko Batzordeari.
- Planaren indarraldiaren erdia igaro ondoren, Eusko Jaurlaritzak jarraibide eta jardun-ildo espezifiko batzuk ebaluatu ahal izango ditu, ezarritako helburuen betetze-maila hobea lortzearren.
- Planaren indarraldian, Eusko Jaurlaritzak Planaren alderdi espezifikoaren garapena ebaluatu ahal izango du.
- Planaren indarraldia amaitu ondoren, Eusko Jaurlaritzak betetze-maila ebaluatuko du Planaren helburuetan eta jarraibideetan, eta Lankidetzarako Euskal Kontseiluari eta Erakunde-arteko Batzordeari aurkeztuko die. Dokumentu hori formulatzeko, ebaluazio partzialak egin beharko dira:
 - Euskal lankidetzaren eraldaketako, kalitateko, koherentziako eta koordinazioko arloetan betetze-maila aztertuko da Herrialde Estrategietan sartuta dauden eta euskal eragileen metaketa jakin bat duten hiru lurraldetan gutxienez.
 - Ebaluazio-prozesu espezifiko bat ahalbidetuko da indarraldian finantziario handiena izan duten 15 GGKEentzat, Planaren proposatutako lankidetzaren ereduarekiko egokitzapen-maila balioesteko.

Helburuen, Jarraibideen eta Adierazleen Sistema

ERREFERENTZIA	JARDUERA	ENTITATE ARDURADUNA	ADIERAZLEAK
<p>Planaren Helburua</p>	<p>Eraldatzailea, koherentea, koordinatua eta kalitatezkoa izango den lankidetzaren politika garatzea, egiturazko pobrezia ezabatzean oinarrituta.</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Eusko Jaurlaritzaren Garapen Lankidetzarako Zuzendaritza - Eusko Jaurlaritza - Euskadiko Lankidetzaren Eragileak - Hegoaldeko Garapen Eragileak - Garapen Erakunde Multilateralak 	<ul style="list-style-type: none"> ▪ GGKEek eta gizarte-mugimenduek gizarteraldaketako sareak sortzen eta ezartzen dituzte Euskadin eta nazioarteko mailan. ▪ Eusko Jaurlaritzak modu aktiboan parte hartzen du nazioarteko sareen bitartez multilateralismo berri baten eraikuntzan. ▪ Indarraldiaren amaieran, 3 lurralde-esperientzia espezifiko aurkezten dira –onartutako Herrialde Estrategia baten barruan–, non Planak bultzatutako lankidetzaren inpaktuaren sakontasuna ikusi ahal izango den, pobrezia ezabatzearen egiturazko ikuspegiari jarraiki. ▪ Planaren indarraldian lankidetzaren bolumen handiena lortzen duten 15 entitateek esperientzia espezifiko bat gutxienez aurkeztuko diete euskal eragileei, egiturazko lankidetzaren batekin lotutako printzipioak, helburuak eta ikuspegiak aplikatu direla adieraziz. ▪ Euskal Lankidetzaren Koordinazio Egiturak normaltasunez garatzen dituzte Lankidetzaren Legean

			<p>jasotako funtzioak, 2008tik aurrera.</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Lankidetzarako Euskal Agentzia sortzen da, eta Legean eta Plan honen jarraibideetan jasotako funtzioak garatzen ditu, 2009tik aurrera. ▪ GGKEen ahalmena handitzen da, honako hauei dagokienez: plangintza estrategikoa, jarraipen- eta ebaluazio-sistemak, genero-mainstreaminga, eragin politikoa.
<p>I. Jarraibidea</p>	<p>Eusko Jaurlaritzak bultzatutako lankidetzarako ereduak esparru teorikoa zehaztea</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Eusko Jaurlaritzaren Garapen Lankidetzarako Zuzendaritza - Euskadiko Lankidetz Eragileak - Hegoaldeko Garapen Eragileak 	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Planaren esparruan bultzatutako lankidetzaren Helburuari jarraitzen diote. ▪ Planaren esparruan bultzatutako lankidetzaren ekimen guztiek honako linea hauek gaineratzen dituzte zeharka: tokiko ahalmenak, parte-hartzea, antolamendua, genero-berdintasuna, giza eskubideak, iraunkortasun ekologikoa. ▪ Planaren esparruan bultzatutako lankidetzaren ekimen guztiak definitutako sektore-arloen barruan kokatzen dira: lehentasunezko gizarte-beharrak, herri-ekonomia, tokiko boterea, emakumeen ahalduntzea, giza eskubideak eta kultura-nortasuna. ▪ Genero-mainstreaminga lankidetzaren ekimen

			espezifikoetan gaineratzeko estrategia hobetzen da.
II. Jarraibidea	Geografia-inpaktua kontzentratzea, modu planifikatu eta koordinatuan	<ul style="list-style-type: none"> - Eusko Jaurlaritzaren Garapen Lankidetzarako Zuzendaritza - Euskadiko Lankidetzaren Eragileak 	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Geografikoki bana daitezkeen fondoaren % 90 gutxienez bideratzen da lehentasunezko 22 herrialde eta herrietara. ▪ Geografikoki bana daitezkeen eta aurretiaz konprometitu ez diren fondoaren % 10etik, % 80 gutxienez GGI ertain eta txikia duten herrialdeen ekimenetara bideratzen da. ▪ Geografikoki bana daitezkeen fondoaren % 25 gutxienez bideratzen da Afrikako ekimen eta prozesuetara ▪ Modu parte-hartzailean 6 Herrialde Estrategia formulatzen dira gutxienez, lehentasunezko herrialde eta herrien barruan ▪ Herrialde Estrategia bakoitzak lehentasunezko helburuak, erronkak eta jardun-ildoak planifikatzen ditu, koordinazio-egiturak sortzen eta ezartzen ditu, eta eragin politikoko eta sentsibilizazioko lerroak definitzen ditu.

<p>III. Jarraibidea</p>	<p>Eusko Jaurlaritzak bultzatutako lankidetzaren lehentasunezko eragileei babes instituzionala ematea</p>	<p>- Eusko Jaurlaritzaren Garapen Lankidetzarako Zuzendaritza</p> <p>- Euskadiko Lankidetz Eragileak</p> <p>-Euskal Lankidetzaren Koordinazio Egiturak</p>	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Lankidetzarako Euskal Agentzia sortzen da 2008. urtean ▪ Agentziak honako hauek ditu 2009. urtean: Genero berdintasunaren Aldeko Ekintza Plan Estrategiko bat, Kudeaketa Sistema bat, eta Jarraipenerako eta Ebaluaziorako Sistema bat. ▪ Berdintasunaren aldeko Antolamendu Aldaketarako Diagnosiak eta Ekintza Planak formulatzeko urteko laguntzen Dekretua onartzen da 2008. urtean. ▪ 2008. urtean, martxan jartzen da prestakuntzako eta asistentzia teknikoko prozesua Afrikan lan egiten duten euskal entitateentzat eta lehentasunezko herrialde esanguratsuenen entitate afrikarrentzat, proiektuaren bizitza-zikloaren ikuspegi integral baten inguruan. ▪ 2009. urtean, martxan jartzen da prestakuntzako eta asistentzia teknikoko prozesua jarraipen- eta ebaluazio-sistemetan. ▪ Martxan jartzen da kalitatearen –inpaktuarena eta erakundeena– arloko prestakuntzako eta asistentzia teknikoko prozesua, 2010. eta 2011. ekitaldietan. ▪ Zeharkako kostuen gehieneko zenbatekoa % 9ra handitzen da proiektuetan, programetan, eta ekintza
--------------------------------	--	--	---

			<p>humanitarioko proiektu eta estrategietan, 2009. urtetik aurrera.</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Lankidetzarako Euskal Kontseilua sortzen da 2008. urtean. ▪ Garapen Lankidetzarako Erakunde Arteko Batzordea sortzen da 2008. urtean. ▪ GGKEekin eztabaidatzeko eta hausnarketarako egiturei eta guneei eusten zaie.
IV. Jarraibidea	Lankidetzatresnez osatutako esparru koherentea diseinatzea	<p>Eusko Jaurlaritzaren Garapen Lankidetzarako Zuzendaritza</p> <p>Euskadiko Eragileak Lankidetzatresnez</p>	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Urteko Plana ezartzen da pogramazio-tresna gisa ▪ PROGRAMAK finkatzen dira lehentasunezko tresna gisa, fondo banagarrien % 20-30eko urteko aurrekontu adierazlearekin. ▪ PROIEKTUAK finkatzen dira, fondo banagarrien % 55-65eko urteko aurrekontu adierazlearekin. ▪ HITZARMENAK finkatzen dira, tresna estrategiko gisa, eta honako helburu espezifiko hauekin: nazioarteko mugimendu feminista eta nekazarien mugimendua indartzea; multilateralismo aktibo berri baten eraikuntza bultzatzea; erakundeen arteko lankidetzatresnez sendotzea; Herrialde Estrategiak osatzea;

			<p>lehentasunezko eragileen gaitasunak indartzea; giza eskubideen proiektuak bultzatzea.</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Genero BERDINTASUNAREN ALDEKO ANTOLAMENDU ALDAKETARAKO prozesuei laguntzeko tresna sortzen da 2008. urtean, diagnosi parte-hartzaileen eta berdintasunaren aldeko ekintza-plan estrategikoen finantziazioaren bitartez, aurrekontu-ekitaldi bakoitzerako partida espezifikoarekin. ▪ LANKIDEENTZAKO LAGUNTZAK finkatzen dira, fondo banagarrien % 1-2ko urteko aurrekontu adierazlearekin. ▪ NAZIO BATUEN PROGRAMETAN PARTE HARTZEKO BEKAK finkatzen dira, fondo banagarrien % 1-3ko urteko aurrekontu adierazlearekin
V. Jarraibidea	Giza ekintzaren aldeko politika koherentea finkatzea, epe luzerako garapena ahalbidetzeko	<ul style="list-style-type: none"> - Eusko Jaurkitzaren Garapen Lankidetzarako Zuzendaritza - Euskadiko Lankidetzaren Eragileak, bereziki ekintza humanitarioan espezializatuak daudenak - Ekintza Humanitarioko Erakunde Multilateralak 	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Ekintza Humanitarioko ekimen guztiek definitutako helburuari jarraitzen diote, eta baita ereduazko esparru teorikoan ezarritako ikuspegiari ere. ▪ Ekintza Humanitariora fondo banagarrien % 6tik 8ra bitarte bideratzen da. ▪ Ekintza Humanitarioko Proiektuen tresnari eusten zaio, Ekintza Humanitarioko fondoan % 50akin.

			<ul style="list-style-type: none"> ▪ Ekintza Humanitarioko Esparru Estrategien Tresna sortzen da, Ekintza Humanitarioko fondoek % 50ekin.
VI. Jarraibidea	Garapenerako Hezkuntzaren inpaktuan aurrera egitea	<ul style="list-style-type: none"> - Eusko Jaurlaritzaren Garapen Lankidetzarako Zuzendaritza - Euskadiko Lankidetzaren Eragileak, bereziki Garapenerako Hezkuntzaren estrategia dutenak - Gizarte-erakundeak 	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Garapenerako Hezkuntzako ekimen guztiek definitutako helburuari jarraitzen diote, eta baita ereduak esparru teorikoan ezarritako ikuspegiari ere. ▪ Garapenerako Hezkuntzara fondo banagarrien % 6tik 8ra bitarte bideratzen da. ▪ 2008. urtean, martxan jartzen da prestakuntzako eta asistentzia teknikoko prozesua Garapenerako Hezkuntzako eragileen jarraipen- eta ebaluazio-gaitasunak indartzeko. ▪ 2009. urtean, martxan jartzen da prestakuntzako eta asistentzia teknikoko prozesua plan estrategikoetan eta ekintza-planetan. ▪ Garapenerako Hezkuntza finkatzen da Lankidetzarako Euskal Kontseiluaren eta Erakunde-arteko Batzordearen barruko lan-arlo gisa.

<p>VII. Jarraibidea</p>	<p>Eusko Jaurlaritzaren lankidetzarako aurrekontua nabarmen handitzea, helburu gisa 2012an % 0,7 lortzea ezarri</p>	<p>- Eusko Jaurlaritza</p>	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Aurrekontu-bide adierazle egonkorra dago 2008-2011 aldirako, 2010eko Aurrekontu Orokorretan esleitutako gastuen guztizkoaren % 0,7 lortzeko aurreikuspenarekin: % 0,48 (2008), % 0,52 (2009), % 0,57 (2010), % 0,63 (2011). ▪ Aurrekontu-bide adierazle egonkorra dago 2008-2011 aldirako, 2010eko Aurrekontu Orokorretan esleitutako gastuen guztizkoaren % 0,7 lortzeko aurreikuspenarekin: % 0,48 (2008), % 0,52 (2009), % 0,57 (2010), % 0,63 (2011). ▪ Aurrekontu banagarriaren % 10 gutxienez honako hauetara bideratzen da: xede-biztanleria gisa emakumeak dituzten ekintzetara, emakumeen elkarteetara edo emakumeen eta gizonen arteko ezberdintasunak ezabatzeko berariazko helburua duten elkarteetara. ▪ Geografikoki bana daitezkeen fondoaren guztizkoaren % 25 gutxienez bideratzen da Afrikako ekimen eta prozesuetara
------------------------------------	--	----------------------------	--

ⁱ Ondasun publikoak honako hauek dira: produzitutakoan, jende guztiarentzat —salbuespenik gabe— eskuragarri daudenak. Horretaz gain, ondasun *ez-baztergarriak* (hau da, norbaitek ezin du mugatu bestek kontsumitzea) eta *ez-aurkakoak* (norbaitek kontsumitzeak ez du eragozten besteren kontsumoa) dira.

ⁱⁱ Nazioarteko komunitateak ezarritako helburu ugarien artean, hauek nabarmen ditzakegu: Beijing-eko Goi-bilerakoak, Kyotoko Protokoloa, herrialde pobretuenentzako Zorra Kitatzeko Konpromisoak, edo garapenerako laguntza ofiziala handitzea ezarri duten goi-bilerak.

ⁱⁱⁱ Eguneroko diru-sarreraren baremoak munduko analisi agregatuak egiteko soilik dira baliagarriak, baina ez dituzte agertzen pobrezia-errealitate guztiak eskualdeko testuinguruen arabera; kasu horretan, bestelako tresnak behar dira, esaterako, pobrezia-atalaseak edo -lerroak. Gainera, pobrezia-errealitate ekonomikoa baino ez dute neurtzen, eta fenomeno horrek beste hainbat alderdi ere hartzen ditu barnean; hala nola, politika, gizarte-arloa, kultura, eta abar.

^{iv} Milurtekoko helburuak

^v Jarraian emango diren datu guztiak txosten horretatik atera dira.

^{vi} ELGAren GLBren datuak

^{vii} Laguntzaren errealitatea 2007-2008, Intermón -Oxfam

^{viii} Definizio hori honako hiztegi honetako definizioan oinarritua dago: Pérez de Armiño, Karlos (zuz): *Diccionario de Acción Humanitaria y Cooperación al Desarrollo*, 220. or.

^{ix} Raúl Zibechi 2005, Artículo Espacios, territorios y regiones: la creatividad social de los nuevos movimientos sociales en América Latina. Revista Contrahistorias, Chiapas, México.

^x Euskadiko GGKEen koordinatzailearen “Perspectiva de Género en las ONGD vascas” lanean esana.

^{xi} Marshall Salins, honako honetan aipatua: *Nuestra Diversidad Creativa: Informe de la Comisión Mundial de Cultura y Desarrollo*, Ediciones UNESCO, Paris, 1996.

^{xii} Hain justu emakumeek pairatzen dituzte zuzen-zuzenean neoliberalismoaren ondorioak. Historian zehar, ugalketa-rola soilik izan dute, baina produkzio-errealitate hasten direnean, batez ere sektore informalean sartzen dira, edo baldintza txarrenak eta soldata txikiak dituzten postuetan.

^{xiii} Albuquerque, Francisco: *Tokiko Garapen Ekonomikoa eta Garapenerako Lankidetzaren Deszentralizazioa*

^{xiv} FAOSTAT Data Base Results

^{xv} Produkzioaren eragingarritasun handienaren frogatzat aurkezten diren ikerketetan, produkzio transgenikoa eta iraultza berdearen metodoak alderatzen dituzte; iraultza berdean baliabideen erabilera bai da eragingarriagoa, baina nekazaritza ekologikoarekin alderatuz gero, orduan ez, azken horretan ez baitute kimikorik erabiltzen.

^{xvi} *EAEko emakumeen eta gizonen berdintasunerako IV. Planaren oinarritua. VIII. Legealdirako Jarraibideak*, Emakunde Emakumearen Euskal Erakundearen zuzendaria.

^{xvii} *EAEko emakumeen eta gizonen berdintasunerako IV. Planaren oinarritua. VIII. Legealdirako Jarraibideak*, Emakunde Emakumearen Euskal Erakundearen zuzendaria.

^{xviii} Honako honetan oinarritua: Leon, Magdalena. *El empoderamiento de las mujeres: encuentro del primer y tercer mundos en los estudios de género*. La Ventana, 13/2001 zenbakia.

^{xix} Lankidetzarako tresnei buruz hitz egiten dugu bakarrik, Ekintza Humanitarioa eta Garapenerako Hezkuntza jarraibide espezifikoak dira.

^{xx} Besteak beste, honako lege-testu hauekin osatua: Giza Eskubideen Deklarazi Unibertsala; Genozidio Delitua Prebenitzeko eta Zigorrezko Konbentzioa; Eskubide Zibil eta Politikoei buruzko Nazioarteko Ituna; Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Ituna; Emakumearen aurkako Diskriminazio Mota Oro Desagerrarazteko Hitzarmena; Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmena.

^{xxi} Genevako Hitzarmenak eta bere bi protokolo gehigarriak

^{xxii} Errefuxiatuen Estatutuari buruzko Konbentzioa, Errefuxiatuen Estatutuari buruzko Protokoloa, eta Barne Desplazamenduen Printzipio Gidariak